



SEXOLOGIAKO HIZTEGIA



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

SEXOLOGIAKO HIZTEGIA

Iñaki Ugartebururen omenez

Zuzendaria: Nerea Sancho Esnaola

Aholkulari teknikoa: Itziar Alonso-Arbiol

Hizkuntza-arduraduna: Juan Kruz Igerabide Sarasola

Hizkuntza-begiralea: Iñigo Roque Eguzkitza

Hizkuntza-laguntzailea: Amaia Apalauza Ollo

Frantseseko eta Ingeleseko begiraleak: Emilio López Adán, Dyana Draper

Euskal Herriko Unibertsitatea

Euskara Zerbitzua

Psikologia Fakultatea

ISBN: 978-84-9860-693-5

UPV/EHU, 2012

HITZAURREA

Hiztegi hau sexologian adituak direnen eta hizkuntzalarien arteko elkarlanaren emaitza da, eta bi helburu nagusi ditu: batetik, sexologian euskaraz erabiltzen den terminologia zehazteko eta sistematizatzeko beharrari erantzutea, eta, bestetik, alorrari dagozkion terminoak ikuspegi sexologiko batetik definitzea.

Gaur egun sexu-hezkuntza Euskal Herriko ikastetxe askotan euskaraz eskaintzen den arren, oraindik ez dugu ikuspegi zientifiko-teknikotik eginiko euskarazko sexologia-hiztegiarik; hala, bada, lehen urrats bat eman nahi izan dugu alor honetako terminologia finkatzeko eta sustatzeko, jakinik betiere oraindik hutsune ugari geratzen dela betetzeko.

Euskaraz sexualitateaz beste ikuspegi batetik diharduten hiztegi on gutxi batzuk badiren arren, testuinguru profesionalean erabilgarria izateko asmoarekin egin dira hiztegi honetako definizioak. Hiztegi orokorretan, edota espezifikoak diren beste batzuetan (esaterako, hiztegi erotikoak) agertzen diren terminoak ez dira ikuspegi profesional batetik landuak, eta sarri gizartean errotuta dauden joera batzuk (sexismoa, koitozentrismoa, orgasmozentrismoa, falozentrismoa, eta abar) islatzen dituzte. Gure ikuspegi sexologikotik, emakumea ez da definitu behar gizona abiapuntutzat harturik; bestalde, ez dira sinonimoak koitoa eta sexu-harremanak, edo topaketa erotikoen helburu nagusia ez da orgasmoa, edo tradizionalki zakila baginan sartzeak berekin zekarren aktibotasun/pasibotasun dikotomia apurtu beharra dago, bestek beste.

Era berean, zenbait hiztegitan ikus daitezke zabal deskribaturik erotismoarekin lotzen diren “filiak” (parafiliak): pedofilia, asfiziofilia, urofilia, eta abar. Hiztegi honetan, morbotik aldendu nahi izan dugu, sexualitatearen eta erotismoaren ñabardura azalduz eta ulertaraziz, baina morbo-konnotazio hori bilatu gabe. Izan ere, hemen sartu diren terminoak aukeratzean, gaika proportzio bat bilatzen saiatu gara. Sexualitatea genitaletatik harago doala ulertzen dugunez, inplikatzeko dituen alorrak modu orekatuan lantzen saiatu gara, betiere geure ahalen neurrian. Gauzak horrela, definitu ditugun terminoak honako alor hauetakoak dira: gizarte alorrekoak, anatomiaren eta fisiologiaren alorrekoak, ugalketa eta familia kontzeptuei lotutako alorrekoak, erotismoaren eta sexu-jokabidearen alorrekoak, osasun eta arreta alorrekoak, eta hezkuntza alorrekoak.

Ondorioz, zenbait lanbidetako profesionalentzat lagungarri gertatuko den dokumentua dela deritzogu. Hasteko, sexologiako profesionalentzat noski; baina, orobat, hezitzaileentzat, idatzizko zein ikus-entzunezko komunikabideetan lan egiten dutenentzat, osasun arloko hainbat profesionalentzat (erizainak, ginekologoak, psikologoak), eta kultura alorreko profesionalentzat oro har.

Hiztegia era honetan dago antolatutik: lehenik, terminoa euskaraz ematen da, alfabetikoki, letra handiagoz. Ondoren, sarrera bakoitzaren azpitik, ordainak gazteleraz (ES), frantsesez (FR) eta ingelesez (EN) agertzen dira. Azkenik, terminoaren definizio laburra azaltzen da euskaraz.

Egileok argi utzi nahi dugu lehen edizio hau hasiera baino ez dela. Hemen agertzen diren terminoak gure ustez guztiak agertu beharrekoak dira, baina agertu beharreko guztiak ez daude hemen. Edizio hau profesional ororen iradokizunei irekita dago orain, terminoak zein definizioak aztergai jartzen ditugu, hurrengo edizioetan zabalduz eta osatuz joateko.

Gure lankidea zen Iñaki Ugarteburu mediku eta filologoari eskaini nahi diogu lan hau, bera izan baitzen hasierako egitasmoaren bultzatzaileetako bat. Bedi gure omenaldi xume hau haren gogoangarri.

Nerea Sancho, Itziar Alonso-Arbiol, Juan Kruz Igerabide



ABC estrategia:

ES:	estrategia ABC
FR:	stratégie ABC
EN:	ABC strategy

iz. Familia-planifikaziorako aholkua, gazteei zuzendua, ikuspegi kontserbadoretik egina.

Nahi gabe haurdun ez geratzeko eta sexu bidezko gaixotasunak saihesteko, honako jokabide hauek gomendatzen dituzte:

a (abstinente): sexu-abstinentzia,

b (be faithful): bikote monogamoari leial izatea,

c (condoms): kondoiak erabiltzea.

abdomen:

ES:	abdomen
FR:	abdomen
EN:	abdomen

iz. Gorputzeko barrunbe bentralaren beheko zatia. Diafragmaz azpiko erraiak ditu barruan.

Ikus: sabel.

abdominal:

ES:	abdominal
FR:	abdominal
EN:	abdominal

izond. Sabelekoa, edo sabelaldeari dagokiona.

Ikus: sabel.

abenduaren 1a:

ES:	1 de diciembre
FR:	1er décembre
EN:	1st December

sint. er. Hiesaren Munduko Eguna (OMS). 2006ko abenduaren 1a: Hiesaren Kontrako Borrokaren Munduko Eguna

aberrante:

ES:	aberrante
FR:	aberrant
EN:	aberrant

izond. (jokabideari edo funtzioei dagokienez) Aberraziotzat hartzen dena.

aberrazio:

ES: aberración

FR: aberration

EN: aberration

iz. Funtzioen anormaltasuntzat jotzen den desbideratzea.

ablazio:

ES: ablación

FR: ablation

EN: ablation

iz. Gorputzaren zati bat erauztea edo banatzea. Kirurgia bidez egin ohi da.

Klitoriaren ebaketari dagokio, oro har. Sarritan, ezpain handiak nahiz txikiak erauzi eta josi egiten dira aldi berean. Tradizioz zenbait lurraldetan praktikatzen da, emakumeen sexu-gozamena mugatzeko asmoz. Ez du helburu terapeutikorik izaten. Ablazioren ondorioz, sarketa eta erditzea mingarriak gertatzen dira.

Ikus: infibulazio, klitoridektomia.

abolizionismo:

ES: abolicionismo

FR: abolitionnisme

EN: abolitionism

iz. Etikaren eta giza eskubideen aurkako legeak kentzea bultzatzen duen doktrina; batik bat, esklabotzaren aurkako mugimenduari jarri izan zaio izen hori.

abortatu:

ES: abortar

FR: avorter

EN: abort

ad. Haurra galdu edo haurdunaldia eten. Berezkoa –fetua hilik dagoelako edo beste arazoren batengatik– zein nahita egindakoa –bitarteko mekanikoak edo kimikoak erabiliz– izan daiteke.

Ikus: haurra galdu.

abortatze:

ES: aborto

FR: avortement

EN: abortion

iz. Haur-galtzea. Nahita egina, edo gorputzak berak eragina.

Ikus: abortu.

abortatzeko pilula:

ES:	píldora abortiva
FR:	pilule abortive
EN:	abortion pill

sint. er. Aho bidez ematen den farmakoa; progesteronaren kontrako substantzia bat du, progesterona beharrezkoa baita haurdunaldia ongi garatzeko. Gehienetan, farmakoa hartu eta 2 egunetik 7 egunera bitartean gertatzen da abortua. Hilekoaren antzeko odol-isuria agertzen da. Erabilerraza izatea eta umetoki-lepoa zabaltu beharrik ez izatea ditu abantailak. Zabaltze horrek hurrengo haurdunaldietan arazoak ekar ditzake. Pilulari buruzko legedian, alde handiak daude herrialde batetik bestera.

Ikus: 486 RU.

abortibo:

ES:	abortivo
FR:	abortif
EN:	abortive

izond. (Gai edo teknika bati buruz) Abortu-eragilea.

abortu:

ES:	aborto
FR:	avortement
EN:	abortion, miscarriage

1. *iz.* Abortatzeko ekintza. 2. *iz.* Abortatzen den enbrioi edo fetu hila, edo, denbora bete baino lehenago irten ondoren, amaren sabeletik kanpo bizitzeko gai ez dena.

Bi mota nagusi bereiz daitezke: nahi gabekoak eta borondatezkoak.

a) Nahi gabeko abortua. Enbrioia edo fetu hila bota aurreko egunetan, odol-galerak eta gerrialdeko mina izaten ditu amak. Karenaren hondarrak geratzen diren kasuetan, beharrezkoa da umetokia aztertu eta legratua egitea. Bereizi behar dira: lehen hiruhileko abortua (lehenik obulua hil eta gero egozten denekoa) eta bigarren hiruhilekoa (obulua egotzi eta garatu ondoren hiltzen denekoa). Lehen hiruhilekoek gehienetan jatorri genetikoa izaten dute. Egotzitako enbrioi-ehunak aztertuz, ikusi da % 70 kasutan enbrioiek anomalia kromosomikoak izaten dituztela (trisomiak, eta abar).

Malformazio horiek honako hauek izaten dira: obulu edo espermatozoidearen meiosiaren asaldua, edo ernalketan nahiz zigotoaren lehen zatiketetan gertatzen den anomaliaren bat; ez dira, beraz, bi gurasoetako batek transmititutako anomalia kromosomiko hereditarioen baten ondorio. Bigarren hiruhileko abortuak arrazoi ugariengatik gertatzen dira.

Horrelakoetan, zigotoz kanpoko eragileak (sarritan, umetokikoak) izaten dira abortuen kausa. Batzuetan, enbrioiaaren infekzioen bat (listeriosia, esate baterako) izan liteke abortuaren eragilea.

b) Borondatezko abortua. Bi teknika mota bereiz daitezke: goiztiarrak eta berantiarrek, hirugarren hilabetearen aurretik edo ondoren egiten diren. Teknika goiztiarretan, legratua eta umetoki barneko xurgatzea erabiltzen dira. Sistema hori lehenbiziko sei asteetan anestesiarik gabe erabil daiteke. Seigarren astetik hamabigarren astera bitartean, xurgatzea anestesia bidez eta xurgagailu elektrikoekin egin behar da. Teknika berantiarretan, berriz, amnios barneko serum-injekzioak edo prostaglandina-injekzioak erabiltzen dira.

abortu arriskutsu:

ES:	aborto inseguro
FR:	avortement dangereux, avortement à risque
EN:	unsafe abortion <i>sint. er.</i> Behar bezala prestatuak ez daudenean eginiko abortua, edo gutxienean baldintza mediko edo higienikoren gabea.

abruptio placentae:

ES:	abruptio placentae
FR:	abruptio placentae
EN:	abruptio placentae <i>sint. er.</i> Karrera desitxatzea. Karrera behar baino lehen askatzea umetokiaren hondotik, fetua barruan dela.

absinta:

ES:	absenta
FR:	absinthe
EN:	absinthe <i>iz.</i> Batik bat asentsio-belarrez (beste belar eta lore batzuk nahasirik) eginiko edari alkoholikoa (89,9 gradu izatera irits daiteke). Haur-galtzea eragin dezake.

abulia:

ES:	abulia
FR:	aboulie
EN:	abulia <i>iz.</i> Nahimenaren galera edo murriztapena. Sexualitateari dagokionez, grina falta.

abuliko:

ES:	abúllico
FR:	aboulique
EN:	apathetic 1. <i>izond.</i> Abuliari dagokiona. 2. <i>izond.</i> Abuliak jotakoa, grina gabea.

abusu:

ES:	abuso
FR:	abus
EN:	abuse <i>iz.</i> Gehiegikeria. Ikus: sexu-abusu.

abuztuaren 12a:

ES:	12 de agosto
FR:	12 août
EN:	12th August <i>iz. sint.</i> Gazteriaren Nazioarteko Eguna

abuztuaren 1a-7a:

ES:	Agosto 1-7
FR:	1-7 août
EN:	1st-7th August

iz.sint. Amaren Bularra Hartzearen Mundu Astea

ACTH:

ES:	ACTH
FR:	ACTH corticotrophine
EN:	ACTH corticotrophin

iz. Adenohipofisiak (aurrehipofisi ere esaten zaio) jariatzen duen hormona tropikoa. Kortikotropina ere baderitzo. Besteak beste, androgenoen ekoizpena eragiten du.

Ikus: hormona adrenokortikotropiko (ACTH).

adabaki antisorgailu:

ES:	parche anticonceptivo
FR:	timbre contraceptif
EN:	contraceptive patch

sint. er. Emakumeek haurdunaldia saihesteko larruazalean itsasten duten adabaki-itxurako tratamendu hormonalak. Astearen behin ipintzen da, hiru aste jarraituan, eta laugarrenean ez da jartzen; orduan, hilekoa etortzen da. Hormona sintetikoekin eginak dira adabakiak, estrogenoz edo progesteronaz; % 99ko eraginkortasuna dute, zuzen erabiliz gero; ez dute, ordea, GIB/hiesetik edo beste infekzioetatik babesten; preserbatiboarekin batera erabil daitezke.

adabaki transdermiko:

ES:	parche transdérmico
FR:	patch transcutané
EN:	transdermal patch

Ikus: kontrazepzio-adabaki.

adardun:

ES:	cornudo, cabrón
FR:	coqu
EN:	cuckold

izond. (Erregistro arruntekoa) Bikote batean, bietako bat desleial denean besteaz esaten dena.

adarrak jartze:

ES:	cuernos (poner los)
FR:	faire porter des cornes
EN:	put the horns

sint. er. (Erregistro arruntekoa)

Ikus: desleialtasun

adelfogamia:

ES: adelfogamia

FR: adelphogamie

EN: adelphogamy

iz. Anai-arreben arteko ezkontza instituzionalizatua, zenbait gizartetan egiten dena.

adenoma mamario:

ES: adenoma mamario

FR: adénome du sein

EN: breast adenoma

Ikus: Bularreko adenoma.

adenoma obariko:

ES: adenoma ovárico

FR: adénome de l'ovaire

EN: ovarian adenoma

Ikus: Obulutegiko adenoma.

adenomiosi:

ES: adenomiosis

FR: adénomyose

EN: adenomyosis

iz. Neoplasia-gaixotasun onbera; guruin-ehunez eta gihar-zelula liso osaturiko tumoreak ditu ezaugarri.

adierazkortasun:

ES: expresividad

FR: expressivité

EN: expressiveness

iz. Adierazteko gaitasuna, hala hitzez nola gorputzez edo beste bitartekoren bat erabiliz (kolorea, irudia, soinua...).

adiktu:

ES: adicto

FR: dépendent

EN: addict

izond. Ohitura edo substantzia baten/batzuen mende bizi dena.

Ikus: menpeko.

adikzio:

ES: adicción

FR: dépendance

EN: addiction

Ikus: menpekotasun.

adin:

ES:	edad
FR:	âge
EN:	age

iz. Norbait jaiotzen denetik igarotako denbora; lau aro nagusi bereizten dira: haurtzaroa, nerabezaroa, helduaroa eta zahartzaroa, eta sexu-garapenarekin zerikusi zuzena dute.

adiskidetasun:

ES:	amistad
FR:	amitie
EN:	friendship

iz. Maitasunaren arloetariko bat; beste gizabanako batenganako afektua, sexu-zaletasunik gabea. Oro har, elkarrenganako izaten da.

Adonis:

ES:	Adonis
FR:	Adonis
EN:	Adonis

iz. Edertasun handiko pertsonaia mitologikoa, Afroditen maitalea. Udaberriaren jainkoa da, eta edertasunaren sinbolo. Oro har, oso ederrak diren gizonezkoak izendatzeko erabiltzen da.

adoptatu:

ES:	adoptar
FR:	adopter
EN:	adopt

ad. Haur biologikoa ez dena seme edo alabatza hartu, legearen babespean.

Ikus: aitasun, amatasun, guraso.

adopzio:

ES:	adopción
FR:	adoption
EN:	adoption

iz. Ondorengo zuzena ez dena seme-alabatza hartzeko legeko ekintza.

adopzio-alaba:

ES:	hija adoptiva
FR:	filie adoptive
EN:	adopted daughter

iz. Adopzio hartutako alaba.

adopzio-azterketak:

ES:	estudios de adopción
FR:	études sur l'adoption
EN:	adoption research

iz. Gurasotzakoek (ez guraso biologikoek) hazitako pertsonen ezaugarri fenotipikoak oinarritzat hartuta egiten den ikerketa multzoa; faktore genetikoek eta inguruneak ezaugarri fenotipiko horietan eraginik ba ote duten ebaztea eta zehaztea da adopzio-azterketen helburu nagusia. Adopzio-familia bateko partaideen arteko korrelazioa aztertzen da: semetzakoen edo alabatzakoen eta gurasotzakoen artekoa eta haiek guraso biologikoekin dutena, ahaidetasun genetikorik ez duten baina familia berean hazi dituzten anai-arreben artekoa, edo familia berean hazi ez dituzten anai-arreba biologikoen artekoa.

Ikus: adopzio-seme, adopzio-alaba, adopzio-guraso.

adopzio-guraso:

ES:	padres adoptivos
FR:	parents adoptifs
EN:	adoptive parents

iz. Ume bat adopzioan hartzen duen gurasoa.

adopzio-seme:

ES:	hijo adoptivo
FR:	fils adoptif
EN:	adopted son

iz. Adopzioz hartutako semea.

adoskulazio:

ES:	adosculación
FR:	adosculation
EN:	adosculation

iz. Emakumearen ernalketa, zakila baginan sartu gabe gauzatua.

adrenosterona:

ES:	adrenosterona
FR:	hormone surrénalienne
EN:	adrenosterone

iz. Giltzurrun gaineko gurutuek jariatutako hormona; eragin maskulinizatzailea du.

adulterio:

ES:	adulterio
FR:	adultère
EN:	adultery

iz. Pertsona ezkondu batek bere bikotekidea ez den norbaitekin izandako sexu-jardueren multzoa.

adultero:

ES:	adúltero
FR:	adultère
EN:	adulterous

izond. Adulterioa egin duena.

afanisi:

ES:	afanisis
FR:	aphanise
EN:	aphanisis

iz. Goatzeko ahalmena erabat galtzea.

afektibitate:

ES:	afectividad
FR:	affectivité
EN:	affectivity

iz. Emoziozko prozesu osoa; emozioei, sentimenduei, sentiberatasunari, pasioei, afektuei, nahiari eta aldarteari dagokie. Intelektualak soilik ez diren gaitasunak dira, eta gizakiaren jokabidea gidatzen dute.

afektu:

ES:	afecto
FR:	affection
EN:	affection

iz. Emozio, sentimendu, nahi eta gogo-aldarteen multzoa.

afeminazio:

ES:	afeminación
FR:	efféminement
EN:	effeminacy

iz. Morfologia- nahiz jokabide-ezaugarri femeninoak izatea, gizonezkoetan.

afiliazio:

ES:	afiliación
FR:	affiliation
EN:	affiliation

iz. Pertsona bati berea ez den haur baten gurasotasuna ematea.

afrodisiako:

ES:	afrodisíaco
FR:	aphrodisiaque
EN:	aphrodisiac

izond. (Gai, droga, edabe edo jakiei buruz) Ustez, sexu-gaitasuna, sexu-desira, sexu-sena, kitzikadura nahiz plazer sexuala pizteko, areagotzeko edo mantentzeko ahalmena duena. Litekeena da afrodisiakotzat jotzen den gaiaren ospea izatea eraginkortasunaren arrazoi nagusia; era berean, handia da autosugestioaren eta inguruabarren eragina. Garai batetik bestera eta leku batetik bestera afrodisiakotzat jotzen diren gaiak aldatuz joan dira; haiek lortzeko zailtasunak ere badu zerikusirik horretan.

Afroditia:

ES:	Afroditia
FR:	Aphrodite
EN:	Aphrodite

iz. Maitasunaren eta edertasunaren jainkosa greziarra. Venus zeritzan Erroman.

agenesia:

ES:	agenesia
FR:	agénésie
EN:	agenesis

iz. Ernaltzeko gaitasunik eza. Organo baten nahiz haren zati baten sortzetiko gabezia.

agerian jarri:

ES:	manifestar
FR:	se manifester
EN:	state, show

ad. Ikusgai bihurtu; begi-bistan jarri.

agresibitate:

ES:	agresividad
FR:	agressivité
EN:	aggressiveness

iz. Norberarenganako edo besteenganako etsaitasun-sentimendua, batzuetan eraso-jokabide baten bidez adieraz daitekeena.

agresibo:

ES:	agresivo
FR:	agressif
EN:	aggressive

izond. Erasorako joera duena.

agresio:

ES:	agresión
FR:	agression
EN:	aggression

iz. Norbaiten edo zerbaiten aurkako indarkeriazko ekintza, modu fisikoan, sinbolikoan nahiz hitzez egina.

Ikus: eraso, sexu-eraso.

agure lizun:

ES:	viejo verde
FR:	sale vieux
EN:	dirty old man

sint. er. Joera erotikoak nabarmen erakusten dituen adineko gizona; batik bat gazteagoekiko irrits nabarmena erakusten duena.

ahaidekeria:

ES:	incesto
FR:	inceste
EN:	incest

iz. Senidetasun biologikoa nahiz familia-erantzukizuneko loturak dituzten pertsonen arteko sexu-harremana. Anai-arreben artekoa da ohikoena, gurasoen eta seme-alaben artekoa, eta osaba-izeben eta iloben artekoa. Lehengusuen artekoak ere halakotzat jotzen dira zenbait girotan.

Ikus: intzestu.

ahaidetasun genetikoaren maila:

ES:	grado de parentesco genético
FR:	degré de parenté génétique
EN:	level of genetic relationship

sint. er. Bi banakoren arteko harreman genetikoa. Familia berekoak izateagatik bi banakok partekatzen dituzten aleloen portzentajea da. Guraso eta seme-alaben arteko ahaidetasun genetikoa % 50ekoa izan ohi da; baita anai-arreben artekoa ere.

ahaldun egite:

ES:	empoderamiento
FR:	autonomisation
EN:	empowerment

sint. er. Pertsona batek gizartean bere ahalmen guztiak garatzeko prozesua, bizimodua norberaren helburuen arabera antolatzeke ahalmena eskaintzen diona. Gaur egungo gizon eta emakumeen arteko botere-harremanak aldatzea dakar ezinbestean ahaldun egiteko prozesuak prozesuak, eta, era berean, emakumea nahiz beste gizatalde batzuk baztertzten dituzten egoerak eraldatzea.

aho:

ES:	boca
FR:	bouche
EN:	mouth

iz. Aurpegiaren behealdeko barrunbea; mingainak, ezpaineak eta hortzek osatzen dute.

Gorputzeko gune erogeno garrantzitsua da. Ahoaz musukatzen da, eta haren bidez jokabide erotikoa anitz egin daitezke. Ahoak sortzen duen listuak hainbat jokabide erotikotan parte har dezake. Psikoanalisten arabera, ahoa da bizitzan izaera erogenoa duen lehen gunea. Ahoaren bidez transmititzen dira sexu bidezko zenbait infekzio.

aho-aro:

ES:	fase oral
FR:	phase orale
EN:	oral phase

iz. Garapen psikosexualaren aroa, psikoanalisiak deskribatua; jaiotzatik titia uzteraino uneraino edo ia lehen urtea betetzeraino iristen da. Aro horren hasieran, haurrak ingurukoaren behar gorria du, batik bat amarena, existentzia biopsikikoa antolatzen hasten lagun diezaizoten.

aho-genital:

ES:	bucogenital
FR:	sexe oral
EN:	oral-genital

izond. (Harreman erotikoa buruz) Ahoaren eta organo genitalen artekoa.

Ikus: aho-sexu.

ahoko:

ES:	bucal
FR:	buccal
EN:	buccal

izlag. Ahoari dagokiona.

aho-sexu:

ES:	sexo oral
FR:	sexe oral
EN:	oral sex

iz. Ahoaz ukimena eraginez gauzatzen den jokabide erotikoa. Horrelakoak dira, besteak beste, felazioak eta cunnilingusak.

Ikus: cunnilingus, felazio.

ahotiko antisorgailu:

ES:	anticonceptivo oral
FR:	contraceptive orale
EN:	oral contrafepive

sint. er. Ahotik hartzen den konposatu farmakologikoa, haurdun ez geratzeko.

Ikus: pilula antisorgailu.

ahoz beherako etzanera:

ES:	decúbito prono
FR:	décubitus ventral, en pronation
EN:	prone (position)

sint. er. Jarrera horizontala, behera begirakoa.

Ikus: ahuspez.

ahoz gorako etzanera:

ES:	decúbito supino
FR:	décubitus dorsal
EN:	supine position

sint. er. Jarrera horizontala, gora begirakoa.

ahuspez:

ES:	boca abajo
FR:	sur le ventre
EN:	prone, face down

adlag. Ahoz behera.

Ikus: ahoz beherako etzanera.

aita:

ES:	padre
FR:	père
EN:	father

iz. Seme edo alaba bat edo gehiago dituen gizona.

Ikus: aitatasun.

aita-lerroko:

ES:	patrilineal
FR:	patrilinéaire
EN:	patrilineal

izond. (Oinordekotzaz) Aitaren lerrotik datorrena; gizartea aita-semeen lerrotik, gizonezkoen bidez, antolarazten duena.

Ikus: patrilineal.

aitatasun:

ES:	paternidad
FR:	paternité
EN:	fatherhood

iz. Aita izatearen nolakotasuna. Aita denak bere seme-alabekiko duen erlazioaren kalitatea edo harreman juridikoa. Aita izateak dakarren rol eta funtzioa.

aiurri:

ES:	carácter
FR:	caractère
EN:	character

iz. Pertsona baten ezaugarri psikologikoen eta jarrerren multzoa.

akelarre:

ES:	aquelarre
FR:	sabbat
EN:	Witches' Sabbath

iz. Sorginen eta aztien biltzarra, eta biltzar hori egiten den lekua. Biltzarrean errituak ospatzen dira, aker beltza gurtuz, opariak eginez, kantatuz eta dantzatuz, orgia-giroan. Larrearen erdian, Satan gutzeko eta hari aholkuak eskatzeko gunek bat sortzen da, aberastasunak eta naturaz gaindiko ahalmenak lortzeko. Akelarrerik ezagunenetako bat Zugarramurdiko leizean egiten zena da.

akidura:

ES:	desfallecimiento
FR:	malaise
EN:	fainting

Ikus: alditxartze.

akme:

ES:	acmé
FR:	apogée
EN:	acme

iz. Sexu-jarduerako plazer-unerik gorena.

Ikus: klimax.

akne:

ES:	acné
FR:	acné
EN:	acne

iz. Larruazaleko asaldua, hormonon eraginez bilgor-guruinen gehiegizko jarduerak sortua.

Pubertaroan eta nerabezaroan oso ohikoa da aurpegian, bizkaraldean eta bularraldean agertzea. Lesioak zenbait eratakoak izan daitezke: puntu ilunak, pikortak eta pustulak.

Aknea duen nerabeak larridura senti dezake bere itxura fisikoarengatik; neska-mutil askok pertsona arteko arazotzat nahiz arazo pertsonaltzat hartzen dute aknea. Norberaren gorputz-irudian eragiten duenez, sexu-bizitzan eragin negatiboa izatera ere hel daiteke.

akromikria:

ES:	acromicria
FR:	acromicrie
EN:	acromicria

iz. Emetasun-izaera bat; morfologia-ahultasuna, gorputz atal txikiak izatea, eta indar urria ditu ezaugarri.

akrotomofilia:

ES:	acrotomofilia
FR:	acrotomophilie
EN:	acrotomophilia

iz. Gorputz atalen bat anputaturik duen bikotearekin lortzea sexu-plazera. Bikotearen motzondoak eragiten dio kitzikapen erotikoa.

aktibatu:

ES:	activar
FR:	activer
EN:	activate

ad. Jarduera bat eragin edo luzatu.

aktibatzaile:

ES:	activador
FR:	acteur
EN:	accelerator

1. *izond.* (Gaiei edo indarrei buruz) Beste gai nahiz egitura baten jarduna eragiten edo bizkortzen duena.

2. *izond.* Enbrioaren egitura anatomikoen garapena eragiten duena.

aktibazio:

ES:	activación
FR:	activation
EN:	activation

iz. Jarduera bat eragitea edo luzatzea.

aktibitaterik ez:

ES:	inactividad
FR:	inactivité
EN:	inactivity

sint. er. Gai edo egitura baten gelditasun-egoera.

aktore porno:

ES:	actor porno
FR:	acteur porno
EN:	porno performer

sint. er. Film pornoak egiten dituen aktorea.

akutu:

ES:	agudo
FR:	aigu
EN:	acute

iz. (Minari buruz) Zorrotza.
izond. (Eritasunei buruz) Hasiera azkarra, iraupen laburra eta sintoma nabarmenak dituen.

albo:

ES:	lado
FR:	côté
EN:	side

iz. Gorputz baten edo objektu baten eskuineko edo ezkerreko aldea, ez aurrez aurrekoa.

albo-etzanera:

ES:	decúbito lateral
FR:	décubitus latéral
EN:	lateral position

iz. Jarrera horizontala, albo batera begirakoa.

albo-ondorio

ES:	efecto secundario
FR:	effets secondaires
EN:	side effects

iz. Sendakuntza-prozesuak berekin ekar ditzakeen ondorio kaltegarrien multzoa.

albuginea:

ES:	albugínea
FR:	albuginée
EN:	albuginea

iz. Barrabilaren inguruko ehuna biltzen duen zuntzezko mintz zuri eta distiratsua. Milimetro bateko lodiera izaten du, batez beste.

aldaka:

ES:	cadera
FR:	hanche
EN:	hip

iz. Pelbisaren alboko zatia. Giltzadura osatzen du, izterrezurraren buruaren eta hezur koxalaren azetabuluaren artean.

aldeaz aurretiko herstura:

ES:	ansiedad anticipatoria
FR:	anxiété d'anticipation
EN:	anticipatory anxiety

sint. er. Sexu-arazoak izateko gehiegizko kezka; zehazki, sexu-portaera jakin bat gauzatzeko aurreantxe, hura behar bezala ez betetzeko beldurrak eragina. Esate baterako, gizon bat zakila tentetuko ez zaion beldur bada, gerta daiteke beldur horrek berak erektzioa eragozte.

aldi:

ES:	período, estadio, estadio
FR:	stade
EN:	stage

iz. Gaixotasun edo gertaera baten garapenean zehazturiko denbora-tartea.

aldi errefraktario:

ES:	período refractario
FR:	période réfractaire
EN:	refractory period

sint. er. Bi orgasmoren arteko aldia; gizonen kasuan, eiakulazioa gertatzen denetik hurrengo erektzioa gertatu arteko aldia da.

aldian behingo sexu-uzte:

ES:	abstinencia periódica
FR:	abstinence périodique
EN:	periodic abstinence

1. *sint. er.* Ziklikoki errepikatzen diren denbora-tarte batzuetan, sexu-jokabide orori edo batzuei uko egitea. 2. *sint. er.* Hilekoaren zikloan ugal-aldikoak ez diren egunetan baino ez praktikatzea koitoa.

Ikus: metodo naturalak.

alдитxartze:

ES:	desfallecimiento
FR:	évanouissement
EN:	fainting fit

iz. Indar fisikoen eta psikikoen bat-bateko gainbehera.

Ikus: akidura.

aldizkako sexu:

ES:	ocasional, contacto sexual esporadica
FR:	occasionnel
EN:	occasional

sint. er. Aldizka gertatzen den sexu-harremana.

aldizkako sexu-uzte:

ES:	abstinencia periódica
FR:	abstinence périodique
EN:	periodic abstinence

Ikus: aldian behingo sexu-uzte.

aleutridak:

ES:	aleutridas
FR:	aleutrides
EN:	aleutrides

iz. Greziako dantzariak; festetako parte-hartzaileei sexu-zerbitzua eskaintzen zieten prostituzio-giroan, beren artearekin batera.

algolagnia:

ES:	algolagnia
FR:	algolagnie
EN:	algolagnia

iz. Minaren bidez lortzen da sexu-plazera.

alkaloide:

ES:	alcaloide
FR:	alcaloïde
EN:	alkaloid

iz. Landare-jatorriko gai organiko nitrogenodun eta alkalinoa; alkaloide askok, dosi txikitan erabilia, eragin fisiologiko nabarmenak izaten dituzte gizakiarengan, eskuarki.

Oharrak: Alkaloideak dira tropina, heroina, kafeina, kinina, morfina, kokaina, nikotina, eta abar.

alkohol:

ES:	alcohol
FR:	alcool
EN:	alcohol

iz. Gai psikoaktiboa, nerbio-sistema zentralaren beheratzailea; OH taldea duten karbono-konposatuen artekoa da. Oro har, alkohol etiliko edo etanol deritzona izendatzeko erabiltzen da, eta horixe da alkohol-edariak daukatena (ardoak, sagardoak, ronak, garagardoak...). Droga hori oso zabaldurik dago aro eta kultura ugarian. Sexu-erantzunean eragina izan dezake, eta batik bat desira, kitzikadura nahiz orgasmoa eragotzi hala gizonari nola emakumeari.

Adibidea: Alkoholak desira pizten du, baina gauzatzea galarazten. (Shakespeare)

alkoholdun:

ES:	alcohólico
FR:	alcoolisé
EN:	alcoholic

izond. Alkohola duena, edo hari dagokiona.

alkoholiko:

ES:	alcohólico
FR:	alcoolique
EN:	alcoholic

izond. Alkoholaren mende dagoena. Droga-menpekotasun mota bat da.

Oharrak: Pertsona alkoholikoak gibelesko zirrosia edo pankreatitis kronikoa, besteak beste, izateko arrisku handia du.

alkoholiko bihurtu:

ES:	alcoholizar
FR:	alcooliser
EN:	alcoholise

sint. er. Alkoholaren mende erori.

alkoholismo:

ES:	alcoholismo
FR:	alcoolisme
EN:	alcoholism

iz. Alkoholaren mende erori denaren gaixotasuna. Gizabanakoak alkohola behar du nahitaez, modu konpultsiboan. Edari alkoholikoak denbora luzean neurritz gain hartzearen ondorioz gerta daiteke, baina ez beti, tolerantzia-mugak oso desberdinak baitira pertsona batzuetatik besteetara (gorputz-masak berak ere eragina du horretan).

Oharrak: Alkohol-intoxikazio kronikoak nerbio- eta digestio-sisteman eragin larriak ekar ditzake.

alkoholizatu:

ES:	alcoholizar
FR:	alcooliser
EN:	alcoholise

1. *ad.* Gai bat alkoholez ase edo tratatu. 2. *ad.* Pertsona bat alkoholaren mende erori.

Allen-Masters sindrome:

ES:	síndrome de Allen-Masters
FR:	syndrome de Allen-Masters
EN:	Allen-Masters syndrome

iz. Mackenrodt-en lotailuen eta lotailu zabalaren zenbait geruzaren urradura, umetoki-lepoaren gehiegizko mugikortasunak eragina. Kirurgia-urradura traumatikoen nahiz erditzearen ondorio izan daiteke gehiegizko mugikortasun hori, eta baita (gutxiagotan bada ere) eragindako abortuaren ondorio ere. Pelbiseko mina eta kongestioa, hilekoaren asaldak, dispareunia eta bizkarreko mina dira Allen-Master- sindromearen sintomak.

aloerotismo:

ES:	aloerotismo
FR:	allo-érotisme
EN:	allo-erotism

iz. Autoerotismoaren kontrakoa. Beste gorputz edo objektu batean plazera bilatzen duena.

alogamia:

ES:	alogamia
FR:	allogamie
EN:	allogamy

iz. Gizabanako desberdinen gameto arraren eta emearen elkarketa; heteroernalketa.

Ikus: heterogamia.

alokairuko ama:

ES:	madre de alquiler
FR:	mère porteuse
EN:	surrogate mother

sint. er. Akordio baten ondorioz nahita haurdun gelditu eta jaioberria beste norbaiti ematen dion emakumea.

alu:

ES:	coño, vulva, cunnus
FR:	vulve
EN:	vulva

iz. Emakumearen kanpo-organo genitalen multzoa. Atal hauek ditu: Venus mendia, ezpain handiak, ezpain txikiak, klitoria, baginaren bestibulua eta bestibuluko guruinak. Erdigunean, baginarako zuloa du. Gorputzeko gune erogeno garrantzitsua da.

Ikus: motxin, bulba.

aluko orgasmo:

ES:	orgasmo vulvar
FR:	orgasme vulvaire
EN:	vulvar orgasm

sint. er. Oro har, sarketaren bidez lorturiko orgasmoari deritzo, klitoria zuzenean estimulatu gabekoari.

Ikus: bulba-orgasmo.

ama:

ES: madre
FR: mère
EN: mother

1. *iz.* Seme edo alaba bat edo gehiago dituen emakumea.
2. *iz.* Harreman sadomasokistetan, paper aktibo eta menderatzailea hartzen duen pertsona.

Ikus: amatasun.

amaberri:

ES: puérpera
FR: accouchée
EN: puerpera

1. *iz.* Erditu berri den edo erditzen ari den emakumea.
2. *iz.* Lehen aldiz erditu den emakumea.

amaberrien atal:

ES: maternidad
FR: maternité
EN: maternity

sint. er. Erditzera doazen edo erditu diren emakumeentzat eta haur jaioberrientzat prestatutako ospitale atala.

ama-lerroko:

ES: matrilineal
FR: matrilineaire
EN: matrilineal

izlag. (oinordekotzari buruz) Amaren lerrotik datorrena, gizartea ama-alaben lerrotik, emakumez emakume, antolarazten duena.

Ikus: matrilineal.

Amaren Bularra Hartzearen Mundu Astea:

ES: Semana Mundial de la Lactancia Materna
FR: Semaine Mondiale pour l'Allaitement Maternel
EN: World Breastfeeding Week

sint. er. Abuztuaren 1etik 7ra bitartean ospatu ohi da.

amatasun:

ES: maternidad
FR: maternité
EN: motherhood

1. *iz.* Ama izatearen nolakotasuna.
2. *iz.* Ama batek bere seme-alabekiko duen erlazioaren kalitatea edo harreman juridikoa.

amatasun seguru:

ES:	maternidad segura
FR:	maternité sans risque
EN:	safe motherhood

sint. er. Osasun-arazo eta heriotza-arrisku urriko haurdunaldia eta erditzea.

Amatasuna seguruagoa izan dadin, behar-beharrezkoa da emakumeak aholkuak eta arreta berezia jasotzea erditu aurretik, haurdunaldian dieta egokia egitea, erditzean laguntza profesionala izatea, eta, hala behar izanez gero, obstetraren tratamendua jasotzeko modua izatea. Bestalde, heriotza- eta morbidotasun-tasak murrizteko, komeni da arrisku handiko haurdunaldi nahi gabekorik ez izatea; horretarako, lagungarriak dira familia-plangintza eta abortu segurua eskaintzen duten zerbitzuak.

amazona:

ES:	amazona
FR:	amazone
EN:	Amazon

iz. Greziar mitologian, Itsaso Beltzaren inguruko lurraldeetan bizi zen emakume gudaria; ez zuen gizonezkoekin egon nahi izaten, ugalketarako izan ezean.

amenorrea:

ES:	amenorrea
FR:	aménorrhée
EN:	amenorrhea

iz. Hilekorik eza. Fisiologikoa da emakumearen bizitzako zenbait alditan: haurtzaroan, haurdunaldian, edoskitzaroan eta menopausian. Anorexiaren, drogen kontsumoaren, gatazka psikologikoen, asaldu endokrinoen, tumoreen nahiz estresaren ondorio ere izan daiteke. Epe luzera, antzutasuna eragin dezake.

ameskeria:

ES:	ensoñación
FR:	rêverie
EN:	daydream

iz. Esnaldian edo erdi lokaturik, irudimenak sortzen dituen gertaeren edo irudien multzoa

amestu:

ES:	soñar
FR:	rêver, songer
EN:	dream

Ikus: amets egin.

amets:

ES:	sueño
FR:	rêve
EN:	dream

iz. Loaldian, irudimenak sortzen dituen gertaeren edo irudien multzoa.

amets egin:

ES:	soñar
FR:	rêver, songer
EN:	dream

ad. 1. Loaldian, fantasiazko egoerak edo gertaerak bizi. 2. *ad.* Egiazkotzat eta ziurtzat jo hala ez dena.

amets erotiko:

ES:	sueño erotico
FR:	rêve erotique
EN:	erotic dream

sint. er. Lo egiten den bitartean desira edo plazer sexuala agertzen den ametsa. Zakila tentetzea, kitzikapena, isuria nahiz orgasmoa eragin ditzake. Tradizionalki, psikoanalisiak interpretatu izan ditu amets erotikoak, eta, oro har, bizitzan erreprimitu denaren adierazpena edo azaleratzea dela dio.

amets heze:

ES:	polución nocturna
FR:	rêve mouillée, éjaculation (pollution) nocturne
EN:	wet dream

Ikus: gaueko isuri, lo-isuri.

amnios:

ES:	amnios
FR:	amnios
EN:	amnion

iz. Umekia garatzen den karenaren mintzetan barnekoena; bertan dago likido amniotikoa.

Umekia eta likido amniotikoa inguratzen dituen mintzik barnekoena da. Zilbor-hestea inguratzen du, eta heste horren bidez lotzen zaio fetuari.

amnioskopia:

ES:	amnioscopia
FR:	amnioscopie
EN:	amnioscopy

iz. Likido amniotikoaren azterketa endoskopikoa; endoskopia bat umetokiko lepotik barneratuz egiten da.

Umekia eta likido amniotikoa zuzenean ikustea; umetoki-lepotik nahiz sabelaldearen horman egindako ebaki batetik barrunbe amniotikoan endoskopia bat sartuz egiten da.

amniotomia:

ES:	amniotomía
FR:	amniotomie
EN:	amniotomy

iz. Umekia inguratzen duten mintzen haustura artifiziala; erditzearen hasiera bultzatzeko egin ohi da.

amniozentesi:

ES:	amniocentesis
FR:	amniocentèse
EN:	amniocentesis

iz. Sabelaldeko horma zulatuz likido amniotikoa ateratzean datzan prozesua; bertan dauden zelulak aztertzeko egiten da, umekiaren garapena eta ongizatea kontrolatze aldera. Umekiaren sexuari eta odol-taldeari buruzko informazioa lor daiteke likido pixka batekin, eta baita zenbait gaixotasun edo malformazio antzeman ere Down sindromea, adibidez. Haurra jaio aurretik gaitzak diagnostikatu ahal izateko egiten da. Likido amniotikoa lortzeko, amniosaren puntzioa egin eta xiringa baten bidez xurgatzen da.

amodio:

ES:	amor
FR:	amour
EN:	love

iz. Maitasuna, erotikoa eskuarki.

Ikus: maitasun.

amodio erromantiko:

ES:	amor romántico
FR:	amour romantique
EN:	romantic love

Ikus: maitasun erromantiko.

amodio platoniko:

ES:	amor platónico
FR:	amour platonique
EN:	platonic love

Ikus: maitasun platoniko.

amodio zibernetiko:

ES:	amor cibernético
FR:	amour cyber
EN:	cyber love

sint. er. Internet bidez gauzatzen den harreman erotikoa.

Ikus: zibersexu.

amodioa egin:

ES:	hacer el amor
FR:	faire l'amour
EN:	make love

ad. Sexu-harremanak izan.

Ikus: maitasuna egin.

amodio-aferra:

ES:	aventura
FR:	flirt
EN:	fling, affair

Ikus: amodioaldi.

amodioaldi:

ES:	amorío
FR:	flirt
EN:	love affair

iz. Amodio-harremanak gauzatzen diren aldia, baina oraindik bikote egonkor bat osatu gabe, edo bikote egonkorretik aparte.

amodio-bitartekari:

ES:	casamentero, alcahuete/a, celestina
FR:	entremetteur, entremetteuse
EN:	matchmaker

izond. Bikote bat uztartzeko bitartekaritza egiten duena; Zelestina du sinbolo nagusi. Euskal Herriko zenbait eskualdetan, *uztargile* deritzo.

amoralitate:

ES:	amoralidad, inmoralidad
FR:	amoralité
EN:	amorality

iz. Moralaren kontrako ekintza eta ondorioa. Gizarte batek onarturik dituen moral-balioen kontrakoa.

amorante:

ES:	amante, concubina
FR:	amant, maîtresse
EN:	lover, mistress

Ikus: ohaide.

amoros:

ES:	amante
FR:	amoureux
EN:	lover

izond. (Ipar.) Maitemindua, maitalea.

Ikus: maitale.

amoros-eguna:

ES:

FR:

EN:

iz. Larunbata testu zaharretan.

ampallag:

ES: ampallang

FR: ampallang, piercing pénien

EN: ampallang

iz. Zakilean jartzen den piercinga; sexu-harremanean, klitoria igurzten du, eta, ondorioz, emakumeari plazera ematen dio.

amultsu:

ES: afectuoso, amoroso

FR: affectueux, amoureux,

EN: affectionate, amorous

izond. Maitagarria, jarrera maitekorrak dituen.

anafrodisiako:

ES: anafrodisíaco

FR: anaphrodisiaque

EN: anaphrodisiac

izond. Sexu-gaitasuna, sexu-desira, sexu-sena, kitzikadura nahiz plazera eragozten dituen. Gai kimikoren bat izan daiteke (bromuroa, adibidez); baita norberaren kezka edo bikotekidearen portaera eta antzeko gertaerak ere.

anal:

ES: anal

FR: anal

EN: anal

Ikus: uzki-, uzkiko.

anatomia:

ES: anatomía

FR: anatomie

EN: anatomy

iz. Izaki bizidunen egitura, forma eta organoen antolamendua aztertzen dituen zientzia.

anatomiko:

ES: anatómico

FR: anatomique

EN: anatomic

izond. Anatomiari dagokiona.

anbibalentzia:

ES:	ambivalencia
FR:	ambivalence
EN:	ambivalence

iz. Gogo-aldarte mota: aurkako bi sentimendu edo emozio —esate baterako, maitasuna eta gorrotoa— batera agertzen dira. Emozio-tentsioa eragiten du, baina, oro har, egoera iragankorra da, azkenerako bi sentimenduetako bat nagusitzen baita.

ambulatorio:

ES:	ambulatorio
FR:	ambatoire
EN:	ambulatory

1. *iz.* (Gizarte-segurantzako sorostegiei buruz) Gaixoa bertaratu gabe, osasun-zerbitzua eskaintzen dion zentroa. 2. *izond.* (Gaixotasun edo tratamenduei buruz) Gaixoa ohean egotera behartzen ez duena.

andreko:

ES:	mujeriego
FR:	coureur de jupons
EN:	womaniser, lady's man

izond. (Gizonezkoei buruz) Emakumezalea.

Ikus: andrezale.

androfobia:

ES:	androfobia
FR:	androphobie
EN:	androphobia

iz. Gizonezkoenganako beldur irrazional eta neurrigabea. Zenbait kasutan, gizonen bazterketa adierazteko ere erabili izan da.

androgeno:

ES:	andrógeno
FR:	androgène
EN:	androgen

iz. Sexu-hormona. Gizonezkoengan neurri handiagoan aurkitzen da, bi sexuetan dagoen arren. Gizonezkoetan, barrabilek sortzen dute; neurri txikiagoan bada ere, nahiz gizonezkoen nahiz emakumeen giltzurrun-gaineko kanpo-kortexak ere sortzen du; obulutegiek ere bai apur bat, menopausia arte. Gizonezkoen sexu-garapenean eragiten dute, eta pubertaroan lehen mailako eta bigarren mailako sexu-ezaugarriak garatzen. Testosterona da androgenorik ezagunena. Bi sexuetan, sexu-desiran eragin handia du.

androgenia:

ES:	androgenia
FR:	androgynie
EN:	androgyny

iz. Zenbait pertsonak, egoeraren arabera, maskulinitzat eta femininitzat jotzen diren ezaugarriak erakusteko duten gaitasuna.

androgino:

ES:	androgino-a
FR:	androgyné
EN:	androgynous

izond. Maskulinitzat eta femeninitzat jotzen diren ezaugarriak, biak, dituen edo adierazten dituen.

Ikus: egoera intersexual.

androide:

ES:	androide
FR:	androïde
EN:	android

izond. Gizakiaren itxura duena.

androlatria:

ES:	androlatría
FR:	androlâtrie
EN:	androlatry

iz. Gizonezkoenganako gurtza edo miresmena.

Ikus: antropolatria.

andrologia:

ES:	andrología
FR:	andrologie
EN:	andrology

iz. Gizonezkoen gaixotasunak aztertzen dituen zientzia, batik bat gaixotasun genitalak.

andromania:

ES:	andromanía
FR:	nymphomanie
EN:	satyriasis

Ikus: ninfomania.

andropausia:

ES:	andropausia
FR:	andropause
EN:	andropause

iz. Sintoma fisiologiko eta psikikoen multzoa, gizonezkoetan 50-60 urteen inguruan agertzen dena. Sexu-jarduerari eta identitate sexualari eragiten dio. Testosterona-ekoizpena urritzea du ezaugarri. Gizartean jokaturako paperaren etetearekin lotu ohi da. Ezaugarrien artean aurki daitezke: piperturik egotea, urduritasuna, nekea, lo egiteko arazoak, aintzat hartua ez izatearen sentimendua...

androsterona:

ES: androsterona

FR: androstérone

EN: androsterone

iz. Sexu-hormona maskulinoa, gernutik lortzen dena, zikiratzearen ondorioak arintzeko eraginkorra.

aneiakulazio:

ES: aneyaculación

FR: anéjaculation

EN: anejaculation

iz. Sexu-harremanean eiakulaziorik ez izatea, edo oso noizbehinka eta asko kostatuta.

anestesia epidural:

ES: anestesia epidural

FR: anesthésie péridurale

EN: epidural anaesthesia

sint. er. Gorputz zati bateko anestesia, bizkarrezurreko gune epiduralean anestesiko lokal bat ziztaturik gune pelbiko, abdominal eta genitalen anestesia lortzeko.

Erditze-unean erabiltzen da, batzuetan.

anexitis:

ES: anexitis

FR: annexite

EN: adnexitis

iz. Umetokiaren eranskinen hantura, tronpena, bereziki.

anexoak:

ES: anexos

FR: annexes

EN: annexes

Ikus: eranskinak.

anfetamina:

ES: anfetamina

FR: amphétamine

EN: amphetamine

iz. Psikofarmakoa, nerbio-sistema zentralaren estimulatzailea.

Alfametilfenotilaminaren izen laburtua da. Laborategian duela ehun urte baino lehenagotik sintetizatzen den droga da. Harremanak errazteko, irekiagoa agertzeko erabiltzen da, batik bat sexu-harremanak errazteko. Menpekotasuna eta ondorio neurofisiologikoak ditu.

anhedonia:

ES:	anhedonia
FR:	anhédonie
EN:	anhedonia

iz. Desira eta plazera sentitu ohi diren egoeretan sentitzeko gaitasun falta. Ondorioz, sexu-jokabideak gutxiagotu, okerragotu edo oztopatu daitezke.

Ikus: hedonismo.

anilingus:

ES:	anilingus, anilictus
FR:	anulingus
EN:	anilingus

iz. Uzkia ahoaz nahiz mihiaz laztantzean datzan ekintza.

anobulatorio:

ES:	anovulatorio
FR:	anovulatoire
EN:	anovulatory agent

izond. (Gai bati buruz) Obulazioa eragozten duena. Antisorgailu gisa erabiltzen da, baina baditu erabilera gehiago ere: hilekoaren ziklo irregularrak erregulatzea eta hilekoak eragindako mina saihestea, adibidez. Estrogenoak dira anobulatorioen osagai nagusiak, baina badituzte beste hainbat osagai ere: progestaginoak eta progesterona, esate baterako. Antisorgailu anobulatorio ezagunak dira: eguneroko pilula, baginako uztia eta adabakia.

anobulazio:

ES:	anovulación
FR:	anovulation
EN:	anovulation

iz. Obulutegiek obulua sortzeko, helarazteko edo askatzeko ezintasuna.

Obulutegien funtzioaren asalduek gertatzen da. Asaldu horren eragileen artean daude: antisorgailu hormonalak, haurdunaldia, edoskitzaroa, menopausia, gatazka psikologikoak, estresa eta osasun-arazoak.

anomalía:

ES:	anomalía
FR:	anomalie
EN:	abnormality

1. *iz.* Gizabanako batek, bere espezieko gehienekin alderatuta, duen bereizgarritasun organikoa. 2. *iz.* Egoera naturalarekiko desberdina dena, edo normala ez dena.

anonimatu:

ES:	anonimato
FR:	anonymat
EN:	anonymity

iz. Nortasun erreala (izena, adina, bizilekua, sexua...) ezagutzen ez denekoa.

anopluru:

ES:	anopluro
FR:	anoploure
EN:	anoplura

Ikus: pubis-zorri.

anorexia:

ES:	anorexia
FR:	anorexie
EN:	anorexia

iz. Jateko gogoa gutxitzea edo desagertzea ezaugarri funtsezkoen duen gaixotasuna. Prozesu psikologiko eta fisiologiko askotan agertzen da. Emakume gazteei eragiten die batez ere, eta oso eritasun larria izan daiteke.

anorexiadun:

ES:	anorético
FR:	anorexique
EN:	anorexic

izond. Anorexiaz gaixorik dagoena.

anorexiko:

ES:	anorético
FR:	anorétique
EN:	anorectic

izond. Anorexiari dagokiona.

anorgasmia:

ES:	anorgasmia
FR:	anorgasmie
EN:	anorgasmy

iz. Orgasmoa nahi eta ezina.

anorgasmiko:

ES:	anorgásmico
FR:	anorgasmique
EN:	anorgasmic

izond. Orgasmorik izan ez duena.

anorkidia:

ES:	anorquidia
FR:	anorchidie
EN:	anorchism, anorchia

iz. Barrabil baten edo bien falta, sortzetikoa. Barrabiletako atrofiak nahiz garapen-asaldu batek eragina izan ohi da.

anormaltasun:

ES: anormalidad

FR: anormalité

EN: abnormality

iz. Norbaiti edo zerbaiti berez legozkiokeen ezaugarriak ez agertzearen ondoriozko egoera.

egiteko antsietate:

ES: ansiedad de ejecución

FR: anxiété d'exécution

EN: anxiety of execution

sint. er. Sexu-jarduerarekiko beldur, izu edo susmoen multzoa.

antiandrogeno:

ES: antiandrogeno

FR: antiandrogène

EN: antiandrogen

izond. (Gai edo substantziei buruz) Odoleko androgeno kopurua gutxitzen duena.

antibiral:

ES: antiviral

FR: antiviral

EN: antiviral

izond. Birusen kontrakoa.

antibiriko:

ES: antivírico

FR: antiviral

EN: antiviral

izond. Birusen kontrakoa.

antigorputz:

ES: anticuerpo

FR: anticorps

EN: antibody

iz. Organismoak ekoiztako glukoproteina; zelula plasmaticoek eta B linfozitoek ekoizten dute, antigeno edo haptenoen sarreraren erantzun gisa. Gorputzaren defentsa-sistemaren parte dira.

antihigieniko:

ES: antihigiénico

FR: antihygiénique

EN: unsanitary, unhygienic

Ikus: higienearen kontrako.

antipsikiatria:

ES:	antipsiquiatría
FR:	antipsychiatrie
EN:	antipsychiatry

iz. Psikiatria tradizionala eta buru-eritasunaren kontzeptua zalantzan jartzen dituen mugimendua.

antisorgailu:

ES:	anticonceptivo
FR:	contraceptif
EN:	contraceptive

iz. Haurdunaldia eragozteko balio duen sistema, teknika, produktu, gai, aparatu edo metodoa.

antisorgailu hormonalen bidezko metodo:

ES:	método de anticonceptivos hormonales
FR:	méthode de contraception hormonale
EN:	hormonal contraceptive method

sint. er. Konposatu farmakologikoa zein gailu mekanikoa, hormona sintetikoekin batera erabilia, haurdunaldia saihesteko.

antisorgailuzko adabaki:

ES:	parche anticonceptivo
FR:	timbre (patch) contraceptif
EN:	contraceptive patch

sint. er. Kontrazepzio-metodoa; une oro hormonak jariatzen ditu odolera adabaki horrek. Astean behin berritu behar izaten da. Txikia eta fina da, eta ipurmamietan, sabelaldean, bizkarrean nahiz besoen aurrealde eta atzealdean jar daiteke. % 99ko eraginkortasuna du, baina ez du GIBaren, hiesaren eta beste sexu-infekzioen kontrako babesik ematen.

antisozial:

ES:	antisocial
FR:	antisocial (comportement)
EN:	antisocial (action)

izond. Gizartearen eta ordena sozialaren aurkakoa; gizarte-harremanek ezartzen dituzten portaera-arauen kontra doan jokamoldea.

antropolatria:

ES:	antropolatría
FR:	anthropolâtrie
EN:	antropolatry

iz. Gizakia gurtzea. Androlatriaren sinonimotzat ere erabiltzen da, gizonezkoenganako gurtza edo miresmena adierazteko.

Ikus: giza gurtza, androlatria.

antropologia:

ES:	antropología
FR:	anthropologie
EN:	anthropology

iz. Gizakia eta giza taldeak ikertzen dituen zientzia. Gizakien portaeren zergatia eta garapena aztertzen ditu.

antsietate:

ES:	ansiedad
FR:	anxiété
EN:	anxiety

iz. Izu-, estutasun- eta beldur-sentsazioa, etorkizuneko, inguruko, barneko edo zehaztu gabeko arrisku baten aurrean.

Ikus: herstura.

antsiolitiko:

ES:	ansiolítico
FR:	anxiolytique.
EN:	anxiolytic

izond. (Sendagaiei buruz) Antsietatea murrizten duena; zenbait neurosi eta buru-asaldu tratatzeko erabiltzen da. Gomendagarria da harekin batera sexu-terapia edo bikote-terapia eskaintzea, halako terapiak gatazka azaleratzen lagundu baitezake. Gatazkak dira asaldu gehien eragile, sexu-antsietateari dagokionez.

antzu:

ES:	estéril
FR:	stérile
EN:	sterile

izond. Ondorengo biologikorik izan ezin duena, anomalia fisikoren baten ondorioz.

antzutasun:

ES:	esterilidad
FR:	stérilité
EN:	sterility

iz. Ugaltzeko gaitasunik eza, hala arrarena nola emearena. Behin-behinekoa nahiz behin betikoa izan daiteke, gaixotasunen batek eragina edo norberak erabakia.

Hiru antzutasun mota nagusi daude: obulu- edo espermatozoid-gutxiegitasunak edo -gabeziak eragindakoa, zigotoa umetokian jartzean sorturiko arazoek eragindakoa, eta gizon baten eta emakume baten arteko bateraezintasun biologikoak eragindakoa.

Antzutasunaren Munduko Hilabetea:

ES:	Mes Mundial De la Esterilidad
FR:	Mois mondiale de l'infertilité
EN:	World Infertility Month

iz. Ekainean izan ohi da.

antzutze:

ES:	esterilización
FR:	stérilisation
EN:	sterilisation

iz. Ugaltzeko gaitasuna kentzeko xedez egiten den ebakuntza edo tratamendu kimikoa. Berez (gaixotasun batengatik edo) antzu geratzea. Itzulgarria edo behin betikoa izan daiteke.

Ikus: irentze, zikiratze.

antzutze kirurgiko:

ES:	esterilización quirúrgica
FR:	stérilisation chirurgicale
EN:	surgical sterilisation

sint. er. Kirurgiaren bidez, ernaltzeko gaitasuna kentzea. Emakumeari, oro har, tronpen lotura egiten zaio; eta gizonezkoari, berriz, basektomia.

aparatu genital:

ES:	aparato genital
FR:	appareil génital
EN:	genital system

Ikus: sistema genital.

apatia:

ES:	apatía
FR:	apathie
EN:	apathy

iz. Emozio, sentimendu, kezka nahiz pasio falta, edo deuseztatu egin direlako, edo eskuarki zirraragarriak diren egoera nahiz gertaeren aurrean ardurarik erakusten ez delako.

apetan hartze:

ES:	encaprichamiento
FR:	engouement
EN:	infatuation

sint. er. Norbaitek beste norbaitengan erabateko arreta bizia jartzea; sexu-desira, euforia eta oro har urduritasun psikologikoa izaten dira harekin batera.

Apgar-en test:

ES:	Apgar, test de
FR:	Apgar, test
EN:	Apgar test

sint. er. Jaioberriaren bizi-indarra balioesteko proba. Jaio ondorengo lehenbiziko minutuan, handik 5 minutura eta, zenbaitetan, 10 minutura egiten da. Bihotz-erritmoa (taupaden maiztasuna), arnasketa (zailtasuna), giharren tonua, erreflexuak eta haurraren kolorea balioesten dira. Balioesten den aldi bakoitzari puntuazio bat ematen zaio; puntuazioaren arabera (baxua denean), medikuak hainbat erabaki har ditzake: haurraren behaketa arrunta, haurra neonatologiara eramatea, eta abar.

apirilaren 7a:

ES:	7 de abril
FR:	7 avril
EN:	7th April

sint. er. Sexu eta Ugalkortasun Osasunaren Eguna

Apolo:

ES:	Apolo
FR:	Apollon
EN:	Apollo

1. iz. Mitologia klasikoan, orakuluen, gaztetasunaren, edertasunaren, artaldean, poesiaren, musikaren eta, oro har, artearen jainkoa. Gizontasunaren arketipo gisa hartzen da. 2. iz. Gizon ederra.

ar:

ES:	macho
FR:	mâle
EN:	male

izond. 1. Gizonezkoa dena, gizakietan, XY kromosomak dituen; dena den, kromosoma sexualen ezohiko zenbait konbinazio ere gertatzen dira. Lehen eta bigarren mailako sexu-ezaugarri berezkoak ditu, emetik bereizten dutenak. Lehen mailako sexu-ezaugarriak dira: barrabilak, epididimoa, eskrotoa, hodi deferentea, semen-xixkua, prostata eta zakila. Bigarren mailako sexu-ezaugarriak dira: ahots grabea, giharren eta hezurduraren garapen handiagoa emakumeena baino, bularrean eta aurpegian bizarra, sorbaldak zabalagoa eta aldaka estuagoa.

Ikus: gizon, sexu-identitate, Klinefelter-en sindrome.

arabiar:

ES:	arabe
FR:	arabe
EN:	Arab, arabic

izond. Koito-jarrera heterosexuala, gizona ahoz gora etzanik emakumea gizonaren gainean zangalatrau jartzen denekoa.

araldi:

ES:	estro
FR:	oestrus, rut
EN:	oestrus

iz. Animaliek sexu-bulkada duten aldia.

arazo sexual:

ES:	problema sexual
FR:	problème sexuel
EN:	sexual problem

Ikus: sexu-arazo

arbuio:

ES:	rechazo
FR:	refus
EN:	repulse

iz. Baztertzearen ekintza eta ondorioa.

areola:

ES:	areola
FR:	aréole
EN:	areola

iz. Titiburuaren inguruan dagoen eremu pigmentarioa. Eremu erogeno sentikorrenetako bat da, titiburuarekin batera.

argal:

ES:	delgado
FR:	maigre
EN:	thin

izond. Lodiera gutxiegi (ohi dena edo behar dena baino gutxiago) duena.

argaldu:

ES:	adelgazar
FR:	maigrir
EN:	slim

ad. Gorputz batek lodiera eta pisua galdu. Sexukideak senti dezakeen erakargarritasunean eragin dezake, alde edo kontra, eta orobat norberaren autokontzeptu eta gorputz-irudian. Argaltzea obsesio bihur daiteke, eta arazo fisiko nahiz psikologikoak eragin.

argaltasun:

ES:	delgadez
FR:	maigreur
EN:	leanness

iz. Gorputzeko pisu- eta gantz-urritasuna.

argaltze:

ES:	adelgazamiento
FR:	amaigrissement
EN:	weight loss

iz. Gorputzaren loditasuna murriztea; pisua ere galdu ohi da, gehienetan. Gantza eta beste zenbait ehun galtzearen ondorio da.

ariketa:

ES:	ejercicio
FR:	exercice
EN:	exercise

iz. Jarduera fisiko zein intelektuala; gai batean trebatzeko egiten da. Jarduera fisikoari dagokionez, giharren mugimenduarekin egiten den lana, gorputza nahiz haren atalen bat indartzeko, organismoaren gaitasunak mantentzeko edo osasun-egoera jakin bat berreskuratzeko. Sexualitatearen alorrean, bada zenbait ariketa berezi; Kegelen ariketak, adibidez.

ariketa egin:

ES:	ejercitar
FR:	s'exercer
EN:	train

ad. Zerbaitean trebatzeko ekintza bat errepikatu eta landu.

armairutik irten:

ES:	salir del armario
FR:	sortir du placard
EN:	coming out of the closet

ad. (Erregistro arruntekoa) Sexu bereko kideek erakartzen duten pertsonak erakarmen hori gizartearen aurrean ezkutatzeari utzi.

arnasestuka jardun:

ES:	jadear
FR:	haleter
EN:	pant

sint. er. Arnasaldi laburrak eta sarriak hartuz arnastu.

aromatiko:

ES:	aromático
FR:	aromatique
EN:	aromatic

1. *izond.* Usain sendo samarra baina atsegina duena, espezia-usainaren antzekoa; esate baterako, kanela, jengibre, esentziak eta abar aromatikoak dira. Sexu-harremanean eragin handia dute gai usaintsuek. 2. *izond.* (Konposatu kimikoei buruz) Bentzenoaren egituraren eraztuna duena. Gai sendagarriak eta usaintsuak dira halako asko.

aromatizazio:

ES:	aromatización
FR:	aromatisation
EN:	aromatisation

iz. Konposatu alifatiko bat aromatiko bilakatzen duen prozesua.

arraspatze:

ES:	curetaje, raspado
FR:	curetage
EN:	curettage

iz. Kalteturik dagoen gune bat koilaratxo zorrotz batez karrakatzea. Umetokiko mukosan egiten da bereziki, endometritis- eta abortu-kasuetan; eta orobat hezurretan, txantxarra dagoenean.

arreo:

ES:	ajuar
FR:	trousseau
EN:	trousseau

iz. Tradizionalki, emakumeak ezkontzarako jartzen zuen altzari, bitxi, arropa, etxeko tresna eta abarren multzoa.

arreta:

ES:	atención
FR:	service
EN:	service

iz. Elkarren arteko ekintza-prozesua; gizabanakoa edo haren familia harremanetan jartzen dira zerbitzua eskaintzen dienaekin. Arretaren barnean daude bigarren edo hirugarren mailako prebentzioa, osasunari egindako kalteak maneiatzeko.

arriskuko sexu-jokaera:

ES:	conducta sexual de riesgo
FR:	comportement sexuel à risque
EN:	unsafe sex

sint. er. Oro har, aurreikusi gabeko haurdunaldia gertatzeko edo sexu bidezko infekzioak harrapatzeko arriskua ekar dezakeen sexu-jokaera. Gobernu-kanpainetan, halako jokaerak saihestea bultzatzen da. Termino horren kontrakoa da 'sexu seguru' deritzona.

arriskurik gabeko sexu:

ES:	sexo seguro
FR:	rapports sexuels protégés
EN:	safe sex

Ikus: sexu seguru.

arrotz:

ES:	extraño
FR:	étranger
EN:	extraneous

izond. Exogenoa; organismoaren kanpoaldean sortzen dena, edo kanpoaldetik sartzen dena.

ars amandi:

ES:	ars amandi
FR:	ars amandi
EN:	ars amandi

sint. er. Maitatzeko artea, maitabidea. Ovidio poeta latindarrak idatzitako poema didaktikoa. Hiru kantutan banatua dago, eta amodio-harremanei buruzko aholkuak ematen ditu: non topatu emakumeak, nola gorte egin, nola bereganatu, nola mantendu maitea, nola berreskuratu, nola saihestu inork kentzea...

asaldu:

ES:	trastorno
FR:	trouble
EN:	disorder

iz. Zelulek, organoek, aparatuek, sistemek edo gorputzeko zein buruko funtzioek jasandako aldaketa nahiz etena. Gaixotasun-ezaugarriak ditu asalduak.

asaldu primario:

ES:	trastorno primario
FR:	trouble primaire
EN:	primary disorder

sint. er. Lehen mailan agertzen den asaldua, beste asaldu edo gaixotasun batek eragin gabea.

asaldu sekundario:

ES:	trastorno secundario
FR:	trouble sécondaire
EN:	secondary disorder

sint. er. Bigarren mailan agertzen den asaldua, beste asaldu edo gaixotasun batek eragina.

ase:

ES:	saciar
FR:	assouvir
EN:	satiate

ad. Zerbait norbaiten gustuko, gogo-betegarri gertatu.

asegabetasun:

ES:	insatisfacción
FR:	insatisfaction
EN:	dissatisfaction

iz. Zerbaitek edo norbaitek gogobetetzen ez dueneko egoera. Sexuari dagokionez, sexu-harreman gogobetegarririk ez izatea. Orgasmora iritsi ezinik geratzeaz ere esaten da.

asetasun:

ES: satisfacción

FR: satisfaction

EN: satisfaction

iz. Zerbaitek edo norbaitek gogobetetzen dueneko egoera. Sexuari dagokionez, sexu-harreman gogobetegarriak izatea. Orgasmora iritsi ondoko egoeraz ere esaten da.

asetze:

ES: satisfacción

FR: satisfaction

EN: satisfaction

Ikus: asetasun.

asexual:

ES: asexual

FR: asexué

EN: asexual

izond. (Espezieei buruz) Sexurik ez duena; gametorik gabe gertatzen den ugalketa. Zenbait espezetan gertatzen da, hainbat modutara; partenogenesis da kasurik arruntena.

asimetria:

ES: asimetría

FR: asymétrie

EN: asymmetry

iz. Simetriarik eza; alde bakoitzeko organo edo zatien antzekotasunik eza. Ikerketa transkulturalen arabera, aurpegi simetrikokoak asimetrikoak baino erakargarriagoak dira.

asintomatiko:

ES: asintomático

FR: asymptotique

EN: asymptomatic

izond. Sintomarik agertzen ez duena.

aspermia:

ES: aspermia

FR: aspermie, anaspermie

EN: aspermia

iz. Esperma-gabezia edo -jario urria.

astenospermia:

ES: astenospermia

FR: asthénospermie

EN: asthenospermia

iz. Espermatozoideen mugimendu motela. Haurdun geratu ezinaren kausa izan daiteke.

aszetismo:

ES:	ascetismo
FR:	ascétisme
EN:	asceticism

iz. Desira materialari eta sexualari uko egiten dion jokabidea. Ekialdeko zein mendebaleko erlijioetan, aszeta askok desira fisiko eta mundutarrak gainditzea bilatzen dute; esate baterako, apaiz eta moja katolikoek aszetismoan bilatu izan dute espiritualtasun gorena.

atabismo:

ES:	atavismo
FR:	atavisme
EN:	atavism

iz. Izaki bizidun batean arbasoen bereizgarri genetiko batzuk agertzean datzan ezaugarria; bereizgarri horiek ez dira tarteko belaunaldietan ageri.

atipiko:

ES:	atípico
FR:	atypique
EN:	atypical

izond. (Gaixotasunei buruz) Ohiko motakoa edo estandarra ez dena. Sarrienak dira: organismoan analogiarik gabeko forma edo antolaera agertzen duten zelulaz osaturik dauden tumoreak, aldizkako sukarra eta ezohiko mikrobio-anduek eragindako gaixotasunak.

atrofia genital:

ES:	atrofia genital
FR:	atrophie génitale
EN:	genital atrophy

sint. er. Sexu-organoen funtzio-galera, garapen desagokiaren edo gaixotasunaren ondorioa, eta orobat menopausiaren ondorioa.

atseden:

ES:	descanso, reposo
FR:	repos
EN:	rest

iz. Jardueraren etenaldia, geldialdia; ezinbesteko neurria da zenbait asaldu mediko-kirurgikoren tratamenduan.

atseden hartu:

ES:	descansar
FR:	se reposer
EN:	rest

ad. Jarduera eten eta indarberritu.

atsedenaldi:

ES:	descanso, reposo
FR:	repos
EN:	rest

Ikus: atsedeen.

atsegin:

ES:	placer
FR:	plaisir
EN:	pleasure

Ikus: plazer.

atsegin hartu:

ES:	gozar
FR:	jouir
EN:	enjoy

Ikus: gozatu.

atsegintasun:

ES:	placer
FR:	plaisir
EN:	pleasure

Ikus: plazer.

atxikimendu:

ES:	apego
FR:	attachement
EN:	attachment

iz. Bi pertsonaren (haurra/zaindaria, edo bi heldu) arteko lotura afektibo handia, iraunkorra; egoera estresagarri edo mehatxagarrien aurrean atxikimendu-irudia den pertsonarekiko hurbiltasuna bilatzen da, segurtasun, kontsolamendu edo babes bila.

atxikimendu-irudi:

ES:	figura de apego
FR:	figure d'attachement
EN:	attachment figure

iz. Norbaiti euskarri afektibo segurua eskaintzen dion pertsona; harekiko lotura afektibo berezia du.

atzealde:

ES:	trasero
FR:	fesses
EN:	backside, bottom

iz. Ipurmamien aldea. Kutsu erotikoa du.

Ikus: ipurdi.

atzera egite:

ES:	retracción
FR:	rétraction
EN:	retraction

1. *sint. er.* Ehunaren atzeranzko mugimendua, gorputzeko guneko edo egitura bat agerian uzten duena. 2. *sint. er.* Atal baten uztegia.

atzeraeragin:

ES:	retroalimentación
FR:	rétrocontrôle
EN:	feedback

iz. Erakunde batean, oharrak, kezak eta iradokizunak partekatzea, modu horretan informazioa lortuz (banaka zein taldean), erakundearen zenbait alde hobetzeko.

atzerakari:

ES:	recurrente
FR:	récurrent
EN:	recurrent

izond. (Zantzez edo sintomez) Aldizka berriz agertu ohi dena.

atzerako eiakulazio:

ES:	eyaculación retrógrada
FR:	éjaculation rétrograde
EN:	retrograde ejaculation

sint. er. Semena eskrotora edo maskurira isurtzean datzan eiakulazio mota.

aurpegi:

ES:	cara, rostro
FR:	visage
EN:	face

iz. Buruaren aurreko aldea, kopetatik kokotseraino doana. Erakarpenean eta komunikazioan garrantzi handia duten hiru zentzumen-organo (begiak, mihia eta sudurra) hantxe kokatzen dira. Aurpegiak erakarmenean eta sentimenduen adierazpenean funtzio garrantzitsua du. Pertsonaren edertasuna, besteak beste, aurpegiaren osagaien arteko proportzioen, formaren, tamainaren, kolorearen eta simetriaren arabera balioetsi ohi da. Aurpegiko osagaiei (begiak, ahoa, bekainak...) eta muskuluei esker, giza komunikazioan oso garrantzitsuak diren emozio asko adieraz daitezke.

aurpegi-:

ES:	facial
FR:	facial
EN:	facial (Hitz elkartuetan) Aurpegiari dagokiona.

Ikus: aurpegiko.

aurpegiko azal:

ES:	cutis
FR:	cutis
EN:	skin, complexion iz. Aurpegiko larruazala.

aurpegiko:

ES:	facial
FR:	facial
EN:	facial izlag. Aurpegian dagoena, edo aurpegiari dagokiona.

aurea hartu:

ES:	prevenir
FR:	prévoir
EN:	prevent

Ikus: prebenitu.

aurrez zaindu:

ES:	prevenir
FR:	prévoir
EN:	prevent

Ikus: prebenitu.

ausiki:

ES:	mordisco
FR:	morsure
EN:	nibble

Ikus: hozka(da).

autoerotiko:

ES:	autoerótico
FR:	autoerotic
EN:	autoerotic izond. Norberaren gorputzaz baliatuz atsegina lortzeko jokabide erotikoari dagokiona.

autoerotismo:

ES: autoerotismo
FR: autoérotisme
EN: autoeroticism

iz. Norberaren gorputzarekiko jokaera eta bizipen erotikoa. Norberaren gorputzean gauzatzen da jokabidea. Norbera, fantasiak, oroitzapenak edo objektu bisualak izan ohi dira estimulu erotikoa. Masturbazioa da jokabide autoerotikoetako bat. Haurtzaroan hasi, eta bizitza osoan iraun dezake. Haurren sexualitatea autoerotikotzat jotzen da.

Ikus: masturbazio.

autoestimazio:

ES: autoestima
FR: estime de soi-même
EN: self-esteem

iz. Norberak bere buruari dion estimua eta begirunea.

autoestimu:

ES: autoestima
FR: estime de soi-même
EN: self-esteem

Ikus: autoestimazio.

autoestimulazio:

ES: autoestimulación
FR: autostimulation
EN: self-stimulation

iz. Jarduera autoerotikoa.

autogamia:

ES: autogamia
FR: autogamie
EN: autogamy

iz. Gizabanako beraren gameto arraren eta emearen elkarketa; autoernalketa. Landare, alga, onddo eta protozooetan, ohiko prozesua da.

Ikus: alogamia.

autokontrol:

ES: autodominio
FR: -contrôle de soi
EN: self-control

iz. Nork bere zenbait funtzio fisiologiko edo jokabide eskuarki ez-borondatezkoren gainean duen kontrola.

autokontzientzia:

ES:	autoconciencia
FR:	conscience de soi
EN:	self-consciousness

iz. Nork bere buruaz duen oharmena.

autokritika:

ES:	autocrítica
FR:	autocritique
EN:	self-criticism

iz. Nork bere buruari egindako kritika.

autonomo:

ES:	autónomo
FR:	autonome
EN:	autonomic

izond. Kanpoko eraginik gabe, aske funtzionatzeko gaitasuna duena.

autorregulatzaile:

ES:	autorregulador
FR:	autorégulateur
EN:	self-regulating

izond. Autorregulazioa eragiten duena; sistema natural edo artifiziala izan daiteke.

autorregulazio:

ES:	autorregulación
FR:	autorégulation
EN:	self-regulation

iz. Ehunek beren odol-fluxua egokitzeko duten gaitasuna. Gihar lisoaren uzkuarte-prozesuari esker lortzen dute, odol-hodiak ireki eta itxi egiten baititu hark. Sistema organikoek odol-fluxu etengabea izatea bideratzen du.

azaroaren 16a:

ES:	16 de noviembre
FR:	16 novembre
EN:	16th November

sint. er. Tolerantziaren Aldeko Nazioarteko Eguna.

azaroaren 20a:

ES:	20 de noviembre
FR:	20 novembre
EN:	20th November

sint. er. Haurren Munduko Eguna.

azaroaren 25a:

ES:	25 de noviembre
FR:	25 novembre
EN:	25th November

sint. er. Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna.

azkura:

ES:	picazón, picor
FR:	démangeaison, prurit
EN:	itch

iz. Erresumin-sentsazioa larruazalean; hazka eginarazten du. Sintomatikoa izan daiteke.

azoospermia:

ES:	azoospermia
FR:	azoospermie
EN:	azoospermia

iz. Esperman espermatozoiderik ez izatea, edo oso gutxi izatea.

azpil-hezur:

ES:	pelvis
FR:	bassin
EN:	pelvis

Ikus: pelbis.

aztarna:

ES:	secuela
FR:	séquelle
EN:	sequela

1. *iz.* Gertakari bat adierazten duen seinalea. 2. *iz.* Zerbaitek uzten duen edo gauza batetik gelditzen den seinalea. 3. *iz.* Organo edo zati endurtu eta gutxi garatua, aurreko arbasoetan funtzionala eta ongi garatua bazen ere.

Ikus: ondorio-arrasto.

azterketa:

ES:	exploración, revisión
FR:	exploration
EN:	exploration, review

1. *iz.* Zerbait behar bezala ote dagoen edo ote dabilen ikusteko nahiz egiaztatzeko egiten den ikerraldia. 2. *iz.* Zerbait aztertzea, hura aldatzeko edo zuzentzeko, nahiz hartaz hobeki jabetzeko. 3. *iz.* Helburu diagnostikoetarako eta ikerketarako egiten den miaketa, organo-barrunbeena bereziki.

aztertu:

ES: reconocer, explorar, examinar

FR: reconnaître, examiner

EN: examine

ad. Zerbaiti edo norbaiti arretaz begiratu, haren jatorria eta ezaugarriak ezagutzeko eta irtenbidea bilatzeko.

aztura sexual:

ES: hábito sexual

FR: habitude sexuelle

EN: sexual habit

sint. er. Sexua praktikatzeari buruzko ohitura multzoa, norberarena edo giza talde zein gizarte batena.

Ikus: ohitura.



B & D:

ES:	B & D
FR:	B & D
EN:	B & D

iz. Bondage & discipline/dominanceren siglak. Batek bere burua lotzen uzten die besteei, sexu-plazera bilatzeko.

B hepatitis:

ES:	hepatitis B
FR:	hépatite B
EN:	hepatitis B

iz. Sexu bidez, besteak beste, kutsa daitekeen gaixotasuna. Birus batek sortzen du. Gibelaren hantura eragiten du.

babes:

ES:	protección
FR:	protection
EN:	protection

iz. Izan daitezkeen eragozpen eta erasoen aurreko zaintza.

babes bikoitz:

ES:	doble protección
FR:	double protection
EN:	double protection

sint. er. Nahi gabeko haurdunaldiak eta sexu bidezko infekzioak gertatzeko arriskua gutxitzeko balio duen babes-neurri bikoitza. Kondoia eta beste antisorgailu bat batera erabiltzea.

babes-mekanismo:

ES:	mecanismo de defensa
FR:	mécanisme de défense
EN:	defence mechanism

iz. Teoria psikoanalitikoan, ego-a herstatatik babesten duen prozesu automatikoa; sexu-bulkada onartezinak ezkututzen edo ezabatzen dituzte babes-mekanismoek.

bagina:

ES: vagina

FR: vagin

EN: vagina

iz. Emakumearen ugaltza-egituraren zatia, bulbatik umetokiraino doana.

Uretraren atzean eta ondostean aurrean dago. Ehun zutikorreko eta giharrezko geruza bat du baginak, mukosaz estalia. Emakumezkoen barne-organo sexuala.

Ikus: ematutu.

bagina-:

ES: vaginal

FR: vaginal

EN: vaginal

(Hitz elkartuetan)

Ikus: baginako.

bagina-eraztun:

ES: anillo vaginal

FR: anneau vaginal

EN: vaginal ring

Ikus: baginako eraztun.

bagina-garbigarria:

ES: ducha vaginal, lavados vaginales

FR: douche (lavement) vaginale

EN: douching

iz. Bagina garbitzea, adibidez ozpin eta urez, edo limoi-zuku eta urez, edo edari koladun batez; koitoaren ondoren egiten da, haurdun ez geratzeko beste neurririk erabili ez denean edo akatsen bat izan denean. Ez du haurdunaldia eragozten.

baginako:

ES: vaginal

FR: vaginal

EN: vaginal

izlag. Baginari dagokiona, edo baginan dagoena.

baginako eraztun:

ES: anillo vaginal

FR: anneau vaginal

EN: vaginal ring

sint. er. Kontrazepzio-metodoa; estrogenoak eta gestagenoak dituen eraztun malgu eta koloregabea da. Estrogenoak eta gestagenoak oso dosi txikitik barreiatzen dira, eta baginak xurgatzen ditu. Hileko lehen egunean jartzen da, eta handik hiru astea kendu. Oso metodo eraginkorra da, baina ez du GIBaren, hiesaren eta beste sexu-infekzio batzuen kontrako babesik ematen.

baginako jario:

ES:	flujo vaginal
FR:	pertes vaginales
EN:	vaginal discharge

sint. er. Baginatik irteten den jarioa; infekzioek nahiz bizkarroiek eragina izan ohi da. Jarioa izaten da blenorragian ere.

baginako lubrifikazio:

ES:	lubricación vaginal lubricación vaginal
FR:	lubrification vaginale
EN:	vaginal lubrication

Ikus: bagina-lubrikazio.

bagina-koito:

ES:	coito vaginal
FR:	coït vaginal
EN:	vaginal coitus

iz. Zakila baginaren barruan sartzean datzan jokabide erotikoa.

bagina-lubrikazio:

ES:	lubricación vaginal
FR:	lubrification vaginale
EN:	vaginal lubrication

iz. Baginaren bustitzea; erreakzio psikofisiologiko bat izan daiteke edo kanpoko substantzia edo produktu baten aplikazioaren ondorio. Emakumearen kitzikapen-fasearen adierazletzat hartzen da. Erreakzio psikofisiologikoaren kasuan, baginaren paretak iragazkorak direnez gero, izerdia agertzen da eta horrenbestez bustitzen da bagina.

Oharrak: Klimaterio garaian, bagina berez ez da aski lubrikatzen. Lubrikazioa behar bezainbatekoa ez denean, koitoa mingarria edo desatsegina gerta daiteke; hori saihesteko, beste labaingarri berezi batzuk erabil daitezke. Bestalde, sexu-kitzikapenean, faktore fisikoak bezain garrantzizkoak dira faktore psikikoak; beraz, lubrikazioan eragina izango dute egoerak, jarrerak, garaiak, lekuak eta abarrek.

baginako uztai:

ES:	anillo vaginal
FR:	anneau vaginal
EN:	vaginal ring

Ikus: baginako eraztun.

baginismo:

ES:	vaginismo
FR:	vaginisme
EN:	vaginismus

iz. Bagina ixten duen nahi gabeko gihar-kontrakzioa.

baginitis:

ES:	vaginitis
FR:	vaginite
EN:	vaginitis

iz. Baginaren hantura, batez ere germenek eragina. Baginako pH-aren asaldua. Haren sintomak dira: bulbako azkura, hantura eta baginako jariora.

bainu:

ES:	baño
FR:	bain
EN:	bath

iz. Gorputza edo haren zati bat ingurune erdi solido, likido edo gaseoso batean sartzeko ekintza, osasuna hobetzeko edo mantentzeko, nahiz gorputza garbitzeko.

bakanal:

ES:	bacanal
FR:	bacchanales
EN:	Bacchanalian

iz. Ardoaren eta ugalkortasunaren jainkoaren (Bako) ohorezko festa, antzinako Erroman ospatzen zena. Alkohola eta sexua izaten ziren protagonista; horregatik, orgia adierazteko erabiltzen da gaur egun.

bakartu:

ES:	aislar, aislado
FR:	isoler, isolé
EN:	isolate, isolated

1. *ad.* Gorputz bat kanpoko eraginetatik babestu. 2. *izond.* Kanpoko eraginetatik babestua dagoena.

bakterio-flora:

ES:	flora bacteriana
FR:	flore bactérienne
EN:	bacterial flora

iz. Organismo batean bizi den bakterio multzoa.

balanitis:

ES:	balanitis
FR:	balanite
EN:	balanitis

iz. Glandearen hantura; prepuzioaren hanturarekin batera agertzen da, gehienetan. Akutua denean, infekzioa, zauria, zornea, eta abar izaten dira. Balanitisa sendatzeko, ezinbestekoa da garbitasuna. Balanitisaren eragile dira garbitasun eza, diabetesa, sexu-eritasunak, eta abar.

balanopostitis:

ES: balanopostitis

FR: balanoposthite

EN: balanoposthitis

iz. Glandearen eta prepuzioaren hantura. Mina, narritadura eta zorne-jarioa dira haren ezaugarri nagusiak.

baldintzatu:

ES: condicionar

FR: conditionner

EN: condition

ad. Animalia edo pertsona bati elkartze-ikaskuntza bat eman, berez erantzunik eragingo ez lukeen estimulu zehatz batek erantzun jakin bat eragin dezan.

baliaezin:

ES: inválido

FR: invalide

EN: invalid

izond. (Pertsona bati buruz) Gaixotasun nahiz lesio baten ondorioz ezindua dagoena.

Ikus: ezindu.

balioak:

ES: valores

FR: valeurs

EN: values

iz. Bizitzan garrantzitsu edo hutsaltzat, on edo txartzat, zuzen edo okertzat, eta desiragarri edo arbuiazarritzat hartzen diren nolakotasunak.

balneoterapia:

ES: balneoterapia

FR: balnéothérapie, thermalisme

EN: balneotherapy

iz. Tratamendu mota; gaixotasunak ur mineralen edo bainuen bidez tratatzen dira.

baltsamiko:

ES: balsámico

FR: balsamique

EN: balsamic

izond. Baltsamoa duena, edo haren ezaugarriak dituena.

barbituriko:

ES:	barbitúrico
FR:	barbiturique
EN:	barbiturate

iz. Hipnotikoen taldeko gai sintetikoa. Azido barbiturikoaren eratorria da.

Nerbio-sistema zentralarentzat lasaigarri eta hipnotikoa da. Erabilera gehiago ere baditu; besteak beste: konbultsioen aurkakoa, epilepsian; anestesikoa, kirurgian, eta abar.

baregarri:

ES:	calmante
FR:	calmant
EN:	sedative

Ikus: lasaigarri.

baretu:

ES:	calmar
FR:	calmer
EN:	calm

Ikus: lasaitu.

barne-behaketa:

ES:	introspección
FR:	introspection
EN:	introspection

Ikus: introspekzio.

barne-genitalak:

ES:	genitales internos
FR:	génitaux internes
EN:	internal genitalia

iz. Begi-bistan ez dauden ugalketa-organoak.

barnerakoi:

ES:	introvertido
FR:	introverti
EN:	introvert

izond. Bere baitaratzeko joera duena (batzuetan, lotsatia).

barneratu:

ES:	penetrar, interiorizar
FR:	pénétrer intérieurement
EN:	penetrate

1. *ad.* Gorputz bat beste baten barrura eraman edo joan. 2. *ad.* Pertsonak iritziak, arauak, eta abar bere egin.

Adibidea: 1. Zakila baginan barneratu/sartu. 2. Aurreko belaunaldiak kastitatearen inguruko arau kulturalak barneratu.

barneratze:

ES:	penetración
FR:	pénétration
EN:	penetration

iz. Gorputz bat beste batean sartzeko ekintza.

barrabil:

ES:	huevo, testículo, cojón
FR:	testicule, couille
EN:	testis, testicle

iz. Semena ekoizten duten bi gonada arretariko bakoitza. Arrautza-itxurako guruinak dira, eta eskrotoaren barnean daude. Espermatozoideak sortzeaz gainera, funtzio endokrinoa ere badute (sexu-hormona maskulinoak jariatzea), eta bigarren mailako sexu-ezaugarriak mugatzen, garatzen eta mantentzen dituzte.

Ikus: testikulu, potro, koskabilo, koskoil.

barrabil-zorro:

ES:	escroto
FR:	scrotum
EN:	scrotum

iz. Testikuluak biltzen dituen zorro edo estalkia. Barrabilak tenperatura egokian gordetzen laguntzen du.

Ikus: eskroto.

Barr-en korpuskulu:

ES:	corpúsculo de Barr
FR:	corpuscule de Barr
EN:	Barr's corpuscle

sin. er. Sexu-kromatinazko multzo kondentsatuak dira, eta emeen zeluletan egon ohi dira, X kromosoma inaktibo baten ondorioz. Barr-ek erakutsi zuen nukleo-mintzean kromatina horiek azaltzearen arabera jakin daitekeela norbaiten sexua.

barrura sartu:

ES:	penetrar
FR:	pénétrer
EN:	penetrate

Ikus: barneratu.

Bartholin-en abzesu:

ES: absceso de Bartholin

FR: abcès de Bartholin

EN: Bartholin's abscess

sin. er. Zorne-metaketa; Bartholin-en guriin baten hantura eragiten du. Hazitako gunea minbera, sentikor eta bero egoten da.

Bartholin-en guriin:

ES: glándulas de Bartholin

FR: glande de Bartholin

EN: Bartholin's gland

sin. er. Baginaren alde bietako guriin bestibular handietako bakoitza. Muki-mintz bulbobaginala bustitzen duen likidua jariatzen dute. Bagina lubrifikatzeaz arduratzen diren sexu-guriinak dira.

bartholinitis:

ES: bartholinitis

FR: bartholinite

EN: bartholinitis

iz. Bartholin-en guriinetakoren baten hantura; bakterio-infekzio batek eragina izan ohi da.

basektomia:

ES: vasectomía

FR: vasectomie

EN: vasectomy

iz. Kontrazepzio-metodoa; gizona antzu uztean datzan ebakuntza kirurgikoa. Hodi deferenteak ebaki eta josi egiten dira, haietan zehar espermatozoideak igaro ez daitezen barrabletatik uretraraino. Espermatozoideen ekoizpena ez da eteten.

Espermatozoide horietatik batzuk fagozitoek xurgatu eta desagerrarazi egiten dituzte, eta beste batzuk, berriz, barrabil-zorrora joaten dira, eta hantxe desegiten. Oso metodo eraginkorra da.

baselina:

ES: vaselina

FR: vaseline

EN: Vaseline

iz. Olio-oinarria duen lubrifikatzaile likatsua. Bagina-sarketa eta uzki-sarketa praktikatzeko erabili izan da.

Oharrak: Oro har, kondoiarekin batera ez erabiltzea aholkatzen da, antisorgailu horrek babes-propietateak gal ditzakeelako.

baskular:

ES: vascular

FR: vasculaire

EN: vascular

izond. Odol-hodiei dagokiena.

basodilatadore:

ES:	vasodilatador
FR:	vasodilatateur
EN:	vasodilator

izond. (Substantziei buruz) Odol-hodiak zabaltzen dituen.

Ikus: hodi-zabaltzaile.

basodilatazio:

ES:	vasodilatación
FR:	vasodilatation
EN:	vasodilatation

Ikus: hodi-zabaltze.

basokonstriktore:

ES:	vasoconstrictor
FR:	vasoconstricteur
EN:	vasoconstrictor

izond. (Substantziei buruz) Odol-hodiak uzkuertzen dituen.

Ikus: hodi-hertsatzaile.

bastart:

ES:	bastardo
FR:	bâtard
EN:	bastard

Ikus: sasiko, bort.

bat-bateko maitemin:

ES:	flechazo
FR:	coup de foudre
EN:	love at first sight

sin. er. Ustekabeen eta bat-batean gertatzen den pertsona batenganako erakarpen handia; harekin topo egin, eta berehala sortzen da. Literaturan eta zineman, askotan azaldu da maitemintzeko era hori, era ideal eta benetakotzat joz.

Ikus: bihotz-sastada, maitasun-kolpe.

bateraezin:

ES:	incompatible
FR:	incompatible
EN:	incompatible

izond. Beste batekin bateratzeko gai ez dena.

bateraezintasun:

ES:	incompatibilidad
FR:	incompatibilité
EN:	incompatibility

iz. Bi gairen edo gehiagoren arteko aurkakotasuna. Esate baterako, bi odol motarena, batera hartutako bi sendagairena, eta abar.

Oharrak: Sendagai-bateraezintasuna: bi sendagai edo gehiago batera hartu ezina, organismoan kalteak gerta daitezkeelako. Odol-bateraezintasuna: bi pertsonaren odolen arteko erreakzioa; baten odolak ez du bestearentzat balio. Bi pertsonaren ezaugarri psikologikoei buruz ere esaten da, bi pertsona elkarrekin elkartu ezin direnean.

bateragaitz:

ES:	incompatible
FR:	incompatible
EN:	incompatible

Ikus: bateraezin.

bateragarritasun:

ES:	compatibilidad
FR:	compatibilité
EN:	compatibility

1. *iz.* Immunologian, organismoaren defentsa-sistemak kanpoko materien aurrean duen jasankortasuna. Esate baterako, transfusioko odola, ehun-txertaketak edo transplantatutako organoak hartzea erreakzio immunerik gertatu gabe. Erabateko bateragarritasuna, eskuarki, berdin-berdinak diren bikietan gertatzen da. 2. *iz.* Elkarrekin ongi konpontzeko gaitasuna.

batezbesteko:

ES:	promedio
FR:	moyenne
EN:	average

iz. Zenbakizko balioa; serie baten batura serie horren unitate kopuruaz zatituz lortzen da.

BDSM:

ES:	BDSM
FR:	BDSM
EN:	BDSM

iz. Hiru sigla loturik sorturiko akronimoa, BD-DS-SM; pertsonarteko ezohiko botere-harreman edo sexu-praktika adierazten du. Botere-mendekotasunean, sadomasokismoan, *bondage*an edo diziplinan oinarrituriko bizimodua edo sexu-harremana.

begi:

ES:	ojo
FR:	oeil
EN:	eye

iz. Ikusmen-organoa. Begi-orbitaren barruan dago, garezuraren aurreko aldean. Esfera-itxura du eta hiru geruza ditu: esklerokornea, ubea eta erretina.

Kristalinoak banatzen du, bi barrunbetan. Begirada lehen mailako osagaia da harreman erotikoa.

begiluze:

ES:	mirón
FR:	voyeur
EN:	peeping Tom

izond. Gehiegi begiratzen duena, batik bat behar ez den lekura. Harreman erotikoei begira egoten dena, ezkututik edo aurrez aurre. Biluzten ari denari edo inoren gorputzaren alde erotikoei baimenik gabe begiratzen diena.

begi-nini:

ES:	pupila
FR:	pupille
EN:	pupil

iz. Irisaren erdiguneko irekigune uzkurgarri eta zabalgarri biribildua. Argia kristalinora eta erretinara igaroarazten duen leihoa da, eta diametro aldakorra du argiaren edo beste zenbait estimuluren arabera. Begi-ninien dilatazioak emozioak adierazten ditu, eta orobat sexu-desira.

begiztatu:

ES:	visualizar
FR:	visualiser
EN:	visualise

ad. Beste izaera bateko fenomenoak irudikatu, irudi optikoen bidez.

behagarri:

ES:	observable
FR:	observable
EN:	observable

izond. Beha daitekeena; behatzea merezi duena.

behaketa:

ES:	observación
FR:	observation
EN:	observation

iz. Fenomeno baten azterketa arretatsua eta sistematizatua, fenomeno horretan eraginik izan gabe edo eragina izanik egiten dena.

behar:

ES: necesidad

FR: besoin

EN: need

iz. Zerbait nahitaezko izatea; osotasun psikoafektiboaren gabezia adierazten duen barne-sentsazio eta adierazpena.

behar baino lehenagoko:

ES: prematuro

FR: prématuré

EN: premature

Ikus: garaiz aurreko.

behatu:

ES: observar

FR: observer

EN: observe

ad. Ikusiz zein entzunez, arreta jarri.

behatz:

ES: dedo del pie

FR: orteil

EN: toe

iz. Oinaren muturreko bost luzakinetariko bakoitza. Hiru falangez osatuta daude guztiak, bat izan ezik; izan ere, bi falange ditu lehenengo hatzak, hatz lodiak.

Ikus: hatz.

behatzailearen rol:

ES: rol del espectador

FR: rol du spectateur

EN: viewer rol

sin. er. Nork bere burua gaitzestea jarduera erotiko bat gauzatzen den bitartean, eta horren ondorioz ez gozatzea jarduera horretan.

bekatu:

ES: pecado

FR: péché

EN: sin

1. *iz.* Erljio aginduak nahita haustea. 2. *iz.* Zuzena denetik aldentzen den ekintza, edo behar ez bezalako jokabidea. 3. *iz.* Edozeren gehiegikeria edo gutxiekeria.

belarri:

ES:	oreja
FR:	oreille
EN:	ear

iz. Entzumen-organoa; barneko, erdiko eta kanpoko belarria ditu osagai.

Entzumenak parte handia du harreman erotikoa; bestalde, belarriak gune erotiko garrantzitsua dira.

beltzune:

ES:	moraton
FR:	bleu
EN:	bruise

iz. Kolore iluneko gunea, larruazalean agertzen dena. Larruazalpeko zelula-ehunera odola igarotzearen ondorioz edo larruazalpeko kapilarrak haustearen ondorioz gertatzen da. Hainbat eragile izan ditzake: kolpeak, hotza, eta abar.

Oharrak: Emakume baten begien inguruan agertutako ubelduak emakumeen aurkako bortxakeriaren adierazletzat erabiltzen dira indarkeriaren aurkako kanpainetan.

Ikus: ubeldu.

benereo:

ES:	venéreo
FR:	vénerien
EN:	venereal

1. *izond.* Sexu-gozamenari (Venus) dagokiona. 2. (Med.) Gehienetan sexu-harremanaren bidez kutsatzen den gaixotasunari dagokiona.

bere kordean:

ES:	consciente
FR:	conscient
EN:	conscious

Ikus: kontziente.

berezko:

ES:	espontáneo
FR:	spontané
EN:	spontaneous

izlag. Modu naturalean –arrazoirik gabe, itxuraz– gertatzen dena.

bero:

ES:	cachondo
FR:	excité
EN:	hot

izond. Grinatsua; erraz berotzen dena.

beroaldi:

ES: excitación, sofoco

FR: bouffée, excitation

EN: flush

1. iz. Kitzikapenaren ondorioa. 2. iz. Aurpegira etortzen den bat-bateko bero-sentsazio iragankorra; gorritzearekin batera etortzen da, gehienetan. Nerbio-sistema autonomoak erregulatzen dituen asaldu basomotorrengatik gertatzen dira beroaldiak. Emakumeengan, obulutegien, hipotalamoaren eta hipofisiaren jarduera neurohormonala aldatzearen ondorioz gertatzen dira asaldu basomotor horiek, batik bat menopausian.

berotu:

ES: calentar, sofocar

FR: chauffer, exciter, bander, étouffer

EN: heat, turn on, stifle

1. ad. Kitzikatu. 2. ad. Aurpegira bat-batean bero-sentsazio iragankorra etorri. 3. ad. Bat-bateko berotasuna sentitu.

berrelikadura:

ES: retraer

FR: rétracter

EN: retract

ad. Atzerantz jo, berriro lehenera itzuli, damutu.

berriz eritze:

ES: recaída

FR: rechute

EN: relapse

Ikus: berriz gaixotze.

berriz gaixotze:

ES: recaída

FR: rechute

EN: relapse

sin. er. Erabat sendatu aurretik, gaixotasuna –bereziki infekziosoa– berriz itzultzea.

berrogeialdi:

ES: cuarentena

FR: quarantaine

EN: quarantine

iz. Infekzio jakinak dituzten edo izan ditzaketen pertsonen ezartzen zaien bakartze-aldia. Gaixotasunaren hedapena eragozteko egiten da.

Oharrak: Garai batean, emakume erdiberriak bete behar izaten zuen, bizimodu normala egin aurretik, arima garbitzeko.

besapeko:

ES:	axilar
FR:	axillaire
EN:	axillary

izlag. Besapeari dagokiona, edo besapean dagoena.

besikular:

ES:	vesicular
FR:	vésiculaire
EN:	vesicular

izond. Besikulei dagokiena.

beste sexu:

ES:	el otro sexo
FR:	l'autre sexe
EN:	the other sex

sint. er. Kontrako sexua.

bestereenezin:

ES:	intransferible
FR:	intransmissible
EN:	non-transferable

izond. Besteren esku utz ez daitekeena, besteri eman ezin zaiona.

bestialismo:

ES:	bestialismo
FR:	bestialité
EN:	beastiality

Ikus: zoofilia.

bestibulu:

ES:	vestíbulo
FR:	vestibule
EN:	vestibule

iz. Hodi baterako sarrera den barrunbea; baginako bestibulua, esate baterako.

bestibuluko erraboilak:

ES:	bulbos vestibulares
FR:	bulbes vestibulaires
EN:	vestibular bulbs

sint. er. Introitusaren alboetatik beherantz hedatzen diren gorputz leizetsuak. Sexu-kitzikapenean, handitu egiten dira.

betile:

ES:	pestaña
FR:	cil
EN:	eyelash

iz. Betazalen ertzetan lerro bikoitz edo hirukoitzetan dauden zilioetariko bakoitza.

bibiparo:

ES:	vivíparo
FR:	vivipare
EN:	viviparous

izond. Amaren barnean garatu eta karenean elikatzen den enbrioia duena.

bibitelino:

ES:	bivitelino
FR:	bivitellin
EN:	bivitelline

izond. Obulu banatetik sortutako bikietako bakoitzari dagokiona; ondoretasun genetiko desberdina izango dute.

bideokonferentzia:

ES:	videoconferencia
FR:	vidéoconférence
EN:	videoconference

iz. Internet bidezko mintzaldia; erabiltzaileek webcam baten bidez jasotzen eta bidaltzen dituzte irudiak. Teknologia horren bidez, zenbait jokaera erotikori bidea zabaltzen zaio.

bideraezin:

ES:	inviabile
FR:	non viable
EN:	unviable

izond. Aurrera irteteko aukerarik ez duena; garatzeko eta bizitzeko gai ez dena. Jaio ondoren bizirik irauteko ezintasuna duen fetuari dagokiona.

bideragarri:

ES:	viable
FR:	viable
EN:	viable

izond. Garatzeko, hazteko edo bizirik irauteko gai dena; haurdunaldiaren 28. astera iritsi den umekia, esate baterako.

bidet:

ES:	bidé, bidet
FR:	bidet
EN:	bidet

iz. Bainuontzi berezia, itxura obalatukoa. Uzki ingurua eta sexu-organoak garbitzeko erabiltzen da.

bifobia:

ES:	bifobia
FR:	biphobie
EN:	biphobia

iz. Bisexualen aurkako sineskeria, iritzi, jarrera nahiz jokabide oldarkor, gorroto, mespretxu eta irigarrikeria multzoa. Sexu-joeragatik gertatzen den bereizkeria da, eta gizarteko estereotipo ahaltzuak eta giza aniztasuna ez onartzea daude haren oinarrian; gizonezkoak zein emakumezkoak hein berean desiratzea ez da onartzen batik bat.

bigamia:

ES:	bigamia
FR:	bigamie
EN:	bigamy

iz. Bi pertsonarekin une berean ezkontuta egotea, edo lehenbiziko ezkontza desegin gabe berriz ezkontzen den pertsonaren egoera.

bigamo:

ES:	bígamo
FR:	bigame
EN:	bigamous

izond. Bigamia-egoeran dagoena.

bigarren mailako gune erogeno:

ES:	zona erógena secundaria
FR:	zone érogène secondaire
EN:	secondary erogenous zone

sint. er. Esperientziaren ondorioz sentiberatasun erotikoa irabazi duen gorputz atala.

bigarren mailako sexu-ezaugarriak:

ES:	caracteres sexuales secundarios
FR:	caractères sexuels secondaires
EN:	secondary sexual characteristics

sint. er. Gizonezkoak eta emakumezkoak bereizten dituzten sexu-ezaugarriak.

Ez daude zuzenean ugalketarekin erlazionatuta. Pubertaroan garatzen dira, sexu-hormonen eraginez. Gorputz-irudia, bularren garapena, gihar eta hezurren garapena, koipearearen eta ilearen banaketa, aurpegiaren forma eta laringearen garapena ditu bereizgarri. Sexu-heldutasunarekin batera gertatzen diren aldaketak dira. Bigarren mailako sexu-ezaugarriek eragin berezia dute erakarmenean.

Ikus: sexu-heldutasuna.

bigun:

ES:	flácido
FR:	flasque
EN:	flaccid

izond. Ahula, bera, trinkotasun gutxikoa. Harreman erotikoa parte hartzen duten giharren edo osagaien egoera izan daiteke.

biguntasun:

ES: flacidez

FR: flaccidité

EN: flaccidity

iz. Biguna denaren ezaugarria. Laxotasuna, gihar-ahultasuna, ahulezia.

bihotz:

ES: corazón

FR: coeur

EN: heart

1. *iz.* Uzkurdura erritmikoen bidez odolari arteria eta zainetan barrena zirkularazten dion giharrezko organoa. 2. *iz.* Organo hori bera, sentimenduen gunetzat hartua. 3. *iz.* Adorea, kemenen. 4. *iz.* Kutuna, laztana, maitea.

bihotzaldi:

ES: palpito, corazonada

FR: coup de coeur, préssentiment

EN: hunch, feeling

Ikus: bihozkada.

bihotz-taupada:

ES: palpitación, latido

FR: battement

EN: beat

iz. Bihotzaren (eta arteria-zainen) uzkuertze eta zabaltze txandakatua.

bihozkada:

ES: palpito, corazonada

FR: coup de coeur, préssentiment

EN: hunch, feeling

iz. Bihotzak (metaforikoki) eragindako susmo edo ekintza.

bihurgune:

ES: curvatura

FR: courbure, virage

EN: curvature

iz. Zerbait okertu, tolestu edo bihurritzen den gunea.

biki bibitelino:

ES: gemelo bivitelino

FR: jumeaux bivitellins

EN: dizygotic twins

Ikus: biki dizigotiko.

biki dizigotiko:

ES: gemelo dicigótico, gemelo dizigótico

FR: jumeaux dizygotes

EN: dizygotic twins

sint. er. Haurdunaldi bereko emaitza bikoitza; obulutegitik aldi berean askatutako bi obulu aldi berean ernaltzearen ondorioa da. Sexu berekoak edo sexu desberdinekoak izan daitezke bi izakiak, eta egitura fisiko eta genetiko bereziak dituzte. Bereizita dituzte kareinak eta mintzak (amniosa eta koriona).

biki monozigotiko:

ES: gemelo monocigótico

FR: jumeaux monozygotes

EN: monozygotic twins

sint. er. Haurdunaldi bereko bi ondorengo; obulu ernaldu bakarra garatzearen ondorio dira. Bi zati berdinetan banatzen da obulu ernaldua, eta bi fetu ematen ditu.

Sexu berekoak dira beti biki horiek, eta egitura genetiko berbera, odol-talde bera eta elkarren antz handia dute, ezaugarri fisiko, psikologiko eta mentalei dagokienez.

Berdinak edo bereziak izan daitezke kareina eta mintzak, obulua bitan zatitu den garapen-unearen arabera.

biki siamdar:

ES: gemelo siamés

FR: jumeaux siamois

EN: Siamese twins

sint. er. Fetu biki elkartuak, era bertsuan garatuak eta obulu bakarraren emaitza direnak. Elkartuta dauden atalen arabera da asaldaren larritasun-maila: azalekoa (zilbor-hesteko odol-hodiena) edo sakonagoa (buruarena edo bularrarena).

biki unibitelino:

ES: gemelo univitelino

FR: jumeaux univitellins

EN: monozygotic twins

Ikus: biki monozigotiko.

biki, hiruki, lau....:

ES: gemelos

FR: jumeaux

EN: twins

iz. Haurdunaldi anizkun berean jaiotako ondorengoetariko bakoitza. Giza espeziean, izaki bakarra jaiotzen da eskuarki erditze bakoitzean, baina izaten dira erditze bikoitzak eta anizkoitzagoak ere.

Ikus: biki monozigotiko, biki dizigotiko.

biki-azterketak:

ES:	estudios de gemelos
FR:	études de jumeaux
EN:	twin studies

iz. Biki monozigotikoen zein biki dizigotikoen arteko korrelazioa oinarritzat hartzen duten ikerketen multzoa; aldakortasun fenotipikoaren osagai genetiko eta ingurunekoak balioesteko egiten dira eskuarki.

bikote:

ES:	pareja
FR:	couple
EN:	pair, couple

iz. Elkarren artean afektibitate- eta sexu-harremanak dituzten bi pertsonak osaturiko elkarte.

bikotekide:

ES:	pareja
FR:	partenaire
EN:	partner

iz. Bikote bateko partaidea.

bikotekide-truke:

ES:	intercambio de parejas
FR:	échange de partenaires
EN:	partner exchange

Ikus: bikote-truke.

bikote-truke:

ES:	intercambio de parejas
FR:	échange de couples
EN:	swinging

iz. Bikotekidea trukatzean datzan jarduera; bi bikoteren edo gehiagoren artean egin daiteke. Bikote horiek egonkorrak nahiz aldi baterakoak izan daitezke.

biktima:

ES:	víctima
FR:	victime
EN:	victim

iz. Kalteren bat jasan duen pertsona; beste norbaiten erruz, edo zoriz.

Billings-en metodo:

ES:	Billings, método de
FR:	méthode de Billings
EN:	Billings method

sint. er. Umetoki-lepoko mukiaren egoeran oinarritzen den kontrazepzio-metodoa.

bilu:

ES:	pelusa
FR:	duvet
EN:	down

1. *iz.* Ilea edo bizarra, bereziki leuna eta urria (besoetakoa, adibidez). 2. *iz.* Bizarra edo bibotea hasi aurretik, gazteei goiko ezpainaren gainaldean sortzen zaien ilea.

Ikus: ile.

bilotsu:

ES:	velludo, vellosa
FR:	chevelu
EN:	villous, downy <i>izond.</i> Bilu ugari duena

biluz:

ES:	desnudo
FR:	nu
EN:	naked, nude

Ikus: biluzi.

biluzgorri:

ES:	desnudo
FR:	nu
EN:	naked, nude

Ikus: biluzi.

biluzgorritu:

ES:	desnudar (se)
FR:	déshabiller
EN:	undress, denude, strip <i>ad.</i> Arropa guztia kendu.

biluzi:

ES:	desnudar, desnudo
FR:	déshabiller, désabillé, nu
EN:	undress, naked, nude

1. *ad.* Norbaiti arropa erantzi. 2. *izond.* Jantzita ez dagoena.

biluztasun:

ES:	desnudez
FR:	nudité
EN:	nudity, nakedness <i>iz.</i> Biluzik egotearen ondorioa.

binakatze:

ES:	apareamiento
FR:	accouplement
EN:	pairing

iz. Biren arteko sexu-harremana, bikotea osatuz edo koitoa soilik praktikatuz.

binakatze selektibo:

ES:	apareamiento selectivo
FR:	accouplement sélectif
EN:	assortative mating

sint. er. Berdintasunaren, bestelakotasunaren edo beste irizpideren baten arabera aukeratzea ugal-bikotekidea, eta ez zoriz.

binakatze moduak:

ES:	sistemas de apareamiento
FR:	systèmes d'accouplement
EN:	pairing systems

iz. Animalia-espezieen ugalkortasun-estrategiak, hasi limurtzetik eta sexu-batzetik, eta umeak zaintzerainokoak. Badira zenbait mota: monogamia, poliginia, poliandria, promiskuitatea...

Ikus: monogamia, poligamia, poliginia, poliandria, promiskuitate.

biologia:

ES:	biología
FR:	biologie
EN:	biology

iz. Bizia, oro har, aztertzen duen zientzia; izaki bizidunek elkarrekin eta ingurunearekin dituzten harremanak, eta izaki horien egitura, funtzioak eta sailkapenak aztertzen ditu.

biologiko:

ES:	biológico
FR:	biologique
EN:	biological

izond. Biologiari dagokiona.

biologo

ES:	biólogo
FR:	biologiste
EN:	biologist

iz. Biologian aditua; bizitzaren zientzia aztertzen duen pertsona.

biparo:

ES:	bípara
FR:	multipare
EN:	biparous

izond. (Ugaztun emeei buruz) Erditze berean bi ume izan dituen.

biral:

ES: viral, vírico

FR: viral

EN: viral

izond. Birusek eragindakoa; birusari dagokiona.

birjina:

ES: virgen

FR: vierge

EN: virgin

izond. Birjintasun-egoeran dagoena; koitorik izan gabea.

birjintasun:

ES: virginidad, virgo

FR: virginité

EN: virginity

iz. Koito-esperientziarik ezaren balioespen morala.

birus:

ES: virus

FR: virus

EN: virus

iz. Organismo mikroskopikoa, zelularra ez dena. Gaixotasun-eragile dira birusak animalientzat eta landareentzat. Zelula barneko bizkarroiak dira; infektatzen duten zelularen metabolismotik lortzen dute beharrezko energia. Beren kabuz ugaltzeko ezin direnez, kode genetikoaren ematen dute birusek, eta zelula ostalariari hartzen dizkiote ugaltzeko behar dituzten energia eta oinarritzko materialak. DNA nahiz RNA azido nukleikoak izan ditzakete.

birus-:

ES: viral, vírico

FR: viral

EN: viral

(Hitz elkartuetan)

Ikus: biral.

bisexual:

ES: bisexual

FR: bisexuel

EN: bisexual

izond. Gizonezkoek nahiz emakumezkoek erakartzen dutena.

Ikus: bisexualitate.

bisexualitate:

ES:	bisexualidad
FR:	bisexualité
EN:	bisexuality

iz. Sexu berekoek eta beste sexukoek erakartzen dutenaren sexu-joera.

Bisexualitatea iragankorra izan daiteke, bizitzako garai batera mugatua; edo iraunkorra, bizitza osokoa ausaz. Garai batean, sexu berekoek erakar dezakete pertsona; eta beste bolada batean, beste sexukoek. Sexu-bizipenak inguruabarren arabera ere badira. Teoria batzuen arabera, denok gara bisexualak jaiotzatik.

Oharrak: Kinsey-ren txostena zedarri garrantzitsua izan zen; egileak heterosexualitatearen eta homosexualitatearen arteko continuum bat proposatzen zuen: zazpi puntuko eskala batean, muturretan homosexualitate eta heterosexualitate hutsak ipini zituen, eta tarteko puntuetan bisexualitate-mailak.

bisexudun:

ES:	bisexuado
FR:	bisexué
EN:	bisexual

izond. Hermafrodita; ugal-organo arrak eta emeak dituenak.

bitxi:

ES:	raro
FR:	rare
EN:	rare

Ikus: arraro.

bizi:

ES:	vida
FR:	vie
EN:	life

1. *iz.* Energia, organismoak haztea, ugaltzea, elikagaiak xurgatzea eta erabiltzea, eta zenbait organismo mugitzea eta borondatezko kontrola izatea ahalbidetzen duena. 2. *iz.* Jaiotzatik heriotzara doan denbora-tartea. 3. *izond.* Bizia duena. 4. *ad.* Bizirik iraun.

bizi-:

ES:	vital
FR:	vital
EN:	vital

(Hitz elkartuetan) Bizinari dagokiona.

bizialdi:

ES:	vida
FR:	vie
EN:	life

Ikus: bizi, bizitza.

bizidun:

ES:	viviente, vivo
FR:	vivant
EN:	living

izond. Bizirik dagoena.

bizigai:

ES:	sustento
FR:	nutrition
EN:	sustenance

iz. Bizia mantentzeko ezinbesteko gaia.

bizigarri:

ES:	estimulante
FR:	stimulant
EN:	stimulant

izond. Gorputz-sistema baten jarduera-erritmoa handitzen duena. Badira droga bizigarriak, psikoestimulagarriak edo psikotonikoak, mugimendu- eta buru-jarduera gehitzeko, arreta areagotzeko eta, askotan, euforia eragiteko.

bizikidetasun:

ES:	cohabitación
FR:	cohabitation
EN:	cohabitation

iz. Bi pertsona elkarrekin bizitzea, ezkondata baleude bezala, baina legezko agiririk gabe.

bizikidetza:

ES:	convivencia
FR:	vie en commun
EN:	living together

iz. Elkarrekin bizitzea.

bizio:

ES:	vicio
FR:	vice
EN:	vice

iz. Plazeraren gehiegikeria.

bizirik iraute:

ES:	supervivencia
FR:	survie
EN:	survive

ad. Bizi-zantzuei eustea.

Ikus: espeziearen iraupen.

bizitu:

ES:	estimular
FR:	stimuler
EN:	stimulate

ad. Zerbaitek bizitasuna hartu edo eman.

bizitza:

ES:	vida
FR:	vie
EN:	life

Ikus: bizi.

bizkorgarri:

ES:	estimulante
FR:	stimulant
EN:	stimulating

Ikus: bizigarri, suspergarri, estimulatzaile.

bizkorregi eiakulatze:

ES:	eyaculación precoz
FR:	éjaculation précoce
EN:	premature ejaculation

sint. er. Behar baino lehenago gertatzen den eiakulazioa; antsietateak edo estimulazio handiak eragiten du sarritan. Kitzikapen-fasearen eta erresoluzio-fasearen arteko denbora-tartea edo jardun-tartea laburregia izaten da, eta horrek orgasmoaren edo topaketa erotikoren bizipena eskastzat jotzera eraman ohi du.

Ikus: eiakulazio azkar.

bizkortu:

ES:	estimular
FR:	stimuler
EN:	stimulate

Ikus: bizitu, indarberritu.

bizkortzaile:

ES:	estimulante
FR:	estimulant
EN:	stimulating

Ikus: bizigarri estimulatzaile.

Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Biltzarra:

ES:	Conferencia Internacional sobre Población y Desarrollo
FR:	Conference Internationale sur la Population et le Développement
EN:	International Conference on Population and Development <i>sint. er.</i> Nazio Batuek Kairon egindako biltzarra (1994). Sexu- eta ugalketa-osasuna eta arlo horietako eskubideak jorratu zituen lehen biltzarra izan zen, ordura arte helburu demografikoak ezartzen soilik arituak baitziren Nazio Batuak. Emakumeen garapenean eskubide horiek jokatzeko duten papera ere aitortu zen. 1994an finkatutako helburuak 2015ean betetzeko epea ipini du Biztanleria eta Garapenari buruzko Nazioarteko Biltzarrak; bost urtetik behin berraztertzen dituzte helburu horiek.

blastozisto:

ES:	blastocisto
FR:	blastocyste
EN:	blastocyst <i>iz.</i> Enbrioia, garapenaren hasieran.

blastozito:

ES:	blastocito
FR:	blastocyste
EN:	blastocyte <i>iz.</i> Blastozistoa osatzen duten zeluletariako bakoitza.

blastula:

ES:	blástula
FR:	blastula
EN:	blastula <i>iz.</i> Enbrioi-garapenaren aldia, segmentazioaren bukaerakoa; barrunbe bat eratzen duten zelulez osatua dago enbrioia aldi horretan.

blenorragia:

ES:	blenorragia, gonorrea, gonococcia
FR:	blennorragie; gonorrhée
EN:	blennorrhagia; gonorrhea; gonorrhoea <i>iz.</i> Sexu bidezko gaixotasuna, bereziki gernubideari eta, batzuetan, faringeari, konjuntibari eta uzkiari erasaten diena. Kutsatutako pertsona batekin edo organismo eragilea (<i>Neisseria Gonorrhoeae</i>) duen jariakinen batekin kontaktua izan ondoren gertatzen da infekzioa. Blenorragiaren ezaugarriak dira: uretritisa, disuria, baginako edo uretrako jario zornetsu berde-horixka, gernubide gorritua edo handitua, eta azkura, mina nahiz sumindura uretra- edo bagina-zuloan. Mukosa genitalaren hantura kutsagarria da, batez ere koitoaren bidez. Erabat senda daiteke, edo kroniko bihurtu. <i>Ikus:</i> gonorrea.

blenorrea:

ES: blenorrea

FR: blennorrhée

EN: blennorrhea, blennorrhoea

iz. Baginako nahiz uretrako jariakin ugaria; blenorragiak eragina izan ohi da. Uretrari edo baginari darion fluxu blenorragiko kronikoa; gonorea kronikoa.

bluechat:

ES: bluechat

FR: bluechat

EN: bluechat

iz. Ezezagunak diren bi erabiltzaile edo gehiagoren arteko testu bidezko hizketaldia; parte-hartzaile guztiek bluetooth teknologiadun gailu bat izan behar dute, eta bakoitzak bere izena (edo izengoitia) ematen du. Leku publiko eta jendetsuetan gertatzen da, eta, testuez gainera, irudiak eta soinuak ere igor daitezke, perimetro baten barnean betiere. Ohikoa da erabiltzaileek beren aurkezpen-datuak ematea, hala nola adina, sexu-orientazioa edo hizkuntza. Harremanetan jartzeko datuak ere eman daitezke: posta elektronikoa edo telefonoa.

bluetooth teknologia:

ES: teknologia bluetooth

FR: bluetooth technologie

EN: bluetooth technology

iz. Kablerik gabe gailu bat baino gehiago perimetro jakin baten barnean elkarrekin konektatzeko sistema. Honako tresna hauek konekta daitezke, besteak beste: ordenagailu eramangarriak, PDAk, eskuko telefonoak, argazki-kamera digitalak, saguak eta inprimagailuak.

boluptuositate:

ES: voluptuosidad

FR: volupté

EN: voluptuousness

iz. Plazer sentsuala bilatzen duen jarrera.

bondage:

ES: bondage

FR: bondage

EN: bondage, rope play

iz. 1. Mirabearena egiten duen pertsona bat sokaz lotzea, helburu sexual nahiz estetikoekin.

Ikus: B & D.

borondate oneko sexismo:

ES: sexismo benevolente

FR: sexisme bienveillant

EN: benevolent sexism

sint. er. Ezkutukoa eta menderatzailea den sexismo mota. Zailagoa da hautematen beste sexismo motak baino; izan ere, gauzatzen duenari ez dio sentimendu negatiborik eragiten; jasaten duenari, berriz, ez dio zertan on egin.

bort:

ES:	bastardo
FR:	batârd
EN:	bastard

Ikus: sasiko, bastart.

bortxa:

ES:	violencia
FR:	violence
EN:	violence

iz. Indarrezko erasoa.

bortxakeria:

ES:	violencia
FR:	violence
EN:	violence

iz. Helburu bat lortzeko, edo grina hutsagatik, bortxa erabiltzea.

bortxatu:

ES:	violar
FR:	violer
EN:	rape

ad. Norbait, haren baimenik gabe edo bortxaz, koitoa egitera behartu.

bortxatzaile:

ES:	violador
FR:	violeur
EN:	rapist

izond. Bortxazko sexu-harremana izatera behartzen duena.

bortxatze:

ES:	violación
FR:	viol
EN:	rape

iz. Norbaiti baimenik gabe edo bortxaz koitoa egitea.

brageta:

ES:	bragueta
FR:	braguette
EN:	flies, zipper

iz. Praken aurrealdeko irekidura bertikala.

brida:

ES:	brida
FR:	bride
EN:	bridle

iz. Larruzko edo metalezko piezen multzoa, zaldiaren ahokoa eta hedeak imitatzen dituen. Mendekoaren papera egiten duenari jartzen zaizkio, hipika-joko sexualetan. Begi-saihetsekoak edo kabestru modukoak ere erabili ohi dira batzuetan.

bromuro:

ES:	bromuro
FR:	bromure
EN:	bromide

iz. Substantzia psikoaktiboa; tradizionalki, propietate lasaigarriak egotzi zaizkio, zehazki desira erotikoa edo zakilaren tentetzea eragozteko gaitasuna.

bular:

ES:	teta, pecho, seno, mama
FR:	sein
EN:	breast

iz. Esnea jariatzen duen guruina. Giza espeziean, bi dira; alde banatara daude enborraren aurrealdean, eta kono-itxura dute. Bularren osagaiak dira, kanpotik barrura: larruazala –bertan, titiburua dago, areolaz inguratua– eta larruazalpeko gantz-ehuna –erabat inguratzen du ugatz-guruina–.

bular-:

ES:	mamario
FR:	mammaire
EN:	mammary

(Hitz elkartuetan). Bularrari dagokiona.

bular-mutur:

ES:	pezón
FR:	mamelon
EN:	nipple

Ikus: titiburu.

bular-punta:

ES:	pezón
FR:	mamelon
EN:	nipple

Ikus: titiburu.

bularra eman:

ES: amamantar
FR: allaiter
EN: breastfeed
ad. Haurrari bularreko esnea harrarazi.

Ikus: eradoski.

bularra hartu:

ES: mamar, lactar
FR: téter
EN: suckle
ad. Ugatzetatik esnea xurgatu.

Ikus: edoski.

bularra kendu:

ES: desmamar, destetar
FR: sevrer
EN: wean
ad. Umeari bular-esnea emateari utzi, beste elikagai batzuk har ditzan haren ordeaz.

bularrak handitze:

ES: aumento de busto
FR: agrandir les seins
EN: breast augmentation
sint. er. Helburu estetikoaren kariaz, bularretan protesiak jartzea (silikonazkoak oro har), haiek handitzeko.

bularreko adenoma:

ES: adenoma mamario
FR: adénome du sein
EN: breast adenoma
sint. er. Bularreko tumore onbera.

bularreko haur:

ES: lactante
FR: nourrisson
EN: nursing infant
sint. er. Umetokiz kanpoko bizitzaren lehen aroan dagoen haurra; jaio ondoko 12. hilabetera arte iristen da gutxi gorabehera aro hori.

bularretako:

ES:	sostén
FR:	soutien-gorge
EN:	bra, brassiere

iz. Bularrei eusteko azpiko jantzia.

bulba:

ES:	vulva
FR:	vulve
EN:	vulva

iz. Emakumezkoen kanpo-organo genitalen multzoa. Han daude Venus mendia, ezpain handiak, ezpain txikiak, klitoria, baginaren bestibulua eta bestibuluko guriak. Ukitzearen bitartez hari eraginez, emakumeak plazer handia senti dezake.

bulba-:

ES:	vulvar
FR:	vulvaire
EN:	vulvar

(hitz elkartuetan)

Ikus: bulbako.

bulbako:

ES:	vulvar
FR:	vulvaire
EN:	vulvar

izlag. Bulbari dagokiona.

bulba-orgasmo:

ES:	orgasmo vulvar
FR:	orgasme vulvaire
EN:	vulvar orgasm

iz. Hatzen, dardaragailuaren edo zakilaren bidez bulba kitzikatuz eragindako orgasmoa. Master and Jonhsonen ikerketaren arabera, emakumeen % 30ek baino ez du lortzen orgasmoa koitoaren bidez soilik.

bulimia:

ES:	bulimia
FR:	boulimie
EN:	bulimia

iz. Elikagaiak barneratzeko neurri kanpoko irrika. Era jarraituan janari mordoa irentsi ondoren, depresioak eta baraualdiak izaten ditu gaixoak, sarritan.

bulkada:

ES:	impulso
FR:	impulsion
EN:	impulse

iz. Nerbio-transmisioan parte hartzen duen prozesu elektromekanikoa.

iz. Zerbait egiteko joera, beharra, nahia edo bat-bateko ekintza; eutsezina izaten da, eta irrazionala sarritan, sentimendu- edo emozio-egoera jakin baten ondorio.

burdel:

ES:	burdel, lupanar, prostíbulo
FR:	bordel
EN:	brothel

iz. Prostituta talde batek bezeroei zerbitzua eskaintzen dien etxea eta lekua.

burua nahasi:

ES:	volverse loco
FR:	devenir fou
EN:	go mad

Ikus: erotu.

buruko ile:

ES:	cabello
FR:	cheveu
EN:	hair

sint. er. Buruko luzakin epidermikoa, hari-itxurakoa.



call-girl:

ES:	call-girl
FR:	call-girl
EN:	call-girl
	iz. Prostituta mota bat.

Ikus: puta.

casanova:

ES:	casanova
FR:	casanova
EN:	casanova

iz. Adkor. Emakume askorekin maite-jolasak izateko joera duen gizonezkoa.
Giovanni Giacomo Casanova de Seingalt (1725-1789) italiar pertsonaian du jatorria.

coït à la vache:

ES:	coït à la vache
FR:	coït à la vache
EN:	coït à la vache
	<i>sint. er.</i> Bagina-sarketa mota, emakumezkoak gizonezkoari bizkarra emanda egiten dena.

coitus interruptus:

ES:	coitus interruptus, coito interrumpido.
FR:	coitus interruptus
EN:	coitus interruptus
	<i>sint. er.</i> Gizonak, eiakulatzera doala sentitzen duenean, zakila baginatik ateratzea. Eraginkortasun nola-halakoa du neurri antisorgailu gisa.

coitus reservatus:

ES:	coitus reservatus
FR:	coitus reservatus
EN:	coitus reservatus
	<i>sint. er.</i> Eiakulazioa kontrolatzea, haurdunaldia saihesteko edo eiakulaziorik gabeko orgasmoa izateko. Eraginkortasun nola-halakoa du kontrazepzio-neurri gisa.

Cowper-en guruin:

ES: glándulas de Cowper

FR: glande de Cowper

EN: Cowper's gland

sint. er. Gizonezkoen sexu-guruin parean; prostataren azpian daude. Jariakin argi alkalino bat isurtzen dute uretrara sexu-kitzikapenean. Bi funtzio ezagutzen zaizkio jariakin horri: alde batetik, esperma uretratik igarotzea erraztea, uretra lubrikatuz; bestetik, alkalinoa denez, espermatozoideak uretraren azidotasunetik babestea. Guruin horien jariakinari likido aurreseminal deitu ohi zaio.

cunnilingus:

ES: cunnilingus

FR: cunnilingus

EN: cunnilingus

iz. Ahoaz emakumearen bulba, perineoa edo uzkia kitzikatzea, musukatuz, miazkatuz, eta abar.

Ikus: cunnilingus.

cunnilingus:

ES: cunnilingus

FR: cunnilingus

EN: cunnilingus

iz. Emakumearen organo genitalak eta haien ingurua ahoaz edo mihiaz kitzikatzean datzan ekintza; alua, klitoria, pubisa, bagina, perineoa eta uzkia kitzikatzen dira.

Ikus: cunnilingus.



dardara:

ES:	temblor
FR:	tremblements
EN:	tremor

iz. Aldizkako mugimenduak, nahi gabekoak eta erritmo iraunkorrekoak.

Gorputzeko edozein guneri erasan diezaiekete, baina eskuei eragiten diete bereziki.

Desagertu egiten dira loaldian eta erabateko atsedenean, eta okerrera jotzen dute hotzarekin, emozioekin eta nekearekin.

dardara egin:

ES:	temblar
FR:	trembler
EN:	tremble, shiver, shake

ad. Dardarka egon.

dardaragailu:

ES:	vibrador
FR:	vibromasseur
EN:	vibrator

iz. Masaje erotikoa emateko eta kitzikatzeko balio duen tresna elektrikoa. 1940ko hamarkadan merkaturatu zen lehenengo aldiz, gizonentzat zein emakumeentzat. Dardaragailu askok zakilaren itxura dute.

darwinismo:

ES:	darwinismo
FR:	darwinisme
EN:	Darwinism

iz. Eboluzio organikoaren teoria; landareak eta animaliak ingurumenaren egoerara moldatzean jasandako egitura-asalduen emaitza da garapen organikoa, eta ondorengoei igortzen zaizkie hartutako ezaugarriak.

darwinista:

ES:	darwinista
FR:	darwinien
EN:	Darwinian

1. *izond.* Darwinismoari dagokiona. 2. *izond.* Darwinismoaren jarraitzailea.

De Graaf-en folikulu:

ES:	folículo de De Graaf
FR:	follicule de De Graaf
EN:	Graafian follicle

sint. er. Obulutegiaren gainazaleko xixku heldua; 10-12 mm-ko diametroa du. Garapen-bidean dagoen obulua eta likidoa dauzka bere barruan, eta hautsi egiten da obulazioan, obulua askatzeko.

deferente:

ES:	deferente
FR:	déférent
EN:	deferens

izond. (Hodi bati buruz) Espermatozoideak barrabiletatik semen-xixkuetaraino eramaten dituen.

degeneratu:

ES:	degenerado
FR:	dégénéré
EN:	degenerate

izond. (Norbaiti buruz) Buruz endekatua nahiz galbideratua, eta orobat moralari dagokionez; eskuarki estigma fisikoekin batera gertatzen da.

degenerazio:

ES:	degeneración
FR:	(moral) décadence, (física) dégénérescence
EN:	degeneration

Ikus: endekapen.

demografia:

ES:	demografía
FR:	démographie
EN:	demography

iz. Giza taldeak aztertzea helburu duen zientzia; haien neurria, banaketa eta gizabanakoen ezaugarriak aztertzen ditu.

demografiko:

ES:	demográfico
FR:	démographique
EN:	demographic

izond. Demografiari dagokiona.

dental dam:

ES:	dental dam
FR:	digue dentaire
EN:	dental dam

iz. Latexezko laukitxoa, emakumeari aho-sexua egitean infekzioak saihesteko erabilia.

depo-provera:

ES:	depo-provera
FR:	depo-provera
EN:	depo-provera

iz. Kontrazepzio-metodoa; medikuaren errezeta behar da hura erabiltzeko, eta injekzio bidez hartzen da. Progesterona injektatzen zaio hartzaileari; obuluak obulutegitik irtetea galarazten du, eta umetoki-lepoko mukia loditzen, espermarik sar ez dadin. Hamabi aste irauten du. Azken injekzioa hartzen denetik, gutxienez hamar hilabete itxaron behar da haurdun gelditzeko, eta gehienez hemezortzi hilabete.

depresio:

ES:	depresión
FR:	dépression
EN:	depression

1. *iz.* Bizi-jardueraren murrizketa, nahiz organismo osoan, nahiz haren zati batean.
2. Ohiz kanpoko emozio-egoera; neurriz gaineko tristura, adorerik eza, hustasun-sentimendua eta itxaropenik eza ditu ezaugarri.

deprimitu:

ES:	deprimido
FR:	déprimé
EN:	depressed

izond. (Egoera psikofisikoari buruz) Gorputz-jarduera orokorra gutxitzearekin zerikusia duena. Egoera hori emozio-abaildurarekin, ekimen-galerarekin, axolagabekeriarekin, jateko gogoa galtzearekin eta arreta jartzeko zailtasunarekin batera agertzen da, sarritan.

deribazio:

ES:	derivación
FR:	dérivation
EN:	derivation

iz. Profesional batek beste batengana bidaltzea.

desamodio:

ES:	desamor
FR:	manque d'affection
EN:	dislike

iz. Maitemina kontrako fenomeno psikikoa. Maiteminduarentzat, maitarengan gustuko duenak soilik du garrantzia; maitasuna galdu duenak, berriz, akatsak baino ez ditu ikusten bestearengan.

desentsibilizazio sistematikoa:

ES:	desensibilización sistemática
FR:	désensibilisation systématique
EN:	systematic desensitisation

sint. er. J. Wolpe terapeutak 50eko hamarkadaren bukaeran garatutako teknika. Geroztik, beldurrei, fobieiei eta oro har antsietate-egoerei aurre egiteko erabili izan da.

desira sexual:

ES:	deseo sexual
FR:	désir sexuel
EN:	sexual desire

Ikus: sexu-desira.

desira-fase:

ES:	fase de deseo
FR:	phase de désir
EN:	phase of desire

iz. Giza erantzun sexualaren lehen fasetzat jotzen dena.

Fantasiak ager daitezke: jokabideak irudikatzen dira.

deskarga:

ES:	descarga
FR:	décharge
EN:	discharge

iz. Tentsio erotikoa arintzea, gutxitzea edo kentzea. Gizonezkoaren kasuan, eiakulazioarekin eta orgasmoarekin batera gertatu ohi da.

desleialtasun:

ES:	infidelidad
FR:	infidélité
EN:	infidelity

iz. Bikote bat lotzen duen kontratu agerikoaren edo inplizituaren haustura nahiz aldaketa. Aldaketa horrek harremanaren eksklusibotasuna eteten du, eta harreman hori kolokan jar dezake, eta, orobat, jelsia, larritasuna, umiliazioa eta oldarkeria eragin. Berez, besterekin jokabide erotikoak izateak baino gehiago harremana kolokan jartzeak eragiten du kontratuaren aldaketa. Harreman erotiko guztiak edo jokaera erotiko zehatz batzuk pertsona jakin batekin baino ez direla izango adostu ondoren, hitza ez betetzea hartzen da eskuarki desleialtasuntzat.

Desleialtasuna balioesteko, honako irizpide hauek erabil daitezke: jokaeraren zenbaterainokoa (petting, sarketa, musuak, laztanak), asmoa benetakoa ala itxurazkoa izatea, pertsona eskuragarri egotea edo ez, lekua (norberaren ohean, kanpoan), sexu berekoa edo beste sexukoa izatea, telefono erotikoetara deitzea, Interneteko txatetan parte hartzea, masturbazio kolektiboetan parte hartzea, prostitutak kontratatzea, mehatxua, sexu-harreman afektiboa izatea, sexu-harremana besterik gabe izatea, eta abar.

Oharrak: Leialtasunaren mugak, kasu batzuetan, zehatzak dira; beste kasu batzuetan, ez hainbeste.

desloratze:

ES:	desfloración, desvirgación
FR:	défloration
EN:	deflowering

iz. Emamintzak sinbolikoki adierazten duen garbitasuna haustea, zakila sartuta. Tradizioaren arabera, lehenbiziko bagina-sarketaren ondorioz, birjina izatea uzteari deritzo. Historian zehar himenaren hausturarekin lotu izan da

desoreka psikiko:

ES:	desequilibrio psíquico
FR:	déséquilibre psychique
EN:	psychic imbalance <i>sint. er.</i> Oreka psikikoaren galera.

desorekatu:

ES:	desequilibrar, desequilibrado
FR:	déséquilibrer, déséquilibré
EN:	unbalance, unbalanced 1. <i>ad.</i> Oreka galdu edo galarazi. 2. <i>izond.</i> Eromenera iritsi gabe, adimen- edo afektibitate-asalduak dituen.

detumeszentzia:

ES:	detumescencia
FR:	détumescence
EN:	detumescence <i>iz.</i> Organo genitalen bolumena murriztea, kitzikapena amaituta. Besteak beste, gizonezkoetan, erekzioa galtzea eiakulazioaren ondoren; emakumezkoetan, alua eta klitoria lehengoratztea. Ikus: tumeszentzia.

diabetes:

ES:	diabetes
FR:	diabète
EN:	diabetes <i>iz.</i> Guruinen asaldua; gehiegizko gernu-jarioa eta egarria ditu ezaugarri. Gehiegizko jario horren eragile izan daitezke: hormona antidiuretikoaren (ADH) urritasuna, edo poliuria –diabetes mellitus-ean agertzen den hipergluzemiaren ondorioa–.

diafragma:

ES:	diafragma
FR:	diaphragme
EN:	diaphragm <i>iz.</i> Kontrazepzio-metodoa; gomazko edo latexezko estalki malgu bat da baginan sartuta umetoki-lepoa erabat ixten duena. Diafragma jarri aurretik, haren bi aldeak eta barneko ertz malgua gelez edo krema espermizidaz estaltzen dira. Koitoa baino hamar bat minutu lehenago sartzen da baginan, eta sei orduz uzten da hantxe. Beste sarketarik izanez gero, krema espermizida ipintzen da berriz, aplikagailu batez; azken koitotik sei ordura ateratzen da diafragma. Ez da pilula eta UBGa bezain eraginkorra, eta ez du GIBetik, hiesetik eta beste sexu-infekzio batzuetatik babesten.

diagnosi:

ES:	diagnosis
FR:	diagnostic
EN:	diagnosis Ikus: diagnostiko.

diagnostikatu:

ES:	diagnosticar
FR:	diagnostiquer
EN:	diagnose

ad. Gaixotasun-prozesu baten mota eta arrazoia zehaztu; gaixoaren zantzueta eta sintometan, laborategiko analisietan, ingurutik jasotako informazioan eta irudi-tekniketan oinarrituz egiten da.

diagnostiko:

ES:	diagnóstico
FR:	diagnostic
EN:	diagnosis

iz. Medikuntzaren adarra; gaixotasun bat zehaztea eta sailkatzea du helburu. Gaixotasun horren zantzueta eta sintometan oinarrituz egiten da.

diagnostikoa egin:

ES:	diagnosticar
FR:	diagnostiquer
EN:	diagnose

Ikus: diagnostikatu.

dibortzio:

ES:	divorcio
FR:	divorce
EN:	divorce

iz. Ezkondutako bikotea banatzeko lege-ekintza.

dieta:

ES:	dieta
FR:	diète
EN:	diet

1. *iz.* Oro har egunerokoan hartzen diren janari-edariak; kontuan izaten dira haien elikadura-ezaugarriak, osagaiak, eta osasunean duten eragina. 2. *iz.* Profesional batek agindutako elikadura; kantitatearen edo motaren arabera aukeratzen da, eta helburu terapeutikoetarako jarri.

dilatatu:

ES:	dilatar
FR:	dilater
EN:	dilate

ad. Gorputzeko irekidura baten edo odol-hodi baten diametroa handitu. Esate baterako, baginako sarrera, haurra irten ahal izateko.

dilatazio:

ES:	dilatación
FR:	dilatation
EN:	dilatation

iz. Gorputzeko irekidura baten edo odol-hodi baten diametroa handitzea.
Haurgintza-minetan, dilatazioak haurra berehala jaiotzera doala adierazten du.

dildo:

ES:	dildo
FR:	gode, godemiché
EN:	dildo

iz. Zakil-itxurako objektua edo sinboloa. Jostailu erotiko gisa erabiltzen da.

dimorfismo sexual:

ES:	dimorfismo sexual
FR:	dimorphisme sexuel
EN:	sexual dimorphism

Ikus: sexu-dimorfismo.

diploidia:

ES:	diploidía
FR:	diploïdie
EN:	diploidy

iz. Zelula somatikoetako kromosomen eraketa bikoitza.

diskriminazio sexual:

ES:	discriminación sexual
FR:	discrimination sexuelle
EN:	sexual discrimination

Ikus: sexu-diskriminazio.

dismenorrea:

ES:	dismenorrea
FR:	dysménorrhée
EN:	dysmenorrhoea

iz. Mina edo ondoeza, hilekoak eragina. Lehenbiziko hilekoetan nahiz gerora ere ager daitezke hileko mingarriak.

dismorfofobia:

ES:	dismorfofobia
FR:	dismorphophobie
EN:	BDD Body Dysmorphic Disorder

iz. Gorputz-akats batek (benetakoa edo irudikatua) eraginiko neurriz gaineko kezka.

disnea:

ES:	disnea
FR:	dyspnée
EN:	dyspnea

iz. Arnas gabezia edo arnasteko zailtasuna; odolean behar adina oxigeno ez dagoenean gertatzen da. Bihotzeko hainbat prozesuk, antsietateak edo ariketa fisiko gogorrak eragin dezakete disnea. Haren sintomak dira: arnas maiztasun altua, erabili ohi ez diren giharrak erabiltzea, eta abar.

dispareunia:

ES:	dispareunia
FR:	dyspareunie
EN:	dyspareunia

1. *iz.* Genitaletako mina, koitoa praktikatzan den bitartean edo ondoren. Emakumearen organo genitaletako mina, zakila sartzean nahiz ondoren. Mingarria izan arren, ez du zakila sartzea eragozten. Edozein adinetan gerta daiteke, faktore organikoek edo gatazka psikologikoek eraginik. 2. *iz.* Pelbis aldeko mina, sexu-kontaktuan edo haren ondoren.

d-kontrako immunoglobulina:

ES:	inmunoglobulina anti-d
FR:	immunoglobuline
EN:	immunoglobulin

sint. er. Rh-aren arabera erabiltzen den profilaxia. Haurdunaldian nahiz haurra jaio ondoren erabil daiteke, behar izanez gero. Amak Rh negatiboa badu eta lehenbiziko haurrak Rh positiboa, Anti-D immunoglobulina ematen zaio amari. Izan ere, haurraren Rh positiboak antigorputzak sortzen ditu amaren gorputzean; hurrengo haurdunaldian ere umekiak Rh positiboa izanez gero, abortua nahiz haurrak gaixotasun hemolitikoa izatea eragin dezakete antigorputz horiek.

DNA/ADN:

ES:	ADN
FR:	ADN
EN:	DNA

iz. Azido desoxi-ribonukleikoa. Transmisio genetikoaren eta herentzia biologikoaren oinarria; zelularen nukleoko kromosomen osagai garrantzitsua da. Informazio genetikoa gordetzen du, eta horren bidez zeluletako proteinen egitura antolatzen.

dogging:

ES:	dogging
FR:	dogging, exhibition sexuelle
EN:	dogging

iz. Sexu-harreman erdi publikoetan jarduteko edo halakoei begira jartzeko ekintza. Bi pertsonak baino gehiagok parte hartu ohi dute, eta, zenbaitetan, taldekako sexu-harremana izaten da. Ikusleak gonbidatzen dira eskuarki. Sarritan, aldez aurretik egiten da hitzordua, Internet bidez edo eskuko telefonoen bidez.

doktore:

ES: doctor

FR: docteur

EN: doctor

1. *iz.* Unibertsitateko ikasketa-sail baten maila gorena lortu duen pertsona. 2. *iz.* Hizkera arruntean, medikua, nahiz doktore-titulu akademikorik izan ez.

don juan:

ES: don juan

FR: don juan

EN: womaniser

iz. Gustagarria dela frogatzeko, seduzitu beharra sentitzen duen gizonari deitzen zaio. Antzerkiaren tradizioan du jatorria, batik bat Tirso de Molinaren *El burlador de Sevilla y convidado de piedra* lanean.

donjuanismo:

ES: donjuanismo

FR: donjuanisme

EN: womanising

iz. Gizonezkoaren portaera limurtzailea; hainbat emakumerekin harreman erotikoak izan nahia du ezaugarri.

dopatu:

ES: dopar

FR: doper, se doper

EN: dope

ad. Gai estimulagarriak hartu edo eman, errendimendu fisikoa hobetzeko, bereziki kirol-lehiaketetan; sexu-jarduerarako ere erabil daitezke.

dosi:

ES: dosis

FR: dose

EN: dose

iz. Botika, droga edo gai teraupetiko baten neurri zehaztua, bereziki aldi bakoitzean ematen edo hartzen dena.

douching:

ES: douching

FR: douching, irrigation vaginal

EN: douching

iz. Baginaren garbiketa. Ez du balio antisorgailu gisa.

Ikus: bagina-garbiketa.

down syndrome:

ES: síndrome de down

FR: trisomie 21

EN: Down's syndrome

iz. 21. kromosomaren trisomiak eragindako sindromea; buru-hezur txikia, alde okzipital laua, falange laburrak, buru-atzerapena eta kardiopatiak ditu ezaugarri, besteak beste.

drag-king:

ES: drag-king

FR: drag-king

EN: drag-king

iz. Ikuskizun baterako trabestitu den emakumea.

drag-queen:

ES: drag-queen

FR: drag-queen

EN: drag-queen

iz. Ikuskizun baterako trabestitu den gizona.

droga:

ES: droga

FR: drogue

EN: drug

iz. Substantzia psikotropo natural zein sintetikoa, nerbio-sistema zentralari eragiten diona eta menpekotasuna (hartzeari utzi ezina eta, askotan, gero eta dosi handiagoak behar izatea) eragiten duena.

drogadikto:

ES: drogadicto, toxicómano, drogodependiente

FR: toxicomane

EN: drug addict

Ikus: drogazale, toxikomano.

drogadikzio:

ES: drogadicción

FR: toxicodépendance, toxicomanie

EN: drug addiction

Ikus: drogazaletasun, droga-mendekotasun, toxikomania.

drogaki:

ES:	estupefaciente
FR:	stupéfiant
EN:	narcotic, drug

Ikus: estupefaziante.

droga-mendeko:

ES:	drogodependiente
FR:	toxicomane
EN:	drug addict

Ikus: drogazale.

droga-mendekotasun:

ES:	drogodependencia
FR:	drogodépendance, toxicodépendance
EN:	drug dependency

Ikus: drogazaletasun, drogadikzio, toxikomania.

drogatu:

ES:	drogar (se)
FR:	droguer.
EN:	do/take drugs <i>ad.</i> Drogak, estimulagarriak, lasaigarriak, narkotikoak edo haluzinogenoak hartu edo eman.

drogazale:

ES:	drogadicto, toxicómano, drogodependiente
FR:	toxicomane
EN:	drug addict <i>izond.</i> Drogarekiko mendekotasuna duena. Fisikoa edo psikikoa izan daiteke mendekotasun hori.

Ikus: toxikomano.

drogazaletasun:

ES:	drogadicción, drogodependencia
FR:	drogodépendance
EN:	drug dependency <i>iz.</i> Drogak hartzeko ohitura saihetsezina. Fisikoa edo psikikoa izan daiteke mendekotasuna.

Ikus: toxikomania, droga-mendekotasun, drogadikzio.

DSM:**ES:** DSM**FR:** DSM**EN:** DSM

iz. Buru-nahasteen sailkapen estatistikoa biltzen duen eskuliburua, Ameriketako Psikiatren Elkarteak sortua.



ebaki:

ES: cortar, corte, sección

FR: couper, incision

EN: cut, cut incision

1. *iz.* Ehunak ebakitzearen ondoriozko zauri kirurgikoa. Tresna zorrotz batez egiten da, irekigune baten bidez gorputzeko ehun edo organo jakin batera iristeko. 2. *iz.* Zerbaiten jarraitutasunean egiten den etena. 3. *ad.* Gorputz bat tresna ebakitzailer batez sastatu, irekigune bat egiteko, edo zati bat erauzteko.

ebakuntza kirurgiko:

ES: intervención quirúrgica

FR: opération chirurgicale

EN: surgical operation, surgery

sint. er. Ekintza terapeutikoa; eskuzko eragiketa bidez edo tresna bidez egiten da pertsonaren gorputzean, ezarritako printzipio kirurgikoei eta araututako teknikei jarraituz.

eboluzio:

ES: evolución

FR: évolution

EN: evolution

iz. Espezie baten belaunaldiz belaunaldiko bilakaera; hautespen naturalaren ondorio da.

Eden:

ES: Edén

FR: Éden

EN: Eden

iz. Bibliaren arabera, Lurreko paradisua zegoen toki ederra. Han sortu ziren lehen gizona eta lehen emakumea. Emakumea gizonaren saihesten-hezurretik sortu omen zuen jainkoak.

Ediporen konplexu:

ES: Edipo, complejo de

FR: complexe d'Oedipe

EN: Oedipus complex

sint. er. Teoria psikoanalitikoan, mutikoak aldi falikoan jasaten duen barne-gatazka; amarekiko sexu-erakarpena sentitzen du, eta aita etsaitzat ikusten. Haren ifrentzu analogoa da neskatuek izaten duten Elektraren konplexua. Funtsezkoa da nortasuna egituratzeko eta giza desiraren orientazioan, psikoanalisiaren ikuspuntutik.

edoski:

ES:	mamar
FR:	téter
EN:	suckle

Ikus: bularra hartu.

edoskialdi:

ES:	mamada
FR:	tétée
EN:	(breast) feeding

iz. Aldi bakar batean edoskitako esne kantitatea.

edoskitzaile:

ES:	niño de pecho
FR:	nourrisson
EN:	nursing child

Ikus: bularreko haur.

edoskitzaro:

ES:	período lactancia
FR:	période d'allaitement
EN:	breastfeeding period

iz. Haurrari titia ematen zaion garaia.

edoskitze:

ES:	lactancia
FR:	allaitement
EN:	breastfeeding

iz. Bularra ematea.

efebo:

ES:	efebo
FR:	éphèbe
EN:	Ephebe

iz. Mutil gaztetxo ederra, sentibera, eta apur bat emetia. Antzinako Greziatik dator haren ospea, pederastia praktika onartua baitzen gizarte hartan. Gaur egun ere, sexu-abusuen biktima izan daitezke efeboak zenbait egoeratan.

eginbide:

ES:	compromiso
FR:	engagement, promesse
EN:	engagement

iz. Hartutako betebeharra nahiz emandako hitza.

ego:

ES:	ego
FR:	ego
EN:	ego

iz. Freuden psikoanalisian, ni izenordainez adierazten den instantzia psikikoa. Gizabanakoaren babesa da, errealitatearen eta pultsioen aurrean.

egoera intersexual:

ES:	estados intersexuales
FR:	état intersexuel
EN:	intersexual condition

sint. er. Sexualitatearen garapenean agertzen diren sexu-indeterminazioak adierazteko esapidea. Indeterminazio horien artean daude: hermafroditismoa, sasihermafroditismoa, eta abar.

egozentriko:

ES:	egocéntrico
FR:	égocentrique
EN:	egocentric

izond. Bere burua esperientzia guztien helburu eta ardatzat hartzen duena, eta besteen beharrak, interesak, ideiak eta jarrerak kontuan hartzen ez dituen.

egozentrismo:

ES:	egocentrismo
FR:	égocentrisme
EN:	egocentrism

iz. Jarrera psikologiko berekoa. Ezaugarritzat ditu: nork bere burua arretaren nahiz ekintza orokorren ardatzat izatea, eta norberaren errealitatea eta errealitate objektiboa ez bereiztea. Norberaren burua beste guztien gainetik ikustera eramaten du egozentrismoak.

eguneroko pilula:

ES:	píldora anticonceptiva
FR:	pilule contraceptive
EN:	contraceptive pill

sint. er. Haurdun ez geratzeko egunero hartzen den pilula, hormona sintetiko (estrogenoz edo progesteronaz) egina. Ia % 100eko eraginkortasuna du, zuzen erabiliz gero. Ahotik hartzen da. Pilula mota asko daude, eta honako funtzio hauek bete ditzakete, konposizioaren arabera: obulazioa eragotzea, umetoki lepoko mukiaren ezaugarriak aldatzea edo endometrioaren ezaugarriak aldatzea. Hilekoa erregulatzen du, eta ez du GIB/hiesetik eta bestelako infekzioetatik babesten. Preserbatiboarekin batera erabil daiteke.

Oharrak: 1960ko hamarkadan baimendu zuten Mendebaldeko herrialde askotan.

Ikus: kontrazepzio-pilula.

egutegiaren metodo:

ES:	método del calendario
FR:	méthode du calendrier
EN:	rhythm method

sint. er. Kontrazepzio-metodo naturala, obulazioan oinarritua; kontuan hartzen du zer egunetan ez dagoen obulurik emakumearen traktu genitalean, ernalkuntzarik gabe koitoa egin ahal izateko. Metodoa aplikatzeko, emakumearen ugalaldia kalkulatu da, eta, horretarako, behar-beharrezkoa da hileko erregularrak izatea. Baldin eta ziurtzat jotzen bada hurrengo hilekoa izan baino hamalau egun lehenago izaten dela obulazioa, ugalaldiko lehen eguna zein den jakiteko, hilekoaren azken egunari hemezortzi egun kentzen zaizkio; ugalaldiko azken eguna, berriz, hilekoaren azken egunari hamaika egun kenduta kalkulatu da.

eiakulatu:

ES:	eyacular
FR:	éjaculer
EN:	ejaculate

ad. Likido bat indarrez kanporatu. Barrabiletatik kanporatutako espermaz esaten da batik bat. Semen uretratik kanporatzea.

Ikus: isuri.

eiakulazio:

ES:	eyaculación
FR:	éjaculation
EN:	ejaculation

iz. Esperma bat-batean jariatzea, uretratik; jarduera erotikoetan nahiz gaueko isurketetan gertatzen da, eskuarki. Orgasmoarekin batera gertatu ohi da eiakulazioa, gehienetan.

eiakulazio asteniko:

ES:	eyaculación asténica
FR:	éjaculation asthénique
EN:	asthenic ejaculation

iz. Sentitze gutxiko eiakulazioa; gizonak ez du orgasmorik edo plazerik sentitzen; askotan, kitzikapenik edo erektziorik gabe gertatzen da.

eiakulazio atzeratu:

ES:	eyaculación retardada
FR:	éjaculation retardée
EN:	delayed ejaculation

sint. er. Eiakulazioa gehiegi atzeratzea edota ez gertatzea, horretarako estimulazio nahikoa eman arren. Jatorri psikikoa eta harreman-dinamiketako duen sexu-zailtasuna da.

eiakulazio azkar:

ES:	eyaculación precoz
FR:	éjaculation précoce
EN:	premature ejaculation

Ikus: bizkorregi eiakulatze.

eiakulazio-atalase

ES: umbral eyaculatorio

FR: seuil d'éjaculation

EN: ejaculation threshold

iz. Semenaren isurketa gertatzeko behar den estimulazio-maila edo muga. Hortik aurrera, ezinezkoa da isurketa geratzea.

eiakulazio-hodi:

ES: conducto eyaculatorio

FR: conduit déférent

EN: ejaculatory duct

iz. Hodi deferentea eta semen-xixkua lotzen dituen hodia; esperma garraiatzen du prostata-guruinean eta uretran zehar.

eiekzio:

ES: eyección

FR: éjection

EN: ejection

iz. Zerbait indarrez kanporatu; esate baterako, odola bihotzeko bentrikulutik.

ekainaren 11a:

ES: 11 de junio

FR: 11 juin

EN: 11th June

sint. er. Populazioaren Munduko Eguna.

ekainaren 21a:

ES: 21 de Junio

FR: 21 juin

EN: 21st June

sint. er. Hezkuntza Ez Sexistaren Nazioarteko Eguna

ekainaren 28a:

ES: 28 de junio

FR: 28 juin

EN: 28th June

sint. er. Sexu Askapenaren Nazioarteko Eguna.

ekainaren 7a:

ES: 7 de Junio

FR: 7 juin

EN: 7th June

sint. er. Jaiotza Eskubideen eta Begirunezko Erditzearen Munduko Eguna.

ekografia:

ES: ecografía

FR: échographie

EN: ultrasound scab, untrasonography

iz. Ultrasoinuen bidez diagnosi-irudiak lortzeko teknika; ultrasoinuak organoetan islatu eta monitore batean ikusiz egiten da. Irudi hori inprimatu egin ohi da. Umekiaren lehen irudi horrek zenbait funtzio bete ditzake: umekiaren osasuna ezagutzea, gurasoek umekiarekin duten lotura afektiboa areagotzea, eta abar.

elastiko:

ES: elástico

FR: élastique

EN: elastic

izond. Kanpoko eragile mekanikoen ondorioz jatorrizko itxura galdu eta, ondoren, itxura hori berriz berreskuratzeko gai dena.

elastikotasun:

ES: elasticidad

FR: élasticité

EN: elasticity

iz. Ehunek duten propietatea, beren jatorrizko itxura eta neurria berreskuratzeko; luzatu, estutu edo beste edozein eratan desitxuratu ondoren gertatzen da hori.

elbarri:

ES: impedido

FR: handicapé

EN: disabled

Ikus: baliaezin, ezindu.

Elektraren konplexu:

ES: Electra, complejo de

FR: complexe d'Electre

EN: Electra complex

sint. er. Teoria psikoanalitikoan, neskatoak jasaten duen barne-gatazka. Neskatoak aitarekiko sexu-erakarpena sentitzen du, eta ama etsaitzat ikusten.

elikadura:

ES: alimentación

FR: alimentation

EN: alimentation, diet

iz. Bizitza mantentzeko oinarrizkoak diren elikagaiak ematea edo hartzea.

Elisaren testa:

ES:	test de Elisa
FR:	test d'Élise
EN:	Elisa test

sint. er. GIB antigorputzik ba ote dagoen jakiteko proba.

Ikus: GIB.

elixir:

ES:	elixir
FR:	élixir
EN:	elixir

iz. Isurkari argia; ura, alkohola, zaporea, gozagarriak, eta abar ditu. Ahotik sendagaiak emateko erabiltzen da, batez ere.

elkarrekikotasun:

ES:	mutualidad, reciprocidad
FR:	mutualité, réciprocité
EN:	mutuality

iz. Bikote-harremanak eraikitzearen faseetako bat; bikotekideek *gutzat* hartzen dute beren burua, eta ez toki berean eta une berean dauden bi *nitzat*.

elkarrekintza:

ES:	interactividad
FR:	interactivité
EN:	interactivity

iz. Elkarrekin gauzatzen diren ekintzen multzoa. Elkarrekin jardutea.

Ikus: eragin-truke.

elkarri urrumaka aritze:

ES:	amartelamiento
FR:	engouement
EN:	infatuation

sint. er. Maitemina nahiz sexu-desiraren ageriko adierazpena; laztanena, musuena eta besarkadaren bidez egiten da.

emagalduta:

ES:	puta
FR:	putain
EN:	hooker, prostitute, whore, bitch

iz. Bizibidez, bere gorputzaren bitartez sexu-zerbitzuak eskaintzen dituen emakumea.

Ikus: puta.

emagaldubirjinaren konplexu

ES:	complejo de puta-virgen
FR:	complexe de putain-vierge
EN:	prostitute-virgin complex <i>sint. er.</i> Emakumeak bekataritzat ala santutzat hartzen dituen estereotipo zorrotza.

emagin:

ES:	comadrona, matrona
FR:	sage-femme
EN:	midwife, <i>iz.</i> Osasun-arloko profesionala, haurdunaldiaz, erditzeaz eta erditze osteko zainketez arduratzen dena.

emaile:

ES:	donante
FR:	donateur
EN:	donor <i>izond.</i> Organoren bat, odola eta abar doan ematen dituenena.

emakume:

ES:	mujer
FR:	femme
EN:	woman <i>iz.</i> Sexu emeko gizaki heldua.

emakume transexual:

ES:	mujer transexual
FR:	femme transsexuelle
EN:	transsexual woman <i>sint. er.</i> Emakumea izanik, gizon gorputzarekin jaio dena. <i>Ikus:</i> gizon transexual.

Emakumearen Eskubideen eta Nazioarteko Bakearen aldeko Nazio Batuen Eguna:

ES:	Día de las Naciones Unidas para los Derechos de la Mujer y la Paz Internacional
FR:	Journée des Nations Unies pour les Droits de la Femme et la Paix Internationale
EN:	United Nations Day for Women's Rights and International Peace <i>sint. er.</i> Martxoaren 8an ospatu ohi da.

Emakumearen kontrako Bortxakeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna:

ES:	Día Internacional para la Eliminación de la Violencia contra la Mujer
FR:	Journée Internationale pour l'Élimination de la Violence contre les Femmes
EN:	International Day for the Elimination of Violence against Women <i>sint. er.</i> Azaroaren 25ean ospatu ohi da.

Emakumearen Nazioarteko Eguna

ES:	Día Internacional de la Mujer
FR:	Journée Internationale des Femmes
EN:	International Women's Day <i>sint. er.</i> Martxoaren 8an ospatu ohi da.

emakumeen aurkako indarkeria:

ES:	violencia hacia las mujeres
FR:	violence contre les femmes
EN:	violence against women <i>sint. er.</i> Emakume izatearen kontrako indarkeriazko ekintza oro; kalte nahiz sufrimendu fisiko, sexual edo psikologikoa eragin dezake.

Emakumeen Esplotazio eta Salerostearen kontrako Nazioarteko Eguna:

ES:	Día Internacional en contra de la Explotación y Tráfico de Mujeres
FR:	Journée Internationale contre l'Exploitation et la Traite des Femmes
EN:	International Day against Exploitation and Trafficking of Women <i>sint. er.</i> Irailaren 23an ospatu ohi da.

Emakumeen Osasunaren aldeko Nazioarteko Eguna:

ES:	Día Internacional de Acción por la Salud de las Mujeres
FR:	Journée Internationale d'Action pour la Santé des Femmes
EN:	International Day of Action for Women's Health <i>sint. er.</i> Maiatzaren 28an ospatu ohi da.

emakumeentzako kondoi:

ES:	condón femenino
FR:	préservatif féminin
EN:	female condom <i>sint. er.</i> Kontrazepziorako babes-metodoa; latexezko zorro zilindriko bat da, eta baginan sartzen da; baginako paretak estaltzen ditu, eta, uztai malgu eta mugikor bati esker, ez dago berez irteteko arriskurik. Oso metodo eraginkorra da; behar bezala erabiliz gero, GIBaren, hiesaren eta beste infekzio batzuen aurkako babesa ematen du. Behin bakarrik erabil daiteke kondoi bakoitza. Baginan sartzen da koitoaren aurretik, esperma igaro ez dadin.

emakume-salerosketa:

ES:	blancas, trata de
FR:	traite des blanches
EN:	white slave trade <i>iz.</i> Emakume-trafikoa; prostituzioarekin dirua irabaztea du helburu.

emakumezko

ES:	mujer
FR:	femme
EN:	woman

Ikus: emakume.

Emakunde:

ES:	Emakunde
FR:	Emakunde
EN:	Emakunde

iz. Emakumeari laguntza eta babesa emateko Eusko Jaurlaritzak sortutako erakunde publikoa (1988). Emakumeen berezko eskubideak finkatzea eta sexuen artean gizarte-maila guztietan dauden bereizketa mota guztiak ezabatzea du helburu. Emakumearen aldeko ekintza positiboen bidezko politika bultzatzen du.

emamintz:

ES:	himen
FR:	hymen
EN:	hymen

iz. Himena, emakumearen baginako sarrera estaltzen duen mintza.

Ikus: himen.

eman:

ES:	donar
FR:	donner
EN:	donate

ad. (organoei buruz) Gorputzaren zati bat eskaini, ordain-trukerik gabe.

emankor:

ES:	fecundo, fértil
FR:	fertile
EN:	fertile

izond. Ondorengoak sortzeko gai dena. Gametoei buruz, ernalketa eragiteko edo ernaldia izateko gai dena. Aldi emankor: hilekoaren zikloan, emakumea haurdun gera daitekeen aldia.

emankortasun:

ES:	fecundidad
FR:	fécondité
EN:	fertility, fecundity

iz. Ugaltzeko gaitasuna.

emankortu:

ES:	fecundizar
FR:	féconder, fertiliser
EN:	fertilise <i>ad.</i> Emankor bihurtu.

ematutu:

ES:	vagina
FR:	vagin
EN:	vagina iz. Umetoki-lepotik bulbara doan hodia. Muskuluzkoa eta mukosazkoa du pareta. Emakumezkoaren ematutuak forma zilindriko eta luzexka du. Pelbisaren behealdean, ondestearen aurrean eta gernu-maskuriaren eta uretraren atzean kokatua dago. Goialdeko muturrean umetoki-lepoa du, eta behealdekoan bulbaren bestibuluarekin bat egiten du. Kopulaziorako organoa da, eta zeregin garrantzitsua du, erditze-unean umea handik irteten baita erditze naturaletan.

Ikus: bagina.

ematxar:

ES:	buscona
FR:	fille de joie
EN:	slut iz. Prostituta.

Ikus: emagaldur, prostitutu/a.

eme:

ES:	hembra
FR:	femelle
EN:	female iz. XX kromosomak dituen izakia; lehen eta bigarren mailako sexu-ezaugarri berezkoak ditu, arretik bereizten dutenak. Emakumeei dagokienez, lehen mailako ezaugarriak dira: obulutegiak, Falopioaren tronpak, umetokia, bagina eta bulba; bigarren mailakoak: ahots altua, giharren eta hezurduraren garapen txikiagoa, sorbalda estua eta aldaka zabala. Ezohiko zenbait konbinazio ere gertatzen dira.

Ikus: ar, emakume, sexu-identitate, Turner-en sindrome, X hirukoitzaren sindrome.

emetasun:

ES:	feminidad
FR:	féminité
EN:	femininity 1. iz. Emakumeari dagozkion ezaugarri anatomiko eta fisiologikoen multzoa. 2. iz. Femeninotzat hartzen diren ezaugarri psikologiko eta sozialen multzoa.

emeti:

ES: afeminado

FR: efféminé

EN: effeminate

izond. (Gizonezkoei buruz) Emakumeen jokabideak, itxura... dituena; ez du zertan homosexuala izan.

Ikus: emagizon, emeki, maritxu.

emotikoi:

ES: emoticono

FR: emoticon

EN: emoticon

iz. Jatorrian, zantzu ortografikoen bidez eratutako irudi soila, keinu eta emozio jakin batzuk adierazteko baliatzen dena.

emozio:

ES: emoción

FR: émotion

EN: emotion

iz. Sentipen bizi eta laburra, jarrera zein keinu bereizgarriak ezaugarri dituen. Eragin handia du organo askotan, haien funtzioa bizkortu, asaldatau edo murriztu egiten baitu.

emozio-:

ES: emocional

FR: émotionnel

EN: emotional
(Hitz elkartuetan)

Ikus: emoziozko.

emozio-mendekotasun:

ES: dependencia emocional

FR: dépendance affective

EN: emotional dependence

iz. Emoziozko mendekotasun-egoera; alde batetik, hurbileko pertsonen euskarri emozionalaren beharra eta haiekin harremanak izateko nahi edo desira izaten da, eta orobat haiek galtzeko beldurra; bestetik, hurbileko beste pertsona batzuen (lankideak, bizilagunak...) onespina eta arreta lortzeko gogo bizia.

emoziozko:

ES: emotivo, emocional

FR: émotif

EN: emotive

1. *izond.* Emozioa eragiten duena. 2. *izond.* Emozioari dagokiona.

enbrioi:

ES:	embrión
FR:	embryon
EN:	embryo

iz. Jaio aurretiko garapen-egoera; ernaldutako obulu bat umetokian kokatzean hasi eta organo garrantzitsuenak garatzen hastean amaitzen da, ernalkuntzatik bi hilabetera edo.

enbrioi-:

ES:	embrionario
FR:	embryonnaire
EN:	embryonic (Hitz elkartuetan)

Ikus: embrionario.

enbrioi-zaku:

ES:	saco embrionario
FR:	sac embryonnaire
EN:	embryonic sac

iz. Enbrioiaren garapenean eratzen den lehenengo zakua.

enbrioi-zko:

ES:	embrionario
FR:	embryonnaire
EN:	embryonic

Ikus: embrionario.

enbriologia:

ES:	embriología
FR:	embryologie
EN:	embryology

iz. Biologiaren adarra; organismoaren garapena aztertzen du, ernalketa gertatu den unetik jaio arte.

enbrionario:

ES:	embrionario
FR:	embryonnaire
EN:	embryonic

izond. Enbrioiari dagokiona.

endekapen:

ES:	degeneración
FR:	dégénérescence
EN:	degeneration

iz. Zelulak eta gorputzaren funtzio normalak pixkanaka hondatuz joateko prozesua.

endekapenezko:

ES:	degenerativo
FR:	dégénératif
EN:	degenerative

izlag. Degenerazioari edo disfuntzionala denari dagokiona.

endekatu:

ES:	degenerar, degenerado
FR:	dégénérer, dégénéré
EN:	degenerate

1. *ad.* Nork bere espezie, arraza edo izaeraren berezko ezaugarriak galdu; ezaugarri onak galduz, okerragoa bihurtu. 2. *izond.* Endekapena jasan duena.

endogamia:

ES:	endogamia
FR:	endogamie
EN:	endogamy

iz. Espezie berekoen arteko ernalketa. Jatorri edo eskualde bereko pertsonen arteko ezkontza (ohikoa edo behartua).

endogeno:

ES:	endógeno
FR:	endogène
EN:	endogenous

izond. Organismoaren barruan sortzen dena, kanpoko faktoreen eraginik gabe.

endokrino:

ES:	endocrino
FR:	endocrine
EN:	endocrine

1. *izond.* Odol- nahiz linfa-zirkulaziora gai jakin bat jariatzen duten zelulen multzoari dagokiona. Eragin zehatza izaten du gai horrek gorputzeko beste ataletan. 2. *izond.* Hormonei edo zirkulaziora jariatutako gaiei dagokiena.

endokrinologia:

ES:	endocrinología
FR:	endocrinologie
EN:	endocrinology

iz. Guruin endokrinoak eta haiek jariatutako hormonak nahiz haien eraginak aztertzen dituen jakintza-arloa.

endometrio:

ES:	endometrio
FR:	endomètre
EN:	endometrium

iz. Umetokiko barrunbeak estaltzen dituen muki-mintza. Ehun bigun lodia da, odol-zain txikiz betea. Han kokatzen da ernaldutako obulua haurdunaldiaren hasieran.

endometriosi:

ES:	endometriosis
FR:	endométriose
EN:	endometriosis

iz. Emakumeei ugalaldian erasaten dien gaixotasuna. Endometrioko zelulak umetokitik kanpo kokatzen dira endometriosian; esate baterako, Falopioeren tronpetan, obulutegietan edo sabel-barrunbean. Gerta daiteke emakumeak mina sentitzea sarketa sakona egitean. Dispareunia eragin dezake, eta komeni da medikuak tratatzea.

enpatia:

ES:	empatía
FR:	empathie
EN:	empathy

iz. Ingurukoen emozioak eta haien gogamen-egoera hautemateko gaitasuna. Beste pertsonen jokabidea ulertzen laguntzen du horrek. Bizikidetza eta komunikazioa errazten ditu.

entzumen:

ES:	oído
FR:	ouïe
EN:	hearing

iz. Soinua hautemateko gaitasuna.

epididimo:

ES:	epidídimo
FR:	épididyme
EN:	epididymis

iz. Egitura luzexka eta estua, tutu-itxurakoa; goiko muturrean barrabilari lotua dago, eta behekoan hodi deferenteari. Haren funtzioa da espermatoidak pilatzea, haiek hodi deferentera igaro aurretik. Horrela, esperma garraiatzen du barrabileko hodi seminiferoetatik hodi deferenteraino.

epidural:

ES:	epidural
FR:	péridural
EN:	epidural

iz. Duramaterraren eta orno-kanalaren arteko espazioari dagokiona. Haurgintzako anestesia jartzen den gunea.

episiotomia:

ES:	episiotomía
FR:	épisiotomie
EN:	episiotomy

iz. Perineoan egiten den ebaki kirurgikoa, erditze-unean, bagina urra ez dadin.

eragile:

ES:	causante
FR:	causant
EN:	cause

izond. Ondorio jakin bat gertarazten duena.

eragin:

ES:	ocasionar, provocar
FR:	occasionner, causer
EN:	cause, bring about

ad. Zerbaitek edo norbaitek beste zerbaiti edo norbaiti funtzio bat betearazi edo ondorio bat gertarazi.

eraginkor:

ES:	eficaz
FR:	efficace
EN:	effective

izond. Nahi edo espero den ondorioa edo helburua lortzen duena.

eraginkortasun:

ES:	eficacia
FR:	efficacité
EN:	efficacy

iz. (Sendagai edo tratamendu bati buruz) Ondorio bat lortzeko duen gaitasun gorena.

eragin-truke:

ES:	interacción
FR:	interaction
EN:	interaction

Ikus: interakzio.

eragin-truke sexual:

ES:	interacción sexual
FR:	interaction sexuelle
EN:	sexual interaction

Ikus: sexu-interakzio.

erakarpen sexual:

ES:	atracción sexual
FR:	attirance sexuelle
EN:	sexual attraction

Ikus: sexu-erakarpen.

eramaile:

ES:	portador
FR:	porteur
EN:	carrier, bearer

izond. Gaixotasun infekzioso batean, agente eragilea (esate baterako, birus jakin bat) daramana, beste batzuk kutsa ditzakeena.

eranskinak:

ES:	anexos
FR:	annexes
EN:	annexes

iz. Emakumearen ugal-aparatuaren elementu osagarriak.

erantzi:

ES:	desvestir
FR:	dévétiir, deshabiller
EN:	undress, strip

ad. Arropa kendu.

erantzun:

ES:	respuesta
FR:	réponse
EN:	response

iz. Estimulu baten aurrean izandako erreakzioa edo mugimendua.

eraso:

ES:	agresión
FR:	agression
EN:	aggression

iz. Beste norbaitenganako jazarpen bortxazkoa; eraso fisikoez gainera, psikologikoak ere gerta daitezke.

Ikus: agresio.

erasotzaile:

ES:	agresor
FR:	agresseur
EN:	aggressor

izond. Erasotzen duena.

erauzi:

ES:	extirpar
FR:	extirper
EN:	extirpate

ad. Gorputzaren zati bat ebaki bat eginez kanporatu, kirurgia bidez.

erauzketa:

ES: ablación, extirpación

FR: ablation, extirpation

EN: extirpation

iz. Organo nahiz atal bat gorputzetik bereiztea, neurri batean edo erabat, kirurgia egiteko edo azterketarako.

erdaindu:

ES: circuncidar, circunciso

FR: circoncire, circoncis

EN: circumcise, circumcised

1. *ad.* Zerbaiti muturra moztu; zakilaren prepuzioa zirkulu-itxuran moztu, bereziki. 2. *izond.* Erdainkuntza egin zaiona.

erdainkuntza:

ES: circuncisión

FR: circoncision

EN: circumcision

iz. Kirurgia-prozedura; zakilaren prepuzioa —eta klitoriarena, zenbait kasutan— erauzten da. Erlijio-erritua da hainbat arraza eta taldetan (juduen artean, islamiarren artean, eta abar); umea jaio eta egun batzuetara, haren zakilaren prepuzioa mozten da. Fimosia tratatzeko ere egiten da, baina ez da prepuzioa osorik erdaintzen, zati bat baizik.

erdiberri:

ES: parturienta

FR: parturiente

EN: parturient

izond. Haurra izan berri duena, edo erditzen ari dena.

Ikus: amaberri.

erdigabe:

ES: nulípara

FR: nullipare

EN: nullipara

izond. Inoiz erditu ez dena.

erdi-hurren:

ES: parturienta

FR: parturiente

EN: parturient

izond. Erditzear dagoena.

Ikus: erdiberri.

erdiminak:

ES:	dolores de parto
FR:	douleurs d'accouchement
EN:	travails, labour pains <i>iz.</i> Umetokiaren uzkurduren ondoriozko oinazea, erditzean.

erditu

ES:	parir
FR:	accoucher
EN:	give birth, be in labour <i>iz.</i> Haurra izan.

erditze:

ES:	parto, alumbramiento
FR:	accouchement
EN:	labour, childbirth <i>iz.</i> Fenomeno fisiologikoen multzoa, amaren umetokitik haurra irtetea eragiten duena.

erditze ondoko:

ES:	posparto
FR:	post-partum
EN:	postpartum <i>izlag.</i> Jaiotza ondoren gertatzen denari dagokiona.

erditze osteko:

ES:	posparto
FR:	post-partum
EN:	postpartum

Ikus: erditze ondoko.

erekzio:

ES:	erección
FR:	érection
EN:	erection <i>iz.</i> Zenbait ehun organiko —titiburuak, klitoria, zakila...— odolez bete eta puztea ezaugarri duen fenomeno. Koitoa ahalbidetzeko adinako zurruntasuna hartzen du zakilak erekzioaren bidez. Sexu-kitzikapenaren ondorioz gertatzen da gehienetan, baina loaldian nahiz estimulazio fisikoaren eraginez ere gerta daiteke.

eri:

ES:	paciente
FR:	patient
EN:	patient

Ikus: gaixo.

erigarri:

ES:	mórbido
FR:	morbide
EN:	morbid

Ikus: morbido.

erikortasun:

ES:	morbilidad
FR:	morbidité
EN:	morbidity

Ikus: morbilidade.

eritasun:

ES:	enfermedad
FR:	maladie
EN:	illness, disease

Ikus: gaixotasun.

erizain:

ES:	enfermero/a
FR:	infirmier
EN:	nurse

iz. Erizaintzarako trebatua eta baimendua dagoen pertsona. Haren eginbearra da osasun-arazo agerikoen edo potentzialen aurrean gizakiak dituen erantzunen erizain-diagnostikoa eta tratamendua egitea, eta zainketak eskaintzea.

erizaintza:

ES:	enfermería
FR:	infirmierie
EN:	infirmary

iz. Erizainen praktika profesionala. Osasuna sustatzeko eta hobetzeko zainketak eskaintzen ditu.

erlaxatu:

ES:	relajar
FR:	se détendre, se relaxer
EN:	relax

ad. Fisikoki edo psikikoki lasaitu, baretu; bereziki, muskulu-egituraren tonua bigundu, lasaitu.

Ikus: lasaitu.

erlaxazio:

ES: relajación

FR: relaxation

EN: relaxation

iz. Tentsioa murriztea; uzkurtzearen aurkako egoera.

Ikus: lasaitze.

erloju biologiko:

ES: reloj biológico

FR: horloge biologique

EN: biological clock

sint. er. Mekanismo neurofisiologikoa; haren funtzioak dira: denbora neurtzea, eta zenbait prozesu fisiologiko eta jokabidezko naturaren zikloekin sinkronizatzea.

ernaldu:

ES: fecundar

FR: féconder

EN: fertilise

ad. Ugal-zelula arra eta emea elkartu, izaki berri bat sortzeko.

ernalezintasun:

ES: infertilidad

FR: infertilité

EN: infertility

iz. Ondorengoak sortzeko ezintasuna. Urtebetez bagina-sarketa erregulariki praktikatu arren, haurdunaldirik ez lortzea, edo, haurdunaldia amaitu aurretik, beti haurra galtzea.

ernalgarri:

ES: fecundable

FR: fécondable

EN: fertilisable

izond. Ernaldua izan daitekeena.

ernalketa:

ES: fecundación

FR: fécondation

EN: fecundation

iz. Bi zelula sexualen (gameto arra eta emea, eskuarki) elkarketa, zigotoa sortzeko. Elkartutako zelula sexual horien nukleoek nukleo bakarra eratzen dute. Espermatozoide batek obuluaren zelula-mintza zeharkatzean, bi gametoak elkartuta hasten da enbrioia garatzen.

Ikus: ernalkuntza.

ernalkuntza:

ES:	fecundación, fertilización
FR:	fécondation, féertilisation
EN:	fecundation, fertilisation

Ikus: ernalketa.

ernaltze:

ES:	fecundación, fertilización
FR:	fécondation, féertilisation
EN:	fecundation, fertilisation

Ikus: ernalketa.

ernari:

ES:	fecundado
FR:	fécondé
EN:	fertilised

izond. Ernaldurik dagoena.

erogeno:

ES:	erógeno
FR:	érogène
EN:	erogenous

izond. Sexu-kitzikapena, desira nahiz plazera eragiten duena.

eros:

ES:	eros
FR:	eros
EN:	eros

iz. Biziraupen-sena edo -jarrera. Freud-ek bizi-senari eman zion Eros izena. Bizi-pultsioak adierazten ditu psikoanalisian, heriotza-pultsioei (Thanatos) kontrajarrita. Maitasunaren jainkoa zen Grezian (Afrodita/Venusekin batera). Afroditararen eta Hermesen semea, munduaren indar oinarritzotzat jo izan da; inoiz ez da asetzen eta beti dago ezinegonean. Hegoak dituen haur baten itxura izan ohi du, eta bere geziez bihotzak pizten ditu, amodio-sutan.

erotasun:

ES:	locura
FR:	folie
EN:	madness

iz. Buru-gaitasunak kalteturik izatea ezaugarri duten asaldurik heterogeneoen multzoa.

erotika:

ES:	erótica
FR:	érotique
EN:	erotica

iz. Maitasun sentsualari dagokion arloa. Desira sexualari dagokion arloa, sexu-nahiz amodio-gaiak jorratzen dituen.

erotiko:

ES:	erótico
FR:	érotique
EN:	erotic

izond. Desira sexualari dagokiona. Sexu- nahiz amodio-gaiak jorratzen dituen, edo haiei dagokiena.

erotismo:

ES:	erotismo
FR:	érotisme
EN:	eroticism

iz. Sexu-bulkadaren osagaietako bat. Maitasun sentsualari, sentsazioei eta sexu-desirari dagokie. Gorputz-adierazpena eta sexu-desira ditu oinarri; kulturaren eta pertsonaren arabera, modu askotako adierazpenak gerta daitezke.

Gorputzetik abiatutik, erakarpina edo arbuioa eta ezkutatzeko-erakuste jolasak adierazten ditu erotismoak. Gorputzaren alde edo gune batean fokaliza daiteke erotismoa. Misterioa, magia eta arriskua berekin ditu, eta eragin handia izan du artearen arlo guztietan: pintura, eskultura, literatura, musika, zinema... Legearen eta gizartearen arabera sexuaren ikuspegi fina, atsegina, onargarria eta gustu onekoa erakusten duten baliabide eta jokabideak, balio artistikoa dutenak, biltzen ditu erotismoak. Kitzikapen sexuala lortzeko erabiltzen da. Esan daiteke plazeraren, haragikeriaren eta desiraren adierazpena fintzea helburu duen artea dela erotismoa.

erotismo-denda:

ES:	tienda erótica, sex shop
FR:	sex-shop
EN:	sex shop

iz. Tresna erotikoak saltzen dituzten denda. Zenbait dendatan, sexu-aholkularitza ere eskaintzen dute.

Ikus: sex-shop.

erotizatu:

ES:	erotizar
FR:	érotiser
EN:	eroticise

ad. Erotikotasuna eman erotikotzat jotzen ez den zerbaiti.

erotizatze:

ES:	erotización
FR:	rendre érotique
EN:	eroticising

iz. Erotikotasuna ematea berez erotikoa ez den edo neutroa den zerbaiti edo norbaiti.

erotofilia:

ES:	erotofilia
FR:	érotophilie
EN:	erotophilia

iz. Jarrera positiboa sexualitatearen aurrean.

erotofobia:

ES:	erotofobia
FR:	érotophobie
EN:	erotophobia

iz. Sentsazio ezkorrak eta beldurra, sexualitatearen nahiz sexu-esperientzien aurrean.

erotomania:

ES:	erotomanía
FR:	érotomanie
EN:	erotomania

iz. Sexuari buruzko eldarnio kronikoa. Asaldu psikiko horretan, norbaitek pasioz maite duela uste dezake gaixoak, hark kontrakoa adierazi arren.

erotu:

ES:	enloquecer
FR:	affoler, devenir fou
EN:	go mad/crazy

ad. Ero bihurtu; zentzua galdu.

errefrakzio-aldi:

ES:	periodo refractario
FR:	période réfractaire
EN:	refractory period

iz. Orgasmoaren ondorengo denbora-tartea; tarte horretan, ez da izaten sexu-estimuluekiko sentiberatasunik.

errefusatzaile (atxikimendu-eredu):

ES:	rechazo (modelo de apego)
FR:	évitant (modèle d'attachement)
EN:	avoidant (attachment model)

izond. Atxikimendu-eredu mota; intimitatearen garrantzia ukatzea du ezaugarri nagusia. Ondorioz, jarrera errefusatzailea izan ohi da gizarte-harremanetan. Irudi positiboa izaten da norberaren buruaz, eta negatiboa, aldiz, besteez. Bikotekidea eskuraezintzat eta sentimenduz hoztat hartzen da eskuarki.

errefusatz:

ES:	rechazo
FR:	rejet
EN:	rejection

1. *iz.* Organismoaren erreakzio immunologikoa, arrotz zaizkion gaien eta organismoen aurrean. Batez ere transplanteetan gertatzen da prozesu biologiko hori, denbora bat igaro ostean, txertatutako organoa edo ehuna kanporatzean. 2. *iz.* Norbait ez onartzea.

erregresio:

ES:	regresión
FR:	régression
EN:	regression

1. *iz.* Lehenagoko garapen-fase baterako itzulera. 2. *iz.* Lehenagoko jokaera batera itzultzea.

errepikatu:

ES:	repetir(se), recurrente, recidivante
FR:	(se) répéter, récurrent, répété
EN:	repeat, recurrent, recurring

izond. (Zantzuei edo sintomei buruz) Aldizka berriz agertu ohi dena.

erreplikatu:

ES:	replicar
FR:	répliquer
EN:	replicate

ad. Erreplikazioa egin edo gertatu.

erreplikazio:

ES:	replicación
FR:	réplique
EN:	replication

iz. (Genetikan) DNAaren polinukleido-kateak bikoiztea.

errepresio:

ES:	represión
FR:	répression
EN:	repression

iz. Bulkadaren bati loturiko irudikapenak (pentsamenduak, irudiak, oroitzapenak...) ukatzeko edo inkontzientean ezkutatze eragiketa.

erresistentzia:

ES: resistencia

FR: résistance

EN: resistance, endurance

1. *iz.* Organismoaren ezaugarri multzoa, bizkarroien nahiz eritasunen kalteak saihesteko edo murrizteko.

2. *iz.* Jarduera batean jarraitzeko gaitasuna, gainkarga fisikoaren eta psikologikoaren gainera dagoena. 3. *iz.* Indar bati kontrajarria den euste-indarra; esate baterako, zirkulazio-sistemako odol-hodi periferikoetako odol-fluxuak jasaten duen erresistentzia. 4. *iz.* Mikroorganismo batek antibiotikoen eragina saihesteko duen gaitasuna. Berezkoa edo hartutakoa izan daiteke.

erresoluzio-fase:

ES: fase de resolución

FR: phase de résolution

EN: resolution phase

Ikus: lehengoratzefase.

erresumin:

ES: resentimiento

FR: ressentiment

EN: resentment

iz. Gorputzeko gune batean sumatzen den sentsazio desatsegina.

Erresuminaren eragile izan daitezke: kolpeak, ebakiak, zauriak, organismoaren funtzionamenduan oreka galtzea, eta abar. Emozioen arloan, samin batek uzten duen arrastoa; barkatzen ez den kalteari ere hala deritzo.

errezeptore sentsorial:

ES: receptor sensorial

FR: récepteur sensoriel

EN: sensory receptor

sint. er. Nerbio-zelulaz osaturiko egitura mikroskopikoa, inguruko zein barruko seinaleei sentikortasun handiz erantzuteko prestatua; nerbio-sistema zentralera eramaten du informazioa. Zentzumenen oinarri da, eta beste hainbat eragileren hartzaile: beroa, elektromagnetismoa, eta abar.

errezesibo:

ES: recesivo

FR: récessif

EN: recessive

izond. (Geneen ezaugarriei buruz) Gene gainartzaile baten aurrean ezkutuan geratzen dena.

errezeta:

ES: receta, prescripción

FR: ordonnance

EN: prescription

iz. Sendatzeko edo arazo bati aurre egiteko agintzen diren sendagai, substantzia edo eginkizunen multzoa. Sendagilearen ohar idatzia; erremedio baten preskripzioa edo formula; zerbaiten osaera eta prestatzeko eta hartzeko modua adierazten dira bertan.

errezetatu:

ES: recetar

FR: prescrire

EN: prescribe

ad. Medikuek sendagai bat agindu, eta sendagai horren dosia, prestaera eta erabilera adierazi.

erromantikotasun:

ES: romanticismo

FR: romantisme

EN: romanticism

iz. Amodio erromantikoari dagokion jarrera.

Ikus: erromantizismo.

erromantizismo:

ES: romanticismo

FR: romantisme

EN: romanticism

iz. XIX. mendeko mugimendu batik bat estetikoa, baina giza izaera osoari eragin ziona; norbanakotasuna, sentikortasun muturrekoa, arrazoimenaz haragoko espiritualtasuna eta abar ditu oinarri. Werther (izenburu bereko Goetheren nobelako pertsonaia) da amodio erromantikoaren eredu.

Ikus: amodio erromantiko.

errusiar:

ES: ruso

FR: russe

EN: Russian

izond. Uzki-masajea.

ertz (betertz, ezpainertz...):

ES: comisura

FR: commissure

EN: commissure

iz. Bi atal anatomikoren arteko lotunea; begiko angelua, ezpainetakoa, eta abar.

erupzio:

ES:	erupción
FR:	eruption
EN:	eruption

iz. Larruazaleko nahiz mukosetako pikorra edo orbana.

esentzial:

ES:	esencial
FR:	essentiel
EN:	essential

1. *izond.* Zerbaitek, izateko, ezinbestekoa duena. 2. *izond.* (Gaixotasunei buruz) Kausa ezezaguna duena.

esfinter:

ES:	esfinter
FR:	sphincter
EN:	sphincter

iz. Eratzun-formako giharra. Itxiarazi egiten du irekigune natural bat.

eskasia:

ES:	déficit
FR:	déficit
EN:	insufficiency

iz. Gutxiegitasuna, maila normalarekiko.

eskatologia:

ES:	escatología
FR:	eschatologie
EN:	eschatology

1. *iz.* Gorputzeko irazkinei dagokien arloa; haietaz mintzatzea. 2. *iz.* (Erlijioen alorrean) Gizakia eta mundua amaitzearen geroztikoaz jarduten den arloa.

eskroto:

ES:	bolsa escrotal
FR:	scrotum
EN:	scrotum

iz. Barrabilak biltzen dituen larruazal-poltsa; bere barruan ditu barrabilak eta esperma-kordoiaren zati bat. Bi geruza ditu: larruazala eta dartos tunika. Oso fina da larruazala, kolore arrekoa eta zimurra.

esku:

ES:	mano
FR:	main
EN:	hand

iz. Gorputzeko atala, besaurrearen muturrean dagoena. Eskeletoko atalik malguena da. Hiru zati ditu: karpoa, metakarpoa eta hatzak. 27 hezur ditu guztira: 8 hezur karpotan, 5 metakarpotan, eta 15 hatzetako falangeetan. Sexu-harremanetan, eragile nagusietako bat da.

eskumutur:

ES:	muñeca
FR:	poignet
EN:	wrist

iz. Goiko gorputz-adarreko atala, besaurrearen eta eskuaren artean dagoena; karmoaren eremua hartzen du. Eskumuturrak lotzea usu erabiltzen da sexu-harreman sadomasokistetan.

esleipen-sexu:

ES:	sexo de asignación
FR:	sexe d'attribution
EN:	allocation sex

iz. Jaiotzean zehazten den sexua, gizabanakoaren sexu-organoen arabera.

esmegma:

ES:	esmegma
FR:	smegma
EN:	smegma

iz. Gai lodi, zurixka, usaintsua, prepuzioaren barnealdean dauden guruin batzuek jariatzen dutena. Likido horrek zakila lubrifikatzen du. Ez du loturarik espermarekin.

esnifatu:

ES:	esnifar
FR:	sniffer
EN:	sniff, snort

ad. Sudurretik kokaina edo hauts eran dagoen beste edozein droga sartu.

esnifatze:

ES:	esnifada
FR:	sniff
EN:	sniff, snort

iz. Kokaina edo hauts eran dagoen beste edozein droga sudurretik sartzea.

Espanian Abortua Despenalizatu zen Eguna (1985):

ES:	Día de la Despenalización del Aborto en España (1985)
FR:	Journée de la Dépénalisation de l'Avortement en Espagne (1985)
EN:	Day of the Decriminalisation of Abortion in Spain (1985)

sint. er. Uztailaren 5ean ospatu ohi da.

espasmo:

ES:	espasmo
FR:	spasme
EN:	spasm

iz. Gihar baten edo gihar talde baten uzkurdura oharkabekoa.

espasmodiko:

ES: espasmódico

FR: spasmodique

EN: spasmodic

izond. Espasmoari dagokiona, edo espasmoarekin batera gertatzen dena.

espekulu:

ES: espéculo

FR: spéculum

EN: speculum

iz. Baginako paretak banatzeko erabiltzen den tresna, barrunbe hori aztertu ahal izateko. Ginekologoei eta emaginei erabili ohi dute, bagina-esplorazioak egiteko.

esperimentatu:

ES: experimentar

FR: expérimenter

EN: experiment, experience

ad. Zerbaiten bertute eta ezaugarriak praktikan probatu eta aztertu; zenbait fenomeno edo hastapen zientifiko aurkitu, probatu edo egiaztatzeko eragiketak egin.

esperma:

ES: esperma

FR: sperme

EN: sperm

iz. Testikuluen eta guruin lagungarrien jariakinez eratutako likidua, espermatozoideak garraiatzeko funtzioa duena. Isurkari zurixka eta lodia da, ugal-organo arrek eiakulazioan uretratik jariatua. Barrabilek, epididimoak, semen-xixkuek, prostatak eta Cowper-en guruinek hartzen dute parte espermaren eraketan.

Espermatozoideak dira haziaren osagai nagusiak, eta prostatak semen-xixkuen eta beste hainbat guruinen jariakinak ere baditu; 2 eta 5 cm³ bitartekoa izaten da isuria eiakulazio bakoitzean, eta 60-120 bat miloi espermatozoide kanporatzen dira.

Orgasmoarekin batera edo hura gabe (loaldian, adibidez) irten daiteke hazia uretratik kanpora.

Ikus: hazi, semen.

esperma-banku:

ES: banco de semen

FR: banque de sperme

EN: sperm bank

iz. Giza esperma gordetzeko gune berezia. Esperma izoztu egiten dute, etorkizunean ernaltzeko aukera izateko.

Oharrak: Teknologia horren bidez sortutako lehen haurra 1953an jaio zen.

espermatiko:

ES:	espermático
FR:	spermatique
EN:	spermatic

Ikus: seminal.

espermatogenesi:

ES:	espermatogénesis
FR:	spermatogénèse
EN:	spermatogenesis

iz. Espermatozoide-ekoizpena, barrabiletan; pubertaroan hasten da.

Espermatogoniak espermatozoide bihurtzeko prozesua da, eta barrabiletako hodi seminiferoetan gertatzen da. 70 ordu inguru behar izaten dira prozesu osoa burutu dadin.

espermatozoide:

ES:	espermatozoide
FR:	spermatozoïde
EN:	spermatozoon

iz. Ugal-zelula ar heldua; 10-60 µm inguruko neurria du, eta mugikorra da.

Espermaren oinarritzko osagaia da eta barrabiletako gai bereizgarria. Obuluarekin elkartzen denean, ernalketa gertatzen da.

espermizida:

ES:	espermicida
FR:	spermicide
EN:	spermicide

iz. Espermatozoak deuseztatzen dituen gai kimikoa eta kontrazepzio-metodoa. Hainbat jardunbide ditu: espermatozooen gainazal-tentsioa murriztea, eragin bakterizidaz zelularen pareta haustea, edo ingurune oso azido bat sortzea. Espermatozoideak hil eta haurdunaldia eragozteko balio du.

espezialista:

ES:	especialista
FR:	spécialiste
EN:	specialist

izond. Jakintzaren adar batean aditua. Osasun-arloan, medikuntzaren adar batean aditua.

espezialitate:

ES:	especialidad
FR:	spécialité
EN:	speciality

iz. Jakintzaren adar bat. Medikuntzaren nahiz erizaintzaren adarra; profesionala bereziki prestatua dago hartan, ikasketa-programa bat jarraitu eta dagozkion azterketak gainditu ondoren.

espezie:

ES:	especie
FR:	espèce
EN:	species

iz. Ezaugarri fisiko eta biologiko berberak dituzten norbanakoez osatutako taldea; beren artean gurutzatzen dira edo gurutza daitezke soilik.

espeziearen iraupen:

ES:	supervivencia de la especie
FR:	survie de l'espèce
EN:	survival of the species

iz. Ondare genetiko jakin bati belaunaldiz belaunaldi eustea, beste baten edo batzuen heriotzaren nahiz gertaera jakin baten ondoren.

espezifikiko:

ES:	específico
FR:	spécifique
EN:	specific

izond. Espezie baten edo izamolde baten bereizgarri dena.

espezifikotasun:

ES:	especificidad
FR:	spécificité
EN:	specificity

1. *iz.* Gaixotasun edo lesio jakinetan eragiteko zenbait sendagaik duten gaitasunaren ezaugarria. 2. *iz.* Immunologian, antigorputzak bere antígenoarekin duen afinitate berezia.

esploratu:

ES:	explorar
FR:	explorer
EN:	explore

1. *ad.* Zerbaiten kalitatea nahiz ezaugarriak ezagutzen ahalegindu. 2. *ad.* Ordura arteko esperientzia ezezagunak saiatu.

Ikus: miatu.

estali:

ES:	cubrir
FR:	couvrir
EN:	cover

ad. Azal baten gainean beste azal edo geruza bat zabaldu. Animalien arteko koittoa gauzatu (harrak emea estali, esan ohi da).

estandar:

ES: estándar

FR: standard

EN: standard

iz. Antzeko fenomenoak edo gaiak alderatzeko oinarritzat erabiltzen den balioespena.

estasi:

ES: éxtasis, estasis

FR: stase

EN: stasis

1. *iz.* Betetasun osoa, gehienetan buru-argitasun handikoa, une batez gertatzen dena. Orgasmoari, sarritan, estasi deitu izan zaio. 2. *iz.* Droga baten izena; MDMA (3,4-metilendioximetanfetamina); haluzinogenoa da, eta intentsitate handiko sexu-jarduerarekin lotu ohi da.

Ikus: droga.

estereotipo sexual:

ES: estereotipo sexual

FR: stéréotype sexuel

EN: sexual stereotype

Ikus: sexu-estereotipo.

esteril:

ES: estéril

FR: stérile

EN: sterile

izond. Aseptikoa; mikroorganismorik ez duena.

esterilet:

ES: esterilet

FR: stérilet

EN: loop, coil

iz. Umetoki-barrunbean ipintzen den antisorgailua, plastikozkoa zein kobrezkoa.

Ikus: UBG.

esteroide anabolikoak:

ES: esteroides anabólicos

FR: stéroïdes anabolisants

EN: anabolic steroids

sint. er. Esteroletatik eratorritako gai askori ematen zaien izena. Giltzurrun gaineko kortexean eta gonadetan sortzen dira, batez ere. Garrantzi fisiologiko handia dute.

estimulatzaile:

ES:	estimulante
FR:	stimulant
EN:	stimulant

Ikus: bizigarri, suspergarri, bizkorgarri.

estimulazio:

ES:	estimulación
FR:	stimulation
EN:	stimulation

iz. Desira edo plazer erotikoak piztu, eragin edo kitzikatzeko jokabidea.

estimulu:

ES:	estímulo
FR:	stimulus
EN:	stimulus

iz. Gorputzean edo psikean erantzun bat eragiteko funtzioa duen agentea.

estres:

ES:	estrés
FR:	stress
EN:	stress

iz. Edozein eragilek (hotzak, emozioak, gaixotasunak, ebakuntza kirurgikoak edo gertaera traumatikoak) organismo osoari eginiko eraso, bizia kinkan jar dezakeena; eraso horren aurrean organismoak emandako erantzun fisiologiko, metaboliko eta psikologikoen multzoa. Harreman erotikoetan eragina du estresak, gehienetan kalterako.

estresagarri:

ES:	estresante
FR:	stressant
EN:	stressful

izond. Estresa eragiten duena.

estresatu:

ES:	estresar
FR:	stresser
EN:	stress

ad. Estresa eragin edo jasan.

estro:

ES:	estro
FR:	oestrus
EN:	estrus; oestrus

1. *iz.* Emeen ugaldiko fasea; sexu-portaera areagotu egiten da aldi horretan. FSHk eraginiko estrogeno-jarioaren gorakadarekin batera gertatzen da. Estroa amaitzen denean, emeak ez du sexu-harremanik nahi izaten, eta ez da ernari geratzen. 2. *iz.* Emakume eta ugaztun emeengan, oreka hormonal aldatzearen ondorioz, obulazioaren aurretik eta obulazioan zehar gertatzen diren fenomeno multzoa.

Ikus: FSH.

estrogeno:

ES:	estrógeno
FR:	oestrogènes
EN:	estrogen, oestrogen

iz. Sexu-hormona, emakumezkoetan garrantzi handikoa.

Emakumearen sexu-ezaugarriak gararazten dituen hormona. Obulutegiek, karenak, giltzurrun gaineko guruinek eta barrabilek jariatzen dituzten esterolak dira.

estupefaziante:

ES:	estupefaciente
FR:	stupéfiant
EN:	narcotic

iz. Gai narkotiko eta analgesikoa. Gai estupefazianteek asalatu egiten dituzte kontsumitzailearen egoera fisiologikoa eta psikikoa, eta euforia-egoera berezia eragiten diote. Mendekotasuna ekar dezakete.

estupro:

ES:	estupro
FR:	stupre
EN:	estupro

iz. Sexu-delitua. Zigor-kodearen arabera, estupro-delitua da 12 urtez gorako eta 16-18 urtez beherako edonorekin izandako sexu-harreman oro.

etiologiko:

ES:	etiológico
FR:	étiologique
EN:	etiologic

izond. Gaixotasunen eta gertaeren kausen azterketari dagokiona. Etiologiari dagokiona.

etologia:

ES:	etología
FR:	ethologie
EN:	ethology

iz. Animalien portaeraren zergatikoak, haien egokitze-funtzioa eta haien eboluzioaren historia aztertzen dituen jakintza-arloa; espezie jakin batek berezkoak edo ikasiak dituen portaera-arauak aztertzen ditu bereziki.

Animalien jarrera aztertzen duen zientzia; beste biologia-diziplinetara jotzen du ikusten diren portaera-ereduak ulertu ahal izateko.

etxeko bortxakeria:

ES:	violencia doméstica
FR:	violence domestique
EN:	domestic violence <i>sint. er.</i> Etxe barruko bortxakeria; eskuarki gizonak emakumeari jasanarazten diona.

Ikus: etxeko indarkeria, emakumeen aurkako indarkeria.

etxeko indarkeria:

ES:	violencia doméstica
FR:	violence domestique
EN:	domestic violence

Ikus: emakumeen aurkako indarkeria.

etxe-mediku:

ES:	médico de familia
FR:	médecin traitant
EN:	family physician, GP

Ikus: familia-mediku.

etzan:

ES:	tumbarse
FR:	se coucher
EN:	lie down <i>ad.</i> Jarrera horizontala hartu; atseden hartzeko edo lo egiteko, batez ere.

etzanda:

ES:	en decúbito
FR:	couché
EN:	decubitus <i>adlag.</i> Gorputzaren atseden-jarrera, gutxi gorabehera horizontala den plano batean.

etzanera:

ES:	decúbito
FR:	en position couché
EN:	decubitus position <i>iz.</i> Horizontalki etzanda dagoen gorputzaren egoera.

etzanik:

ES:	en decúbito
FR:	décubitus
EN:	decubitus

Ikus: etzanda.

eugenesia:

ES:	eugenesia
FR:	eugénisme
EN:	eugenics

iz. Giza ondoretasuna hobetzeko harturiko neurrien multzoa.

eunuko:

ES:	eunuco
FR:	eunuque
EN:	eunuch

iz. Gizon irendua; hainbat gizartetan, haremak zaintzeko ardura izaten zuen.

eutsi:

ES:	contener
FR:	contenir
EN:	restrain, hold back

ad. Helduta eduki; mugitu, erori, galdu edo suntsitu gabe, bere egoeran iraunarazi.

eutsi ezineko une:

ES:	momento de inevitabilidad
FR:	moment d'inévitabilité
EN:	moment of inevitability

sint. er. Eiakulatu aurreko unea; gizonak sentitzen du ezin diola gehiago eutsi eiakulatu gabe. Muga hori igarota, gizonak ezin du kontrolatu eiakulazioa, eta orgasmoa izaten du. Zenbait gizonak arazotzat hartzen dute kontrola galtzea, batik bat bizkorregi eiakulatzen dutenek. Sexu-terapian, oso garrantzitsua da ezagutzea zer sentitzen duen pertsonak eiakulazioaren aurretik, eiakulatzeko unea kontrolatzen ikasteko.

exhibizionismo:

ES:	exhibicionismo
FR:	exhibitionnisme
EN:	exhibitionism

iz. Organo genitalak nahiz tradizioz erotizatuak diren beste gorputz atal batzuk erakustea leku publikoetan, plazer erotikoa lortzeko. Jarduera erotikoren bat egitean, jardueraz gozatzea baino besteek hori ikustea nahiago izatea.

exhibizionista:

ES:	exhibicionista
FR:	exhibitionniste
EN:	exhibitionist

izond. Exhibizionismoa praktikatzen duena.

exogamia:

ES:	exogamia
FR:	exogamie
EN:	exogamy

iz. Endogamiaren aurkakoa. Giza talde jakin baten barruan ez dago bikotea egiterik. Esate baterako, beste tribu batekoekin ezkondu behar da. Bi arraza elkartzeari ere deitzen zaio horrela.

exogeno:

ES:	exógeno
FR:	exogène
EN:	exogenous

izond. Organismotik kanpo sortzen edo garatzen dena.

exokrino:

ES:	exocrino
FR:	exocrine
EN:	exocrine

1. *izond.* Kanporako jariatze-prozesuari dagokiona. 2. *izond.* (Guruinei buruz) Hodi iraizlea duena; handik kanporatzen dira organismoak iraitzitako produktuak; esate baterako, sexu-guruinek jariatzen dituztenak.

exudakin:

ES:	exudado
FR:	exsudat
EN:	exudate

iz. Likido, zelula edo beste edozein gai, zeluletatik edo odol-hodietatik mantso-mantso kanporatzen dena, zelula-mintzen poro edo zulo txikietatik igarota. Hantura-prozesuetan gertatzen da, batez ere.

ez-aratz:

ES:	no puro
FR:	pas pur
EN:	impure

Ikus: ez-puru.

ezarpen:

ES:	implantación
FR:	implantation
EN:	implantation

iz. Ernaldutako obulua umetokiko mukosan finkatzeko prozesua. Enbrioiaren garapenaren lehenengo faseetan gertatzen da.

ezgai:

ES:	incapaz
FR:	incapable
EN:	incapable

izond. Zerbaitetarako gauza ez dena. Gorputz-funtzio bat betetzeko gauza ez dena.

ezgaitasun:

ES:	discapacidad
FR:	incapacité
EN:	incapacity

iz. Gaitasun fisikoa nahiz mentala galtzearen, murriztearen, edo ez izatearen ondorioa.

ezgaitu:

ES:	incapacitar, incapacitado
FR:	rendre incapable, handicapée
EN:	incapacitate, incapacitated

1. *ad.* Norbait ezgai bihurtu edo bihurtarazi. 2. *izond.* Ezintasun fisiko edo mentalen bat duena.

ezin konponduzko:

ES:	irreparable
FR:	irréparable
EN:	irreparable

Ikus: konponezin.

ezindu:

ES:	imposibilitado, incapacitado, paralítico
FR:	handicapé
EN:	disabled

izond. Mugitzeko gauza ez dena edo zailtasunez mugi daitekeena, gaixotasun nahiz ezbeharren baten ondorioz.

Ikus: elbarri, baliaezin.

ezinegon:

ES:	malestar
FR:	trouble
EN:	unease

ezintasun:

ES:	incapacidad
FR:	incapacité
EN:	incapacity

1. *iz.* Gaitasunik eza. 2. *iz.* Kontrola galtzearen sentsazioa; behin eta berriz akats bera egitearen ondorio izaten da, eskuarki. Erabakiak hartzeko ahalmenik eza dakar, askotan.

ezkonberri:

ES:	recién casado, contrayente
FR:	jeune marié
EN:	newlywed

izond. Duela oso denbora gutxi ezkondu dena.

ezkongabe:

ES:	célibe
FR:	célibataire
EN:	single, unmarried, celibate

izond. Ezkondu ez dena; ezkongaia.

ezkon-hitza:

ES:	compromiso
FR:	engagement, promesse
EN:	engagement

iz. Ezkontzeko hitza. Ezkontzeko eginbidea hartzea.

Ikus: eginbide.

ezkon-nahaste:

ES:	adulterio
FR:	adultère
EN:	adultery

Ikus: adulterio.

ezkontide:

ES:	consorte, cónyuge
FR:	épouse
EN:	consort

izond. Emaztea edo senarra bata bestearekiko.

ezkontza:

ES:	boda, connubio
FR:	mariage
EN:	marriage, wedding

iz. Gizartearen aurrean bikote batek egiten duen zina, sexu- eta familia-harreman iraunkorra izateko.

ezkontza ireki:

ES:	matrimonio abierto
FR:	mariage ouvert
EN:	open marriage

sint. er. Ezkontzaren kontzeptu ireki eta askea; ezkontideen intimitate pertsonala eta ezkontzaz kanpoko pertsonekin harremanak –baita sexualak ere– izateko erabaki adostua du ezaugarri.

ezkontza-betebehar:

ES:	débito conyugal
FR:	devoir conjugal
EN:	spousal obligation

iz. Ezkontideek bata bestea erotikoki asetzeko hartu duten betebeharra.

ezkontza-eraztun:

ES:	alianza
FR:	anneau
EN:	ring

iz. Ezkontideek bata besteari hatz batean jartzen dioten eraztuna; harremanaren iraunkortasuna eta bereizteztasuna adierazten ditu.

ezohiko:

ES:	atípico
FR:	atypique
EN:	atypical

Ikus: atipiko.

ezpain:

ES:	labio
FR:	lèvre
EN:	lip

iz. Barrunbe edo arraildura bat inguratzen duten bi zati haragitsuetariko bakoitza. Ahoaren aurreko zatia inguratzen dutenak eta emakumezkoen kanpoko ugal-organoetan daudenak dira ezpain nagusiak.

ezpain handiak:

ES:	labios mayores
FR:	grandes lèvres
EN:	labia majora

sint. er. Larruazal-tolestura luzexka parea. Venusen menditik bagina-zuloaren azpialderaino iristen dira eta tarte horretako bulba-parte estaltzen dute.

ezpain txikiak:

ES:	labios menores
FR:	petites lèvres
EN:	labia minora

sint. er. Bilorik gabeko larruazal-tolestura parea. Bulbako ezpain handien azpian daude, ezkutuan.

ezpaineratu:

ES:	enlabiar
FR:	mettre aux lèvres
EN:	put on the lips

ad. Ezpainean ipini.

ezpain-ertz:

ES:	comisura de los labios
FR:	commissure de la bouche
EN:	corner of the mouth <i>iz.</i> Ahoko angelua.

ez-puru:

ES:	impuro-a
FR:	impur
EN:	impure <i>izond.</i> Purua ez dena; berezkoak ez zaizkion elementu arrotzez nahastua agertzen dena.

eztarri:

ES:	garganta
FR:	gorge
EN:	throat <i>iz.</i> Tutu erako egitura, garezuraren beheko aldetik hestegorriraino doana. Lepo-ornoen aurrealdean dago. Arnas eta digestio-sistemen igarobidea da, eta itxura aldatzen du hotsak sortu ahal izateko. Giharrez eratua dago, eta muki-geruza batek estaltzen du.

eztei(ak):

ES:	boda(s)
FR:	mariage
EN:	marriage(s), wedding(s)

Ikus: ezkontza.

ezti-goxotan jartze:

ES:	amartelamiento:
FR:	engouement, maladie d'amour
EN:	infatuation, lovesickness

Ikus: elkarri urrumaka aritze.



faliko:

ES:	fálico
FR:	phallique
EN:	phallic

izond. Faloari dagokiona.

falo:

ES:	falo
FR:	phallus
EN:	phallus

iz. Zakilaren eta indar maskulinoaren irudikapen sinbolikoa. Tente dagoen zakila izendatzeko ere erabiltzen da.

Ikus: zakil.

faloaren gurtza:

ES:	culto fálico
FR:	culte phallique
EN:	phallic cult

sint. er. Zakila botere-sinbolo sortzailatzat gurtzen duen jokabidea.

Falopioren tronpak:

ES:	trompas de Falopio
FR:	trompes (de Fallope)
EN:	Fallopian tube

sint. er. Obulua obulutegietatik umetokira eramaten duen tronpa pareak. Tronpetan, obuluaren ernalketa gerta daiteke.

faloplastia:

ES:	faloplastia
FR:	phalloplastie
EN:	phalloplasty

iz. Zakil artifizial bat sortzeko prozedura kirurgikoa.

falozentrismo:

ES:	falocentrismo
FR:	phallocentrisme
EN:	phallocentrism

iz. Gizarte batek zakilari eta haren funtzioei neurrigabeko garrantzia eta balioa ematea.

familia:

ES:	familia
FR:	famille
EN:	family

iz. Ahaide taldea. Ondorengoen multzoa. Gaur egun, gehienbat gurasoak eta seme-alabak izan ohi dira familia osatzen dutenak.

familia biparental:

ES:	familia biparental
FR:	famille biparentale
EN:	two-parent family

sint. er. Guraso biko familia, eskuarki aita eta ama, nahiz eta gaur egun sexu bereko gurasoak ere badiren.

familia-ereduak:

ES:	modelos de familia
FR:	modèles familiaux
EN:	family patterns

iz. elk Zenbait ezaugarriren arabera familia mota: bi gurasokoa, guraso bakarrekkoa, aiton-amonak barne hartzen dituenak, eta abar.

familia heteroparental:

ES:	familia heteroparental
FR:	famille heteroparentale
EN:	hetero family

sint. er. Gurasotzat gizon bat eta emakume bat dituen familia.

Oharrak: Tradizionalki, familia-eredu hori jo izan da onargarri bakartzat.

familia homoparental:

ES:	familia homoparental
FR:	famille homoparentale
EN:	homoparental family

sint. er. Gurasotzat bi gizon edo bi emakume dituen familia.

Oharrak: 2006 urtean, sexu bereko bi kideren arteko ezkontza onartu zen Espainian.

familia monoparental:

ES:	familia monoparental
FR:	famille monoparentale
EN:	monoparental family

sint. er. Guraso bakarrekkoa familia.

Oharrak: Kasuak:

- Lagundutako haurdunaldia izan duen emakumea.
- Gurasoetako batek ardurarik hartu ez, eta bestea familiaburu gisa bakarrik geratzea.
- Gurasoetako bat alargun geratzea.

familia multiparental:

ES:	familia multiparental
FR:	famille multiparentale
EN:	multiparental family <i>sint. er.</i> Guraso biologiko nahiz legal edo tutore (aiton-amonak barne) asko dituen familia.

Oharrak: Egun, bikote-banaketen kopurua handituz doa, eta, horrekin batera, familia multiparentalen kopurua ere ugartu egin da.

familia pluriparental:

ES:	familia pluriparental
FR:	famille pluriparentale
EN:	pluriparental family <i>sint. er.</i> Ama biologikoak, esperma-emaileak eta legezko aitak sortzen duten familia.

familia tradizional:

ES:	familia tradicional
FR:	famille traditionnelle
EN:	traditional family <i>sint. er.</i> Aita-amek eta seme-alabek osaturiko familia, azken aldi honetan. Lehenago, aiton-amonak eta osaba-izeba zenbait ere izan zitzakeen familia tradizionalak.

familia-azterketak:

ES:	estudios de familias
FR:	études familiales
EN:	family studies <i>iz.</i> Elkarrekin bizi diren ahaide genetiko jakin batzuen –gurasoak, seme-alabak, anai-arrebak, eta abar– arteko erlazioa oinarritzat duten ikerketen multzoa; elkarrekin partekatutako faktore genetiko eta inguruneak fenotipoan izan dezaketen eragina balioesteko egiten dira eskuarki.

familia-mediku:

ES:	médico de familia
FR:	médecin traitant
EN:	GP, general practitioner, family practice physician, family doctor <i>iz.</i> Familia-medikuntza jarduten duena.

familia-plangintza:

ES:	planificación familiar
FR:	planification familiale
EN:	family planning <i>iz.</i> Bikote zein gizabanakoek seme-alabak izateko edo ez izateko edo nahi beste izateko egiten duten ahalegin kontzientea, batetik besterako tartea eta jaioko diren unea planifikatuz. Kontrazepzio-metodoak erabiliz edo nahi gabeko antzutasuna tratatuz gauzatzen da familia-plangintza.

Ikus: botikari.

Familien Nazioarteko Eguna:

ES:	Día Internacional de las Familias
FR:	Journée Internationale des Familles
EN:	International Day of Families <i>sint. er.</i> Maiatzaren 15ean ospatu ohi da.

fantasia erotiko:

ES:	fantasía erótica
FR:	fantaisie érotique
EN:	erotic fantasy <i>sint. er.</i> Esna egonik desira edo plazer sexuala eragiten duen irudikapena. Norbaitek dituen fantasia sexualen edukiak. Neurri batean, besteekin konpartitutako elementu kulturalak biltzen ditu. Fantasia erotikoak bakarkako jarduera erotikoan nahiz harreman erotikoetan zehar ager daitezke, desira eta plazera piztuz edo sustatuz.

Oharrak: Fantasia erotikoetako edukiekin gozatzeak ez du esan nahi halakoak errealitate bihurtu nahi direnik.

Adibidea: Norbaitek bortxatua izatearen fantasia erotikoarekin goza dezake, baina horrek ez du esan nahi hori benetan gertatzea nahi duenik.

farmako:

ES:	fármaco
FR:	médicament
EN:	drug

Ikus: sendagai.

farmakologia:

ES:	farmacología
FR:	pharmacologie
EN:	pharmacology <i>iz.</i> Ezagutza multzoa; sendagaien prestaera, ezaugarriak, erabilerak eta eraginak aztertzen eta ezagutzen ditu.

farmakologiko:

ES:	farmacológico
FR:	pharmacologique
EN:	pharmacological <i>izond.</i> Farmakologiari dagokiona.

farmazeutiko:

ES:	farmacéutico
FR:	pharmacien
EN:	pharmacist <i>izond.</i> Farmazian aditua; sendagaiak prestatu edo saldu egiten ditu.

farmazia:

ES:	farmacia
FR:	pharmacie
EN:	pharmacy

1. *iz.* Sendagaiak saltzen diren denda; eta, orobat, denda horren barnean, sendagaiak prestatzeko bereziki antolaturiko gunea. 2. *iz.* Medikamentuen osagai diren droga eta konposatu kimikoak eraldatzeaz arduratzen den zientzia, produktu farmazeutikoen prestaera, analisia eta sintesia biltzen dituen.

fase:

ES:	fase
FR:	phase
EN:	phase

iz. Gertakari edo prozesu batean bereiz daitezkeen aldietako bakoitza.

fase faliko:

ES:	fase fálica
FR:	phase phallique
EN:	phallic phase

Ikus: zakil-aro.

fase oral:

ES:	fase oral
FR:	phase orale
EN:	oral phase

Ikus: aho-aro.

fazzikulu:

ES:	haz, fascículo
FR:	faisceau
EN:	bundle

iz. Nerbio-zuntzez, odol-hodiz nahiz beste edozein motatako egitura luze eta paraleloz osaturiko multzoa; lokarri eran bildurik, norabide berean doaz egitura horiek.

feedback:

ES:	feedback
FR:	feedback
EN:	feedback

Ikus: berrelikadura.

fekal:

ES:	fecal
FR:	fécal
EN:	faecal

izond. Gorozkiari dagokiona.

felazio:

ES:	felación, fellatio
FR:	fellation
EN:	fellatio

iz. Gizonezkoaren sexu-organoak ahoaz laztandu, zurrupatu edo musukatzea. Glandearen ingurua eta zakilaren gorputza mihiaz laztanduz egin daiteke, edo zakila ahoan sartuz eta zurrupatuz, besteak beste.

femenino:

ES:	femenino
FR:	féminin
EN:	feminine

izond. Ezaugarri emeak dituen. Emeari dagokiona.

feminismo:

ES:	feminismo
FR:	féminisme
EN:	feminism

iz. Filosofia sozio-politikoa eta gizarte-mugimendua, emakumea askatu nahi duena eta harentzat gizonak dituen eskubide politiko, ekonomiko, juridiko eta sexual berak aldarrikatzen dituen.

feminitate:

ES:	feminidad
FR:	féminité
EN:	femininity

iz. Emakumeen ezaugarri multzoa.

Ikus: emetasun.

feminizazio:

ES:	feminización
FR:	féminisation
EN:	feminisation

Ikus: emetze.

femoral:

ES:	femoral
FR:	fémorale
EN:	femoral

izond. Izterrezurrari edo izterrari dagokiona.

Ikus: izter-.

fenotipo:

ES:	fenotipo
FR:	phénotype
EN:	phenotype

1. *iz.* Antzeko itxura baina osaera genetiko desberdina duten banakoen multzoa. 2. *iz.* Organismo baten ezaugarri morfologikoen eta fisiologikoen multzoa; genotipoaren eta ingurunearen arteko harremanaren emaitza da. Bizidun bakoitzaren kanpo-ezaugarriak azalarazten dituen gene multzoak osatzen du fenotipoa.

fereka:

ES:	caricia
FR:	caresse
EN:	caress

iz. Leunki, emeki egindako ukitua.

Ikus: laztan.

ferekatu:

ES:	acariciar
FR:	caresser
EN:	caress

ad. Leunki, emeki ukitu edo laztandu.

Ikus: laztandu.

feromona:

ES:	feromona
FR:	phéromone
EN:	pheromone

iz. Sexu-guruinek jariatzen duen substantzia kimikoa. Usaimenaren bitartez, besteren oldar-estimulua edo desira piztu dezakete.

fetitxe:

ES:	fetiche
FR:	fétiche
EN:	fetish

iz. Sexu-desira pizten duen objektua.

fetitxismo:

ES:	fetichismo
FR:	fétichisme
EN:	fetishism

1. iz. Parafilia mota; objektu bizigabe batek sexu-kitzikapena eragitean datza, edo sexu-harremanetan fetitxeak erabiltzean. 2. iz. Sexu-portaeraren asaldua; objektu jakin bat (fetitxea) izan ezean, ez da desirarik ez plazerik sentitzen. Gorputz atalak (bularrak, oinak) nahiz bestelako objektuak (barne-jantziak, oinetakoak...) erabil daitezke fetitxetzat; nolanahi ere, ia edozer bihur daiteke sexu-fetitxe.

fetitxista:

ES:	fetichista
FR:	fétichiste
EN:	fetishist

izond. Fetitxismoari dagokiona. Fetitxismoaren zalea.

Ikus: fetitxismo.

fetu:

ES:	feto
FR:	foetus
EN:	foetus

iz. Animalia bibiparoen enbrioiak hartzen duen izena, enbrioi-aroa iragan eta espeziearen ezaugarriak hartu dituenetik erditze-unera arte.

Ikus: umeki.

fetu bideragarri:

ES:	feto viable
FR:	foetus viable
EN:	viable foetus

sint. er. Haurdunaldiko seigarren hilabetetik aurrerako fetua.

fideltasun:

ES:	fidelidad
FR:	fidélité
EN:	fidelity

Ikus: leialtasun.

filogenia:

ES:	filogenia
FR:	phylogénèse
EN:	phylogeny

iz. Espezieen edo espezie multzoen eboluzio-harremanak.

fimosi:

ES:	fimosis
FR:	phimosi
EN:	phimosi

iz. Zakilaren prepuzioaren irekigunearen estutze naturala; jaiotzatikoa nahiz istripuzkoa izan daiteke, eta eragotzi egiten du zakil-mokoa ateratzea —hots, zakil-mokoaren azala atzerantz eramatea—. Dispareunia eragin dezake, eta komeni da medikuak tratatzea.

fisiologia:

ES:	fisiología
FR:	physiologie
EN:	physiology

iz. Biologiaren adarra; egituraturiko gorputzen dinamika aztertzea du helburu.

fisiologia-:

ES:	fisiológico
FR:	physiologique
EN:	physiologic (Hitz elkartuetan)

Ikus: fisiologiko.

fisiologiko:

ES:	fisiológico
FR:	physiologique
EN:	physiologic

izond. Fisiologiari dagokiona; funtzio normalei, bereziki.

fisiologo:

ES:	fisiólogo
FR:	physiologue
EN:	physiologist

izond. Fisiologian aditua.

fisionomia:

ES:	fisionomía
FR:	physionomie
EN:	complexion, physiognomy

1. *iz.* Aurpegiaren itxura arrunta; aurpegi-egitamuen araberakoa. 2. *iz.* Gauzen kanpoko itxura.

fisionomista:

ES:	fisionomista
FR:	physionomiste
EN:	physiognomist

1. *izond.* Fisionomian aditua. 2. *izond.* Pertsonen fisionomia-ezaugarriak gogoratzeko erraztasuna duena.

fisiopatologia:

ES:	fisiopatología
FR:	physiopathologie
EN:	physiopathology

iz. Medikuntzaren adarra, gaixotasunak eta haiek organismoan eragindako aldaketak aztertzen dituena.

fisiosexologia:

ES:	fisiosexología
FR:	physioséxologie
EN:	physiosexology

iz. Biosexologiaren atala; fisioterapeuta espezialistek erabiltzen dituzten gorputz-teknikak biltzen ditu. Teknika horien helburua da gizonaren eta emakumearen funtzio erotikoa elkarri egokitzea, heterosexualitate- nahiz homosexualitate-giroan, sexu-jarduna eraginkorragoa izan dadin eta, sexu-disfuntziorik izanez gero, disfuntzio hori konpon dadin. Gorputza landuz arazoa tratatzea da fisiosexologiaren ezaugarri nagusia; hots, sexu-arazo funtzionalak ukimenaren bidez eta zentzumenak kitzikatuz tratatzen ditu fisiosexologiak: ukimena erabiliz, eta berdin ikusmena –eta begiko mugimendu-giharrak–, entzumena eta bestibulua –kokleo-bestibuluko nerbioa–, usaimena eta dastamena (bi horiek ez hainbeste).

fisioterapeuta:

ES:	fisioterapeuta
FR:	physiothérapeute
EN:	physiotherapist

iz. Fisioterapiari aditua.

fisioterapia:

ES:	fisioterapia
FR:	physiothérapie
EN:	physiotherapy

iz. Gaixotasunen tratamenduan agente fisikoak erabiltzen dituen sendabidea. Masajeak, manipulazioa, ariketa terapeutikoak, hotza, beroa, hidroterapia, errehabilitazio elektrikoa eta argi bidezko errehabilitazioa erabiltzen dira, gaixoari gorputza berriro hezten eta funtzio normaletara itzultzen laguntzeko.

flagelatu:

ES:	flagelar
FR:	flageller
EN:	flagellate

ad. Zartailuz kolpeak eman, indar gutxiz edo handiz, mendekoarena edo esklaboarena egiten duen norbaiti.

flagelazio:

ES:	flagelación
FR:	flagellation
EN:	whipping, flagellation

iz. Zartailuz kolpeak ematea mendeko edo esklabu baten gorputzean.

flirtean ibili:

ES:	flirtear
FR:	flirter
EN:	flirt

ad. Konpromisorik eta betebeharririk ez duen eta izaera erotikoa edo maitasunezkoa izango duen harreman batera hurbiltzeko komunikazio-pausoak eman. Jolas-izaera izan ohi du, dibertigarria eta kilikagarria, eta bere horretan plazera eman dezake. Bestea atsegin zaiola, harengan interesa izan dezakeela edo harentzat edo harentzat eskuragarria izatera hel daitekeela iradokitzen du flirtean dabilenak.

flora:

ES:	flora
FR:	flore
EN:	flora

iz. Gorputzeko mikroorganismo multzoa; gaixotasunak eragiten dituzten mikroorganismoei aurre egiten diete, eta immunitate naturala ematen dute infekzio jakinen aurrean.

Adibidea: Hesteetako flora.

fluido:

ES:	fluido
FR:	fluide
EN:	fluid

iz. Jariatzeko ahalmena duen eta bere forma ontziaren formara moldatzen duen edozein likido edo gas; gaiaren masa orokorretik bereizi gabe posizio erlatiboa alda dezaketen molekulez osatua dago.

Ikus: jariakin.

fluxu baginala:

ES:	flujo vaginal
FR:	pertes vaginales
EN:	vaginal discharge

sint. er. Baginak erregulariki jariatzen duen likidoa.

Ikus: baginako jario.

folikulu:

ES:	folículo
FR:	follicule
EN:	follicle

iz. Zorro-formako egitura anatomiko txikia, mukosan edo larruazalean dagoena; jariatze-funtzioa du gehienetan.

forzeps:

ES:	fórceps
FR:	forceps
EN:	forceps

iz. Bi kirteneko kirurgia-tresna, erabilera ugari dituen. Batez ere, erditzean erabiltzen da, haurrak irteteko zailtasunak dituen; koilara bat du mutur bakoitzean, umekiaren buruari heltzeko eta hura atera ahal izateko.

frantses:

ES:	francés
FR:	français
EN:	French

Ikus: felazio, aho-sexu.

frenulu:

ES:	frenillo
FR:	frein
EN:	frenulum; frenum

iz. Organoren baten (mihia, klitoria, prepuzioa) mugimendua mugatzen duen larruazal-tolestura. Motzegia denean, ebaki egin behar da, batez ere prepuzioaren kasuan, organoaren mugimendua erabat galaraz ez dezan. Prepuzioaren frenuluaren kasuan, glandearen azpialdean dago, eta glandea eta zakila lotzen ditu.

frigido:

ES:	frígido
FR:	frigide, froid
EN:	frigid

izond. Hotza. Berotasunik edo sentimendurik ez duena; pasiorik azaltzen ez duena. Sexu-harremanetan atsegin hartzeko ezintasuna duena.

frigidotasun:

ES:	frigidez
FR:	frigidity
EN:	frigidity

iz. Emakumezkoetan, sexu-harremanetan atsegin hartzeko ezintasuna. Hoztasuna; sexu-grinarik eza, zehazki.

frogatu:

ES:	probar
FR:	éprouver, essayer, prouver
EN:	prove, check

ad. Frogen bidez, zerbaitek nola funtzionatzen duen jakin, edo ongi funtzionatzen duela egiaztatu; argudioak eman.

frotteur:

ES:	frotteur
FR:	frotteur
EN:	frotteur

izond. Organo genitalak pertsona ezezagun baten kontra igurzten dituen.

frotteurismo:

ES:	frotteurismo
FR:	frotteurisme
EN:	frotteurism

iz. Sexu-jarduera mota bat, organo genitalak pertsona ezezagun baten kontra igurztean datzana. Jende asko biltzen den leku publikoetan (adibidez, autobusean) besteen kontra igurtziz kitzikatzea.

frustrazio:

ES:	frustración
FR:	frustration
EN:	frustration

iz. Tentsio emozionala, helburuak lortu nahi eta ezinaren ondoriozkoa.

Barne- eta kanpo-indarrek eragiten dute, eskuarki. Esate baterako, sexu-frustrazioa, desiratzen dena lortzen ez delako, edo autoestimu faltaren eraginagatik.

frustrazio sexual:

ES:	frustración sexual
FR:	frustration sexuelle
EN:	sexual frustration

sint. er. Erotikoki aserik ez egotea.

FSH:

ES:	FSH
FR:	FSH
EN:	FSH

iz. Hormona folikulu-estimulatzaila, hau da, folikuluak estimulatzeko dituen hormona. Hipofisiak ekoizten du. Emakumeen obulutegi-folikulua eta gizonezkoen espermatozoide-ekoizpena eragiten ditu, eta sexu-garapenean eragina du.

Ikus: hormona folikulu-estimulatzaila.

fundus:

ES:	fundus
FR:	fundus
EN:	fundus

iz. Umetokiaren goreneko atala.

funtzio:

ES: función

FR: fonction

EN: function

iz. Organo edo atal baten eginkizun berezia, berezkoa eta normala.

funtzional:

ES: funcional

FR: fonctionnel

EN: functional

iz. Organismo baten edo sistema organiko baten funtzioei eragiten diena, egituran eraginik izan gabe.



G puntu (Grafenberg puntua):

ES: punto G

FR: point G

EN: G-spot (Grafenberg spot)

iz. Ernst Gräfenberg ginekologo alemanak aurkitutako puntua; emakumeen pubisaren azpian dago, uretraren inguruan, baginaren barrualdetik. Gune erogenotzat hartzen da, baina zenbait adituk zalantzan jartzen dute halakorik badenik.

gabezia:

ES: carencia

FR: carence

EN: deficiency

iz. Ezinbestekoa den gai baten falta; bitaminena, bereziki.

gaikuntza:

ES: capacitación

FR: qualification

EN: qualification

1. *iz.* Funtzio bat betetzeko gai bihurtzea. 2. *iz.* Espermatozoideak oozito heldu bat ernaltzeko gai bihurtzen dituen prozesua.

gainbehera:

ES: decaimiento

FR: décadence, déclin, baisse

EN: decay

Ikus: indargabetze.

gainbehera abiatu:

ES: decaer

FR: décliner

EN: decay, decline

Ikus: indargabetu.

gaitasun:

ES:	aptitud
FR:	aptitude
EN:	aptitude

iz. Ekintza edo lan batzuk egiteko erraztasuna; jaiotzatik izaten da, eta, zaintzen eta lantzen ez bada, alferrik galtzen da. Landuz ere lor daiteke lehendik ez den gaitasun bat.

gaitasun inklusibo:

ES:	aptitud inclusiva
FR:	aptitude inclusive
EN:	inclusive aptitude

sint. er. Hurrengo belaunaldira igortzen den gene-kopurua, seme-alabak ez diren ahaideen bidez (anai-arreba, iloba, biloba, lehengusu, eta abar).

gaitze:

ES:	capacitación
FR:	capacitation
EN:	training

1. *iz.* Norbait zerbaitetarako gaitzeko ekintza. 2. *iz.* Espermatozoideak obulua ernaltzeko ahalmena lortzeko prozesua; Falopioaren tronpako zabalgunera iristean jasandako aldaketei esker lortzen du ahalmen hori espermatozoideak.

gaitzikor:

ES:	susceptible
FR:	susceptible
EN:	susceptible

1. *izond.* Gaixotasunak edo gaixotasunen aldaketak izateko erraztasuna duena. 2. *izond.* Erraz mintzen dena.

Ikus: minbera.

gaixo:

ES:	paciente
FR:	patient, malade
EN:	patient

Ikus: paziente.

gaixotasun:

ES:	enfermedad, afección
FR:	maladie
EN:	disease

iz. Egoera fisiologikoaren asaldua; gorputzaren zati batean edo gehiagotan gertatzen da. Etiologia ezaguna izaten du gehienetan, eta zantzu eta sintoma jakinak ditu ezaugarri.

gaixotasun benereo:

ES:	enfermedad venérea
FR:	maladie transmissible sexuellement
EN:	sexually transmitted disease

sint. er. Gaur egun, sexu bidezko gaixotasun edo genitalen bidezko infekzio edo sexu bidezko infekzio deritze gaixotasun horiei.

gaixotu:

ES:	enfermar
FR:	rendre malade
EN:	fall ill, become ill

ad. Gaixotasunak jo.

gaizkoadura:

ES:	endeñarse, infectar
FR:	infecter
EN:	infect

Ikus: infekzio

gaizkoatu:

ES:	endeñarse, infectar
FR:	infecter
EN:	infect

ad. Infekzioa gertatu; mikroorganismoek zer bait kutsatu; zauri nahiz zaldar batek zornea eratu edo jariatu.

Ikus: infektatu.

gakotze (zakilaren):

ES:	gatillazo
FR:	impuissance (sexuelle)
EN:	loss of erection

iz. Harreman erotikoetan, zakilari tente eutsi ezina. Sarri, larritasun-egoerak eragiten du. Gerta daiteke harreman-dinamikaren ondorioz presiopean sentitzeagatik norberaren burua estutzea, edo arazo fisikoren bat izatea jatorria.

galaktoforo:

ES:	galactóforo, lactífero
FR:	galactophore
EN:	lactiferous

izond. Esnea daramana edo garraiatzen duena. Hodi galaktoforo: esnea guruinetatik titiburuetara eramaten duen hodia.

galdetegi:

ES:	cuestionario
FR:	questionnaire
EN:	questionnaire

iz. Helburu jakinetarako egiten den galdera-zerrenda.

galtzerditako:

ES:	liguero
FR:	porte-jarretelles
EN:	league

iz. Emakumeen ligeten buruan lokarri gisa jartzen den zerrenda mehea.

Ikus: ligeta.

gameto:

ES:	gameto
FR:	gamète; cellule sexuelle
EN:	gamete; sex cell

iz. Zatiketa meiotikoz sortutako ugal-zelula haploidea, arra (espermatozoidea) nahiz emea (obulua).

gandor:

ES:	cresta
FR:	crête
EN:	crest

iz. Irtengune edo ertza; hezur-goragune estu eta luzexka, bereziki.

garaiz aurreko:

ES:	premature
FR:	prématuré
EN:	premature

sint. er. 1. Ohiko garaia edo une egokia baino lehen azaltzen dena. 2. Haurdunaldiaren 37.-38. astea bete aurretik jaiotakoa, garapen edo heldutasun osoa ez duena.

garaiz aurreko erditze:

ES:	parto prematuro
FR:	accouchement prématuré
EN:	premature labour

sint. er. Behar baino lehenago erditzea; hau da, fetuak 2.000-2.500 g hartu aurretik, edo haurdunaldiko 37-38. astea baino lehen.

garapen:

ES:	desarrollo
FR:	développement
EN:	development

iz. Aldaketa- eta desberdintze-prozesua; era mailakatuan gertatzen da, konplexutasun-maila txikietatik handietara.

garapen sexual:

ES:	desarrollo sexual
FR:	développement sexuel
EN:	sexual development

Ikus: sexu-garapen.

garatu:

ES:	desarrollar
FR:	développer
EN:	develop

ad. Gero eta konplexutasun-maila handiagoa erdietsi nahiz erdietsarazi.

garatxo genital:

ES:	verruca genital
FR:	verruge génitale
EN:	genital wart

sint. er. Tumefakzio edo hantura txiki, bigun eta hezea, kolore arrosa nahiz gorria izan dezakeena; gorputzeko gune hezeetan –genitalak eta uzkiak, adibidez– agertzen da. Banaka nahiz multzoka ager daiteke. Giza papilomaren birusak eragiten du, eta inkubazioaldi luzea du, 3 hilabete ingurukoa. Sexu-harremanen bidez kutsatzen da; gainera, gerta daiteke birusaren eramaileak, sintomarik izan gabe, beste bati kutsatzea. Zakilean, glandean eta prepuzioan agertzen da gizonetan; emakumeetan, berriz, baginaren sarreran eta ezpain txikietan.

garun:

ES:	cerebro
FR:	cerveau
EN:	cerebrum

1. *iz.* Entzefaloa. Gizakiaren eta beste zenbait animaliaen buruaren barneko gai bigunen multzoa. 2. *iz.* Burua, adimenaren egoitzatzat eta ahalmentzat hartua.

garun-:

ES:	cerebral
FR:	cérébral
EN:	cerebral

(Hitz elkartuetan) Garunari dagokiona.

Ikus: garuneko, zerebral.

garuneko:

ES:	cerebral
FR:	cérébral
EN:	cerebral

izlag. Garunari dagokiona, garunean dagoena.

Ikus: zerebral.

gaueko isuri:

ES:	polución nocturna
FR:	pollution nocturne
EN:	nocturnal emissions

sint. er. Amets erotikoen ondorioz gertatzen den isurtzea —mutilen kasuan hazia, eta nesken kasuan baginaren lubrikatzea— eta orgasmoa. Lo egin bitartean gertatzen da, pubertaroaren hasieratik.

Ikus: amets heze.

gay:

ES:	gay
FR:	gay
EN:	gay

iz. Ingeleseko hitza; alaia, jolastia esan nahi duen arren, homosexualaren (batik bat gizonezkoaren) sinonimo gisa erabiltzen da.

Ikus: homosexual.

Gay, Lesbiana, Bisexual eta Transen Harrotasun Eguna:

ES:	Día del Orgullo Gay-lésbico-bisexual-transexual
FR:	Gay-lesbiennes-bisexuels-transsexuels Pride Day
EN:	Gay-lesbian-bisexual-transsexual Pride Day

sint. er. Sexu Askapenaren Nazioarteko Eguna.

gay-askapenaren mugimendu:

ES:	movimiento de liberación gay
FR:	mouvement de libération gay
EN:	gay liberation movement

sint. er. Sexu-desira sexu berekoengana bideratzen dutenen eskubideak aldarrikatzen dituen mugimendu sozial eta politikoa.

gaztaro:

ES:	juventud
FR:	jeunesse
EN:	youth

iz. Nerabezartatik helduarora doan denbora.

gazte:

ES:	joven
FR:	jeune
EN:	young

izond. Haurtzaroaren eta adin nagusiaren artean dagoena, edo gaztaroko hainbat ezaugarri dituena.

gazte-:

ES: juvenil

FR: juvénile

EN: youth

(Hitz elkartuetan) Oraindik helduarora iritsi ez denari dagokiona, haren ezaugarriak dituen, edo harentzat egokia dena.

Gazteriaren Nazioarteko Eguna:

ES: Día Internacional de la Juventud

FR: Journée Internationale de la Jeunesse

EN: International Youth Day
sint. er. Abuztuaren 12a.

geisha:

ES: geisha

FR: geisha

EN: geisha

iz. Japonian, arteetan aditua den eta gizonei arreta eskaintzeko trebatua den emakumea. Gizonei laguntza emateko prestatzen du bere burua, hainbat urtez antzerkiaren, musikaren, tea zerbitzatzearen, kultura- eta politika-gaien eta abarren inguruan heziz. Prostituta-tankera du, baina ez du beti izaten harreman erotikorik bezeroekin.

geishen bolak:

ES: bolas de geisha

FR: boules de geisha

EN: geisha balls

Ikus: txinatar bolak.

geldiarazi:

ES: interrumpir

FR: interrompre

EN: interrupt

ad. Zerbaiten jarraitutasuna moztu.

gelditze eta abiatzearen teknika:

ES: técnica de parada y arranque

FR: start-stop technique

EN: start-stop technique

sint. er. Sexu-jarduerarako metodoa; haren bidez, garaiz aurreko eiakulazioa saihesten ikas dezake gizonak, eiakulaziora iristen ari dela sentitzen duenean estimulu oro etenez.

gene:

ES: gen
FR: gène
EN: gene

iz. Ondoretasun-ezaugarriak transmititzeko unitate funtzionala den ADN-sekuentzia.

genero:

ES: género
FR: genre
EN: gender

iz. Ikuspuntu psikologiko eta soziokulturaletik, gizon eta emakumeen artean dagoen ezberdintasuna.

Ikus: genero-rol.

genero-asimetria:

ES: asimetría de género
FR: asymétrie de genre
EN: gender asymmetry

iz. Sexu-taldeen arteko harreman mota, hierarkian, mendekotasunean eta gizarte-kontrollean oinarritzen dena.

Genero-asimetriak subjektibotasuna –maskulinoa nahiz femeninoa– nola erakitzen den baldintzatzen du, eta bereizketa eta diskriminazioa eragiten ditu.

genero-disforia:

ES: disforia de género
FR: dysphorie de genre
EN: gender dysphoria

iz. Genero-rol/identitatearen eta gorputz-ezaugarrien arteko disoziazioa. Transexualismoan, genero-rol/identitatea sexu bati dagokio, baina beste sexuari lehen mailako eta bigarren mailako gorputz-ezaugarriak.

genero-egonkortasun:

ES: estabilidad de género
FR: stabilité de genre
EN: gender stability

iz. Pertsonen, salbuespenik gabe, generoa bizitza guztirako dutela uste duen pentsabidea.

genero-estereotipo:

ES: estereotipo de género

FR: stéréotype de genre

EN: gender stereotype

iz. Kultura eta une historiko zehatz batean sexu-talde bati ezartzen zaizkion ezaugarri komunen multzoa. Genero-estereotipo bi daude: femeninoa eta maskulinoa.

Oposizioz definitzen dira eta osagarriak direla esaten da; hierarkizaturik daude gizarte tradizionalan (eta gaur egun ere oraindik ez da lortu parekatzea): maskulinoa (gizonezkoari esleitura) femeninoaren (emakumezkoari esleitura) gainetik.

Oharrak: Funtsean jatorri emozionala duten aurreiritzi eta iritzi subjektiboetan sortu eta oinarritzen dira; gizarte-mailan transmititu eta indartzen dira, eta gure gizarte-harremanetan iritziak, jarrerak eta portaerak baldintzatzen dituzte.

genero-identitate:

ES: identidad del género

FR: identité de genre

EN: gender identity

iz. Gizon edo emakume izatearen kontzientzia eta esperientzia.

genero-ikuspuntu:

ES: perspectiva de género

FR: perspective de genre

EN: gender perspective

iz. Generoaren ikuspuntutik, emakumeen eta gizonen arteko botere-harreman desberdina; horrek eragin handia du pertsona guztiengan.

genero-indarkeria

ES: violencia de género

FR: violence de genre

EN: gender violence

iz. Emakumeari emakume izateagatik kalte nahiz sufrimendu fisiko, sexual edo psikologikoa eragin diezaiokeen ekintza oro, eta berdin ekintza horiek gauzatzeko mehatxua edo emakumeari bizitza publiko zein pribatuan askatasuna mugatzea edo kentzea. Honako ekintza hauek jotzen dira genero-indarkeriatzat, besteak beste: familia barneko indarkeria fisiko, sexual eta psikologikoa, kolpeak eta tratu txarrak barne, eta orobat alaben aurkako sexu-abusuak, ezkonsariaren ondoriozko indarkeria, bikotekidea bortxatzea, emakumeen genitalak ebakitzea eta emakumeentzako kaltegarri izan daitezkeen beste ohitura batzuk, hots, ezkontzaz kanpoko indarkeria eta esplotazioarekin lotutakoak; erkidegoan eskuarki gauzatzen den indarkeria fisiko, sexual eta psikologikoa, hala nola bortxaketak, sexu-abusua, sexu-jazarpena eta lantokian nahiz beste tokiren batean jasan beharreko larderia; hein berean, emakume-trafikoa, behartutako prostituzioa, eta estatuak eragindako edo onartutako indarkeria fisiko, sexual nahiz psikologikoa.

Ikus: emakumeen aurkako indarkeria.

genero-iraunkortasun:

ES: constancia de género

FR: constance de genre

EN: gender constancy

iz. Pertsona ororen generoak, sexu- edo genero-portaera aldatuta ere, aldaketarik ezin izan dezakeela sinesten duen pentsabidea.

genero-orientazio:

ES: orientación de género

FR: orientation de genre

EN: gender orientation

Ikus: sexu-orientazio.

genero-parekotasun:

ES: equidad de género

FR: équité de genre

EN: gender equality

iz. Sexu bakoitzaren beharrak zein diren identifikatu eta horren arabera gauzatzen den adin guztietako gizon eta emakumeen eskubide, askatasun, aukera, hautabide eta arduren banaketa, zuzenbidezkoa eta aurreiritzirik gabekoa.

genero-rol:

ES: rol de género

FR: rol de genre

EN: gender role

iz. Kultura jakin batean gizonek eta emakumeek generoaren arabera dituzten jokabide eta portaeren multzo konplexua.

Ikus: sexu-rol.

genetika:

ES: genética

FR: génétique

EN: genetics

iz. Ondoretasunari dagozkion printzipioak eta mekanismoak ikertzen dituen zientzia, geneak eta haien bilakaera ikertzen dituen bereziki. Gizabanako, familia, talde edo gaixotasun jakin baten informazio genetiko osoa.

genetika-:

ES: genético

FR: génétique

EN: genetic

(Hitz elkartuetan)

Ikus: genetiko.

genetiko:

ES:	genético
FR:	génétique
EN:	genetic

1. *izlag.* Genetikari edo herentziari dagokiona. 2. *izond.* Ugalketari, sorrerari edo jatorriari dagokiona.

genetista:

ES:	genetista
FR:	généticien
EN:	geneticist

iz. Genetikaren ikerkuntzan edo aplikazioan aditua.

genital:

ES:	genital
FR:	général
EN:	genital

izond. Sexu-organoei dagokiena.

Ikus: organo genital.

genitalitate:

ES:	genitalidad
FR:	généralité
EN:	genitality

iz. Sexu-organoetan oinarrituriko nolakotasuna. Esate baterako, sexu-harremanak harreman genital hutsak direnean.

genitalizatu:

ES:	genitalizar
FR:	généraliser
EN:	genitalise

ad. Berez bizipen zabalagoa den prozesua sexu-organoetara edo ernalkuntzara mugatu.

genitalizazio:

ES:	genitalización
FR:	généralisation
EN:	genitalisation

iz. Berez bizipen zabalagoa den prozesua sexu-organoetara edo ernalkuntzara mugatzea.

genitourinario:

ES:	genitourinario
FR:	génito-urinaire
EN:	genitourinary

izond. Organismoko ugal- eta gernu-aparatuei dagokiena, hala egitura organikoei nola funtzioei.

genotipo:

ES:	genotipo
FR:	génotype
EN:	genotype

iz. Organismo edo talde baten ondare genetiko osoa. Kanpoko itxuraren ezaugarri multzoa (fenotipoa) baldintzatzen du.

Ikus: fenotipo.

geriatria:

ES:	geriatría
FR:	gériatrie
EN:	geriatrics

iz. Medikuntzaren adarra; zahartzaroaren fisiologiaz eta hirugarren adinari erasaten dioten gaixotasunen diagnostikoaz, tratamenduaz eta zainketa bereziez arduratzen da.

geriatria-:

ES:	geriátrico
FR:	gériatrique
EN:	geriatric (Hitz elkartuetan)

Ikus: geriatriko.

geriatriko:

ES:	geriátrico
FR:	gériatrique, hôpital gériatrique
EN:	geriatric, geriatric hospital

1. *izond.* Geriatriari dagokiona. 2. *iz.* Adineko pertsonak bizitzeko eta zaintzeko prestaturik dagoen zentroa.

germen:

ES:	gérmen
FR:	germe
EN:	germ

iz. Edozein mikroorganismo; patogenoak, bereziki.

germinal:

ES:	germinal
FR:	germinal
EN:	germinal

izond. Hosi-zelula bati edo garapenaren aldi goiztiarrari dagokiona.

gernu:

ES:	orina
FR:	urine
EN:	urine

iz. Giltzurrunek iraitzitako likidoa, metabolismoaren hondakinak kanporatzekoa.

gernu-:

ES:	urinario
FR:	urinaire
EN:	urinary (Hitz elkartuetan)

Ikus: urinario.

gernubide:

ES:	uretra
FR:	urètre
EN:	urethra

Ikus: uretra.

gernu-sistema:

ES:	sistema urinario
FR:	appareil urinaire
EN:	urinary system

iz. Gernua sortu eta hura organismotik kanporatzen duen organo multzoa; giltzurrunez, ureterrez, gernu-maskuriaz eta uretraz osatua dago.

gerontofilia:

ES:	gerontofilia
FR:	gérontophilie
EN:	gerontophilia

iz. Agureekiko sexu-erakarpena. Pertsona zaharrekiko interes sexuala.

gerri:

ES:	cintura
FR:	ceinture
EN:	girdle

iz. Toraxaren eta aldaken arteko gorputz zatia; enborreko zatirik estuena da.

GH (garapen hormona)

ES:	GH (hormona de crecimiento)
FR:	GH (hormone de croissance)
EN:	GH (Growth Hormone)

iz. Gorputz-garapena eragiten duen hormona..

GIB:

ES: VIH

FR: HIV

EN: HIV

iz. Giza Immunoeskasiaren Birusa. Hiesaren birusa.

Gigolo:

ES: gigoló

FR: gigolo

EN: gigolo

iz. Emakume batek edo gehiagok mantentzen duten gizona. Emakumeak gizona baino zaharragoak izan ohi dira eskuarki, eta ordaindu egiten diote berekin egoteagatik nahiz harreman erotikoak izateagatik.

gihar barneko:

ES: intramuscular

FR: intramusculaire

EN: intramuscular

Ikus: muskulu barneko

gihar barneko injekzio:

ES: inyección intramuscular

FR: injection intramusculaire

EN: intramuscular injection

Ikus: muskulu barneko injekzio.

gihar pubokokzigeo:

ES: músculo pubococcígeo

FR: muscle pubo-coccygien

EN: PC muscle

Ikus: muskulu pubokokzigeo, Kegelen ariketak.

giharrak askatu:

ES: desentumecer

FR: dégourdir

EN: muscle

sint. er. Gorputz atal gogortu edo baldartu batek askatasuna eta mugikortasuna berreskuratu.

gihar-tentsio:

ES: tensión de los músculos, tensión muscular

FR: tension musculaire

EN: muscular tension

iz. Gihar-uzkurdurak eragindako tentsioa.

gihartsu:

ES:	musculoso
FR:	musculeux
EN:	muscular

izond. Gihar asko duena. Indartsua, kementsua.

gihar-uzkurdura:

ES:	contracción muscular
FR:	contraction musculaire
EN:	muscle twitch

iz. Nerbio-estimuluen ondorioz izaten den ohiko erreakzioa, gihar-zuntzak laburtzean datzana.

giltzurrun gaineko:

ES:	suprarrenal
FR:	surrénal
EN:	suprarenal

1. *izlag.* Giltzurrunaren gainean dagoena. 2. *iz.* Giltzurrunaren gainean dagoen guruina.

giltzurrun-pelbis:

ES:	pelvis renal
FR:	bassinét rénal
EN:	renal pelvis

iz. Ureterrak giltzurrunarekin lotzen diren zabalgunea, inbutu-itxurakoa; gernua bideratzen du giltzurrunetik ureterrera.

ginekologia:

ES:	ginecología
FR:	gynécologie
EN:	gynaecology

iz. Emakumezkoen gaixotasunak aztertzen dituen zientzia. Medikuntzaren adarra; emakumearen osasun-laguntzaz, sexu- eta ugaltze-organuen gaixotasunez arduratzen da.

ginekologia-:

ES:	ginecológico
FR:	gynécologique
EN:	gynaecological

(Hitz elkartuetan)

Ikus: ginekologiko.

ginekologiko:

ES:	ginecológico
FR:	gynécologique
EN:	gynaecological

izond. Ginekologiari dagokiona.

ginekologo:

ES:	ginecólogo
FR:	gynécologue
EN:	gynaecologist

iz. Mediku espezialista, ginekologian aditua.

ginezeo:

ES:	gineceo
FR:	gynécée
EN:	gynaecium

iz. Emakumeentzako lekua, intimitatean egon daitezen.

Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna:

ES:	Día Internacional de los Derechos Humanos
FR:	Journée Internationale des Droits de l'Homme
EN:	International Human Rights Day

sint. er. Abenduaren 10ean ospatzen da.

giza genoma:

ES:	genoma humano
FR:	génome humain
EN:	human genome

iz. Organismo jakin bateko zelula bakoitzaren ondare genetikoa.

giza gurtza:

ES:	antropolatría
FR:	anthropolâtrie
EN:	antropolatry

Ikus: antropolatria.

giza izate sexuala:

ES:	hecho sexual humano
FR:	être sexuel humain
EN:	human sexual being

sint. er. Gizakiek berez izate sexual bat dutela dioen kontzeptua. Hots, gizaki izateak izaki sexual izatea dakar, gizonezkoak eta emakumezkoak; gizon edo emakume izateak baldintzatzen du gizabanakoaren existentzia.

giza sexualitate:

ES:	sexualidad humana
FR:	sexualité humaine
EN:	human sexuality

iz. Gizakiak bere sexualitatea bizitzeko eta adierazteko dituen moduen multzoa.

gizaki:

ES:	ser humano
FR:	être humain, personne
EN:	human being

iz. Gizon-emakumeen multzoko banakoa, arra nahiz emea.

gizakien sexu-erantzuna:

ES:	respuesta sexual humana
FR:	réponse sexuelle humaine
EN:	human sexual response

sint. er. Giza organismoaren erreakzio fisiologiko eta emozionalen multzoa, estimulu erotikoen aurrean. Zenbait une edo fase bereizten dira; ezagunenak hauek dira: desira-fasea, kitzikapen-fasea, meseta-fasea, orgasmo-fasea eta erresoluzio-fasea.

gizaseme:

ES:	hombre
FR:	homme
EN:	man

Ikus: gizon.

gizen:

ES:	obeso
FR:	obèse
EN:	obese

izond. Mardula; gantz gehiegi duena.

gizendu:

ES:	engordar
FR:	grossir
EN:	put on weight, get fatter

ad. Gorputz batek lodiera eta pisua irabazi. Sexukideak senti dezakeen erakargarritasunean eragina izan dezake, bai alde bai kontra, baita norberaren autokontzeptu- eta gorputz-irudian ere.

gizon:

ES:	hombre
FR:	homme
EN:	man

iz. Sexu maskulinoko pertsona heldua.

Ikus: ar.

gizon transexual:

ES:	hombre transexual
FR:	homme transsexuel
EN:	transsexual man

sint. er. Gizon-izaera izanik, emakume-gorputzarekin jaio dena.

Ikus: emakume transexual.

gizonen G puntu:

ES:	punto G de los hombres
FR:	point G des hommes
EN:	male G-spot

sint. er. Gizonen gorputzeko gune kitzikagarria; prostatan dago, eta plazera ematen du hura uzki barnetik igurtziz gero.

gizonen preserbatibo:

ES:	preservativo masculino
FR:	préservatif masculin
EN:	male condom

sint. er. Latexezko zorroa, sarreran eraztun sendoagoa duena; zakilean jartzen da, tente dagoela, eta haurdunaldia saihesteko edo sexu-infekzioak ez kutsatzeko erabiltzen da. Esperma baginan, ahoan edo uzkian hustea eragozten du. Halako batzuek espermizida izaten dute, eta lubrifikaturik egon ohi dira, sartzea erosoago gerta dadin. Beste kontrazepzio-metodo zenbaitekin batera ere erabil daiteke.

Ikus: kondoi.

gizonezko:

ES:	hombre
FR:	homme
EN:	man

Ikus: gizon.

gizontasun:

ES:	hombría, virilidad
FR:	virilité
EN:	manliness, virility

iz. Tradizioz gizonezkoei egozten zaizkien ezaugarri fisiko eta moralen multzoa; gizonezkoen sexu-indarra adierazteko erabiltzen da.

glande:

ES:	glande, bálano
FR:	gland
EN:	glans penis

iz. Zakileko mutur leuna eta ia borobila. Uretraren zuloak zeharkatzen du. Zakilaren mutur edo burua; prepuzioak estaltzen du, kirurgia-prozesurik jasan ezean.

Bereziki sentikorra da, eta plazer handia eragin dezake gizonarengan, egoki estimulatua izanez gero.

gltb:

ES:	gltb
FR:	gltb
EN:	gltb (Gay, Lesbian, Transexual and Bisexual) <i>iz.</i> Gay, Lesbiana, Bisexual eta Transexualen kolektiboa.

gluteo:

ES:	glúteo
FR:	muscle fessier, fessier
EN:	gluteus, gluteal <i>iz.</i> Ipurmasaila osatzen duten hiru giharretako edozein. Gluteo nagusiak izterra luzatzen du; ertainak, izterra abduzitu eta biratu; eta txikiak, izterra abduzitu.

GMI:

ES:	IMC
FR:	IMC
EN:	BMI <i>iz.</i> Gorputz Masaren Indizea.

gogamen:

ES:	mente
FR:	esprit
EN:	mind <i>iz.</i> Gizabanako baten prozesu mentalen nahiz jarduera psikikoen sistema edo antolaera. Hari esker, prozesu hauek egiten dira: ezagutu, ulertu, oroitu, pentsatu, sentitu eta erreakzionatu, eta nor bere buruaz eta inguruaz jabetu.

gogamen-:

ES:	mental
FR:	mental
EN:	mental (Hitz elkartuetan) Ikus: mental.

gogo:

ES:	mente
FR:	esprit
EN:	mind Ikus: gogamen.

gogor:

ES:	duro
FR:	dur
EN:	hard <i>izond.</i> Irmoa, erresistentea; biguna ez dena.

gogortu:

ES:	endurecer
FR:	durcir
EN:	harden

1. *ad.* Mugimenduak zaildu edo baldartu; zentzumen-nerbioetan zuntzen bulkaden transmisioa eteten duen edozein faktorek eragiten du. 2. *ad.* Gorputz atal bat —besteak beste, zakila, klitoria eta titiburuak— zurrundu eta tentetu, kitzikaduraren, hotzaren edo beste arrazoren baten ondorioz.

gogortze:

ES:	endurecimiento
FR:	durcissement
EN:	hardening

1. *iz.* Mugimenduen zailtasuna edo baldartzea; zentzumen-nerbioen zuntzen bulkaden transmisioa eteten duen edozein faktorek eragiten du. 2. *iz.* Gorputz atal bat —besteak beste zakila, klitoria eta titiburuak— zurrundu eta tentekor geratzea, kitzikaduraren, hotzaren edo beste arrazoren baten ondorioz.

goialdi-fase:

ES:	fase de meseta
FR:	phase de plateau
EN:	plateau phase

iz. Sexu-erantzunaren bigarren fasea. Haren ezaugarriak dira: hodi-kongestioa areagotzea, gihar-tentsioa handitzea, bihotz-erritmoa azkartzea, eta presio arteriala igotzea, orgasmorako prestatzeko.

Ikus: meseta fase.

goi-prostituta:

ES:	cortesana
FR:	courtisane
EN:	courtesan

iz. Aitoren seme edo gizon aberats baten maitale prostituta.

goitzen:

ES:	alias, sobrenombre
FR:	alias, surnom
EN:	alias, nickname

iz. Txateko parte-hartzaileek anonimotasuna gordetzeko erabiltzen duten izena. Goitzenaz baliatuz pertsona asko libreago sentitzen da Internet bidezko txat eta foroetan harremanak proposatu edo izateko edo askotariko zerbitzuak erabiltzeko.

gonada:

ES:	gónada
FR:	gonade
EN:	gonad

iz. Ugalketarako guruinak: barrabilak eta obulutegiak. Gametoak sortzen dituen organo edo guruin sexuala. Gonada arrak dira barrabilak; gonada emeak, berriz, obulutegiak. Gametoak ez ezik, sexu-hormonak ere sortzen dituzte gonadek.

gonada-sexu:

ES: sexo gonadal

FR: sexe gonadique

EN: gonadal sex

iz. Umetoki barruan egonik, gonadak barrabil edo obulutegi bihurtzean agertzen den bereizkuntza.

gonadotropina:

ES: gonadotropina

FR: gonadotrophine

EN: gonadotropin

iz. Hipofisiak jariatzen duen hormona, obulutegien eta barrabilen funtzioak bizkortzen dituena. Medikuntzan erabiltzen da, gonada antzuen jarduera zuzentzeko.

gonazale:

ES: mujeriego

FR: coureur de jupons

EN: womaniser, lady's man

Ikus: andreko.

gonokoko:

ES: gonococo

FR: gonocoque

EN: gonococcus

iz. Gonokozia eragiten duen bakterio patogenoa. Era askean dago zornean edo leukozitoen barruan, eta itxura oboidea du. Binaka elkartuak daude gonokokoak, alde ahurrean lotuta, eta gramnegatiboak dira.

gonokozia:

ES: gonococia

FR: gonococcie

EN: gonococcia

iz. Sexu bidez transmititzen den gaixotasun sarria; gehienbat gemubideari eta, batzuetan, faringeari, konjuntibari eta uzkiari erasaten die. Kutsatutako pertsona batekin edo organismo eragilea (*Neisseria gonorrhoeae*) duen jariakinen batekin kontaktua izan ondoren gertatzen da infekzioa. Gonokozia ezaugarriak dira: uretritis, disuria, baginako edo uretrako jario zornetsu berde-horixka, gernu-meatu gorria edo handitua, eta azkura, mina nahiz sumindura uretra- zein bagina-zuloan.

Ikus: blenorragia.

gonorrea

ES:	gonorrea (gonococia o blenorragia)
FR:	gonorrhée
EN:	gonorrhoea

iz. Sexu-infekzioa; gonokozia, blenorragia eta purgazio ere baderitzo.

Gonokoko bakterioak eragiten du, eta ohikoagoa da emakumeetan. Hala, gonorreak jotako emakumeek honako sintoma hauek izaten dituzte: baginako jariakin ugaria, pixa egitean mina eta erremina, sabelaldeko oinazea eta neke-sentipena. Gizonek, berriz: min arina eta erremina pixa egitean, eta zakileko jariakin zornetsua (denborarekin, jariakin fin eta likatsua bilakatzen da). Bestelako arazoak ere ekar ditzake gonorreak: gizonetan, uretra estutzea eta, zenbaitetan, antzutasuna; emakumeetan, pelbiseko hantura, eta Falopioaren tronpen, obulutegien eta pelbisaren infekzioa; ondorioz, organo horiek orbaindu eta estutu egiten dira, eta antzutasuna eragin dezakete. Aho-sexu bidez, gonokokoa zakiletik ahora eta eztarrira ere iragan daiteke.

Erditzean, haurra kutsa daiteke, eta, horren ondorioz, haurrak arrisku handia du gonokozia-konjuntibitisa jasateko eta betiko itsu geratzeko.

goragale:

ES:	ganas de vomitar, arcada, náusea
FR:	nausée
EN:	nausea

iz. Oka egiteko gogoa. Gorakoa berehalaxe datorrela sentitzen da eztarrian edo epigastrioan.

gordinkeria:

ES:	obscenidad
FR:	obscénité
EN:	obscenity

iz. Pudore- edo lotsa-gabezia, baldarkeria.

gorputz:

ES:	cuerpo
FR:	corps
EN:	body

1. *iz.* Organoen atal nagusia; organo baten parte den egitura homogenea. 2. *iz.* Gizabanako baten egitura osoa, organo guztiak bere baitan dituen.

gorputz-:

ES:	corporal
FR:	corporel
EN:	corporal

(Hitz elkartuetan) Gorputzari dagokiona.

gorputz hori:

ES:	cuerpo amarillo, cuerpo lúteo
FR:	corps jaune
EN:	corpus luteum

sint. er. Obulutegiaren azaleko egitura anatomikoa; 1-2 cm-ko diametroa duen ehun horixka batez osaturiko esfera da, obulazioaren ondoren obulutegi-folikulu hautsiaren barnean sortua. Iraupen laburreko organo endokrino gisa funtzionatzen du, progesterona jariatuz.

gorputz kailutsu:

ES:	cuerpo calloso
FR:	corps calleux
EN:	corpus callosum

sint. er. Gai zurizko gunea; bi garun-hemisferioak konektatzen ditu.

gorputz leizetsu:

ES:	cuerpos cavernosos
FR:	corps caverneux
EN:	corpus cavernosum

sint. er. Zakilaren edo klitoriaren gainaldean dagoen ehun zutikorra. Ehuna odolez puzten da sexu-kitzikapenean.

gorputz sexudun:

ES:	cuerpo sexuado
FR:	corps sexué
EN:	sexed body

sint. er. Sexu-organo garatuak eta funtzionatzeko gai direnak dituen gorputza.

gorputz-adar:

ES:	extremidad
FR:	extrémité
EN:	extremity

iz. Gorputzaren luzakina. Adibidez, besoa da goiko gorputz-adarra; zangoa, berriz, beheko gorputz-adarra.

gorputz-atlas:

ES:	atlas corporal
FR:	atlas du corps
EN:	body atlas

iz. Gizakiaren gorputza deskribatzen duen mapa-bilduma, gehienetan informazio osagarritz hornitua eta liburu edo afixa gisa prestatua.

gorputzez izan:

ES:	fornicar
FR:	forniquer
EN:	fornicate

Ikus: larrua jo.

gorputzez izate:

ES:	fornicación
FR:	fornication
EN:	fornication

Ikus: larrua jotze.

gorputz-irudi:

ES:	imagen corporal
FR:	image corporelle
EN:	body image

iz. Pertsona batek bere itxura fisikoari buruz duen ideia subjektiboa.

gorpuzkera:

ES:	complexión
FR:	complexion
EN:	complexion

iz. Gorputzaren itxura.

gorpuzkera-:

ES:	constitucional
FR:	constitutionnel
EN:	constitutional

(Hitz elkartuetan) Gizabanako baten gorputzaren itxurari dagokiona.

gorritasun:

ES:	rubor, enrojecimiento
FR:	rougeur
EN:	blush, redness

iz. Gorria denaren nolakotasuna. Gorputz atal batek baino gehiagok ezaugarri hori har dezakete kitzikadura-fasean.

gorritasun sexual:

ES:	rubor sexual
FR:	rougeur sexuel
EN:	sex flush

sint. er. Sexu-erantzunaren zenbait fasetan bularraldean edo titietan agertzen den negel gorrixka.

gorritu:

ES:	enrojecer, ruborizar
FR:	rougir
EN:	redden, turn red

ad. Gorri jarri, batik bat aurpegia eta kitzikaturiko zenbait gorputz-alde. Sexu-kitzikapenaren edo -erantzunaren ondorio izan daiteke.

gorte egin:

ES:	cortejar
FR:	courtiser
EN:	woo

ad. Liluratzeko saiatu, helburu sexuarekin, hala gizakien nola animalien artean.

gorte-egite:

ES: cortejo, galanteo

FR: cour

EN: courtship

iz. Gogatzte erromantikoaren prozesua. Begiz jotako norbaiti arreta ematean datza, maitasuna edo bikote-harreman iraunkorra lortzeko asmoz.

gose:

ES: hambre

FR: faim

EN: hunger

iz. Elikagai-beharra edo sexu-nahia adierazten dituen barne-sentsazio fisikoa.

goseti:

ES: hambriento

FR: affamé

EN: hungry

izond. Gose handia duena, edo jateko beharrean dagoena.

gozamen:

ES: placer

FR: plaisir

EN: pleasure

Ikus: plazer.

gozatu:

ES: gozar

FR: prendre plaisir

EN: enjoy

ad. Plazer erotikoa nahiz bestelakoa sentitu, orgasmora iritsiz nahiz iritsi gabe.

greko:

ES: griego

FR: grec

EN: Greek

Ikus: uzki-sexu.

grina:

ES: pasión

FR: passion

EN: passion

iz. Desira bizia, joera eutsezina.

grinatsu:

ES:	apasionado
FR:	passioné
EN:	passionate

izond. (sexuari dagokionez) Sexu-energia handia duena.

gune erogeno:

ES:	zona erogena
FR:	zone érogène
EN:	erogenous zones

sint. er. Kitzikapena eta plazera sortzeko gaitasun berezia duen gorputzeko gunea. Ukimen bidezko sexu-estimulazioarekiko oso sentibera den gorputz atala. Krause-Finger-en korpuskuluen dentsitatea edo kontzentrazio handiagoa dagoelako gertatzen da hori. Gune erogenotzat hartzen dira ezpainak, zakila, bulba, uzkia eta titiburuak, besteak beste.

guraso:

ES:	padres
FR:	parents
EN:	parents

iz. Aita edo ama izatearen nolakotasuna, hala biologikoa nola adopziozkoa.

guraso-ahalegin:

ES:	inversión parental
FR:	investissement parental
EN:	parental investment

iz. Gurasoek egiten duten saioa, beren buruak bigarren mailan jarritz, ahalik eta ume kopuru handiena egoerarik hoberenean hazi eta ugal dadin.

guraso-inbertsio:

ES:	inversión parental
FR:	investissement parental
EN:	parental investment

Ikus: guraso-ahalegin.

gurasotasun:

ES:	paternidad
FR:	paternité
EN:	parenthood

iz. Guraso izateak dakarren egoera.

guruin:

ES:	glándula
FR:	glande
EN:	gland

iz. Odoleko materialak erabiliz gai bereziak ekoiztea helburu duen organoa.
Substantziak jariatzeko gaitasuna du. Organismoak behar-beharrezkoak dituen gaiak sortu eta odolera jariatzen ditu, edo hondakinak kanporatu organismotik. Guruin batzuek lubrifikatu egiten dute, beste batzuek hormonak ekoitzi, eta abar.

guruin-:

ES:	glandular
FR:	glandulaire
EN:	glandular (Hitz elkartuetan) Guruinei dagokiena.

guruin endokrino:

ES:	glándula endocrina
FR:	glande endocrine
EN:	endocrine gland <i>sint. er.</i> Barrualdera jariatzen duen guruina; substantzia bat, hormona bat bereziki, odolera jariatzen duen guruina.

guruin pituitario:

ES:	glándula pituitaria
FR:	glande pituitaire
EN:	pituitary gland

Ikus: hipofisi.

gurutzatze:

ES:	cruzamiento
FR:	croisement
EN:	crossing <i>iz.</i> Espezie edo arraza berekoak ez diren bi izaki batzea.

gutxiegitasun:

ES:	insuficiencia
FR:	insuffisance
EN:	insufficiency <i>iz.</i> Organo batek bere funtzioa betetzeko ahalmenaren murriztapena.



habia egite:

ES:	anidación
FR:	nidification
EN:	nesting

sint. er. Ernaldutako obulua umetokiko mukosan egokitzea.

Hamilton-en lege:

ES:	ley de Hamilton
FR:	règle de Hamilton
EN:	Hamilton's rule

sint. er. Kalkulu-erregela; banako batek noiz eta zenbaterainoko jokabide altruista izango duen kalkulatzeko du, mesedea jasotzen duenaren ahaidetasun-mailaren arabera. Ondorengo zuzen eta zeharkakoetan arrasto genetikoa uzteko xedez agertzen da jokabide altruista.

handitu:

ES:	inflamar
FR:	enflammer
EN:	inflamm

ad. Organismoko guneren batean hantura gertatu.

handitze:

ES:	crecimiento
FR:	croissance
EN:	growth

Ikus: hazte.

hankarte:

ES:	entrepiera
FR:	entrecuisse, sexe
EN:	crotch

iz. Hanka arteko gunea; sexuari dagokionez, hanken arteko goialdeari deritzo.

hanka-tarte:

ES:	entrepiera
FR:	entrecuisse, sexe
EN:	crotch

Ikus: hankarte.

hanpatu-irmo:

ES:	turgente
FR:	turgescence
EN:	turgid

izond. Handitua eta tentea. Airez betea.

hantura:

ES:	inflamación, hinchazón
FR:	inflammation
EN:	inflammation

iz. Narritadura edo lesio bat gertatzean, organismoaren ehunek izaten duten erreakzioa. Akutua edo kronikoa izan daiteke. Haren ezaugarri dira: beroa, gorritasuna, mina, ezintasun funtzionala, eta abar.

haploide:

ES:	haploide
FR:	haploïde
EN:	haploid

izond. (Zelulei buruz) Kromosoma bakoitzeko ale bakarra duena; gametoak dira zelula haploide nagusiak.

haragikeria:

ES:	lascivia
FR:	luxure
EN:	lust, lechery

iz. Sexu-gozamenerako joera neurritz gainekoa. Kontzeptu moral bat da, eta gehiegikeriaren eskala asko aldatzen da pertsonen, giroen, kulturen eta garaien arabera.

haragikoi:

ES:	carnal
FR:	charnel
EN:	carnal

izond. Lizunkeriari nahiz haragiari dagokiona.

haragitsu:

ES:	carnoso
FR:	charnu
EN:	fleshy

izond. Haragiaren antzekoa, haren ezaugarriak dituen, haragi asko duena, edo haragiz osatua dagoena.

haragiz hartze:

ES:	fornicación
FR:	fornication
EN:	fornication

Ikus: larrua jotze, gorputzez hartze.

harem:

ES: harén, harem

FR: harem

EN: harem

iz. 1. Gizon bati dagozkion emakumeen multzoa. 2. Gizon bati dagozkion emakumeen bizilekua; beste gizonek galarazia dute han sartzea.

harrapatu:

ES: contraer

FR: contracter une maladie

EN: contract, catch

ad. Gaixotasun baten mende geratu; aldarte edo sentrazio fisiko bat jasaten hasi.

hartu:

ES: ingerir

FR: ingérer

EN: ingest

ad. Ahotik gai bat irentsi.

hartutako immunoeskasiaren sindrome:

ES: síndrome de inmunodeficiencia adquirida

FR: syndrome immunodéficientaire acquis

EN: acquired immunodeficiency syndrome

sint. er. Gaixotasun birikoen multzo kutsagarria, organismoaren immunitate-sistema suntsitzen duena. Birusak T linfozitoak –globulu zuria– kutsatzen ditu; globulu horiek abiarazten dituzte, hain zuzen, organismoaren defentsak, gorputzean infekzioen bat denean. Birusaren transmisioa gorputzeko jariakinen bidez –odola eta jariakin genitalak– gertatzen da; hau da, sexu-harremanen bidez nahiz kutsatutako odolarekin kontaktuan egotearen ondorioz, eskuarki.

Hasierako sintomen artean daude: nekea, aldizkako sukarra, gaueko izerdia, hotzikarak, limfadenopatiak, esplenomegalia, anorexia, beherako akutua, apatia eta depresioa. Neoplasia gaiztoak izaten dituzte hiesaz kutsaturiko gehienek. Infekzioa moteltzen duten sendagaiak aurkitu dira, baina ez aurkako txertorik.

Hiesa kutsatzeko arriskua dute: hiesa dutenekin babesik gabe sexu-harremanak dituztenek, zain-barneko xiringak partekatzen dituztenek eta hiesa duten emakumeen umekiek.

Ikus: hies.

hartzaile sentsoial:

ES: receptor sensorial

FR: récepteur sensoriel

EN: sensory receptor

Ikus: errezeptore sentsoial.

haserrekor:

ES:	irritable
FR:	irritable
EN:	irritable

izond. Erraz haserretzen dena.

hatz:

ES:	dedo
FR:	doigt
EN:	finger

iz. Eskuaren bost luzakinetariko bakoitza. Hiru falangez osatuak daude guztiak, bat izan ezik, lehenengo hatzak –hatz lodiak– bi falange baititu. Osagarri erotiko garrantzitsua da, kitzikapenean protagonismo handia duena.

haur:

ES:	niño
FR:	enfant
EN:	child

iz. Jaiotzatik nerabezarora bitarteko aroan dagoen pertsona.

haurdun:

ES:	embarazada, encinta
FR:	femme gravide
EN:	pregnant

izond. Umetokian enbrioia edo fetua daramana.

haurdunaldi:

ES:	embarazo
FR:	grossesse
EN:	pregnancy

iz. Emakumearen umetokian gizabanako bat sortzeko eta garatzeko prozesua; 38 astekoa izaten da gutxi gorabehera, azken hilekoaren lehen egunetik kontatzen hasita. Koitoan isuritako milioika espermatozoidetatik milakak lortzen dute emakumearen obulura iristea, Falopioaren tronparen kanpoko ertzean. Hala ere, espermatozoide bakar batek lortzen du, gehienetan, obuluaren barruan nukleoraino iristea; orduan, gizonaren eta emakumearen pronukleoak elkartu, eta ernalketa gertatzen da, eta hala haurdunaldiari hasiera ematen zaio.

haurdunaldi ektopiko:

ES:	embarazo ectópico
FR:	grossesse extra-utérine
EN:	ectopic pregnancy

sin. er. Umetokitik kanpo gauzatzen den haurdunaldia. Ernaldutako obulu bat ezartzen da Falopioaren tronpetan edo umetoki-lepoan edo obulutegietan edo sabelaren barrunbean. Falopioaren tronpetan izaten dira umetokiz kanpoko haurdunaldien % 95. Haurdunaldi ektopikoa arriskutsua izan ohi da; hori dela eta, abortua eragin ohi da.

haurdunaldiaren proba:

ES:	prueba de embarazo
FR:	test de grossesse
EN:	pregnancy test
	<i>sint. er.</i> Emakumearen organismoan HCG hormona dagoen detektatzen duen proba.

haur-galtze:

ES:	aborto
FR:	avortement
EN:	abortion

Ikus: abortu.

haurgintza:

ES:	parto, alumbramiento
FR:	accouchement
EN:	childbirth

Ikus: erditze.

haurra galdu:

ES:	abortar
FR:	avorter
EN:	abort

Ikus: abortatu.

Haurren Munduko Eguna:

ES:	Día Universal de la Infancia, día universal del niño y de la niña
FR:	Journée Mondiale de l'Enfance
EN:	World Day of Children
	<i>sint. er.</i> Azaroaren 20a.

hautzaro:

ES:	infancia
FR:	enfance
EN:	childhood

iz. Giza garapenaren aldia, jaiotzatik nerabezaroaren hasiera arte irauten duena.

hautespen:

ES:	selección
FR:	sélection
EN:	selection

iz. Hautatze-prozesua; populazio eta espezie bereko banakoen artean aukeratzen da zein ugalduko diren, haiek baitira ondorengoei geneak emango dizkietenak.

hautespen artifizial:

ES:	selección artificial
FR:	sélection artificielle
EN:	artificial selection

Ikus: umealdi selektibo.

hautespen natural:

ES:	selección natural
FR:	sélection naturelle
EN:	natural selection

sint. er. Eboluzio-alduketak dakartzan prozesua, desberdintasun genetikoaren ondorioz banakoek dituzten gaitasun biologiko desberdinen ondorioa.

hazi:

ES:	semen, esperma, crecer
FR:	sperme, croître
EN:	semen, sperm, grow

1. *ad.* Handi edo handiago bihurtu, garatu. 2. *iz.* Izaki bat garatzeko ernamuina duen alea.

Ikus: esperma.

hazi-:

ES:	seminal
FR:	séminal
EN:	seminal

(Hitz elkartuetan) Haziari dagokiona.

Ikus: seminifero.

hazi-jartze:

ES:	inseminación
FR:	insémination
EN:	insemination

Ikus: intseminazio, intseminazio artifizial.

hazi-xixku:

ES:	vesícula seminal
FR:	vésicule séminale
EN:	seminal vesicle

iz. Gizonezkoen gernal-maskuriaren atzealdean dauden bi gernal-egituretako bakoitza; hodi eiakulataileak osatzen dituzte hodi deferenteekin batera, eta uretrara iristen dira. Ugal-sisteman parte hartzen dute. Hazi-xixkuek likido bat ekoizten dute; likido hori barrabilen eta beste zenbait gernal-jariakinari gehitzen zaio, eta denen artean esperma osatzen dute.

hazkundearen hormona (gh):

ES:	hormona del crecimiento (gh)
FR:	hormone de croissance
EN:	growth hormone <i>sint. er.</i> Adenohipofisiak (aurrehipofisi ere esaten zaio) jariatzen duen hormona; gorputzaren hazkundera bizkortzen du.

hazte:

ES:	crecimiento, crianza
FR:	croissance, élevage
EN:	growth, breeding iz. Gorputzaren garapen fisiologiko, anatomiko, psikologiko, intelektual, sozial eta kultural mailakatu normala, haurtzarotik helduarora bitartean gertatzen dena.

HCG:

ES:	HCG
FR:	HCG
EN:	HCG (Human Chorionic Gonadotropin) iz. Human Chorionic Gonadotropin hormona. Haurdunaldiaren hormona. Haurdunaldiaren lehen hiru hilekoan, gorputz horiaren funtzioei eusten die, progesterona ekoiztu dezan. Ernaldu eta berehala, ugaitu egiten da odolean eta gernuan; hala, haurdunaldi-testetan, adierazle izaten da.

hedonismo:

ES:	hedonismo
FR:	hédonisme
EN:	hedonism iz. Plazera –sexu-plazera barne– debeku moralen gainetik jartzen duten balioen multzoa.

hedonista:

ES:	hedonista
FR:	hédoniste
EN:	hedonist <i>izond.</i> Plazer-bilatzailea.

heldu:

ES:	madurar, maduro, adulto
FR:	maturer, mûr
EN:	mature 1. <i>ad.</i> Erabateko garapena lortu. 2. <i>izond.</i> Erabateko garapen fisiko, psikiko eta intelektualera iritsi dena.

heldutasun:

ES: adulez

FR: âge adulte

EN: adulthood

iz. Izakiaren garapen biologikoa erabat osatu den garaia; organismoa ugaltzeko gai den aldiari dagokio.

heltze:

ES: maduración

FR: maturation

EN: maturation

1. *iz.* Hozizelulen eraketa meiotikoaren azken aldia; zelula bakoitzeko kromosoma kopuru diploidea murriztu egiten da, eta haploide bihurtu. 2. *iz.* Erabateko garapena lortzeko prozesua. Gizakietan, gaitasun fisiko, emozional eta intelektualak lortzea da helburua.

hematologia:

ES: hematología

FR: hématologie

EN: haematology

1. *iz.* Biologiaren alorra, odol-azterketak (morfologiazkoak, fisiologiazkoak, genetikazkoak, kimikazkoak, eta abar) egiten dituenak. 2. *iz.* Medikuntzaren adarra; odolaren eta organo hematopoietikoen gaixotasunak aztertzen ditu.

hematologo:

ES: hematólogo

FR: hématologue

EN: haematologist

iz. Hematologian aditua den pertsona.

hemizigotiko:

ES: hemicigótico

FR: hemizygotique

EN: hemizygotic

izond. (Banakoei buruz) Gene baten kopia bakarra duena. Espezie diploideetan, bi kopia izaten dituzte eskuarki. Ugaztun arrak hemizigotikoak dira X kromosomaren geneei dagokienez.

hemorragia:

ES: hemorragia

FR: hémorragie

EN: haemorrhage

iz. Odol-galera.

hemorragiko:

ES:	hemorrágico
FR:	hémorragique
EN:	haemorrhagic

izond. Hemorragiari dagokiona.

hemorroide

ES:	hemorroide, almorana
FR:	hémorroïde
EN:	haemorrhoid

iz. Ondesteko edo uzki-zainetako barizea edo dilatazioa. Barnekoak edo kanpokoak izan daitezke hemorroideak, eta mina, erredura, azkura eta odoljariora dituzte ezaugarri. Hemorroideek eragina izan dezakete sexu-harremanetan; esate baterako, uzki-sexua mingarri bihur dezakete.

hepatitis:

ES:	hepatitis
FR:	hépatite
EN:	hepatitis

iz. Gibelaren hantura. Hepatitisaren ezaugarri dira: ikterizia, hepatomegalia, anorexia, sabelaldeko eta urdaileko ondoeza, gibelaren ezohiko funtzioa, pigmentua galduriko gorozkiak, eta gernua iluntzea. Hepatitis larria garatzeak zirrosia eta gibelako disfuntzio kronikoa eragin ditzake, eta, ondorioz, heriotza.

heredagarri:

ES:	heredable
FR:	héréditaire
EN:	inheritable

izond. Hereda daitekeena.

heredagarritasun:

ES:	heredabilidad
FR:	héritabilité
EN:	heritability

iz. Jendegune jakin batean, pertsonen aldakortasun genetikoari egotz dakioken aldakortasun fenotipikoaren proportzioa.

heredatu:

ES:	heredar, heredado
FR:	hériter, hérité
EN:	inherit, inherited

1. *ad.* Izaki bizidunek beren gurasoen ezaugarri fisikoak eta psikologikoak jaso. 2. *iz.* Heredatzen dena.

hereditario:

ES:	hereditario
FR:	héréditaire
EN:	hereditary

Ikus: herentziazko.

herentzia:

ES:	herencia
FR:	hérédité
EN:	inheritance

iz. Belaunaldi batek ondorengoari ezaugarri genetiko normalak zein patologikoak pasatzearen ondorioa.

Ikus: ondoretasun.

herentziazko:

ES:	hereditario
FR:	héréditaire
EN:	hereditary

izlag. Gurasoek ondorengoei pasatutako ezaugarri, asaldur edo gaixotasunei dagokiena.

Ikus: ondoretasunezko.

heriotza:

ES:	muerte, fallecimiento
FR:	mort
EN:	death

iz. Bizia erabateko etena.

Oharrak: Sexualitatea jaiotzarekin hasi eta heriotzarekin amaitzen da.

hermafrodismo:

ES:	hermafrodismo
FR:	hermaphrodisme
EN:	hermaphroditism

iz. Gameto arrak eta emeak batera dituen bizidunaren sexu mota; gizakietan ez da maiz agertzen. Gizaki hermafroditek barrabil-ehuna eta obulutegi-ehuna izaten dituzte.

hermafrodita:

ES:	hermafrodita
FR:	hermaphrodite
EN:	hermaphrodite

izond. Gonadetan barrabil-ehuna eta obulutegi-ehuna dituen; gameto arrak eta emeak ekoizteko gai da. Gizonezkoen zein emakumezkoen sexu-ezaugarriak izan ohi dituzte hermafroditek. Ez da batere ohikoa halakorik topatzea.

hermafroditismo:

ES:	hermafroditismo
FR:	hermaphrodisme
EN:	hermaphroditism

iz. Bi sexuetako genitalak edo bien nahasketa izatea. Gameto arrak eta emeak batera dituen bizidunaren sexu mota; ez da maiz agertzen gizakietan. Gizaki hermafroditek badituzte bai barrabil-ehuna eta baita obulutegi-ehuna ere. Barrabil-ehunean, esperma-tutuak edo espermatozoideak daude; obulutegi-ehunean, berriz, folikuluak eta gorputz luteoak.

herpes:

ES:	herpes
FR:	herpès
EN:	herpes

iz. Gaixotasun akutua, birus batek eragina eta larruazalari zein mukosei erasaten diena. Herpesaren ezaugarri nagusi dira gorputzeko irekiguneen inguruan sortzen diren pikor txikiak. Sukarra, hesteetako gorabeherak, nekea, eta abar eragiten ditu. Hiru herpes mota nagusi bereizten dira: sinplea (sinplea 1), ugal-organoetakoa (sinplea 2) eta zoster herpesa.

herpes genital:

ES:	herpes genital
FR:	herpès génital
EN:	genital herpes

sint. er. Jokabide erotiko partekatuen bidez kutsa daitekeen infekzioa. Birus batek eragindako larruazaleko infekzioa. Oso mingarria da, eta lesioak eragin ditzake larruazalean, baginan, umetoki-lepoan, uzkian, glandean eta zakileko beste zenbait gunetan, batik bat.

herra:

ES:	aversión
FR:	aversion
EN:	aversion

iz. Zerbaiti edo norbaiti zaion ezinikusia, nazka edo higuina.

herstura:

ES:	ansiedad
FR:	angoisse
EN:	anxiety

iz. Izu-, estutasun- eta beldur-sentsazioa, etorkizuneko, barneko edo zehaztu gabeko arrisku baten aurrean.

Ikus: antsietate.

hertsatu:

ES:	constreñir
FR:	resserrer
EN:	constrict

ad. Itxi eta estutu, zanpatuz.

hertsatzaile:

ES: constrictor

FR: constricteur

EN: constrictor

1. *izond.* (Giharrei buruz) Hainbat zuloren kanalak zirkularki ixteko funtzioa duena. 2. *izond.* (Sendagaiei buruz) Uzkurdura eragiten duena.

hertsatze:

ES: constricción

FR: constriction

EN: constriction

iz. Gorputzeko zulo edo hodi bat ezohiko eran estutzearen ondorioa; esate baterako, odol-hodien hertsatzea edo basokonstrikzioa.

hertu:

ES: deshinchar, desenconar

FR: réduire

EN: reduce

ad. Gorputzeko atal baten hantura txikitu edo desagertu.

hesi-metodoak:

ES: métodos de barrera

FR: méthodes de barrière

EN: barrier methods

iz. Haurdunaldia saihesteko diseinatu diren produktuak, espermaren eta, ondorioz, espermatozoideen pasabidea oztopatzeko edo guztiz eragozteko balio dutenak. Era berean, infekzioak saihesteko ere balio dute. Erabiliena kondoia edo preserbatiboa da, bai gizonezkoena, bai emakumezkoena.

hetero-:

ES: hetero-

FR: hétéro-

EN: hetero-

Zenbait hitzi lotuta agertzen den aurrizkia; *desberdina*, *beste bat* esan nahi du.

heterogametiko:

ES: heterogamético

FR: hétérogamétique

EN: heterogametic

izond. (Sexuari buruz) Bi sexu-kromosoma ezberdin –heterokromosomak– dituenak. Ugaztun arrak heterogametikoak dira (XY); emeak, berriz, homogametikoak (XX).

heterogamia:

ES: heterogamia

FR: hétérogamie

EN: heterogamy

iz. Gameto desberdinak elkartuz gertatzen den ugaltze sexuala. Neurrian eta egituran izaten da, batez ere, gametoen arteko desberdintasuna.

heterokromosoma:

ES:	heterocromosoma
FR:	hétérochromosome
EN:	heterochromosome

iz. Kromosoma ezberdina; ugaztun arrek XY heterokromosomak dituzte.

Ikus: heterogametiko.

heterosexismo:

ES:	heterosexismo
FR:	hétérosexisme
EN:	heterosexism

iz. Gizarte batek heterosexualitateari beste aukera sexualei baino garrantzi eta balio handiagoa ematea edo heterosexualak ez diren beste aukerak kontuan ez hartzea.

heterosexual:

ES:	heterosexual
FR:	hétérosexuel
EN:	heterosexual

izond. Beste sexukoenganako sexu-grina duena.

heterosexualitate:

ES:	heterosexualidad
FR:	hétérosexualité
EN:	heterosexuality

iz. Beste sexukoenganako sexu-erakarpena.

heterozigosi:

ES:	heterocigosis
FR:	hétérozygosité
EN:	heterozygosis

iz. Zigoto bat eratzea; gene pare desberdinak dituzten bi gameto elkartzean gertatzen da.

heterozigoto:

ES:	heterocigoto
FR:	hétérozygote
EN:	heterozygous

iz. Karaktere jakin baterako, kromosometan bi alelo desberdin dituen organismoa.

hetika:

ES: hética

FR: tuberculose

EN: tuberculosis

iz. Tuberkulosia. Eritasun kutsagarria da, Koch-en baziloak eragina. Biriketan (ezagunena) edo gorputzaren beste alderdi batzuetan eraten diren pikor antzeko batzuk dira hetikaren ezaugarri nagusiak.

Ikus: tuberkulosi.

hezkidetza:

ES: coeducación

FR: coéducation

EN: coeducation

iz. Neskak eta mutilak elkarrekin eta berdintasun-balioetan heztea. Gizon-emakumeei batera emandako hezkuntza. Hasieratik lotura estuagoak sortzea eta bi sexuak maila berean heztea du helburu, tradizioz ezarri diren sexu-rolak errepikatu gabe, bazterketarik gerta ez dadin.

Ikus: sexu-rol, sexu-hezkuntza, sexismo.

Hezkuntza Ez Sexistaren aldeko Nazioarteko Eguna:

ES: Día Internacional por la Educación No Sexista

FR: Journée Internationale de l'Education Non Sexiste

EN: International Day of Non-Sexist Education

sint. er. Ekainaren 21ean ospatu ohi da.

hibrido:

ES: híbrido

FR: hybride

EN: hybrid

izond. (Izaki bati buruz) Bi espezie edo espezie bereko bi barietate gurutzatuz sortu dena.

hidrozele:

ES: hidrocele

FR: hydrocèle

EN: hydrocele

iz. Likido-metaketa barrunbe batean, barrabiletan, bagina-tunikan eta kordoi espermatikoan, batik bat.

hies:

ES:	sida
FR:	sida
EN:	AIDS

iz. (Hartutako Immunoeskasiaren Sindromearen sigla)

Organismoaren defentsen galera zein desagertzea ekartzen duen gaitz birikoa.

Birusaren transmisioa jokaera erotiko partekatuen bidez (preservatiborik gabeko bagina-sarketaren, uzki-koitoaren eta felazio nahiz cunnilingusaren bitartez) edo kutsatutako odolarekin kontaktuan jartzean (xiringak konpartituz, odola edo odol-eratorrien transfusioak eginez, amaren odola fetuarenarekin kontaktuan jarritz, eta abar) gertatzen da.

Ikus: hartutako immunoeskasiaren sindrome.

Hiesaren kontrako Borrokaren Munduko Eguna:

ES:	Día Mundial de la Lucha contra el SIDA
FR:	Journée Mondiale du Sida
EN:	World AIDS Day

sint. er. Abenduaren 1ean ospatu ohi da.

hiesaren proba:

ES:	prueba del sida
FR:	test du sida
EN:	AIDS test

sint. er. Pertsona batek Giza Immunoeskasiaren Birusa duen jakiteko proba.

higiene:

ES:	higiene
FR:	hygiène
EN:	hygiene

iz. Osasunari eta hari dagozkion zainketei buruz diharduen zientzia. Gizakiaren garapena eta hura ingurura modu egokian moldatzea errazten eta bultzatzen duten prozedurak eta metodoak aztertzen ditu.

higienearen kontrako:

ES:	antihigiénico
FR:	insalubre
EN:	unsanitary

sint. er. (Jarrera eta ekintzei buruz) Garbitasun- edo higiene-printzipioen aurkakoa.

higieniko:

ES:	higiénico
FR:	hygénique
EN:	hygienic

izond. Higieneari dagokiona. Higienea duena edo higienearen arauak betetzen dituen.

higikortasun:

ES:	movilidad
FR:	mobilité
EN:	mobility

Ikus: mugikortasun.

hil:

ES:	morir, fallecer
FR:	mourir
EN:	die

ad. Bizia amaitu, berez edo zerbaitek eraginda.

hilaur:

ES:	aborto
FR:	avorté
EN:	abortion

iz. Garaia baino lehen eta hilik jaiotzen den fetua.

Ikus: abortu.

hilaurtu:

ES:	abortar
FR:	avorter
EN:	abort

Ikus: abortatu.

hilaurtze:

ES:	aborto
FR:	avortement
EN:	abortion

Ikus: abortu.

hileko:

ES:	menstruación, período
FR:	menstruation
EN:	menstruation

iz. Emakumeek ugalkortasun-garaian hilero duten umetokiko odoljariora; odola eta endometrioko ehunaren zatiak kanporatzen dira baginatik. Lau astetik behin gertatzen da gutxi gorabehera (haurdunaldirik ez badago), eta hiru egunetik zazpira bitartean irauten du. Pubertarotik menopausiara bitarteko garaian izaten dute emakumeek.

hileko fluxu:

ES:	flujo menstrual
FR:	flux menstruel
EN:	menstrual flow <i>sint. er.</i> Menstruazioan zehar baginatik jariatzen den likidoa.

hilekoa izan:

ES:	menstruar
FR:	menstruer
EN:	menstruate <i>ad.</i> Hilekoa jariatu.

hilekoaren aurreko:

ES:	premenstrual
FR:	prémenstruelle
EN:	premenstrual <i>sint. er.</i> Hilekoa hasi aurretiko aldiari dagokiona.

hilekoaren aurreko asaldu disforiko (haad):

ES:	alteración disfórica premenstrual
FR:	altération dysphorique premenstrual
EN:	dysphoric alteration premenstrual <i>sint. er.</i> Psikiatriako elkarte Amerikarrak HAS (hilekoaren aurreko sindrome) kasuak azaltzeko erabiltzen duen diagnostikoa.

hilekoaren aurreko sindrome (HAS):

ES:	síndrome premenstrual
FR:	syndrome prémenstruel
EN:	premenstrual syndrome <i>sint. er.</i> Hilekoaren fase luteoan (obulatu ondoren) agertzen den sintoma multzoa; egonezina, haserrea, depresioa, eta abar ager daitezke. 150 sintoma baino gehiago jotzen dira HAStzat, eta, gutxi-asko, hileko erregularra duten emakume gehienek izaten dituzte. Badira desberdintasunak emakume batetik bestera, baina asaldu fisiko eta psikologiko ohikoenen artean daude: suminkortasuna, nekea, buruko eta bizkarreko mina, depresioa, likidoak ez kanporatzeak eragindako pisu-igoera, eta depresioa eragin dezakeen nerbio-tentsioa. Ugari izan daitezke eragileak: hormona-aldaketak, faktore psikologikoak —estresa edo afektibitate-gatazka, adibidez—, gizarte-faktoreak, eta abar. Kontrazeptzio-pilula erabili ohi da tratamendu gisa, batzuetan.

Ikus: menstruazio aurreko sindrome.

hilekoaren erregulazio:

ES:	regulación menstrual
FR:	régulation menstruelle
EN:	menstrual regulation

sint. er. Umetokiko jariakin menstrualak hustea; hilekoa gehienez ere 14 egunez atzeratu eta, ondorioz, haurdun gelditzeko arriskua dagoenean egiten da, haurdunaldia saihesteko. Haurdun-testaren aurretik ere egin daiteke. Plastikozko kanula bat eta ginekologiako esku-xiringa bat erabiliz egiten da eskuarki (Umetoki bariatik Xurgatzeko Prozedura-UXP). Ginekologo batek, paramediku batek, nahiz horretarako gaitua den edozein langilek egin dezake. Zenbait lurraldetan, abortu terapeutikoa debekaturik egon arren, legezkota da umetokia hustea.

hilekoaren sinkronizazio:

ES:	sincronización menstrual
FR:	synchronisation menstruel
EN:	menstrual synchronisation

sint. er. Bi emakumeren edo gehiagoren menstruazioen erritmoen bateratze-prozesua, haien arteko gertutasun fisiko jarraituak eragina.

hilekoaren ziklo:

ES:	ciclo menstrual
FR:	cycle menstruel
EN:	menstrual cycle

sint. er. Bi hilekoren arteko denbora-tartea; 26-34 egun iraun ohi du. Lau aldi ditu ziklo bakoitzak, eta, aldi bakoitzean, aldaketak izaten dira hormonetan, obulutegian eta umetokian; obulutegi-folikulua handitu egiten da, obulazioa gertatu, gorputz horia garatu, eta hilekoa jaitsi. Haurdunaldian, ez da hilekoaren ziklorik gertatzen.

Ikus: hileko.

himen:

ES:	himen
FR:	hymen
EN:	hymen

iz. Baginaren sarreran dagoen mintz mehea. Bagina eta bulba bereizten ditu, eta baginaren barrunbearen atzealdean dago. Tamaina, lodiera eta forma anitz izan ditzake, emakume bakoitzaren arabera. Esan izan da infekzioetatik babestea dela himenaren funtzioa.

Ikus: emamintz.

himenektomia:

ES:	himenectomía
FR:	hymenectomie
EN:	hymenectomy

iz. Himenaren erauzketa. Himenak sexu-harremanak zailtzen edo eragozten dituenegia egin ohi da.

himenotomia:

ES: himenotomía

FR: hymenotomie

EN: hymenotomy

iz. Kirurgia-prozedura; irekigune bat egiten da himenean, oro har, bagina-koitoxa praktikatu ahal izateko.

hipersentibera:

ES: hipersensible

FR: hypersensible

EN: hypersensitive

izond. Gehiegizko sentiberatasuna duena, afektu- eta emozio-estimuluen aurrean edo estimulu fisikoei erantzutean.

hipersentiberatasun:

ES: hipersensibilidad

FR: hypersensibilité

EN: hypersensitivity

iz. Estimulu baten aurrean, sentikortasun gehiegizkoa.

hipersexualitate:

ES: hipersexualidad

FR: hypersexualité

EN: hypersexuality

iz. Sexu-jardun eta -grina neurrigabea. Nahiz eta pertsona eta egoera batzuetatik besteetara asko aldatzen den neurritasuna, obsesio- antsietate-iturri den neurrian edo arazo psikologiko baten sintoma denean da patologikoa.

Ikus: satiriasi, ninfomania.

hipnosi:

ES: hipnosis

FR: hypnose

EN: hypnosis

iz. Loaren antzeko egoera artifiziaia, beste pertsona batek sugestioaren bidez eragiten duena. Gaur egun, zenbait gaixotasun psikikoren (neurosia, gaixotasun psikosomatikoak) tratamenduan, eta anestesia arina lortzeko kirurgia txikian, erditzean, eta abar, erabiltzen da. Pertzepzioaren eta oroimenaren asaldua eragiten du.

hipnotiko:

ES: hipnótico

FR: hypnotique

EN: hypnotic

1. *izond.* Loari edo hipnotismoari dagokiona. 2. *izond.* (Gai bati buruz) Loia eragiten duena; lasaigarri gisa erabiltzen da. Nerbio-sistema zentralerako gune jakin batzuetan eragiten duen depresioaren araberakoa da botika baten hipnosi-gaitasuna.

hipnotismo:

ES: hipnotismo

FR: hypnotisme

EN: hypnotism

1. *iz.* Hipnosiaren teoria eta praktika. 2. *iz.* Hipnosia eragiten duten teknikak aztertzen dituen jakintza.

hipnotizatu:

ES: hipnotizar

FR: hypnotiser

EN: hypnotise

iz. Norbaiti hipnosi-egoera eragin.

hipnotizatzaile:

ES: hipnotizador

FR: hypnotiseur

EN: hypnotist

izond. Hipnotismoa praktikatzen duena.

hipofisi:

ES: hipófisis

FR: glande pituitaire, hypophyse

EN: pituitary gland, hypophysis

iz. Hipotalamoari loturiko guruin txikia; esfenoide hezurraren gainean dago. Barnejarioko guruina da, eta hormona garrantzitsu asko jariatzen ditu. Bi zati ditu:

adenohipofisia eta neurohipofisia. Adenohipofisiak jariatzen dituen hormonak dira:

hazkuntzaren hormona (somatotropina), hormona tirotropikoa, hormona adrenikortikotropikoa (ACTH), bi hormona gonadotropiko (folikulu-estimulatzailea – FSH– eta luteinizatzailea –LH–) eta prolaktina (esnearen jarioa eragiten duena).

Neurohipofisian, bi hormona pilatzen dira: oxitozina eta basopresina.

hipogonadismo:

ES: hipogonadismo

FR: hypogonadisme

EN: hypogonadism

iz. Barrabilen asaldua: edo ez dira funtzionalak, edo hipotalamoak ez du jariatzen GnRH (Gonadotropina) kantitate nahikoa kausa genetikoengatik. Sexu-ezaugarri maskulinoak ez dira garatzen: hezur finak, gihar ahulak, bizar gutxi, ahots fina. Antzutasunaren eragileetako bat da.

hipokondria:

ES: hipocondría

FR: hypocondrie

EN: hypochondria

1. *iz.* Osasun-egoerari buruzko kezka neurritz gainekoa. 2. *iz.* Asaldu psikikoa; ezaugarri ditu: antsietate handia, depresioa, eta sintoma fisiko errealeen edo ustezkoen interpretazio irrealak. Gaixotasun larri baten adierazle dira ezaugarri horiek, nahiz eta gaixotasun horren froga medikorik ez izan.

hipokondriako:

ES: hipocondríaco

FR: hypocondriaque

EN: hypochondriac

1. *izond.* Hipokondriari dagokiona; hipokondria duena. 2. *izond.* Sabelaldearen gaineko aldeari –beheko saihetsen azpialdean dagoenari– dagokiona.

hipospadias:

ES: hipospadias

FR: hypospadias

EN: hypospadias

iz. Uretrako meatuaren kokapen anormala. Meatua ildo prepuzialean, zakilaren behe-aurpegian edo perineoan ireki daiteke.

hipotalamiko:

ES: hipotalámico

FR: hypothalamique

EN: hypothalamic

izond. Hipotalamokoa, edo hari dagokiona.

hipotalamo:

ES: hipotálamo

FR: hypothalamus

EN: hypothalamus

iz. Dientzefaloaren zatia; hirugarren bentríkuluaren zorua eta albo-paretaren atal bat osatzen ditu. Bizitzako zenbait funtzio erregulatzea da hipotalamoaren eginkizuna: arteria-presioa, digestio-aparatuaren zenbait jarduera, sexu-funtzioak, uraren, gluzidoen eta lipidoen metabolismoa, eta emozio-erreakzioak, besteak beste.

hiruki:

ES: trillizo

FR: triplés

EN: triplet

iz. Haurdunaldi berean jaioetako hiru haurretako bakoitza.

hirurogeita bederatzi (69):

ES: sesenta y nueve (69)

FR: 69

EN: 69

iz. Jarrera erotikoa: bi gorputz, bata bestearen gainean edo aldameneka etzanik eta hankak buruari emanik, harreman aho-genitala eginez.

histerektomia:

ES:	histerectomía
FR:	hystérectomie
EN:	hysterectomy

iz. Umetokiaren erauzketa kirurgikoa, hainbat gaixotasuni aurre egiteko erabiltzen dena: aldakako hanturazko gaixotasun kronikoa, umetokiko odoljariora, umetokiko minbizi-aurreko gaixotasunak, umetokiko minbizia, eta abar. Erabateko histerektomian, obulutegiak, tronpak, gongoil linfatikoak, hodi linfatikoak, umetokiko lepoa eta umetokia erauzten dira. Obulutegi bat edo biak erauz daitezke. Ebakuntza egin ostean, ez da hilekorik izaten.

histeria:

ES:	histeria
FR:	hystérie
EN:	hysteria

iz. Psikoanalisiak deskribatutako neurosi mota; era askotako ezaugarri klinikoak izan ditzake. Histeria mota garrantzitsuenak dira: konbertsio-histeria eta larrimin-histeria. Horiek guztiek gatazka edipikoa dute ezaugarri, eta errepresioa dute babes-mekanismo nagusia.

histeriko:

ES:	histérico
FR:	hystérique
EN:	hysterical

1. *izond.* Histeriari dagokiona. 2. *izond.* Histeria duena.

historia kliniko:

ES:	historial clínico, historia clínica
FR:	dossier médical
EN:	medical history

sint. er. Tratamendua jasoko duenari dagozkion datu guztiak –iraganekoak, pertsonalak, familiakoak eta oraingoak– biltzen dituen zerrenda ordenatua; jasaten ari den gaixotasun, disfuntzio edo zailtasunari buruzko azterketarako oinarri gisa balio du.

hitzordu:

ES:	cita
FR:	rendez-vous
EN:	appointment

iz. Elkartzeko jarritako toki, eguna eta ordua.

hobekuntza:

ES:	mejora
FR:	amélioration
EN:	enhancement

iz. Hobera egiteko ekintza, eta horren ondorioa.

hodi:

- ES:** conducto, vaso
FR: canal, vaisseau
EN: duct, vessel
iz. Tutu-itxurako egitura, gorputzean likidoak —odola, linfa, eta abar— garraiatzen dituenak. Arteriak, zainak eta linfa-hodiak dira hodi mota nagusiak.

hodi deferente:

- ES:** conducto deferente
FR: canal déférent
EN: vas deferens, ductus deferens
sint. er. Barrabileko hodi iraizlea; barrabiletatik eiakulazio-hodira eta prostatara eramaten ditu espermatozoideak. Barrabiletako epididimoaren jarraipena da; barrabil-zorrotik gorantz hazi-xixkuarekin elkartu eta hodi eiakulatzailea eratzen du.

hodi galaktoforo:

- ES:** conductos galactóforos
FR: canal galactophore
EN: galactophorous duct
sint. er. Ugatz-guruineko hodia. Esnea garraiatzen du ugatz-lobuluetatik titiburura.

hodi seminifero:

- ES:** conducto seminífero, túbulo seminífero
FR: conduit séminifère
EN: seminiferous duct
sint. er. Barrabil-lobuluxketan dauden hodietako bakoitza. Bihurriak dira hasieran, eta zuzenak ondoren.

hodi-hertsatzaile:

- ES:** vasoconstrictor
FR: vasoconstricteur
EN: vasoconstrictor
iz. Hodi-hertsatzea eragiten duena. Hodi-hertsatzaileak exogeno arruntak izan daitezke: hotza, beldurra, estresa eta nikotina, besteak beste. Bestalde, adrenalinarek eta noradrenalinarek barne-jarioak ere odol-hodiak uzkurrazten ditu.

Ikus: basokonstriktore.

hodi-hertsatze:

- ES:** vasoconstricción
FR: vasoconstriction
EN: vasoconstriction
iz. Edozein odol-hodiren barrunbea estutzea, nerbioen edo beste estimuluren baten eraginez.

Ikus: basokonstriktzio.

hodi-zabaltzaile:

ES:	vasodilatador
FR:	vasodilatateur
EN:	vasodilator

izond. Odol-hodien dilatazioa eragiten duena; nerbio bat edo gai bat izan daiteke: nitratoak, Ca++ antagonistak, eta abar.

Ikus: basodilatadore.

hodi-zabaltze:

ES:	vasodilatación
FR:	vasodilatation
EN:	vasodilatation

iz. Odol-hodiak zabaltzea, arteriolak bereziki; zabaltze horretan eragiten dute nerbio-estimuluek edo gihar lisoa lasaitzen duten zenbait sendagaik.

homeostasi:

ES:	homeostasis
FR:	homéostasie
EN:	homeostasis

iz. Gorputzaren barne-oreka; modu naturalean mantentzen da, gorputzean osasunari eusteko gertatzen diren egokitzapenei esker. Mekanismo homeostatikoek kontrolatzen dituzten funtzioen artean daude: bihotz-taupadak, hematopoiesia, tentsio arteriala, gorputzeko tenperatura, oreka elektrolitikoa, arnasketa eta guruinen jarioa.

Hormonek ere parte hartzen dute homeostasi-prozesuetan, kanpoko eragin bakoitzari dagokion erantzuna bideratuz.

homo-

ES:	homo-
FR:	homo-
EN:	homo-

aurrizk. Zenbait hitzi lotuta agertzen den aurrizkia; berdintasuna esan nahi du.

homoerotismo:

ES:	homoerotismo
FR:	homoérotisme
EN:	homoeroticism

iz. Sexu berekoen arteko erotismoa.

homofilia:

ES:	homofilia
FR:	homophilie
EN:	homophily

iz. Homosexualitatea.

homofobia:

ES:	homofobia
FR:	homophobie
EN:	homophobia, queer fear

iz. Homosexualen aurkako sineskizun, iritzi, jarrera nahiz jokabide oldarkor, gorroto, herra, bereizkeria eta irrigarrikeria multzoa. Sexu-joeragatik gertatzen den bereizkeria da, eta gizarteko estereotipo ahaltzuak, batetik, eta giza aniztasuna ez onartzea, bestetik, daude haren oinarrian.

homosexual:

ES:	homosexual
FR:	homosexuel
EN:	homosexual

izond. Sexu berekoek erakartzen duten pertsona. Batik bat gizonezkoen kasuan erabiltzen da hitz hori.

homosexualitate:

ES:	homosexualidad
FR:	homosexualité
EN:	homosexuality

iz. Sexu bereko pertsonenganako sexu-erakarpina.

homozigosi:

ES:	homocigosis
FR:	homozygose
EN:	homozygosis

iz. Zigoto baten eraketa, gene pare berdin bat edo gehiago dituzten bi gametoren arteko elkarketaz. Arraza-nahasketarik gabeko organismoak sortzen dira homozigosian, endogamia bidez.

homozigoto:

ES:	homocigoto
FR:	homozygote
EN:	homozygote

iz. Organismo mota; kromosoma pare bateko leku berean gene berdin-berdinak dituzten zelula somatikoak ditu.

hormona:

ES:	hormona
FR:	hormone
EN:	hormone

iz. Gai kimiko konplexua; gorputzeko organo edo atal batean ekoizten da, eta handik gorputzeko beste guneren bateko organo nahiz zelula talde baten jardura aktibatzen edo erregulatzen du. Hipofisia, pankrea, epifisia, tiroidea eta gonadak dira, besteak beste, hormonak jariatzen dituzten guruinak. Hormonak jariatzen dituzten ehunen artean daude, berriz, kareina eta duodenoko mukosa. Guruin endokrinoek jariatzen dituzten hormonak odol-zirkulazioak garraiatzen ditu eragin beharreko organora. Ezaugarri kimikoen arabera, hiru hormona mota bereizten dira: esteroideak (hormona sexualak), aminoazidoetatik eratorritakoak (tiroxina eta adrenalina), eta proteiko edo polipeptidikoak (insulina, glukagoia eta hipofisiko hormonak). Hormonek garrantzi handia dute metabolismoan, odol-zirkulazioan, sexu-bizitzan, nerbio-sistemaren orekan, eta abar.

hormona adrenokortikotropiko (ACTH):

- ES:** hormona adrenocorticotrópica (ACTH))
FR: corticotrophine (ACTH)
EN: adrenocorticotropic hormone (ACTH)
sint. er. Adenohipofisiak (aurrehipofisi ere esaten zaio) jariatzen duen hormona tropikoa. Kortikotropina ere baderitzo hormona horri.

hormona bidezko antisorgailu:

- ES:** anticonceptivo hormonal
FR: contraceptif hormonal
EN: hormonal contraceptive
sint. er. Kontrazepzio-metodoa; tratamenduaren dosi bakar batekin lortzen da kontrazepzioa, 1-3 hilabeterako. Hormona kopuru altua du. Oso metodo eraginkorra da, baina ez du GIBaren, hiesaren eta beste sexu-infekzio batzuen kontrako babesik ematen.

hormona bidezko kontrazepzio:

- ES:** anticoncepción hormonal
FR: contraception hormonale
EN: hormonal contraception
sint. er. Kontrazepzio-metodoa; estrogenoz eta progestagenoz osaturiko konposatuak hartzean datza. Hala, estrogenoek obulazioa eragozten dute, eta progestagenoek uteroko estalkia berritzea saihesten; ondorioz, obuluari ez zaio uzten traktura igarotzen, eta, gainera, umetoki-lepoko mukia loditu egiten da, hala espermatozoideek aurrera egin ez dezaten.

Ikus: hormona bidezko antisorgailu.

hormona esteroideak:

- ES:** hormonas esteroïdes
FR: hormones stéroïdes
EN: steroid hormones
sint. er. Kolesteroletik eratorritako hormona mota; batik bat giltzurrunaren kortexean eta gonadetan sortzen dira hormona esteroideak.

hormona folikulu-estimulatzaile:

- ES:** hormona folículoestimulante (fsh)
FR: FSH
EN: FSH
sint. er. Adenohipofisiak (aurrehipofisi ere deitzen zaio) jariatzen duen hormona. Emakumeetan, hileko zikloaren lehen erdian obulutegiko folikuluak sorrarazten ditu, eta estradiol deritzon ugal-hormona. Gizonetan, berriz, espermatozoideak sorrarazten ditu sperma-hodietan.

hormona gonadotropina-jariatzaile (GNRH):

- ES:** hormona liberadora de gonadotropinas (GNRH)
FR: gonadolibérine
EN: gonadotropin-releasing hormone (GNRH)
sint. er. Hormona folikulu-estimulatzailearen (FSH) zein hormona luteinizatzailearen sintesia eta jariatzea bizkortzen duen hormona hipotalamikoa.

hormona luteinizatzaile (LH):

ES:	hormona luteinizante (LH)
FR:	hormone lutéinisante (LH)
EN:	luteinising hormone (LH)

sint. er. Adenohipofisiak (aurrehipofisi ere deitzen zaio) jariatzen dituen hormona gonadotropikoetariko bat. Emakumeetan, hileko zikloaren erdi aldera, hormona horren jarioa gehitu egiten da, obulazioa gerta dadin, eta gero gorputz luteoa mantentzen du, eta gorputz luteoak progesterona sintetizatzen. Gizonezkoetan, testosterona sorrazten du testikuluetakoko Leydig zeluletan.

hormona-inplante:

ES:	implante hormonal
FR:	implant hormonal
EN:	hormonal implant

iz. Kontrazepzio-metodoa; larruazal azpian ezartzen den progestagenoz osaturiko zilindro luzekara izaten da. Epe luzerako kontrazepzioa ematen du (hiru urte), baina ez GIBaren, hiesaren eta beste sexu-infekzio batzuen kontrako babesik.

hormonal:

ES:	hormonal
FR:	hormonal
EN:	hormonal

izond. Hormonei dagokiena.

hormona-sexu:

ES:	sexo hormonal
FR:	sexe hormonal
EN:	hormonal sex

Ikus: gonada-sexu.

hormonaterapia:

ES:	hormonoterapia
FR:	hormonothérapie
EN:	hormone replacement therapy

iz. Hormona naturalen nahiz sintetikoen erabilera terapeutikoa.

hormonazko:

ES:	hormonal
FR:	hormonal
EN:	hormonal

Ikus: hormonal.

hozi-zelula:

ES:	célula germinal
FR:	cellule germinale
EN:	germ cell

iz. Gametogenesisia jasan duen edozein zelula; hau da, garapenaren edozein alditan dagoen sexu-zelula.

hozka egin:

ES:	morder
FR:	mordre
EN:	bite

ad. Haginka egin, hortzekin heldu. Erotikoa izan daiteke.

hozka(da):

ES:	mordedura, mordida, mordisco
FR:	morsure
EN:	bite

iz. Hortzekin indarrez eustearen ondoriozko lesioa.

hoztu:

ES:	enfriar
FR:	refroidir
EN:	cool

ad. Berotasuna galdu. Irritsa gutxitu.

hunkiberatasun:

ES:	emotividad
FR:	émotivité
EN:	emotivity

iz. Pertsona bat hunki daitekeen maila. Jasotako estimuluen araberakoa da.

hunkigarri:

ES:	emocionante, emocional
FR:	émotionnelle
EN:	emotional

izond. Zirrara eragiten duena; hunkitzen duena.

hunkitu:

ES:	emocionar
FR:	émouvoir
EN:	move

ad. Barne-sentimendu batek ukituta gertatu.

hurrupada:

ES: mamada

FR: fellation

EN: blow job

iz. Ezpain artean sartu eta xurgatzea. Zakilarekin edo klitoriarekin egin daiteke, adibidez.

hurrupatu:

ES: succionar

FR: aspirer

EN: suck

ad. Ahoaz erakarri, ezpainen eta mihiaren mugimenduaren laguntzaz.

hurrupatze:

ES: succión

FR: succión

EN: suction

iz. Xurgatzeko ekintza eta horren ondorioa.

H-Y antígeno:

ES: antígeno H-Y

FR: antigène H-Y

EN: H-Y antigen

iz. Enbrioian barrabilak garatzeko prozesua erregulatzen duen gaia. Antigeno hori izan ezean, gonada bereizigabeak obulutegi bihurtuko dira, eta enbrioaren sexua emea izango da.



ICD:

ES:	CIE
FR:	CIM
EN:	ICD

iz. International Clasification of Disorders. Nahasteen Nazioarteko Sailkapena, OMEk (Osasun Mundu Erakundea) sortua.

ideiagintza:

ES:	ideación
FR:	idéation
EN:	ideation

1. *iz.* Ideiak izan eta lantzeko prozesua. 2. *iz.* Ideia, objektu edo irudien sorrera gogamenean.

identifikazio:

ES:	identificación
FR:	identification
EN:	identification

iz. Norbaitek beste norbaiten ezaugarriak –edo haren nortasun osoa– bereganatzea.

identitate sexual:

ES:	identidad sexual
FR:	identité sexuelle
EN:	sexual identity

Ikus: sexu-identitate.

idiarena jo:

ES:	paja, hacerse una
FR:	se branler
EN:	wank, wank of

ad. (adkor.) Masturbatu, gizonetzkoetan.

Ikus: kanpaia jo.

igarotze-erritu:

ES:	rito de paso
FR:	rite de passage
EN:	transitional phase

iz. Estatus-aldaketa jakin bat ospatzeko egiten den zeremonia; esate baterako, mutil izatetik gizon izatera igarotzean egiten dena zenbait kulturatan.

igortze-aldi:

ES:	fase de paso
FR:	phase de passage
EN:	transitional phase

iz. Eiakulazioaren lehen fasea; prostata, hazi-guruinak eta hodi deferenteen goiko aldea uzkurdu egiten dira.

igurtzi:

ES:	friccionar, fricción
FR:	frictionner, friction
EN:	rub, massage, friction

1. *ad.* Zerbaiti eragitea, haren gainean eskua edo objektu bat behin eta berriz igaroaraziz, indarrez ala leun. 2. *iz.* Zerbaiti eragin, haren gainean behin eta berriz eskua edo objektu bat indar gehiagoz edo gutxiagoz igaroaraziz.

igurtzialdi:

ES:	frotamiento
FR:	friction
EN:	friction

Ikus: igurtzi.

igurzte:

ES:	frotamiento
FR:	friction
EN:	friction

Ikus: igurtzi.

ihesle (atxikimendu):

ES:	evitativo, (apego)
FR:	évasif (fixation)
EN:	avoidant (attachment)

izond. Atxikimendu-eredu mota; intimitatearen beldur izatea da haren ezaugarri nagusia. Ihesleek zailtasun handiak dituzte besteekiko hurbiltasuna eta intimitatea lortzeko.

Harreman positiboak izateko joera txikia dute. Oro har, oroitzapen urria dute haurtzaroaz, eta amarengandik bananduta egon izana eta gurasoen maitasun falta igartzen zaie.

ihesle beldurti:

ES:	evitativo temeroso
FR:	évasif craintif
EN:	fearful avoidant

sint. er. Atxikimendu-eredu mota; intimitateari beldur izatea eta gizarte-harremanei ihes egiteko joera ditu ezaugarri. Irudi negatiboa izaten dute beren buruaz zein besteez. Atxikimenduzko loturaren beldur dira, bikotekidearen arbuioa jasotzea espero dutelako.

ikara:

ES:	estremecimiento
FR:	frémissement
EN:	shudder

iz. Dardara, neurri batean edo bestean gorputz osoarena; hotzikararen aurretik edo harekin batera agertzen da. Hotzak, sukarrak eta, bereziki, beldurrak edo izualdiak eragin dezakete.

ikuseremu:

ES:	campo visual
FR:	champ visuel
EN:	visual field

iz. Begiak mugitu gabe ikusten den espazioa.

ikusi:

ES:	ver
FR:	voir
EN:	see

ad. Begien bidez objektuak eta haien ezaugarriak hauteman. Ikusteak eta begiradak eragin handia dute harreman erotikotan.

ikusmen:

ES:	vista
FR:	vue, vision
EN:	sight

iz. Bost zentzumenetako bat. Begia da haren organoa; argia eta gauzen kolorea eta forma hauteman daitezke hari esker.

ile:

ES:	pelo, vello
FR:	poil
EN:	hair

iz. Keratinazko harizpi epidermikoa; ia gorputzeko azalera guztian hazten da. Epidermiseko folikulu espezializatu batean sortzen diren sustraia eta gorputza ditu.

iliako:

ES:	ilíaco
FR:	iliaque
EN:	iliac

izond. Ilionekoa, edo hari dagokiona.

immune:

ES:	inmune
FR:	immun
EN:	immune

izond. (Pertsona edo animalia bati buruz) Antigeno batekin kontaktua izan ondoren, harentzat espezifikoak diren antigorputzak eratzeko gaitasuna garatu duena; babes-egoera bati dagokio.

immunitario:

ES:	inmunitario
FR:	immunitaire
EN:	immune

izond. Immunitateari dagokiona.

immunitate:

ES:	inmunidad
FR:	immunité
EN:	immunity

iz. Erresistentzia-egoera, gaixotasun jakin baten aurrean. Gaixotasun horren eragile den mikroorganismoaren aurkako defentsak aldeztu aurretik garatzeko ahalmenari esker gertatzen da. Naturala edo txertoen bidez lortua izan daiteke.

immunizatu:

ES:	inmunizar
FR:	immuniser
EN:	immunise

ad. Immune egin.

immunizatzaile:

ES:	inmunizador, inmunizante
FR:	immunisant
EN:	immunising

iz. Immunizatze gaitasuna duena.

immunizazio:

ES:	inmunización
FR:	immunisation
EN:	immunisation

iz. Immune egiteko edo bihurtzeko prozesua.

immunodefizientzia:

ES:	inmunodeficiencia
FR:	immunodéficience
EN:	immunodeficiency

Ikus: immunoeskasia.

immunodepresibo:

ES:	immunodepresivo
FR:	immunodépressif
EN:	immunosuppressive

izond. Immunodepresoreei dagokiena.

immunodepresore:

ES: inmunodepresor

FR: immunodépresseur, immunosupprimeur

EN: immunosuppressive

izond. (Sendagaiei edo tratamenduei buruz) Organismo batek antígeno baten aurrean dituen immunitate-erreakzioak gutxitu edo desagerraraz ditzakeena.

immunoeskasia:

ES: inmunodeficiencia

FR: immunodéficience

EN: immunodeficiency

iz. Organismoaren immunitate-erreakzioak gutxituta ageri diren prozesua; infekzioak ohi baino errazago eta maizago gertatzea dakar.

immunogutxitzailer:

ES: inmunodepresor

FR: immunodépresseur, immunosupprimeur

EN: immunosuppressive

Ikus: immunodepresore.

immunologia:

ES: inmunología

FR: immunologie

EN: immunology

iz. Organismoaren immunitate-sistemako ehunek estimulazio antigenikoaren aurrean duten erreakzioa aztertzen duen zientzia.

immunologiko:

ES: inmunológico

FR: immunologique

EN: immunologic

izond. Immunologiari dagokiona.

immunologo:

ES: inmunólogo

FR: immunologiste

EN: immunologist

iz. Immunologian aditua den pertsona.

in vitro ernalketa:

ES: fecundación in vitro

FR: fécondation in vitro

EN: in vitro fertilisation

iz. Organismotik kanpo, ingurune egokian, egindako ernalketa. Lehen garapenaren ondoren, umetokian kokatzen da zigotoa.

in vitro ernalkuntza:

ES:	fecundación in vitro
FR:	fécondation in vitro
EN:	in vitro fertilisation

Ikus: in vitro ernalketa.

inbaginatu:

ES:	invaginar
FR:	invaginer
EN:	invaginate

ad. Hodi-barrunbe edo puxika baten ertzak edo paretak tolestu, eta barnealdera sarrarazi.

inbaginazio:

ES:	invaginación
FR:	invagination
EN:	invagination

iz. Errai huts bat barnealdera tolesteko eta ixteko prozesua; hesteetan gertatzen da batez ere.

inbertsio:

ES:	inversión
FR:	inversion
EN:	inversion

iz. Kromosomen egitura-aldaketa; haustura jasan duten bi kromosoma gurutzatzean gertatzen da.

inboluzio:

ES:	involución
FR:	involution
EN:	involution

1. *iz.* Enbriologian, garapen-prozesua. Zelula talde bat organo baten ertzean hazi, gero barnerantz joan, berriz organora itzuli, eta hodi bat eratzen da. 2. *iz.* Organo baten eta haren zelulen neurria murriztea ezaugarri duen prozesu normala. Esate baterako, erditu ondoren gertatzen den umetokiaren inboluzioa.

indar:

ES:	fuerza
FR:	force
EN:	force

1. *iz.* Zerbait egiteko edo zerbaitetan aritzeko gaitasun edo ahalmen fisikoa. 2. *iz.* Zerbaiten eragite-ahalmena, objektu edo gorputz materialen mugimendua edo forma aldatzeko. 3. *iz.* Erresistentzia, zerbaiti aurre egiteko ahalmena. 4. *iz.* Boterea, autoritatea.

indarberritu:

ES:	recuperar
FR:	récupérer
EN:	recuperate, recover <i>ad.</i> Indarra edo osasuna berreskuratatu.

indarberritze:

ES:	recuperación
FR:	récupération
EN:	recovery <i>iz.</i> Indarra edo osasuna berreskuratzea.

indargabetu:

ES:	decaer
FR:	atténuer, diminuer
EN:	decline <i>ad.</i> Zerbaitek edo norbaitek duen indarra, eragina, garrantzia nahiz balioa galdu.

indargabetze:

ES:	atenuación, decaimiento
FR:	atténuation, diminution
EN:	decline 1. <i>iz.</i> Zerbaitekin ekintza edo intentsitatea murriztea; birus edo mikroorganismoen toxizitatea, batez ere. 2. <i>iz.</i> Beherakada, endekapena.

indargarri:

ES:	reconstituyente
FR:	réparatrice
EN:	restorative

Ikus: suspergarri.

indize:

ES:	índice
FR:	indice, index
EN:	index, forefinger <i>iz.</i> Bi kopururen arteko harreman konstantea.

inerbatu:

ES:	inervar
FR:	innerver
EN:	innervate <i>ad.</i> Nerbio batek gorputzaren gunek bat nerbio-estimuluz hornitu.

inervazio:

ES: inervación

FR: innervation

EN: innervation

iz. Nerbioen nahiz nerbio-energiaren banaketa, organo, eremu edo atal batean.

infektatu:

ES: infectar

FR: infecter

EN: infect

Ikus: gaizkoatu.

infekzio:

ES: infección

FR: infection

EN: infection

iz. Mikroorganismoek kutsatzearen eragina; zauri nahiz zaldar batek zornea eratzea edo jariatzea.

infekzioso:

ES: infeccioso

FR: infectieux

EN: infectious

1. *izond.* Infekzio batek eragindakoa. 2. *izond.* Infekzio bat eragin dezakeena. 3. *izond.* Infekzioari dagokiona.

infibulazio:

ES: infibulación

FR: infibulation

EN: infibulation

iz. Baginako ezpainak ixtearren ezarritako eraztun bat edo beste oztoporen bat, koittoa eragozteko.

Ikus: ablazio.

inflamatorio:

ES: inflamatorio

FR: inflammatoire

EN: inflammatory

izond. Inflamazioari dagokiona. Hanturazkoa.

inflamazio:

ES:	inflamación
FR:	inflammation
EN:	inflammation

Ikus: hantura.

ingestio:

ES:	ingestión
FR:	ingestion
EN:	ingestion

iz. Ahotik gai bat hartzea.

inguru:

ES:	proximidad, ambiente
FR:	proximité
EN:	proximity

iz. Zerbaiten edo norbaiten hurbileko guneen multzoa.

ingurumen:

ES:	medio ambiente
FR:	environnement
EN:	environment

iz. Izaki bizidunak sortzen eta garatzen diren leku, egoera eta baldintza fisiko-kimikoak.

inhalatu:

ES:	inhalar
FR:	inhaler
EN:	inhale

ad. Gasak, isurkariak, hauts bihurtutako gaiak, sendabide lurrunkorrak, eta abar, arnasgorakoan hartu.

inhibitu:

ES:	inhibir
FR:	inhiber
EN:	inhibit

ad. Organismoaren funtzioa edo jarduera moteldu, estimulu egoki baten bidez.

inhibitzaile

ES:	inhibidor
FR:	inhibiteur
EN:	inhibitor

izond. Erreakzio kimiko bat nahiz prozesu bat geldiarazten edo moteltzen duena.

inhibizio sexual:

ES:	inhibición
FR:	inhibition
EN:	inhibition

Ikus: sexu-inhibizio.

injektagarri:

ES:	inyectable
FR:	injectable
EN:	injectable

izond. (Gai bati buruz) Injektatzeko prestatuta dagoena.

injektatu:

ES:	inyectar
FR:	injecter
EN:	inject

ad. Likido edo gas bat gorputzean sartu, presio baxuarekin eta tresna egokien bidez, xiringaz eskuarki.

injekzio:

ES:	inyección
FR:	injection
EN:	injection

1. *iz.* Likido nahiz gas bat zuzenean gorputzeko ehunetan edo odolean sartzea, xiringa baten bidez. 2. *iz.* Injektatzen den isurkaria.

injekzio hipodermiko:

ES:	inyección hipodérmica, inyección subcutánea
FR:	injection hypodermique
EN:	hypodermic injection

sint. er. Prestakin sendagarri baten edo serumaren injekzioa, larruazalpeko ehunean. Oro har, besoaren goialdean, izterrean edo sabelaldean jartzen da.

injekzio intramuskular:

ES:	inyección intramuscular
FR:	injection intramusculaire
EN:	intramuscular injection

Ikus: muskulu barneko injekzio.

inkontziente:

ES:	inconsciente
FR:	inconscient
EN:	unconscious

iz. Psikiatريان, adimen-funtzioen atala; hartan, kontzientziatik at daude pentsamendu, ideia, emozio edo oroitzapenak, eta ezin dira une jakin batean gogoratu.

inkubagailu:

ES:	incubadora
FR:	incubateur
EN:	incubator

iz. Giro kontrolatua –bereziki, tenperatura jakin bat– sortzeko erabiltzen den tresna. Jaioberri goiztiarren zainketarako erabiltzen da.

inkubatu:

ES:	incubar
FR:	incuber
EN:	incubate

ad. Inkubazioa egin.

inkubazio:

ES:	incubación
FR:	incubation
EN:	incubation

iz. Gaixotasun infekzioso bat kutsatu denetik lehenengo sintomak azaleratzen diren arteko aldia.

inplantatze:

ES:	implantación
FR:	implantation
EN:	implantation

iz. Ernaldutako obulua umetokiko mukosan egokitzea. Koito osteko pilularen funtzioetako bat da ernaldutako obulua inplantatzea eragozte.

inpotente:

ES:	impotente
FR:	impuissant
EN:	impuissant, impotent

izond. Inpotentzia duena.

inpotentzia:

ES:	impotencia
FR:	impuissance
EN:	impotence

iz. Sexu-harremanetarako ezintasuna. Zakila tentetzeko nahiz tente mantentzeko edo hazia isurtzeko ezintasunari deitu izan zaio hala. Badira zenbait inpotentzia mota:

- Impotentia coeundi: koitoa egiteko ezintasuna.
- Impotentia erigendi: zakila tentetzeko ezintasuna.
- Impotentia generandi: ernaltzeko ezintasuna, antzutasunaren sinonimoa.
- Inpotentzia anatomikoa: ugal-organoen akats fisikoen ondorioa.
- Inpotentzia atonikoa: funtzio neuromuskularraren asaldu baten ondorioa.
- Ezintasun funtzionala: oinarri psikologikoa duena.

inpronta:

ES:	impronta
FR:	empreinte
EN:	print

iz. Ikasbide biologikoa; garapenaren aldi kritikoan izandako bizipen zehatz baten ondorioz, estimulu jakin bati aldi kritiko hartan eman zitzaion erantzun bera ematen zaio geroan ere.

interakzio:

ES:	interacción
FR:	interaction
EN:	interaction

iz. Sistema bateko bi elementuren arteko harremana; harreman horren ondorioz, bi elementu horietako bakoitzaren jarduera beste elementuaren jarduerak baldintzatzen du.

Ikus: eragin-truke.

interferon:

ES:	interferón
FR:	interféron
EN:	interferon

iz. Proteina zelular naturala; zelula birus baten edo azido nukleikozko gorputz baten aurrean dagoenean eratzen da. Beste zeluletara zabalduta ondoren, galarazi egiten du birus bera nahiz bestelakoak zeluletan sartzea eta ugaltzea.

Oharrak: Gamma-interferona erabiltzen da C hepatitisaren tratamenduan.

Internet (bidezko) harremana:

ES:	relación por Internet
FR:	relation internet
EN:	internet relationship

sint. er. Internetek eskaintzen dituen komunikazio-tresnak erabiliz (idatzizkoak edo ikus-entzunezkoak), giza harremanak sortu edo izatea. Pertsona batzuei errazagoa gertatzen zaie Internet bidez harremanak izatea besteekin.

intersexualitate:

ES:	intersexualidad
FR:	intersexualité
EN:	intersexuality

iz. Pertsona berean gizonezkoen eta emakumezkoen ezaugarriak aurkitzea.

Oro har, gizon eta emakume oro intersexualtzat jo daiteke, maskulinitatea eta feminitatea polo banatan duen continuum batean koka baikenezake gizon bakoitza eta emakumea bakoitza.

intimitate:

ES:	intimidad
FR:	intimité
EN:	intimacy

iz. Norbanakoaren harreman-esperientzia; norberak bere burua konfiantza osoz erakusten du, eta beste batekin intimitatean dagoenean ere hark modu berean jokatzeari espero du, erakutsitakoa onartuz eta kontra egiteko erabili gabe. Esperientzia bizia da, gogo betekoa, noizbehinkakoa eta mugatua. Intimitate-mailak erakusten du, hein batean, giza harremanen kalitatea.

intolerante:

ES:	intolerante
FR:	intolérant
EN:	intolerant

izond. Intolerantzia jokatzeko duena.

intolerantzia:

ES:	intolerancia
FR:	intolérance
EN:	intolerance

1. *iz.* Elikagaiak nahiz sendagaiak xurgatzeko edo metabolizatzeko ezintasuna. 2. *iz.* Besteak ez onartzea, desberdinak direlako edo norberak espero duenarekin bat ez datozelako.

intoxikatu:

ES:	intoxicar
FR:	intoxiquer
EN:	poison

ad. Gai toxikoak sartu edo metatu organismo bizidun batean, kalte egiteko adinako kantitatean.

intoxikazio:

ES:	intoxicación
FR:	intoxication
EN:	intoxication

iz. Egoera patologikoa, barne- edo kanpo-jarioko toxiko baten xurgapen jarraituak eragina.

introitus:

ES:	introitus
FR:	introitus
EN:	introitus

iz. Bagina irekitzen den gunea.

introjekzio:

ES: introyección

FR: introjection

EN: introjection

iz. Prozesu psikiko inkontzientea; beste norbaiten edo zerbaiten ezaugarriak barneratzen dira konturatu gabe.

introspekzio:

ES: introspección

FR: introspection

EN: introspection

iz. Nork bere barrua aztertzeko ekintza, pentsamenduei eta sentimenduei dagokienez.

intrusio-eraginkortasuna:

ES: eficacia intrusiva

FR: efficacité intrusive

EN: intrusive effectiveness

iz. Gizabanako batek hurrengo belaunaldietan uzten duen arrasto genetikoa; gizabanakoaren eta haren ahaideen ugai-eraginkortasunaren araberakoa da.

intseminatu:

ES: inseminar

FR: inséminer

EN: inseminate

ad. Hazia baginan sartu, koitoaren bitartez edo metodo artifizialen bidez.

intseminazio:

ES: inseminación

FR: insémination

EN: insemination

iz. Arraren hazia emearen bide genitalean barneratzea, obuluaren ernalketa lortzeko.

intseminazio artifizial:

ES: inseminación artificial

FR: insémination artificielle

EN: artificial insemination

sint. er. Haurdunaldia eragiteko-teknika; arrarengandik aurrez hartutako hazia – sexu-harremanik izan gabe– emearen bide genitalean barneratu, eta emearen ernalketa ahalbidetzen du. Tresna mekanikoen bidez egiten da.

intzestu:

ES: incesto

FR: inceste

EN: incest

iz. Senidetasun biologikoa nahiz familia-loturak dituzten pertsonen arteko harreman erotikoa. Intzestua tabu da, eta debeku unibertsala dirudi.

inude:

ES:	nodriza, madre de leche
FR:	nourrice
EN:	wet nurse

iz. Beste baten haurra eradoskitzen duen emakumea.

ipurdi:

ES:	trasero, culo
FR:	cul
EN:	ass, bottom

iz. Bizkarraren bukaeraren eta izterren hasieraren arteko zatia; uzkia inguratzen duen alde mamitsua da. Gorputzeko eremu erogenoetako bat da ipurdia, eta erakarpen-eragile garrantzitsua ere izan daiteke.

ipurmasail:

ES:	nalga
FR:	fesse
EN:	buttock

iz. Bizkarraren beheko aldean dauden bi masa haragitsuetariko bakoitza. Gantzez eta gluteo-giharrez eratuak daude.

ipurmasaileko gihar:

ES:	músculo glúteo
FR:	muscle fessier
EN:	muscle gluteus

sint. er. Ipurmasaileko hiru giharretariko bakoitza.

Ikus: gluteo.

iragankor:

ES:	transitorio
FR:	transitoire
EN:	transient

izond. Iraupen laburrekoa; aldi baterako dena.

iragarri:

ES:	pronosticar
FR:	pronostiquer
EN:	prognosticate

ad. Zerbait aurrez ikusi edo adierazi, gertakarietan nahiz zantzuetan oinarrituz. Bestearen zenbait zantzuk adieraz dezakete harreman erotikorako prest dagoenetz. Zantzu horietako askoren eragina inkontzientea da; feromonen eragina, adibidez.

irailaren 15a:

ES:	15 de septiembre
FR:	15 septembre
EN:	5th September

sint. er. Prostataren Osasunaren Europar Eguna

irailaren 23a:

ES:	23 de septiembre
FR:	23 septembre
EN:	23rd September

iz. Emakumeen Esplotazio eta Salerostearen kontrako Nazioarteko Eguna.

irailaren 28a:

ES:	28 de septiembre
FR:	28 septembre
EN:	28th September

sint. er. Latinoamerikan eta Kariben Abortua Zigortzearen Aurkako Eguna.

iraultza sexual:

ES:	revolución sexual
FR:	révolution sexuelle
EN:	sexual revolution

Ikus: sexu-iraultza.

iraun:

ES:	pervivir
FR:	survivre, persévérer
EN:	live on, persist, survive

ad. Bizitzen jarraitu, oztopoak gaindituz.

iraunkor:

ES:	persistente
FR:	persistant
EN:	persistent

izond. Behin eta berriz agertzen dena, edo desagertzen ez dena; esate baterako, joaten ez den mina, behin eta berriz agertzen den sintoma, eta abar, iraunkorrak dira.

iren:

ES:	castrado
FR:	châtré
EN:	castrated

izond. (Gizonezkoei buruz) Ugal-organoak erauzi dizkiotena.

irendu:

ES:	castrar, capar
FR:	châtrer, castrer
EN:	castrate

ad. (Gizonezkoei buruz) ugal-organoak erauzi.

Ikus: iren, zikiratu.

irentzaile:

ES:	castrador, castrante
FR:	hongreur
EN:	castrator

izond. Irentzen duena.

irentze:

ES:	castración
FR:	castration
EN:	castration

1. *iz.* (Psikologiaren arloan) Gainetik dagoen edo jartzen den nortasun batek (guraso bat, arduradun bat) mendean duenaren nortasunaren zenbait alde deuseztatzea edo baliogabetzea. 2. *iz.* Ugal-organoak erauztea, hala gizonaren barrabilak nola emakumearen obulutegiak. Batez ere zenbait hormonaren ekoizpena eta jariora murrizteko egiten da, emakumeen bularreko minbizia edo gizonen prostatakia saihesteko.

Ikus: zikiratze, antzutze kirurgiko.

irentze-konplexu:

ES:	complejo de castración
FR:	complexe de castration
EN:	castration complex

iz. Gorputzaren zati bat galtzeko beldurra, batik bat zakila. Sinbolikoki, emozio- eta sentipen-sistema konplexu bat da; zakila galtzeko beldurra haurtzaroko larritasun batekin loturik dago, intzestu-grinak edo masturbazioak eragindako erruduntasunagatik. Norberaren sexua onartzearen araberakoa ere bada; nortasun orok dituen alde emeak patologikoki bereganatzeak irentze-konplexuren bat ekar dezake.

Ikus: kastrazio-konplexu.

irrigatu:

ES:	irrigar
FR:	irriguer
EN:	irrigate

1. *ad.* Odol-hodiek odola organismoaren ehunetara eramane. 2. *ad.* Gorputz-barrunbe bat edo zauri bat garbitu.

irrigazio:

ES:	irrigación
FR:	irrigation
EN:	irrigation

1. *iz.* Odol-hodiek odola organismoaren ehunetara eramatea. 2. *iz.* Gorputz-barrunbe bat edo zauri bat garbitzeko egiten den ekintza; helburu terapeutikoa du. Ura nahiz sendagai likidoak erabil daitezke horretarako.

irrits:

ES:	concupiscencia
FR:	concupiscence
EN:	concupiscence

iz. Sexu-plazeraren irrika bizia.

Ikus: sexu-grina.

irten:

ES:	protuberante, prominente
FR:	protubérant
EN:	protuberant

izond. Ingurukoak baino kanporago dagoena.

irtengune:

ES:	abultamiento, prominencia, protuberancia
FR:	renflement
EN:	protuberance, prominence

iz. Koskorra; tumore batek nahiz gantz-pilaketa batek sortua izan daiteke, edo kolpe baten ondorioz gorputzeko gune batean egiten den handitu gogorra, besteak beste.

istripu:

ES:	accidente
FR:	accident
EN:	accident, attack

iz. Ustekabeko gertaera; heriotza edo lesioak ekar ditzake. Eragilea gorputzetik kanpokoan izan daiteke (auto-istripuak, lan-istripuak, eta abar) edo gorputzaren barrukoa (garuneko hodietako istripua, adibidez)

isuraldatze:

ES:	transfusión
FR:	transfusion
EN:	transfusion

Ikus: transfusio.

isuri:

ES:	emanar, eyacular
FR:	émaner, éjaculer
EN:	emanate, ejaculate

ad. Organo baten barrunbe edo xixku batetik kanporatu; indarrez eta bizkor gertatzen da gizonaren haziaren kasuan.

Ikus: eiakulatu.

isurtze:

ES:	eyaculación
FR:	éjaculation
EN:	ejaculation

Ikus: eiakulazio.

itaun sorta:

ES:	cuestionario
FR:	questionnaire
EN:	questionnaire

Ikus: galdetegia.

itobehar(-sentsazio):

ES:	sensación de ahogo
FR:	essoufflement
EN:	breathlessness

Ikus: itomen.

itogarri:

ES:	sofocador, sofocante
FR:	suffocant
EN:	suffocant

izond. Arnasketa eragozten duena, itotzen duena; esate baterako, anginak edo bronkio-katarroak itogarriak izan daitezke.

itolarra eragin:

ES:	axfisiar
FR:	asphyxier
EN:	suffocate

ad. Itomena eragin; norbaiten arnasketa eragotzi. Helburu erotikoak izan ditzake.

itomen:

ES:	sofocación, ahogo
FR:	suffocation, étouffement
EN:	suffocation

iz. Arnasa hartzeko zailtasuna; arnasbideen buxadurak edo ingurune itxietan egoteak eragin ohi du.

itsutasun:

ES:	ceguera
FR:	cécité
EN:	blindness

iz. Ikusmenaren galera edo ikusmenik eza; sortzetikoa nahiz hartutakoa izan daiteke. Maitasunari dagokionez, maitatuaren akatsak, jokaera eta jarrera desleial, negatibo edo suntsigarriak ez hautemateari ere esaten zaio.

itsutu:

ES:	cegar
FR:	aveugler
EN:	blind

1. *ad.* Ikusmena galdu, edo itsu utzi. 2. *ad.* Zerbaitetan erabat tematu; amodio-harreman batean, esate baterako.

itun:

ES:	alianza
FR:	alliance
EN:	alliance

iz. Bi pertsona edo gehiago elkartzean datzan ekintza.

itxura:

ES:	aspecto
FR:	apparence
EN:	appearance

iz. Pertsona edo objektu baten irudia edo fisionomia. Itxurak eragin handia du harreman erotikoetan.

itzulezin:

ES:	irreversible
FR:	irréversible
EN:	irreversible

izond. (Egoerei, ebakuntzei edo gaixotasunei buruz) Atzera itzul ezin daitekeena. Esate baterako, tronpen lotura.

izaera:

ES:	temperamento
FR:	tempérament
EN:	temperament

iz. Gizaki baten osaera, ezaugarri fisiologikoen eta psikikoen multzoa.

izerdi:

ES:	sudor, perspiración, transpiración
FR:	sueur
EN:	sweat, perspiration

iz. Larruazal osoan zehar zabaldutako guri berezi batzuek jariatzen duten likido urtsu eta gazia, gorputzaren tenperatura kontrolatzeko nahiz substantzia toxikoak kanporatzeko eta azala babesteko funtzioa duena. Harreman erotikoetan ohikoa da izerditzea.

izerdi-:

ES:	sudoríparo
FR:	sudoripare
EN:	sudoriferous, sweat (Hitz elkartuetan) Izerdia jariatzen duena, izerdiari dagokiona.

izerdi-guruin:

ES:	glándula sudorípara
FR:	glande sudoripare
EN:	sweat gland iz. Larruazaleko guruinak; glomerulu eran bildutako hodi batez eraturik daude. Dermisean daude, eta izerdia jariatzen dute. Izerdi-guruin bakoitza tutu bakarrak eratua dago; tutu horrek bi zati ditu: dermis sakonean dagoen gorputz biribilkatua eta azalean irekitzen den hodi zuzena.

izerditsu:

ES:	sudoroso
FR:	en sueur
EN:	sweaty <i>izond.</i> Izerdiz blai dagoena; izerbera, izerdikorra.

izerditu:

ES:	sudar, transpirar
FR:	suer, transpirer
EN:	sweat, perspire <i>ad.</i> Izerdia bota, izerditan egon.

iztai:

ES:	ingle
FR:	aïne
EN:	groin, inguen

Ikus: iztarte.

iztarte:

ES:	ingle
FR:	aïne
EN:	groin, inguen <i>iz.</i> Sabelaldea eta izterra elkartzen diren guneeetarik bakoitza.

iztarte-:

ES:	inguinal
FR:	inguinal
EN:	inguinal (Hitz elkartuetan)

Ikus: iztarteko.

iztarteko:

ES:	inguinal
FR:	inguinal
EN:	inguinal

izlag. Iztaikoa, edo hari dagokiona.

izter:

ES:	muslo
FR:	cuisse
EN:	thigh

iz. Beheko gorputz-adarraren goiko atala, aldakaren eta belaunaren artekoa. Gune erotikoa da.

izter-:

ES:	femoral
FR:	fémoral
EN:	femoral

(Hitz elkartuetan) Izterrari dagokiona.

izter arteko koito:

ES:	coito interfemoral
FR:	coït interfémorale
EN:	interfemoral coitus

sint. er. Zakila sexukidearen izterren artean sartzea eta igurztea.
Plazera lortzeaz gain, haurdunaldia eta sexu bidezko infekzioak saihestea izan daitezke jokabide horren helburua.

iztondo:

ES:	ingle
FR:	aine
EN:	groin, inguen

Ikus: iztai, iztarte.



jaio:

ES:	nacer
FR:	naître
EN:	born
	<i>ad.</i> Mundura etorri, amaren umetokitik irten.

jaio aurreko:

ES:	prenatal
FR:	prénatal
EN:	prenatal
	1. <i>izlag.</i> Haurdunaldian zehar, emakumearen zainketei nahiz umekiaren hazkuntzari eta garapenari dagokiona. 2. <i>izlag.</i> Jaiotza aurretik dagoena edo gertatzen dena.

jaio aurretiko sexu-hautatze:

ES:	selección prenatal del sexo
FR:	sélection prénatale du sexe
EN:	prenatal sex selection
	<i>sint. er.</i> Umekiaren sexua jakin ondoren, haurdunaldia eteteko erabakia hartzea. Semeak (eta ez alabak) izatea nahiago duten gizarteetan egiten da eskuarki.

jaioberri:

ES:	recién nacido, neonato
FR:	nouveau-né
EN:	newborn
	<i>izond.</i> (Hurrei buruz) Jaiotzatik lau asterainokoa.

jaioberriko:

ES:	neonatal
FR:	néonatal
EN:	neonatal
	<i>Ikus:</i> neonatal.

jaiotza:

ES:	nacimiento
FR:	naissance
EN:	birth
	<i>iz.</i> Izaki berri baten etorrera, amaren umetokitik irtenda.

Jaiotza Eskubideen eta Begirunezko Erditzearen Munduko

Eguna:

ES:	Día Mundial por los Derechos del Nacimiento y el Parto Respetado
FR:	Journée Mondiale pour les Droits de la Nativité et de l'Accouchement Respecté
EN:	World Day for the Rights of the Nativity and Respected Childbirth <i>sint. er.</i> Ekainaren 7an ospatu ohi da.

jaio ondoko:

ES:	posnatal
FR:	postnatal
EN:	postnatal <i>izlag.</i> Jaio ondoren gertatzen dena.

jaio osteko:

ES:	posnatal
FR:	postnatal
EN:	postnatal

Ikus: jaiotza ondoko.

jaiotza-kontrol:

ES:	control de la natalidad
FR:	limitation des naissances
EN:	birth control <i>iz.</i> Haurdunaldia saihesteko tekniken multzoa.

jaiotzatiko:

ES:	innato
FR:	inné
EN:	innate 1. <i>izlag.</i> (Jaiotzatiko gaitza) Gorputzaren egiturako edo funtzioaren bateko akatsa, jaiotzean ere badena. 2. <i>izlag.</i> Pertsona jaiotzearekin batera sortzen dena; jaiotza-une beretik edo lehenagotik badena; hartua ez dena. 3. (Portaerari buruz) Estimulu jakin baten aurrean espezie bateko banako guztiek edo gehienek izan ohi duten jokabidea, estimulu hori jasotzen den lehen aldia izan edo ez izan.

jakinaren gaineko hautu:

ES:	elección informada
FR:	choix éclairé
EN:	informed choice <i>iz.</i> Kontrazepzio-metodo bat erabiltzeko nahiz sexu- eta ugal-osasuneko zerbitzu bat onartzeko borondatezko erabakia. Metodoek zein zerbitzuek dituzten aukeren, arriskuen, abantailen eta desabantailen inguruko informazioa jaso ondoren egiten da hautu hori.

jan:

ES:	comer
FR:	manger
EN:	eat

ad. Elikagai bat hartu, murtzikatu eta irentsi.

jangai:

ES:	comestible
FR:	comestible
EN:	edible

iz. Jateko balio dezakeen gai oro.

jangurarik ez:

ES:	inapetencia
FR:	inappetence
EN:	inappetence

sint. er. Jateko gogorik eza.

Ikus: anorexia.

japoniar:

ES:	japonés
FR:	japonais
EN:	Japanese

izond. Lurrean eginiko koittoa, edo kuxinen gainean, makurturiko jarrera ugaritan.

jaraunsgarri:

ES:	heredable
FR:	héréditaire
EN:	inheritable

Ikus: heredagarri.

jarauntsi:

ES:	heredar, heredado
FR:	hériter, hérité
EN:	inherit, inherited

Ikus: heredatu.

jardun:

ES:	actuar, actividad
FR:	agir, tâche
EN:	do, activity

1. *ad.* Pertsona edo talde batek ekintza multzo bat egin. 2. *iz.* Pertsona edo talde bati dagokion ekintzen multzoa.

jariakin:

ES: secreción

FR: sécrétion

EN: secretion

iz. Guruin-organoetako zelulek ekoitzitako gai kimikoa.

jariakor:

ES: fluido

FR: fluide

EN: fluid

izond. Jariakortasuna duena.

jariakortasun:

ES: fluidez

FR: fluidité

EN: fluidity

iz. Magnitudea; isurkari bateko partikulek beren artean labaintzeko duten erraztasuna azaltzen du.

jariatu:

ES: segregar

FR: sécréter

EN: secrete

ad. Guruinek nahiz zelulek ekoitziriko gai bat iraitzi barrunbe, hodi, organo edo larruazalera.

jariatzaile:

ES: secretor, -a, secretorio

FR: sécréteur

EN: secretor, secretory

izond. Jariatzeko gaitasuna duena.

jariatze:

ES: secreción

FR: sécrétion

EN: secretion

iz. Guruin-organoetako zelulek ekoizten dituzten gai kimikoak askatzea.

jario:

ES: secreción

FR: sécrétion

EN: secretion

iz. Barrunbe batetik kanpora irtendako isurkaria edo gasa.

jarioa izan:

ES:	segregar, chorrear
FR:	sécréter
EN:	secrete

Ikus: jariatu.

jarraibide:

ES:	procedimiento
FR:	procédure
EN:	procedure

Ikus: prozedura.

jarraipen:

ES:	seguimiento
FR:	suivi
EN:	follow-up

iz. Informazio-iturriekin kontaktua berritzeko eta beharrezkoak diren datuak berrikusteko ekintza; aurretiko txostena nahiz ekintza balioesteko edo sendotzeko egiten da; esate baterako, diagnostiko baten edo aurreko pronostiko baten berrazterketa.

jarrera:

ES:	actitud
FR:	attitude
EN:	attitude

1. iz. Gorputzaren kokaera. 2. iz. Pertsonak zerbaiti edo norbaiti erantzuteko duen joera.

jarrera erotikoa:

ES:	postura erótica, actitud erótica
FR:	position érotique
EN:	erotic pose

sint. er. Beste pertsonengan desira piztu dezakeen jarrera, keinua nahiz portaera.

jarri:

ES:	exponer
FR:	exposer
EN:	expose

ad. Zerbit kokatu eragile baten ekintza jasan dezan.

jatorri:

ES:	proveniencia, procedencia
FR:	provenance
EN:	provenance

iz. Zerbit hasten den denbora edo ingurunea.

jatorrizko:

ES:	primigenio, original
FR:	primitif, original
EN:	primeval, original <i>izlag.</i> Hasierakoa, sortzetikoa.

jelos:

ES:	celoso
FR:	jaloux
EN:	jealous

Ikus: jeloskor.

jelosia:

ES:	celos
FR:	jalousie
EN:	jealousy

iz. Gizabanakoa erne jarrazten duen sentipen larria, maitearen desleialtasuna susmatzeak eragina, balio handiko harreman bat mehatxaturik ikusten duelako edo duintasuna laidoztaturik gera dakioketelako. Egiazko kausaren bat izan dezake jelosiak, baina oinarririk gabeko obsesioa ere izan daiteke, autoestimua gutxiko pertsonetan batik bat.

jeloskor:

ES:	celoso
FR:	jaloux
EN:	jealous <i>izond.</i> Jelosia duena.

jipoitu:

ES:	golpear, dar una paliza
FR:	battre, rosser
EN:	hit, beat <i>ad.</i> Behin eta berriz jo.

Ikus: dasta.

jokabide:

ES:	conducta
FR:	conduite, comportement
EN:	conduct, behaviour

iz. Pertsona baten jarduera bat edo guztiak. Zuzenean ikus daitezkeen ekintza fisikoak eta gogamenaren jarduera –ondorioztatua eta interpretatua– biltzen ditu.

jokabide erotiko:

ES:	conducta erótica
FR:	comportement érotique
EN:	erotic behaviour <i>sint. er.</i> Beste pertsonengan desira pitz dezaketen portaeren multzoa.

jokaera:

ES:	conducta
FR:	conduite, comportement
EN:	conduct, behaviour

Ikus: jokabide.

joko erotiko:

ES:	juego erótico
FR:	jeu érotique
EN:	erotic play <i>sint. er.</i> Izaera ludikoa duten jarduera erotikoak adierazteko esapidea. Sexualitatea plazertzat hartzen du, eta irudimena eta bat-batekotasuna ditu ezaugarri.

jolas erotiko:

ES:	juego erótico
FR:	jeu érotique
EN:	erotic play <i>sint. er.</i> Jolas kitzikagarri erotikoa, bakarka edo lagunarekin/lagunekin egina.

jostailu erotiko:

ES:	juguete erótico
FR:	jouet érotique
EN:	erotic toy <i>sint. er.</i> Jolas erotikoa erabiltzen den objektua.

jostalagun:

ES:	amante
FR:	amant
EN:	lover <i>iz.</i> Jolas erotikorako laguna. Maitalea.

Ikus: maitale.

jus primae noctis:

ES:	jus primae noctis
FR:	jus primae noctis
EN:	jus primae noctis <i>sint. er.</i> Lehen gaueko eskubide feudala. Garai batean, jaun feudalak bere mendeko ezkongaeiekin lehen gauean oheratzeko eskubidea.



k hautespen:

ES:	selección k
FR:	sélection k
EN:	k selection

iz. Seme-alaba gutxi eta guraso-zaintza handia ezaugarri dituen hautespena.

kafeina:

ES:	cafeína
FR:	caféine
EN:	caffeine

iz. Kafearen alkaloidea; tean eta kolan ere agertzen da. Nerbio-sistema zentrala pizten du, eragin diuretikoa du eta ehunak zahartzea atzeratzen du. Kafearen inguruan harremana errazten da, eta lehen kontakturako bidea zabaltzen dezake.

kaka egin:

ES:	deponer, cagar, evacuar, defecar
FR:	déféquer, chier
EN:	defecate, shit

ad. Sabela hustu, gorozkia uzkitik kanporatuz. Helburu erotikoa izan dezake.

kalipedia:

ES:	calipedia
FR:	calipedia
EN:	calipedia

iz. Ume ederrak sortzeko arte kimerikoa.

kalte:

ES:	daño
FR:	dommage, lésion
EN:	damage

iz. Sentsazio desatsegina gorputzeko gunen batean; kolpeen, ebakien, zaurien, eta abarren ondorioz nahiz organismoaren funtzionamenduan oreka galtzearen edo bestelako arazoren baten ondorioz gertatzen da.

kalte egin:

ES:	dañar
FR:	endommager, léser
EN:	damage

ad. sint. 1. Min-sentsazioa eragin. 2. *ad. sint.* Desoreka edo galera bat eragin organismoaren atal nahiz funtzio batean.

kaltegabe:

ES:	innocuo, inocuo
FR:	inoffensif
EN:	innocuous

izond. Kalterik edo gaitzik eragiten ez duena.

kaltegarri:

ES:	dañino, perjudicial
FR:	nuisible
EN:	harmful, destructive

1. *izond.* Kalte egin dezakeena. 2. *izond.* Osasunerako ona ez dena.

kalterako:

ES:	dañino, perjudicial
FR:	nuisible
EN:	harmful, destructive

Ikus: kaltegarri.

kaltetu:

ES:	damnificado
FR:	endommagé, lésé
EN:	damaged, injured

izond. Kaltea jasan duena.

Ikus: biktima.

Kama-Sutra

ES:	Kama-Sutra
FR:	Kama-Sutra
EN:	Kama-Sutra

iz. Erotismoari buruzko liburua. IV. eta VII. mendeen artean bildu zen Indian.

kanal:

ES:	canal
FR:	canal
EN:	channel

iz. Hodi-formako egitura; luzera aldakorra du. Haren funtzioen artean daude odol-hodien edo nerbioen pasagune izatea eta materia organikoak isurtzea.

kandida:

ES: cándida

FR: candida

EN: candida

iz. Onddo mota; harizpi-itxurako legamia antzeko zelula da, naturan oso zabaldua. Patogeno bihurtzen da egoera fisiologiko eta psikologiko batzuetan.

Larruazaleko eta mukosetako hainbat gaixotasunen –adibidez, baginitisa– eragile da *Candida albicans* espeziea.

kandidiasi:

ES: candidiasis

FR: candidose

EN: candidiasis

iz. Baginako infekzioa; kandidatek eragiten dute, eta objektu, arropa edo harreman intimoen bidez kutsa daiteke. Haren sintomak dira: baginako jariakin ugaria, zurikara eta lodia, eta bulbako azkura handia.

kanpaia jo:

ES: paja, hacerse una

FR: se branler

EN: wank, wank off

ad. adkor. Masturbatu, gizonezkoetan.

Ikus: idiarena jo.

kanpo-genitalak:

ES: genitales externos

FR: organes génitaux externes

EN: external genitalia

iz. Begi-bistan dauden eta ugalketan laguntzen duten organoak.

kanpoko:

ES: exterior, externo

FR: extérieur

EN: exterior, outer, external

izlag. Gorputzaren edo organo baten kanpoaldean dagoena. Kanpoaldetik eragiten duena.

kanporakoi:

ES: extravertido, extrovertido

FR: extraverti, extroverti

EN: extravert, extrovert

izond. (Pertsonen izaerari buruz) Ingurukoengana zabaltzeko joera duena.

kanporakoitasun:

ES: extraversión, extroversión

FR: extraversion

EN: extroversion

iz. Nortasun-ezaugarria; norberaren interesak, pentsamenduak eta indarrak kanporantz bideratzeko joera.

kanporatu:

ES: expulsar

FR: expulser

EN: eject

ad. Kanpora bota.

kanporatze:

ES: expulsión

FR: expulsion

EN: expulsion

iz. Edukia –normala zein patologikoa– organo edo hodi batetik kanpora botatzea, azken horien uzskurtze-gaitasunaren laguntzaz.

kapsula:

ES: cápsula

FR: capsule

EN: capsule

1. *iz.* Zenbait sendagairen estalki disolbagarria. 2. *iz.* Organo bat –giltzurruna, gibela, pankrea, eta abar– edo masa likatsu bat inguratzen duen estalkia, zuntzekoa nahiz mintzekoa.

karaktere sexual:

ES: caracteres sexuales

FR: caractères sexuels

EN: sexual characters

Ikus: sexu-ezaugarri.

karen:

ES: placenta

FR: placenta

EN: placenta

Ikus: plazenta.

karentze:

ES:	placentación
FR:	placentation
EN:	placentation

Ikus: plazentazio.

kariotipo:

ES:	cariotipo
FR:	caryotype
EN:	karyotype

iz. Banako nahiz espezie baten kromosoma multzoa.

karraskatu:

ES:	mordisquear
FR:	grignoter
EN:	nibble

ad. Hozkada txikiz zati txikika hozkatu.

kastitate:

ES:	castidad
FR:	chasteté
EN:	chastity

iz. Esperientzia erotikoa alde batera uztean oinarritzen den balio morala. Jatorri soziokulturala du, eta garrantzi handiagoa edo txikiagoa izan ohi du erlijio-sinesmenen nahiz gizarte bakoitzeko arauen arabera. Batzuetan, ezkontzaz kanpoko harreman erotikoa baztertzeko dira soilik; beste batzuetan, berriz, sexu-harreman oro, baita pentsamendu erotikoa ere.

Oharrak: Tradizionalki, emakumeen kastitatea himenaren haustura ezak ziurtatzen zuela sinetsi izan da. Himena osorik edo urratuta egoteak ez du nahitaez zerikusirik bagina-sarketarekin. Gainera, koitoa ez ezik beste hainbat jokabide erotikoa ere izan daitezke. Egun, kastitatea ez da lehen bezain balioetsia, oro har.

kastitate-boto:

ES:	voto de castidad
FR:	vœu de chasteté
EN:	vow of chastity

iz. Plazer sexualik izan gabe irauteko bertute moral edo espiritualari eusteko zina. Jatorri soziokulturala baitu, garrantzi handiagoa edo txikiagoa izan ohi du erlijio-sinesmenen nahiz gizarte bakoitzeko arauen arabera. Oro har, apaizgoan edo erlijio-ordena batean sartzeko egin ohi da zin hori. Batzuetan, ezkontzaz kanpoko sexu-harremanak baztertzeko ditu; beste batzuetan, berriz, pentsamendu erotikoa ere saihesten ditu.

Ikus: kastitate.

kastitate-gerriko:

ES: cinturón de castidad

FR: ceinture de chasteté

EN: chastity belt

iz. Erdi Aroan gizon batzuek beren emazteei jartzen zieten metalezko tresna, haien kastitatea zaintzearen.

kastratu:

ES: castrar

FR: castrer

EN: castrate

ad. (Psikologian) Kastrazio-konplexua jasan. Goragoko mailan dagoen batek (guraso batek, esaterako) nortasunaren garapena oztopatu.

kastratzaile:

ES: castrante

FR: castrant

EN: castrant

izond. (Psikologian, pertsoneri edo fenomenoeri buruz). Psikoanalisiaren ikuspuntutik, norbaiten garapen-prozesuak eragozten dituen.

kastrazio:

ES: castración

FR: castration

EN: castration

iz. (Psikologian) Kastrazio-konplexua jasatea. Goragoko mailan dagoen batek (guraso batek, esaterako) nortasunaren garapena oztopatzea.

katarsi:

ES: catarsis

FR: catharsis

EN: catharsis

iz. Adierazten utzi ez zaien afektu ezkutuen deskargak eragindako ondorio askatzailea.

katartiko:

ES: catártico

FR: cathartique

EN: cathartic

izond. Katarsiari dagokiona.

Kegel-en ariketak:

ES:	ejercicios de Kegel
FR:	exercices de Kegel
EN:	Kegel exercises

sint. er. Arnold Kegel medikuak 1952an garaturiko ariketa terapeutikoak. Organo genitaleko giharrak lantzen dira; organo horietako asaldak saihestu daitezke edo organoak berak indartu horrela. Erditu ostean nahiz menopausian erabiltzen dira, gerneru-inkontinentziari aurre egiteko. Era berean, gihar-tonua hobetu egiten da, eta zakilak baginan egiten duen presioa eta sentikortasuna areagotzen ditu horrek. Gizonetan, eiakulazio bizkorregia saihesten eta orgasmo-sentsazioak areagotzen laguntzen dute ariketa horiek.

kemen maskulino:

ES:	virilidad
FR:	virilité
EN:	manliness, virility

sint. er. Tradizioz gizonezkoei egozten zaizkien ezaugarri fisiko eta moralen multzoa; gizonezkoen sexu-indarra adierazteko erabiltzen da; batik bat, zakila tentetzeko ahalmenari dagokio.

kementsu:

ES:	enérgico
FR:	énergique
EN:	energetic

izond. Bizitasun handia duena.

kezkati (atxikimendu):

ES:	preocupado (apego)
FR:	inquiet (attachement)
EN:	preoccupied (attachment)

izond. Atxikimendu-eredu mota bat; harremanekiko gehiegizko ardura eta kezka du ezaugarri nagusia. Kezkatiek irudi negatiboa dute beren buruaz, eta irudi positiboa, aldiz, besteez. Haien jokabideak dira: aldartearen gorabehera handiak, bikotekidearekiko obsesioa eta jeloskortasuna. Maitemintzea erraza dela pentsatzen duten arren, oso gutxitan aurkitzen dute benetako maitasuna; izan ere, zail egiten zaie harreman iraunkorretan konpromisoa hartzeko haiek bezain prest dagoen inor topatzea. Oroitzapen txarra dute haurtzaroan izandako gurasoekiko harremanez, gurasoek ez baitzuten tinko jokatzeko heziketa eta ez baitziren euskarri sendo izaten; batzuetan kontrako rola betetzen zutelako oroitzapenak deskribatzen dituzte.

kilimak:

ES:	cosquillas
FR:	chatouilles
EN:	tickle

iz. Gorputzeko atal zehatz bat edo batzuk ukitzearen ondorioz eragiten den barre urduria.

kimikari:

ES: químico

FR: chimiste

EN: chemical, chemist

iz. Produktu kimikoen eraginaren, egituraren eta ezaugarrien ezagutza duen pertsona, horretarako prestakuntza berezia hartu duena.

Kinsey Txostena:

ES: Kinsey, Informe

FR: Kinsey, Rapport

EN: Kinsey Report

iz. A. Kinsey-k eginiko ikerketa, bi liburutan argitaratua: *Gizonaren sexu-portaera* (1948) eta *Emakumearen sexu-portaera* (1953). Ikerketan, 20.000 gizon-emakume elkarriketatu ziren; gaur egun arte, sexualitateari buruzko ikuspegiaren iraultzarik handiena izan zen. Mito asko eraitsi zituen, eta bazterrekotzat edo inmoraltzat jotzen ziren portaera asko jende ugari praktikatzen zituela ikusi zen; esate baterako, masturbazioa, bai gizonezkoena, bai emakumezkoena; homosexualitatea eta bisexualitatea; edo sexualitatearen hasieraren adin goiztiarra.

kiromasaje:

ES: quiromasaje

FR: chiropratique

EN: chiromassage

iz. Eskuez ematen den masajea.

kirurgia:

ES: cirugía

FR: chirurgie

EN: surgery

iz. Medikuntzaren adarra; gaixotasunak eta istripuak ebakuntza bidez tratatzen ditu. Eskuak edo tresneria berezia erabiliz egin daiteke.

kirurgia-:

ES: quirúrgico

FR: chirurgical

EN: surgical
(Hitz elkartuetan)

Ikus: kirurgiko.

kirurgia plastiko:

ES: cirugía plástica

FR: chirurgie plastique

EN: plastic surgery

sint. er. Kirurgia mota; gorputzeko itxuragabetasunak eta gaixotasunen edo traumatismoen ondorioz galdu nahiz kaltetu diren organismoko atalak konpontzea du helburu.

kirurgialari:

ES:	cirujano
FR:	chirurgien
EN:	surgeon

iz. Kirurgia egiten duen profesionala.

kirurgiko:

ES:	quirúrgico
FR:	chirurgical
EN:	surgical

izond. Kirurgiari dagokiona.

kitzikadura:

ES:	excitación
FR:	excitation
EN:	arousal

iz. Estimulazio erotikaren ondorio gisa ematen den erantzun neurologiko-emozionala.

Ikus: kitzikapen-fase.

kitzikapen:

ES:	excitación
FR:	excitation
EN:	arousal

Ikus: kitzikadura.

kitzikapenaren asaldu:

ES:	trastorno de la excitación
FR:	trouble de l'excitation
EN:	arousal disorder

sint. er. Behin eta berriz, kitzikapen-fasean gertatzen den zailtasuna.

kitzikapen-atalase:

ES:	umbral de la excitación
FR:	seuil d'excitation
EN:	arousal threshold

iz. Kitzikapenaren erantzun fisiologikoa agertzen den muga.

kitzikapen-fase:

ES: fase de excitación

FR: phase d'excitation

EN: arousal phase

iz. Giza erantzun sexualaren faseetako bat. Haren ezaugarriak dira, besteak beste: gizonetan, zakila zutitzea; emakumeetan, bagina lubrikatzea; eta, bai gizonetan bai emakumeetan, bihotz-erritmoa azkartzea, titiburuak gogortzea eta gihar-tentsioa handitzea. Irritsa sentitzea.

kitzikatu:

ES: excitar

FR: exciter

EN: arouse

ad. Norbait tentsio-egoera erotikoa jarri, estimuluren baten bidez; bizitasuna eman.

Ikus: larruak erantzun.

kitzikatze:

ES: excitación

FR: excitation

EN: arousal

iz. Norbait sexu-harremanerako gogatzeta. Bizitzea.

klamidia:

ES: clamidia

FR: chlamydie

EN: chlamydia

iz. Sexu bidez kutsatzen den infekzioa, Chlamydia trachomatis bakterioak eragina; batik bat emakumearen sexu-organoak kutsatzen ditu. Urtetan hauteman gabe egon daiteke, eta sexu-organoetan kalteak eragin (haur-galtzeak, antzutasuna, eta abar). Emakumeak, ezer jakin gabe, bikoteari pasa diezaioke.

klamidiasi:

ES: clamidiasis

FR: chlamydie

EN: chlamydiasis

iz. Sexu-infekzioa; Chlamydia trachomatis bakterioak eragiten du. Gizonetan, antzutasuna eta esperma-hodien hantura ekar dezake; emakumeetan, pelbisaren hantura, Falopioen tronpen buxadura eta antzutasuna.

klimaterio:

ES: climaterio

FR: climatère

EN: climacteric

iz. Menopausiaren etorrerarekin gertatzen diren aldaketa fisiologikoen multzoa.

klimax:

ES:	clímax
FR:	climax
EN:	climax

iz. Sexu-kitzikapenaren unerik gorena; orgasmoraino iristen da, gehienetan.

Klinefelter-en sindrome:

ES:	síndrome de Klinefelter
FR:	syndrome de Klinefelter
EN:	Klinefelter's syndrome

sint. er. Kromosoma sexualen ezohiko konbinazio baten ondorioz sortutako zantzu multzoa. Gizakiak 47 XXY kromosoma dituenean gertatzen da. Pertsonak, arra izan arren, ezaugarri hauek ditu: zakil txikia, hipogonadismoa pubertaroan, sexu-garapen eskasa, ugalkortasun eskasa, sexu-grina eskasa, gorputz altua, argala, hanka luzeak, adimena batez bestekoa baino apur bat eskasagoa. Jaiotako 1.000 mutiletik 1ek izaten du sindrome hori.

klitori:

ES:	clítoris
FR:	clitoris
EN:	clitoris

iz. Emakumearen organo txiki tentekorra, luzexka, bulbaren aurrealdeko goi-angeluan dagoena. Bi gorputz leizetsuz osatua dago, eta gune erogeno garrantzitsua da.

klitori-:

ES:	clitoriano
FR:	clitoridien
EN:	clitoral (Hitz elkartuetan)

Ikus: klitoriko.

klitoridektomia:

ES:	clitoridectomía
FR:	clitoridectomie
EN:	clitoridectomy <i>iz.</i> Klitoriaren ablazioa.

Ikus: ablazio.

klitori-estalki:

ES:	capuchón del clitoris
FR:	capuchon du clitoris
EN:	clitoral hood <i>iz.</i> Klitoria estaltzen duen ehuna.

klitoriko:

ES:	clitoriano, clitoridiano
FR:	clitoridien
EN:	clitoral <i>izlak</i> . Klitoriari dagokiona.

klitori-orgasmo:

ES:	orgasmo clitoriano
FR:	orgasme clitoridien
EN:	clitoral orgasm <i>izlag</i> . Klitoria kitzikatuz eragiten den orgasmoa. Emakumeen masturbaziorik ohikoena.

klitori-zangoak:

ES:	muslos clitorianos
FR:	cuisse clitoridiennes
EN:	clitoral thighs <i>iz</i> . Klitoria eta pubis-hezurra lotzen dituzten egitura anatomiko zango-itxurakoak; hego-itxura ere badute. Gorputz leizetsuak dituzte klitori-zangoek, eta odolez betetzen dira sexu-kitzikapenean.

klon:

ES:	clon
FR:	clone
EN:	clone <i>iz</i> . Genetikoki berdin-berdinak diren zelula edo organismoen multzoa. Zelula edo organismo bakar baten mitositik eratorriak dira klonak.

klonatu:

ES:	clonar
FR:	clonage
EN:	clone <i>ad</i> . Klonak egin.

kloniko:

ES:	clónico
FR:	clonique
EN:	clonic <i>izond</i> . Klonari dagokiona. Klonatua.

kodeina:

ES:	codeína
FR:	codéine
EN:	codeine <i>iz</i> . Kristal-itxurako alkaloide zuria, opiotik lortzen dena; morfinak baino eragin hipnotiko txikiagoa du. Analgesiko narkotiko gisa erabiltzen da; besteak beste, minaren aurka, beherakoei aurre egiteko eta eztularen kontra. Droga gisa, desinhibitzeko erabili ohi da.

kognitibo:

ES:	cognitivo
FR:	cognitif
EN:	cognitive

izond. Ulermenaren, zentzuaren, memorizazioaren eta arrazoibidearen prozesu mentalari dagokiona.

kognizio:

ES:	cognición
FR:	cognition
EN:	cognition

iz. Ezagutza, ezaguera, jakitea.

koitalgia:

ES:	coitalgia
FR:	coïtalgie
EN:	coitalgia

iz. Koitoa egitean emakume zein gizon batzuek sentitzen duten mina.

koito:

ES:	coito
FR:	coït
EN:	coitus

iz. Zakila sexukidearen baginan edo uzkie berruratzea; zakila izan daiteke aktiboa, edo bagina nahiz uztia, sartuz, igurtziz, lastanduz edo kolpatuz. Bestelako zehaztasunik ematen ez denean, bagina-sarketa dela jotzen da.

koito eten:

ES:	coitus interruptus
FR:	coitus interruptus
EN:	coitus interruptus

sint. er. Gizonak, ejakulatzerako doala sentitzen duenean, zakila baginatik ateratzea, haurdunaldia saihesteko. Ez da oso fidagarria antisorgailu gisa.

Ikus: coitus interruptus, antisorgailu.

koito osteko pilula:

ES:	píldora postcoital
FR:	pilule du lendemain
EN:	postcoital contraception, postcoital pill

sint. er. Obulu ernalduaren garapena eragozten duen pilula. Antisorgailurik erabili ez denean edo erabilitakoak huts egiten duenean har daiteke, koitoaren ostean. Estrogenoz eta progesteronaz osatua dago, eta koitoa gertatzen denetik pilula hartzen den arteko denboraren arabera da haren eraginkortasuna. Larrialdiko neurria da. Obulua umetokian kokatzea eragozten du. Ez du aborturik eragiten.

koittoa egin:

ES:	coitar
FR:	pratiquer le coït, pratiquer le sexe
EN:	coitus

ad. Sexu-harremana izan, sarketarekin.

koitozentrismo:

ES:	coitocentrismo
FR:	coït-centrisme
EN:	coitus-centrism

iz. Gizarte batek koitoari beste laztan erotikoei baino garrantzi eta balio handiagoa ematea edo koittoa ez diren beste laztanak kontuan ez hartzea.

koka:

ES:	coca
FR:	cocaïer
EN:	coca shrub

iz. Eritroxilazeoen familiako zuhaixka. Hainbat alkaloide ditu hostoetan; kokaina da horietan ezagunena.

kokaina:

ES:	cocaína
FR:	cocaïne
EN:	cocaine

iz. Koka-landarearen hostoetatik ateratzen den alkaloide kristalinoa. Medikuntzan eta kirurgian, haren klorhidratoa erabiltzen da batez ere, azaleko anestesiko gisa; narkotiko gisa edo begi-ninia zabaltzeko ere erabiltzen da. Droga gisa, oso suspergarria da, eta adikzio-eragin handikoa. Estimulazioa areagotzeko, motibatzeke, parrandan luze irauteko eta abarretarako erabili ohi da.

kokainazale:

ES:	cocainómano
FR:	cocainomane
EN:	snowbird, cocaine addict

izond. Kokainarekiko zaletasuna edo mendekotasuna duena.

kokainazaletasun:

ES:	cocainomanía
FR:	cocainomanie
EN:	cocaine addiction

iz. Kokaina hartzeak ekar dezakeen mendekotasuna.

kokainomania:

ES:	cocainomanía
FR:	cocainomanie
EN:	cocaine addiction

Ikus: kokainazaletasun.

koka-landare:

ES:	coca
FR:	cocaïer
EN:	coca shrub

Ikus: koka.

kolektibo arrosa:

ES:	colectivo rosa
FR:	groupe pink
EN:	pink group

sint. er. Homosexualen taldea. Naziek arrosa-koloreko hirukiak erabili zituzten homosexualak identifikatzeko.

kolpatu:

ES:	contusionar
FR:	contusionner, meurtrir
EN:	contuse, bruise

ad. Ehun organiko batean makatua eragin –baina zauririk ez–, bortizki joz edo estutuz.

kolposkopia:

ES:	colposcopia
FR:	colposcopie
EN:	colposcopy

iz. Kolposkopia erabiliz, umetoki-lepoko gorabeherak xeheki aztertzea; biopsiarako ehunak ateratzeko erabiltzen da.

kolposkopio:

ES:	colposcopio
FR:	colposcope
EN:	colposcope

iz. Teleskopio antzekoa; baginatik sartzen da, umetokiaren leporaino.

komunikatu:

ES:	comunicar
FR:	communiquer
EN:	communicate

1. *ad.* Seinaleak igorri, hartzaileak eta igorleak elkarrekin duten kodea erabiliz. 2. *ad.* Bi gune elkartu, pasabide batez.

komunikazio:

ES:	comunicación
FR:	communication
EN:	communication

1. *iz.* Informaziozko mezu bat igortzean datzan prozesu oro; batez ere pertsonen arteko mezuari dagokio, edozein dela ere erabilitako bidea. 2. *iz.* Elkar ulertzea. 3. *iz.* Bi gune lotzea, harremanetan jartzea.

konbertsio:

ES:	conversión
FR:	conversion
EN:	conversion

iz. Babes-mekanismoa; histerian agertzen da, batez ere; gatazka psikiko bati aurre egin nahirik, hainbat sintoma –somatikoak, higidurazkoak edo sentimenezkoak– agertzen dira.

kondiloma:

ES:	condiloma
FR:	condylome
EN:	condyloma

iz. Garatxo mota bat da, giza papilomaren birusak sortua; sexu-harremanen bidez transmititzen da, eta oso kutsagarria da. Zakilean, uzkiean eta baginan agertzen dira halakoak; umetoki-leporaino irits daitezke, eta hango minbizia eragin.

kondoi:

ES:	condón
FR:	préservatif
EN:	male condom

iz. Gizonezkoen preserbatiboa; hesizko antisorgailua da, sexu bidezko infekzioetatik babesten duena. Badira emakumezkoen kondoiak ere.

Ikus: preserbatibo.

konkupiszentzia:

ES:	concupiscencia
FR:	concupiscence
EN:	concupiscence

Ikus: sexu-grina, irritis.

konplexu:

ES:	complejo
FR:	complexe
EN:	complex

iz. Balio afektibo sakona duten oroitzapenen eta irudikapenen multzoa. Batzuetan, guztiz inkontzientea da; beste batzuetan, berriz, kontzientea. Haurtzaroan izandako giza harremanen ondorioz eratu daitezke konplexuak, eta maila psikologiko guztiak egituratu ditzakete: emozioak, jarrerak eta jokabide egokituak.

konponezin:

ES:	irreparable
FR:	irréparable
EN:	irreparable

izond. Ezin konpon edo senda daitekeena.

konpresa:

ES:	compresa
FR:	compresse
EN:	bandage

iz. Gazazko (gehienetan) zapi biguna; gorputzeko atal batean beroa, hotza edo sendagaiak jartzeko erabiltzen da. Odoljarioak kontrolatzeko ere erabil daiteke, zaurien gainean jarrita. Hilekoa jaistean ere jartzen da, odola xurgatzeko.

kontraindikazio:

ES:	contraindicación
FR:	contre-indication
EN:	contraindication

iz. Tratamendu bat erabiltzea ez-komenigarritzat jotzea. Esate baterako, hormona-antisorgailuak erabiltzeko kontraindikazioetako bat emakumeak tabakoa erretzea da.

kontraktura:

ES:	contractura
FR:	contracture
EN:	contracture

iz. Borondatezkoa ez den uzkurdura iraunkorra, gihar talde batena edo gehiagorena; geldirik eta zurrun atxikitzen du erasaten dion atala.

kontrazeptibo:

ES:	contraceptivo
FR:	contraceptif
EN:	contraceptive

izond. Kontrazepzioa eragiten duena.

Ikus: kontrazepziozko.

kontrazepzio:

ES:	contraconcepción
FR:	contraception
EN:	contraception

iz. Haurdunaldia saihesteko teknika edo prozedura; sendagaiak edo beste zenbait metodo erabiliz egiten da.

kontrazepzio-:

ES:	contraceptivo
FR:	contraceptif
EN:	contraceptive (Hitz elkartuetan)

Ikus: kontrazeptibo.

kontrazepzio-pilula:

ES: píldora anticonceptiva

FR: pilule contraceptive

EN: contraceptive pill

sint. er. Kontrazepzio-metodo gisa erabiltzen den pilula, estrogenoz eta progesteronaz osatua. 60ko hamarkadan baimendu zuten mendebaldeko lurraldeetan. Ia %100eko eraginkortasuna du, zuzen erabiliz gero. Ahotik hartzen da. Ordu berean hartu behar da egunero. Ez du GIBaren, hiesaren eta beste sexu-infekzio batzuen kontrako babesik ematen.

kontrazepzio naturalaren metodo:

ES: método de contracepción natural

FR: méthode de contraception naturelle

EN: natural family planning

sint. er. Haurdunaldia saihesteko estrategia naturala; bagina-koitoxa hileko zikloaren errial-egunez kanpo soilik erabiltzen da. Gorputz-tenperaturaren aldaketa izaten da errial-egunen adierazle, eta orobat umetokiko lepoko mukia.

Konposatu farmakologikoak eta gailuak ez erabiltzea du xede. Erlijio katolikoaren inguruan indartu dira estrategia horiek batik bat, baina baita naturismo-giroan ere.

kontrazepzio hormonal:

ES: contracepción hormonal

FR: contraception hormonale

EN: hormonal contraception

sint. er. Anobulatorioak erabiliz haurdunaldia saihesteko teknika.

kontrazepzio-adabaki:

ES: parche anticonceptivo

FR: timbre (patch) contraceptif

EN: contraceptive patch

iz. Larruazalaren bidez antisorgailua xurgarazteko ipintzen den adabakia. Larruazalaren azpian ere jar daiteke, inplante gisa, luze iraun dezan.

kontrazepzio-belaki:

ES: esponja anticonceptiva

FR: éponge contraceptive

EN: contraceptive sponge

iz. Kontrazepzio-gailua, zirkulu-formakoa, biguna, 4-5 cm-ko diametrokoa, eta espermizidaz blaitua. Baginan sarturik, umetoki-lepoa ixten du. Gutxienez 24 orduko eraginkortasuna du belaki bakoitzak, eta hazia baginan isuri ondoren gutxienez 8 orduz eduki behar da, haurdunaldia saihesteko. Ez du GIBaren eta beste sexu-infekzio batzuen kontrako babesik ematen. Behin bakarrik erabil daiteke belaki bakoitza. Hormona bidezko beste neurriak edo hesizkoak eraginkorragoak izan ohi dira, ongi erabiliz gero.

kontrazepzio-metodo:

ES: método anticonceptivo

FR: méthode contraceptif, anti-génésique, anticonceptionnel

EN: contraceptive method

iz. Ernalketa galarazten duen gai, aparatu edo prozesua: pilula, preserbatiboa, UBG (Umetoki Barneko Gailua), diafragma, espermizidak, eta abar. Prozedura kirurgikoak (tronpen lotura emakumezkoetan, hodi deferenteen lotura gizonezkoetan), eskuarki, izendapen horretatik kanpo geratzen dira.

kontrazepziozko:

ES: contraceptivo

FR: contraceptif

EN: contraceptive

izlag. (Gai edo teknika bati buruz) Ernalketa saihesten duena.

Ikus: kontrazeptibo.

kontrol:

ES: control

FR: contrôle

EN: control

iz. Zerbait zaintzeko edo egiaztatzeko azterketa edo jarrera.

kontrolatu:

ES: controlar

FR: contrôler

EN: control

1. *ad.* Zerbait modu egokian dagoela egiaztatzeko azterketa egin. 2. *ad.* Egoera batean eragina izan, bulkadak kontzienteki mugatuz.

kontrolatzaile:

ES: controlador

FR: contrôleur

EN: controller

izond. Kontrolatzen duena edo kontrolatzen saiatzen dena.

konsolagailu:

ES: consolador

FR: godemiché

EN: dildo

iz. Sexu-plazera bakarka lortzeko objektua; batik bat dardaragailuari deritzo.

Ikus: dardaragailu.

kontsulta:

ES: consulta

FR: consultation

EN: consultation

iz. Aritu batekin eginiko hitzordua, arazo bati buruz mintzatzeko, halakoak diagnostikatzeko eta konponbideak aurkitzeko.

Ikus: kontsultategi.

kontsulta-gela:

ES: consultorio

FR: cabinet de consultation

EN: consulting room, surgery

Ikus: kontsultategi.

kontsultategi:

ES: consultorio

FR: cabinet de consultation

EN: consulting room, surgery

iz. Sexologoak, medikuak edo terapeutak bisitak hartzeko gela.

kontziente:

ES: consciente

FR: conscient

EN: conscious

1. *izond.* Zentzumen-estimulu bati erantzuteko gai dena. 2. *iz.* Gogamenaren atala; atal horretan, jakinaren gainean dago pertsona bere pentsamenduez, ideiez eta emozioez.

kontzientzia:

ES: conciencia

FR: conscience

EN: consciousness

iz. Gizabanakoak bere buruarekiko –eta jasandako aldaketekiko– edo inguruarekiko duen intuiziozko eta gogoetazko ezagutza.

koordinatu:

ES: coordinar

FR: coordonner

EN: coordinate

ad. Ahalegin guztiak bateratu, helburu jakin bat lortu ahal izateko.

koordinazio:

ES:	coordinación
FR:	coordination
EN:	coordination

iz. Funtzio batean parte hartzen duten atalen jarduera harmonikoa.

koprofagia:

ES:	coprofagia
FR:	coprophagie
EN:	coprophagy

iz. Gorozkiak jateko joera; hainbat psikositan agertzen da.

koprofilia:

ES:	coprofilia
FR:	coprophilie
EN:	coprophilia

iz. Gorozkiek eragindako kitzikapena eta sexu-desira. Kaka egiten ari den pertsona bat ikusteak eragindako kitzikapena, esate baterako. Zikinkeriekiko –eta, batez ere, gorotzekiko– erakarmena.

kopula:

ES:	cópula
FR:	copulation
EN:	copulation, copula

iz. Sexu-elkartzea. Arra eta emea (edo sexu bereko bi) sexuz batzea. Koito edo sarketa; batik bat, bagina-sarketa adierazteko erabili izan da.

kopulatu:

ES:	copular
FR:	copuler
EN:	copulate

ad. Arra eta emea sexuz elkartu; koitoa egin.

kopulazio:

ES:	cópula, copulación
FR:	copulation
EN:	copulation

iz. Arra eta emea sexuz elkartzea.

Ikus: koito.

kordoi espermatiko:

ES:	cordón espermático
FR:	cordeon spermatique
EN:	spermatic cord,

sint. er. Barrabiletatik iztarteko eraztun sakonera doan egitura. Esperma garraiatzen du.

korpuskular:

ES:	corpuscular
FR:	corpusculaire
EN:	corpuscular

izond. Korpuskuluei dagokiena.

korpuskulu:

ES:	corpúsculo
FR:	corpuscule
EN:	corpuscle

iz. Gorputz edo masa txikia.

kortse:

ES:	corsé
FR:	corset
EN:	girdle

iz. Mahukarik gabeko jantzia; bularraldea eta gerrialdea estu lotzen ditu. Gorputzenborraren mugimenduak murrizteko eta hura tinkotzeko erabiltzen da. Sinbolikoki, emakumeei egotzi zaien menpekotasun-rola adierazten du.

krimen sexual:

ES:	crimen sexual
FR:	crime sexuel
EN:	sexual crime

sint. er. Sexu-zioek eragindako hilketak, gehienetan jeloskortasunak, edo desleialtasuna ezin jasanak.

krisi:

ES:	crisis
FR:	crise
EN:	crisis

1. *iz.* Gaixotasun zikliko baten bilakaeran gertatzen den aldaketa azkarra; hobera edo okerrera egitea ekar dezake. 2. *iz.* Oreka psikikoaren haustura larri eta batbatekoa.

krisialdi:

ES:	crisis
FR:	crise
EN:	crisis

Ikus: krisi.

kristalezko amildegia:

ES:	abismo de cristal
FR:	abîme de verre
EN:	crystal abyss

sint. er. Emakumeen eskubide jakin batzuk urratu egiten direla erakusten duen datu multzoa; lan-munduan, emakumeek lidergoa lortzen dutenean, lanpostuak ez dira gizonenak bezain egonkorak izaten eskuarki, eta porrot egiteko eta gaitzetsiak izateko aukera handiagoa izaten dute.

kristalezko sabai:

ES:	techo de cristal
FR:	plafond de verre
EN:	glass ceiling

sint. er. Emakume kualifikatuei talde gisa ezartzen zaien muga ikusezina, lan-munduan ardura handiko lanpostuak lor ditzaten oztopatzeko.

kromosoma:

ES:	cromosoma
FR:	chromosome
EN:	chromosome

iz. Zelularen nukleoaren osagaia, geneak gordetzen dituen. ADNaren informazio genetikoa mantentzea eta ugaritzea du eginkizun nagusi. Gizakiak 46 kromosoma ditu: 22 bikote homologo eta 2 sexu-kromosoma.

kromosoma-:

ES:	cromosómico
FR:	chromosomique
EN:	chromosomal (Hitz elkartuetan)

Ikus: kromosomiko.

kromosoma sexual:

ES:	cromosoma sexual
FR:	chromosome sexuel
EN:	sex chromosome

Ikus: sexu-kromosoma.

kromosoma-sexu:

ES:	sexo cromosómico
FR:	sexe chromosomique
EN:	chromosomal sex

iz. Ernaketa-aren unean zehazten den sexua; espermatozoidearen kromosoma (X edo Y) eta obuluaren kromosoma (X) elkartzean, gizon bat (XY) edo emakume bat (XX) sortzen du karga genetikoak.

Ikus: sexu kromosomiko.

kromosomiko:

ES:	cromosómico
FR:	chromosomique
EN:	chromosomal

izond. Kromosomei dagokiena.

kroniko:

ES:	crónico
FR:	chronique
EN:	chronic

izond. Denbora luzean astiro garatuz irauten duen gaixotasuna edo asaldua; bizitza osorako izaten da, sarritan.

kubatar:

ES:	cubana
FR:	branlette
EN:	pearl necklace, tit-fucking, Russian, Russian culture, Spanish, Bombay roll

iz. Zakila emakumearen titien artean igurtziz masturbatzea.

Kultura Aniztasunaren Munduko Eguna:

ES:	Día Mundial de la Diversidad Cultural
FR:	Journée Mondiale pour la Diversité Culturelle
EN:	World Day for Cultural Diversity

sint. er. Maiatzaren 21ean ospatzen da.

Kupido:

ES:	Cupido
FR:	Cupidon
EN:	Cupid

1. *iz.* Maitasunaren jainko erromatarra, Eros grekoaren ordaina. 2. *iz.* Gizonezko limurtzaile eta maitabera.

kurba:

ES:	curva
FR:	courbe
EN:	curve

iz. Metodo grafiko gisa erabiltzen den lerro zuzen edo kurbatua; azterketa edo txosten batean jasotako datuak banatzeko eta agertzeko erabiltzen da.

kurbadura:

ES:	curvatura
FR:	courbure
EN:	curvature

iz. Norabide zuzena ez duena.

kuretajе:

ES: curetaje, legrado, raspado

FR: curettage

EN: curettage

1. *iz.* Barrunbe bateko edo azalera baten hormako materiala karrakatzea; tumoreak eta ez-ohiko ehunak kentzeko zein azterketa mikroskopikorako ehunak lortzeko egiten da. 2. *iz.* Legra bidez egiten den erauzketa, endometrioarena, endozerbixarena, edo biena.

kuretajеa egin:

ES: legar, raspar

FR: curetter

EN: curet

ad. Legra batez ehuna edo ehun-hondarrak kendu; zerbaiten azala indarrez igurtziz egiten da.

kutsagarri:

ES: contagioso, infeccioso

FR: contagieux, infectieux

EN: contagious, infectious

1. *izond.* Bide zuzen edo zeharkakoetatik transmititzen dena. Esate baterako, gaixotasun kutsagarri bat. 2. *izond.* Infekzio bat eragin dezakeena.

kutsagarritasun:

ES: contagiosidad

FR: infectiosité

EN: infectivity

iz. Infekzio bat kutsatzeko gaitasun-maila.

kutsakor:

ES: contagioso

FR: contagieux

EN: contagious

izond. Kontaktu zuzenaren edo zeharkakoaren bidez kutsatzeko erraztasuna edo joera duena.

kutsatze

ES: contagio

FR: contagion

EN: contagion

iz. Zuzeneko edo zeharkako kontaktuz gaixotasun espezifiko bat pasatzea.



lagundutako ernalketa:

ES:	reproducción asistida
FR:	procréation assistée
EN:	assisted reproduction

sint. er. Ernalketa artifiziala. Antzutasuna tratatzeko metodoa. Gametoak manipulatzuz egiten da; intseminazio artifiziala eta in vitro ernalketa dira erabiltzen diren teknika ezagunenak.

larriagotu:

ES:	agravar
FR:	aggraver
EN:	aggravate

ad. Gaixotasun, asaldu edo zailtasun batek okerrera egin.

larrialdi:

ES:	larrialdi
FR:	urgence
EN:	emergency

iz. Larritasunezko une edo egoera; berehalako arreta eskatzen du.

larrialdiko metodo:

ES:	método de urgencia
FR:	méthode d'urgence
EN:	emergency method

Ikus: koito osteko pilula.

larrialdi-zerbitzu:

ES:	servicio de urgencias
FR:	service d'urgence
EN:	emergency department, casualty ward, A&E

iz. Berehalako arreta eskaintzen duen zerbitzua, bereziki prestatuturiko jendearen eta lan-tresnen bidez. Osasun-arazo larrienez arduratzen da, batik bat.

larrimin:

ES:	angustia
FR:	angoisse
EN:	anxiety

iz. Atsekabe bizia; balizko zorigaitz baten beldurrak eragiten du, eta zenbait sintoma neurobegetatibo ditu: espasmoak, disnea, takikardia, eta abar.

Ikus: angustia.

larritasun:

ES:	gravedad
FR:	gravité
EN:	severity

iz. Larri dagoenaren egoera.

larru:

ES:	piel, cuero
FR:	peau, cuir
EN:	skin, leather

iz. Gorputza estaltzen duen azala. Sentikortasun handiko organo erotiko garrantzitsua da, azalera handikoa.

Ikus: larruazal.

larrua jo:

ES:	fornicar, follar, joder
FR:	baiser
EN:	fuck

ad. Jokabide erotiko partekatuak izan. Koitoa egin.

Ikus: txortan egin.

larrua jotze:

ES:	fornicación, polvo
FR:	baise, coup (tirer un)
EN:	fornication, fuck

sint. er. Larrua jotzeko ekintza.

larruak erantzun:

ES:	excitar
FR:	exciter
EN:	excite

Ikus: kitzikatu.

larruazal:

ES:	piel
FR:	peau
EN:	skin

iz. Gorputza kanpotik ia osorik estaltzen duen mintz lodi, sendo eta malgua. Gorputzeko organorik handiena da, eta elkarren gainean dauden hiru geruzaz osatua dago: dermisa, epidermisa eta hipodermisa. Larruazalaren kolorea aldakorra da, epidermisean dagoen melanina kantitatearen arabera; ezaugarri genetikoek zehazten dute melanina kantitatea.

larruazal-:

ES:	cutáneo
FR:	cutané
EN:	cutaneous (Hitz elkartuetan)

Ikus: larruazaleko.

larruazal azpiko adabaki:

ES:	parche subcutáneo
FR:	patch sous-cutané
EN:	subcutaneous patch

sint. er. Larruazalaren azpian txertatzen den kontrazepzio-adabakia; progestagena jaritzen du neurri kontrolatuan, egunero oso dosi txikiak askatuz. Oso eraginkorra da eta asko irauten du. Kapsula batzuk txertatzen dira, 25 eta 35 mm arteko diametrokoak, emakumearen besoan edo besaurrean, kirurgia arinaren bidez. Ukimenaren bidez antzeman dakiok, baina ia ez da nabaritzen. 24 ordura hasten da babesa. Sexu bidezko gaixotasunetatik ez du babesten. Beste kontrazepzio-metodo batzuekin batera erabil daiteke; esate baterako, preserbatiboarekin.

Ikus: kontrazepzio-adabaki.

larruazal azpiko implante:

ES:	implante subcutáneo
FR:	implant sous-cutané
EN:	subcutaneous implant

Ikus: larruazal azpiko adabaki.

larruazaleko:

ES:	cutáneo
FR:	cutané
EN:	cutaneous

izlag. Larruazalari dagokiona; larruazalean dagoena.

larruazalpeko:

ES:	subcutáneo
FR:	sous-cutané
EN:	subcutaneous

izlag. Larruazalaren azpian dagoena edo gertatzen dena.

larru-festa:

ES:	orgia
FR:	orgie
EN:	orgy

iz. Taldekako sexu-ekintza.

Ikus: orgia.

larrugorri:

ES:	desnudo
FR:	nu
EN:	naked

Ikus: biluzi.

larrugorritu:

ES:	desnudar
FR:	déshabiller
EN:	strip

Ikus: biluzi, biluzgorritu.

larrutan egin:

ES:	fornicar, follar, joder
FR:	baiser
EN:	fuck

Ikus: larrua jo.

lasai:

ES:	relajado
FR:	relaxé
EN:	relaxed

izond. Fisikoki edo psikikoki bare dagoena; bereziki, tonuz bigun dagoen gihar-egitura.

lasaigarri:

ES:	tranquilizante
FR:	tranquillant
EN:	calmative, sedative

1. *izond.* (Sendagai bati buruz) Antsietateari aurre egiteko balio duena; ez du kontzientzia-maila gutxitzen. Psikosien tratamenduan, lasaigarri gogorak erabiltzen dira, batez ere. Lasaigarri arinak, aldiz, antsietatearen, narritagarritasunaren, tentsioaren edo psikoneurosien tratamenduan. Lasaigarriek logura ematen dute, eta mendekotasun fisikoa eta psikikoa ere eragin ditzakete. 2. *izond.* Lasaitzen duena. Mina edo urduritasuna baretzeko edo egonezina, insomnioa, larritasuna eta abar gainditzeko sendagaia edo teknika psikofisikoa.

lasaitu:

ES:	relajar
FR:	relaxer, détendre
EN:	relax

ad. Larritasuna, kezka, nahiz tentsioa galdu edo kendu.

Ikus: erlaxatu.

lasaitzaile:

ES:	relajante
FR:	relaxant
EN:	relaxing

Ikus: lasaigarri.

lasaitze:

ES:	relajación
FR:	relaxation
EN:	relaxation

iz. Larritasuna, kezka, nahiz tentsioa galtzea edo kentzea.

Ikus: erlaxazio.

latentzia-aro:

ES:	período de latencia
FR:	période de latence
EN:	latency period

iz. Freud-en teoriaren arabera, haurren sexu-bizitzako aldia; errepresioa areagotzearen ondorioz, gelditu egiten da sexualitatearen garapena. Haurrak 5 urte dituenetik aurrenerabegarora arte irauten duela esan izan da. Egun, ez da aintzat hartzen latentzia-aroa.

latex:

ES:	látex
FR:	latex
EN:	latex

iz. Gomaren antzeko material malgua; jantziak, jostailu erotikoak eta preserbatiboak egiteko erabilia.

lauki:

ES:	cuatrillizo
FR:	quadruplé
EN:	quadruplet

iz. Haurdunaldi beretik jaioetako lau ondorengoetako bakoitza.

laztan:

ES: caricia, arrumaco

FR: caresse, câlins

EN: caress, cuddles, darling

1. *iz.* Afektuzko ukipen-kontaktua; goxotasuna eta maitasuna adierazten dituen igurtzi leuna. Gorputzaren sentikortasuna piztu dezake. 2. *iz.* Afektua adierazten duen hitza, bereziki seme-alaba edo bikotekidea izendatzeko erabiltzen da.

laztandu:

ES: acariciar

FR: caresser

EN: caress

ad. Maitasuna eta goxotasuna adierazteko edo sentikortasuna eragiteko ukipen-kontaktuak egin.

legra:

ES: legra

FR: curette

EN: curet, curette

iz. Kirurgian erabiltzen den tresna ebakitzaileria, koilara- edo pala-itxurakoa. Umekia umetokitik erauzteko erabiltzen da, haurdunaldia eteteko edo haur-galtzean barruan geratzen diren ehunak garbitzeko.

lehen gaueko eskubide:

ES: derecho de pernada

FR: droit de cuissage

EN: droit de seigneur

sint. er. Erdi Aroan zenbait jauntxok neska ezkonberriekin lehen gauean oheratzeko baliatzen zuten eskubidea. Jus primae noctis zeritzon.

lehen mailako gune erogenoak:

ES: zonas erógenas primarias

FR: zones érogènes primaires

EN: primary erogenous zones

sint. er. Berez sentibera den gune erogenoa, nerbio-amaiera ugari iristen direlako.

lehen mailako sexu-ezaugarriak:

ES: caracteres sexuales primarios

FR: caractères sexuels primaires

EN: primary sexual characters

sint. er. Emeak eta arrak bereizten dituzten organo genitalen arteko desberdintasunak. Arren lehen mailako sexu-ezaugarriak dira: barrabilak, epididimioa, eskrotoa, hodi deferentea, hazi-xixkua, prostata eta zakila. Emeen lehen mailako sexu-ezaugarriak, berriz: obulutegiak, Falopioaren tronpak, umetokia, bagina eta bulba. Emeen eta arren lehen mailako sexu-ezaugarriek morfologia eta funtzio desberdinak dituzte.

Ikus: sexu-ezaugarri(ak).

lehengoratzefase:

ES:	fase de resolución
FR:	phase de résolution
EN:	resolution phase

iz. Orgasmoaren ondorengo une edo egoera; sexu-kitzikapena desagertuz doa, eta ehunetan pilatutako odola atzera itzultzen da. Zakilak tente egoteari uzten dio eta bulbaren puztuera ere jaitsi egiten da. Emakumeetan, eskuarki, polikiago gertatzen da. Minutu gutxi batzuk nahiz ordubete edo gehiago ere iraun dezake lehengoratzefaseak.

lehorrean egin:

ES:	paja, hacerse una
FR:	se branler
EN:	wank, wank off

Ikus: idiarena jo, kanpaia jo.

leialtasun:

ES:	fidelidad
FR:	fidélité
EN:	fidelity

iz. Bikote-hitzarmena, elkarrekikotasun eksklusiboa oinarri sendotzat duena. Oro har, harreman erotikoak bikotearekin baino ez izateko adostasun esplizitu nahiz inplizitua ditu ezaugarri.

leiho-aldia:

ES:	período ventana
FR:	période de latence
EN:	window period

iz. GIB harrapatzen denetik antigorputzak hautematen diren arte igarotako denbora-tartea.

leinu:

ES:	estirpe
FR:	lignage
EN:	lineage

iz. Familia bateko belaunaldien segida, edo herri baten jatorria.

lek:

ES:	lek
FR:	lek, aire de parade
EN:	lek

iz. Arren bilgune berezia, non arrandiaz emeak berengana erakartzen saiatzen diren. Lek-ean tokirik onena lortzen saiatzen dira arrak; ahalik eta gehien binakatzeko.

lepo:

ES: cuello

FR: cou

EN: neck

1. *iz.* Toraxaren eta buruaren arteko gorputz zatia, burua eta enborra lotzen dituen. Gune erogenotzat jotzen da. 2. *iz.* Estugunea.

lesbiana:

ES: lesbiana

FR: lesbienne

EN: lesbian

iz. Emakumezkoek erakartzen duten emakumea.

lesbianismo:

ES: lesbianismo

FR: lesbianisme

EN: lesbianism

iz. Emakumezkoen homosexualitatea.

lesbofobia:

ES: lesbofobia

FR: lesbophobie

EN: lesbophobia

iz. Emakume lesbianen aurkako sineskizun, iritzi, jarrera nahiz jokabide oldarkor, gorroto, mespretxu eta irrigarrikeria multzoa. Sexu-joeragatik gertatzen den bereizkeria da, eta gizarteko estereotipo ahaltzuak eta giza aniztasuna ez onartzea daude haren oinarrian.

leukorrea:

ES: leucorrea

FR: leucorrhée

EN: leukorrhea

iz. Baginako jario zuria. Haren kantitatea eta loditasuna aldatu egiten dira, eskuarki, hileko zikloan zehar. Jarioa narritagarria, ugaria, usain txarrekoa eta kolore berdekoa edo horikoa denean, baginako nahiz umetokiko infekzioa adieraz dezake.

LH:

ES: LH

FR: LH

EN: LH

iz. Hormona luteinizatzailea; hipofisiak jariatzen du. Obulazioa bultzatzen du, eta eragina du testosteronaren ekoizpenean, barrabiletako zelula interstizialetan zehazki.

libido:

ES:	libido
FR:	libido
EN:	libido

iz. Sexu-desira edo -gogoa.

Ikus: sexu-desira.

lifting:

ES:	lifting
FR:	lifting
EN:	lifting

iz. Kirurgia estetikoaren alorreko ebakuntza kirurgikoa. Aurpegiko zimurrak desagerraraztea da liftingaren helburua.

ligatu:

ES:	ligar
FR:	flirter
EN:	flirt, pick up

ad. Helburu erotikoezin norbait erakarri.

Ikus: mutiletan/nesketan ibili, dragatu.

ligeta:

ES:	liga
FR:	ligue
EN:	league

iz. Zerrenda elastikoa, galtzerdiei eusteko erabilia; zantzu erotikoa.

likido amniotiko:

ES:	Líquido amniótico
FR:	liquide amniotique
EN:	amniotic fluid

iz. Zaku amniotikoan, umekia inguratzen duen likido.

likido aurreseminal:

ES:	Líquido preseminal
FR:	sécrétion préséminal
EN:	precum

iz. Gizonengan, kitzikadura-uneetan uretrara Cowper-en guruinak jariatzen duen substantzia. Uste da esperma uretratik bere propietateak galdu gabe kanporatzen laguntzen duela.

Oharrak: Kanporatzen diren tantek haurdunaldia eragiteko espermatozoide-kontzentrazio nahikoa izan dezakete.

limurtze:

ES:	seducción
FR:	séduction
EN:	seduction

iz. Pertsona edo gauza batek eragiten duen erakarmena; beste norbaiten gustuko izatea edo sexu-desira pizten du. Jendearen aurrean jarrera jakin bat izateko artea ere bada, zenbait baliabide erabiliz: itxura fisikoa zaintzea, hitz eta jarrera egokiak aukeratzea, eta abar.

Ikus: gorte-egite, sedukzio.

linfozito:

ES:	linfocito
FR:	lymphocyte
EN:	lymphocyte

iz. Nukleo bakarreko odol-zelula. Oinarrizko funtzioa betetzen du organismoaren immunitate-erreakzioan. Leukozitoen % 25 osatzen dute linfozitoek; nolanahi ere, gaizkoaduren aurrean, handitu egiten da kopurua. Hiru motatakoak dira: T linfozitoak, B linfozitoak eta ez T ez B ez diren linfozitoak.

liposukzio:

ES:	liposucción
FR:	liposucción
EN:	liposuction

iz. Gantz-ehuna erauzteko teknika. Gaur egun sarri erabiltzen da, gorputz-formei buruzko estetika-kanona dela eta; pertsonak ez du bere buruaren itxura onartzen, eta irtenbide kirurgikoak bilatzen ditu.

listu:

ES:	saliva
FR:	salive
EN:	saliva, spit

iz. Jariakin alkalinoa, likatsu samarra, aho barneko guruinek jariatua. Eredu erotikoa, ahoz eginiko laztanak labainkorragoak, sentikorrangoak eta atseginangoak egiten ditu listuak.

listu-:

ES:	salival
FR:	salivaire
EN:	salivary

(Hitz elkartuetan) Listuari edo listuaren eraketari dagokiona.

lizun:

ES:	lúbrico, carnal
FR:	obscène
EN:	lewd

izond. Lizunkeriar dagokiona, edo lizunkeriak jokatzen duena.

lizunkeria:

ES:	lascivia, lujuria
FR:	luxure
EN:	lust, lechery

iz. Haragikeriarako gehiegizko joera, ez-zilegitzat hartua.

Ikus: lohikeria.

lodi:

ES:	gordo, grueso
FR:	gros
EN:	fat

Ikus: gizen.

loditasun:

ES:	obesidad, gordura
FR:	obésité
EN:	obesity

Ikus: obesitate.

loditu:

ES:	engordar
FR:	engraisser
EN:	fatten

Ikus: gizendu.

lohikeria:

ES:	obscenidad
FR:	obscénité
EN:	obscenity

iz. Lotsaren kontrako ekintza zatarra.

Ikus: lizunkeria.

lo-isuri:

ES:	polución nocturna
FR:	émission nocturne
EN:	nocturnal emission

iz. Loaldian nahi gabe gertatzen den hazi-eiakulazioa. Amets heze ere baderitzo, baina horrek ez du esan nahi amets erotikorik edo bestelako ametsik gertatu behar duenik lo-isuria izateko.

Ikus: gaueko isuri, amets heze.

lordosi:

ES:	lordosis
FR:	lordose
EN:	lordosis

iz. Araldian den arratoi emearen jarrera mota; bizkarra kurbatzean datza, eta arratoi arrak zakila emearen baginan sartzea du helburu. Gizakiengan ere jarrera bera izaten da helburu erotikoz.

lotsa:

ES:	pudor, vergüenza
FR:	modestie, honte
EN:	modesty, shame

iz. Moralaren eta batez ere sexuaren arloan, gizarteak eskatzen duen jokabide-begirunea. Nork bere izen onaren edo duintasunaren kaltegarritzat jotzen dituen egoerek edo ekintzek sorrarazitako sentimendu mingarria; besteren aurrean naturaltasunez jokatzeko eragozten duen herabetasuna.

lotsati:

ES:	timido
FR:	renfermé, timide
EN:	shy, reserved

izond. Erraz lotsatzen dena.

lotu:

ES:	vendar
FR:	bander
EN:	bandage up

ad. Gorputz atalen bat lotailuz bildu.

lotura:

ES:	ligadura, venda, vendaje
FR:	ligature, bande
EN:	ligation, band

1. *iz.* Zerbait lotzean datzan ebakuntza kirurgikoa. Odol-hodi bat nahiz bestelako hodi bat josten da, edozein jario saihesteko edo hodi horretatik materialik ez igarotzeko; adibidez: Falopioaren tronpen lotura. 2. *iz.* Gorputz atal bat biltzeko erabiltzen den ehun-zerrenda.

lubrifikatzaile:

ES:	lubricante
FR:	lubrifiant
EN:	lubricant, lube

iz. Batik bat bagina-sarketa eta uzki-sarketa errazteko erabiltzen den krema, likido edo gel moduko produktua.

luma:

ES: pluma

FR: affectation, twee

EN: camp, effeminate

iz. Gizon eta emakume homosexuali egozten zaien mugitzeko, ibiltzeko edo adierazteko eta hitz egiteko modua.

Ikus: maritxu-joera (izan).

lupeme:

ES: alcahueta

FR: catin

EN: bawd

iz. Bikoteen maitasun-harreman debekatuak bideratzen edo ezkutatzen dituen emakumea.

lurrintsu:

ES: aromático

FR: aromatique

EN: aromatic

Ikus: aromatiko, urrintsu.



macho man:

ES:	macho man
FR:	macho man
EN:	macho man

iz. Bere burua besteen gainetik ikusten duen gizona; sendo-antza, mardula, oldarkorra eta indartsua izaten da eskuarki.

Mackenrodt-en lotailu:

ES:	ligamento de Mackenrodt
FR:	ligament de Mackenrodt
EN:	Mackenrodt ligament

sint. er. Lotailu utero-sakroa; peritoreo azpiko ehunaren hedapena da, hots, uteroa eta bagina inguratu eta lotzen dituen faszia; uteroaren azpitik abiatu, ondestearen zorroa osatu eta pelbiseko fasziarekin eta sakorarekin lotzen da.

madame:

ES:	madame
FR:	madame
EN:	madam

iz. Prostituzio-etxe bateko buru den emakumea.

maiatzaren 17a:

ES:	17 de mayo
FR:	17 mai
EN:	17th May

sint. er. Transfobia eta Homofobiaren Kontrako Eguna. OMS (Osasunaren Mundu Erakundeak) homosexualitatea buru-nahasteen zerrendatik kendu zuen eguna.

maiatzaren 21a:

ES:	21 de mayo
FR:	21 mai
EN:	21st May

sint. er. Kultura Aniztasunaren Munduko Eguna.

maiatzaren 28a:

ES:	28 de mayo
FR:	28 mai
EN:	28th May

sint. er. Emakumeen Osasunaren Aldeko Nazioarteko Eguna.

maiatzaren 3a:

ES: 3 de mayo
FR: 3 mai
EN: 3rd May
sint. er. Prentsa Askatasunaren Munduko Eguna.

maitale:

ES: amante
FR: amant
EN: lover
1. *izond.* Maite duena edo maitatua dena. 2. *iz.* Inoren bikotekide ezkutua.

maitasun:

ES: amor
FR: amour
EN: love
iz. Biziki gogoko edo atsegin den norbaiten edo zerbaiten ona bilatzera edo haren alde egitera bultzatzen duen sentimendua edo joera. Pertsona batenganako erakarpenezko sentimendu bizia, samurtasuna eta erakarpen fisikoa eragiten dituen.

maitasun erromantiko:

ES: amor romántico
FR: amour romantique
EN: romantic love
sint. er. Haragi-harremanik izan ez edo horiek bigarren mailan jartzen dituen amodio sentipenezkoa, pasio handikoa. Maitearekiko lilura du ezaugarri nagusi, eta askotan amaiera tragikoa izaten du.

maitasun libre:

ES: amor libre
FR: amour libre
EN: free love
1. *sint. er.* Desiraren arabera sexu-harremanak izatean datzan maitasun mota; gizarteko arauak baztertzen ditu, eta afektuak eta sentimenduak ere ez ditu modu eksklusiboan bideratzen. 2. *sint. er.* Bikote-harremana; bikotekideak elkarrekin dabilta, baina ez diote elkarri leialtasunik agintzen. Modan egon zen 60-70eko hamarkadetan.

maitasun platoniko:

ES: amor platónico
FR: amour platonique
EN: platonic love
sint. er. Maitasun idealizatua, sexu-harremanik gabekoa.

Ikus: maitasun erromantiko.

maitasuna egin:

ES: hacer el amor

FR: faire l'amour

EN: make love

ad. Era leunean, jokabide erotiko partekatuak izan, afektuzko adierazpenak ere barne.

maitatu:

ES: querer, amar

FR: aimer

EN: love

ad. Norbaitenganako afektuzko atxikimendu- eta samurtasun-sentimenduak izan. Maite izan, norbaiti edo zerbaiti maitasuna izan.

maite egin:

ES: acariciar

FR: caresser

EN: caress

Ikus: laztandu.

maite izan:

ES: querer, amar

FR: aimer

EN: love

Ikus: maitatu.

maite-afera:

ES: aventura, romance

FR: romance

EN: romance

Ikus: amodio-kontu, maite-kontu.

maite-jolasean ibili:

ES: flirtar

FR: flirter

EN: flirt

Ikus: flirtean ibili.

maite-kontu:

ES: amorío

FR: romance

EN: fling, romance

iz. Iraunkortasunik gabeko amodio-lotura.

maitemin:

ES:	enamoramiento
FR:	tomber amoureux
EN:	falling in love, amorousness <i>iz.</i> Beste pertsona batek eragindako lilura; pertsona horrekin bikote-harremana izateko nahiz desirak eta sexu-esperientziak elkarrekin bizitzeko nahia eragiten du.

Ikus: amodio, maitasun.

maitemindu:

ES:	enamorar (se)
FR:	tomber amoureux
EN:	fall in love <i>ad.</i> Norbaitenganako maitasun-grina piztu edo hartaz liluratu.

maiteminduen eguna:

ES:	día de los enamorados, San Valentín
FR:	Saint Valentin
EN:	Valentine's Day <i>sint. er.</i> Otsailaren 14an ospatu ohi da.

maitemintze:

ES:	enamoramiento
FR:	tomber amoureux
EN:	falling in love, amorousness <i>iz.</i> Gizaki batek beste baten alde sentitzen duen erakargarritasun bizia, maitasun-sentimenduek eragina.

Ikus: maitemin.

maitetxe:

ES:	casa de citas
FR:	bordel
EN:	whorehouse, brothel <i>iz.</i> Prostituzio-etxea.

Ikus: burdel, putetxe.

maiztasun:

ES:	frecuencia
FR:	fréquence
EN:	frequency <i>iz.</i> Gertakari bat denbora-tarte jakinetan errepikatzen den aldi kopurua.

makurtu:

ES:	flexionar
FR:	fléchir
EN:	flex, bend

ad. Zuzen edo zutik dagoena giltzaduretatik tolestu.

malgu:

ES:	flexible
FR:	flexible
EN:	flexible

izond. Hautsi gabe okertu daitekeena.

malgutasun:

ES:	flexibilidad
FR:	flexibilité
EN:	flexibility

iz. Malgua denaren ezaugarria.

malko:

ES:	lágrima
FR:	larme
EN:	tear

iz. Likido urtsu gazia eta alkalinoa; malko-guruinek jariatzen dute, konjuntiba hezetzeko. Begi-globoaren eta betazalaren mugimenduak errazten ditu.

malko-:

ES:	lacrimal, lagrimal
FR:	lacrymale
EN:	lacrimal, lachrymal

1. (Hitz elkartuetan) Malkoei dagokiena. 2. (Hitz elkartuetan) Malkoak eratzen eta isurtzen dituzten organoei dagokiena.

maluta egin:

ES:	paja, hacerse una
FR:	se branler
EN:	wank, wank off

iz. (adkor.) Masturbatu.

Ikus: masturbatu.

mamario:

ES:	mamario
FR:	mammaire
EN:	mammary

izond. Ugatz-guruinei dagokiena.

mamografia:

ES: mamografía

FR: mammographie

EN: mammography

iz. X izpiekin egiten den proba berezia, bularretan koskor kantzerigenorik baden edo ez ikusteko.

Ikus: mastektomia.

mania:

ES: manía

FR: manie

EN: mania

iz. Gaixotasun edo egoera psikopatologikoa; haren ezaugarri dira: hiperaktibitatea, ideiak galtzea, logorrea, egoera emozional aktiboa, neurriz gairikiko kitzikapena, nahasmena, euforia neurrigabea, norberaren burua gehiegi balioestea, kitzikapen erotiko handia, portaera oldarkorra, eta abar. Psikosi maniako-depresiboen aldiatariko bat da.

maniako:

ES: maníaco

FR: maniaque

EN: maniac, maniacal

1. *izond.* Maniari dagokiona. 2. *izond.* Maniak jota dagoena.

maniako sexual:

ES: maníaco sexual

FR: maniaque sexuel

EN: sex maniac

sint. er. Sexuaz obsesionaturik, grina kontrolatzeko gai ez dena. Sexu-maniak adierazpen mota ugari izan ditzake; adibidez, satirismoa: halakoetan, maniakoak emakume bakartien kontrako joera oldarkorrak adierazten ditu.

mari-gizon:

ES: virago, marimacho

FR: virago, hommasse

EN: virago, butch

iz. Gizonaren jokabideak, itxura... dituen emakumea; ez du zertan homosexuala izan.

Ikus: mari-mutil.

marihuana:

ES: marihuana

FR: marihuana

EN: marihuana

iz. Kalamuaren lore eta hosto ihartuen nahasketa; droga moduan erabiltzen da, tabako gisa errez. Droga psikoaktiboa da. Hainbat gaixotasunen tratamenduan ere erabiltzen da: minbizian –kimioterapiak eragindako goitiken aurka–, glaukoman, eta abar.

maritxu:

ES:	afeminado
FR:	efféminé
EN:	effeminate

iz. Gizonezko emetia adierazteko hitz iraingarria.

Ikus: emagizon, emeti, emeki.

maritxu-manerak (izan):

ES:	pluma (tener)
FR:	être twee
EN:	(be) camp

iz. Esamolde diskriminatzailea; eme-jokabide maneratsua erakusten duen gizonezkoaz esaten da.

martxoaren 8a:

ES:	8 de marzo
FR:	8 mars
EN:	8th March

sint. er. Emakumeen Nazioarteko Eguna

masaje:

ES:	masaje
FR:	massage
EN:	massage

iz. Prozedura terapeutikoa edo plazerezko ariketa; eskuz zein tresnaz egin daiteke, igurtziz, zapalduz edo kolpetxoak emanez. Gorputzeko ehun bigunak manipulatzeko dira. Masajearen helburuak dira zirkulazioa eta gihar-tonua hobetzea, erlaxatzea, eta kitzikatzea, besteak beste.

masaje-emaile:

ES:	masajista
FR:	masseur
EN:	masseur

Ikus: masajista.

masajista:

ES:	masajista
FR:	masseur
EN:	masseur

izond. Masajeak emateko gaitua.

maskulinitate:

ES:	masculinidad
FR:	masculinité
EN:	masculinity

iz. Gizonezkoen ezaugarri denaren nolakotasuna.

Ikus: maskulinotasun.

maskulinizatze:

ES:	masculinización
FR:	masculinisation
EN:	masculinisation

iz. Gizonezkoen ezaugarriak hartzea edo garatzea.

maskulino:

ES:	masculino
FR:	masculin
EN:	masculine

izond. Gizonezkoei dagokiena.

maskulinotasun

ES:	masculinidad
FR:	masculinité
EN:	masculinity

iz. Gizonezko izatea definitzen duen ezaugarri multzoa, batik bat lehen mailako sexu-ezaugarriak eta bigarren mailakoak.

masokismo:

ES:	masoquismo
FR:	masochisme
EN:	masochism

iz. Sufrimendu fisiko nahiz psikologikoarekin lortutako plazer erotikoa. Sexu-perbertsioa; plazera lortzen da norberaren sufrimenduaren, tratu txar fisikoen, mentalen edo emozionalen bidez.

Ikus: sexu-masokismo.

masokista:

ES:	masoquista
FR:	masochiste
EN:	masochistic

1. *izond.* Masokismoari dagokiona. 2. *izond.* Masokismoa praktikatzen duena.

mastektomia:

ES:	mastectomía
FR:	mastectomie
EN:	mastectomy

iz. Ugatzaren edo ugatz-guruinaren atal baten erauzketa. Bi eratakoa izan daiteke: sinplea edo erabatekoa. Mastektomia sinplean, ugatz-ehuna bakarrik erauzten da; erabateko mastektomian, berriz, ugatzarekin batera, horma torazikoko zenbait gihar eta besapeko gongoil linfatiko guztiak erauzten dira. Ebakuntza horrek emakumearen bizitza sexuarean eragin negatiboa izan dezake, emetasunaren eta erakargarritasunaren elementu den titiaren galeragatik.

Ikus: mamografia.

masturbatu:

ES:	masturbar(se)
FR:	masturber, se masturber
EN:	masturbate, wank off

ad. Plazera bilatu, sexu-organoak igurtziz edo haiei eraginez. Bakarka edo konpainian egin daiteke.

masturbazio:

ES:	masturbación
FR:	masturbation
EN:	masturbation

iz. Nork bere buruari edo beste pertsona bati, eskuz, gorputzeko beste atal baten bidez edo objektu batez organo genitalak estimulatzea, helburu erotikoarekin.

matriarkatu:

ES:	matriarcado
FR:	matriarcat
EN:	matriarchy

iz. Agintea bizitza publikoko nahiz pribatuko alor garrantzitsuetan amaren/emakumearen esku dagoen gizarte-egitura.

matrilineal:

ES:	matrilineal
FR:	matrilinéaire
EN:	matrilineal

Ikus: ama-lerroko.

matxismo:

ES:	machismo
FR:	machisme
EN:	machismo, maleness

iz. Gizonezkoak emakumezkoen gainetik daudela ezartzen duen jarrera, pentsamolde edo jokabide multzoa.

meatu:

ES:	meato
FR:	méat
EN:	meatus

iz. Gernua irteten den zuloa.

medikamentu:

ES:	medicamento
FR:	médecine, médicament
EN:	medicine, medicament

Ikus: sendagai.

medikatu:

ES:	medicar
FR:	traiter avec des médicaments
EN:	medicate

ad. Gaixotasunak tratatu, sendagaiak emanaz. Medikamentuak hartu edo harrarazi.

medikazio:

ES:	medicación
FR:	médication
EN:	medication

1. *iz.* Sendagai moduan erabiltzen den gai multzoa. 2. *iz.* Medikamentuen erabilera terapeutikoa.

mediku:

ES:	médico, facultativo
FR:	médecin
EN:	physician

iz. Ikasketa bereziak egin ondoren, medikuntzan jarduteko baimena duen profesionala.

medikuaren errezeta:

ES:	receta médica
FR:	prescription, ordonnance
EN:	prescription

Ikus: errezeta.

mediku-azterketa:

ES:	reconocimiento médico
FR:	examen de santé
EN:	check-up

iz. Medikak egiten dituen proba tekniko eta klinikoen multzoa; pertsona baten osasun-egoera ezagutzeko edo gaixotasun baten diagnostikoa oinarritu ahal izateko egiten da.

medikuntza:

ES:	medicina
FR:	médecine
EN:	medicine

iz. Gaixotasunen diagnostiko, tratamendu eta prebentzioaren zientzia. Osasun-egoera egokia mantentzeaz arduratzen da.

mehaka:

ES:	cadera
FR:	hanche
EN:	hip

Ikus: aldaka.

meiosi:

ES:	meiosis
FR:	méiose
EN:	meiosis

iz. Zelulen heltze sexualaren prozesua.

ménage à trois:

ES:	ménage à trois
FR:	ménage à trois
EN:	ménage à trois

1. *sint. er.* Jarduera erotiko batean parte hartzen duten hiru pertsona. 2. *sint. er.* Hiru pertsonaren arteko sexu-harremana; oro har, bikote batek hirugarren bat sexu-jarduerara gonbidatzen duenean gertatzen da.

menarkia:

ES:	menarquia
FR:	ménarche
EN:	menarche

iz. Hileko-zikloen hasiera, pubertaroan; lehenbiziko hilekoa; 11-13 urte bitartean izaten da, oro har, baina, pertsonen eta herrialdeen arabera, badira aldeak.

mendekotasun:

ES:	dependencia, sometimiento
FR:	dépendance, soumission
EN:	dependence, dependency, submission

iz. Besteek norberaren ardura hartzeko behar gehiegizkoa eta orokortua, jokabide mendekoak eta itsaskorrak nahiz banantzeko beldurra eragiten dituen.

menopausia:

ES: menopausia

FR: ménopause

EN: menopause

1. *iz.* Hilekoen berezko etetea. Hormonen funtzio ziklikoa murrizten da pixkanaka, estrogenoen eta gonadotropinen ekoizpena urritu, eta, ondorioz, obulazioen eta hilekoen maiztasuna jaisten da, erabat desagertu arte. Asaldur fisikoak (estrogenorik ezaren ondorioz) eta psikologikoak dakartza. 2. *iz.* Delako etena gertatzen den garaia, 45-55 urte bitartekoa.

Menopausiaren Munduko Eguna:

ES: Día Mundial de la Menopausia

FR: Journée Mondiale de la Ménopause

EN: World Menopause Day

sint. er. Urriaren 18an ospatu ohi da.

menopausiko:

ES: menopáusico/a

FR: ménopausique

EN: menopausal

1. *izond.* Menopausia-garaian dagoen emakumea. 2. *izond.* Menopausiari dagokiona.

menorragia:

ES: menorragia

FR: ménorragie

EN: menorrhagia

iz. Ohikoa baino hileko luzeagoa, edo odol-isuri handiagokoa. Odolaren presio handiaren, hormonen gorabeheren eta beste zenbait ondoreen ondorioz gertatzen da.

menpeko:

ES: adicto

FR: addicte

EN: addict

iz. Menpean dagoena. Bereziki, drogarekiko menpekotasuna duena. Sexuarekiko menpekotasuna ere izan daiteke.

menpekotasun:

ES: adicción

FR: addiction, assuétude

EN: addiction

iz. Gai, ohitura nahiz jardute batekiko dependentzia konpultsibo eta kontrolaezina; mendekotasuna eragiten duena faltatuz gero, erreakzio mental, fisiologiko nahiz emozional larriak gerta daitezke.

menpekotasun-eragile:

ES:	adictivo
FR:	addictif
EN:	addictive

izond. (Gai bati buruz) Mendean erorarazten duena; drogaren bat, gehienetan.

menstruazio:

ES:	menstruación
FR:	menstruation
EN:	menstruation

Ikus: hileko.

menstruazio aurreko sindrome:

ES:	síndrome premenstrual
FR:	syndrome prémenstruel
EN:	premenstrual syndrome

Ikus: hilekoaren aurreko sindrome (HAS).

menstruazio-ziklo:

ES:	ciclo menstrual
FR:	cycle menstruel
EN:	menstrual cycle

iz. Emakumearen organo genitalak haurdunaldirako prestatzeko helburuarekin, hormonetan, obulutegietan eta umetokian gertatzen diren aldaketak.

Ikus: hilekoaren ziklo.

mental:

ES:	mental
FR:	mental
EN:	mental

1. *izond.* Funtzio intelektualei edo psikismoari dagokiona. 2. *izond.* Buruan dagoena; buruan gertatzen edo egiten dena. 3. *izond.* Buruko asaldu bati dagokiona, edo asaldu hori ezaugarri duena.

meseta-fase:

ES:	fase de meseta
FR:	phase de plateau
EN:	plateau phase

iz. Giza erantzun sexualaren aldietako bat. Sexu-kitzikapenaren maila altu eta mantenduari deritzo. Orgasmoaren aurreko egoera izan ohi da, deskargarik gabekoa, plazer-intentsitate handikoa.

Ikus: goialdi fase.

mestizaje:

ES:	mestizaje
FR:	métissage
EN:	miscegenation

iz. Bi giza arrazaren arteko gurutzatzearen emaitza.

mestizo:

ES:	mestizo
FR:	métis
EN:	of mixed race

izond. Arraza desberdinetako aita-amak dituen.

metadona:

ES:	metadona
FR:	méthadone
EN:	methadone

iz. Opiotik ateratzen den analgesiko narkotiko sintetikoa. Morfinaren antzeko substantzia. Min bortitza baretzeko, toxikomanoen desintoxikazioaren tratamendurako eta heroinaren menpekoentzako tratamendu-programetan erabiltzen da. Ahotik har daiteke, eta iraupen luzea du.

metaidoplastia:

ES:	metaidoplastia
FR:	metoidioplastie
EN:	metoidioplasty

Ikus: metoidioplastia.

metamorfosi:

ES:	metamorfosis
FR:	métamorphose
EN:	metamorphosis

iz. Organismo baten garapen-faseko forma- eta egitura-aldaketen multzoa.

metodo:

ES:	método
FR:	méthode
EN:	method

iz. Modu planifikatuan eta koherentziaz erabiltzen den prozedura, helburu batzuk lortzeko.

metodo bikoitz:

ES:	doble metodo
FR:	méthode double
EN:	double method

sint. er. Bi kontrazepzio-metodo erabiltzean datzan babes-neurria; babeskia (kondoia) ipintzea izaten da horietatik bat, eta bestea, berriz, hormonal. Babeskia eta hormona ez den beste metodo bat aldi berean erabiltzea ere metodo bikoitztat har daiteke; ez, ordea, babeskia eta metodo natural bat batera erabiltzea. Nahi gabeko haurdunaldiak eta sexu bidezko infekzioak saihestea da metodo bikoitzaren helburua, eta koitoan erabiltzen da.

Ikus: babes bikoitz.

metodo folklorikoak:

ES:	métodos folklóricos
FR:	méthodes folk
EN:	folk methods

sint. er. Herri-ohiturak, haurdunaldia ustez eragozteko asmatuak; berez, ez dira eraginkorrak eta ez dute oinarri zientifikorik. Metodo naturalak folklorikotzat har daitezke, hein batean, eta orobat coitus interruptus deritzona nahiz edoskitzaroko amenorrea edo baginan eiakulatu ondorengo bagina-garbiketak.

metodo mekaniko:

ES:	método mecánico
FR:	méthode mécanique
EN:	mechanical method

sint. er. Haurdunaldia saihesteko sistema, oinarri mekanikoa duena: preserbatiboa (maskulinoa zein femeninoa), diafragma, kontrazepzio-belakia, umetoki barneko gailuak...

metodo naturalak:

ES:	métodos naturales
FR:	méthodes naturelles
EN:	natural methods

sint. er. Familia-plangintzako metodoak; aldi jakin batzuetan, sexu-jarduerak utzi egiten dira, eta bi baldintza bete behar dira metodoa eraginkorra izan dadin: batetik, obulazio-garaiko aldi ugalkorra identifikatu behar da; hurrengo hilekoa hasi baino hamalau egun lehenago izaten da eskuarki; eta, bestetik, koitoa saihestu egin behar da obulazio aurreko eta osteko zenbait egunetan.

metodo sintotermiko:

ES:	método sintotérmico
FR:	méthode sympto-thermique
EN:	symptothermal method

sint. er. Kontrazepzio-estrategia, obulazioa adierazten duten seinaleak eta tenperatura behatzean oinarritua; umetoki-lepoko mukia behatu behar da egunean zenbait bider, eta orobat umetoki-lepoaren sarrera (obulazioan handitu egiten da) eta beste sintoma batzuk, hala nola sabeleko oinazea eta bularren sentikortasuna; horiekin batera, tenperatura ere bai (obulazioan, igo egiten da). Metodo naturalen artean, seguruena da, baina zalantza handiak daude zientziaren ikuspegitik haren eraginkortasuna epaitzerakoan. Erlijio katolikotik gertu dabiltzan kolektiboetan bultzatu da batez ere metodo hori.

metodologia:

ES: metodología

FR: méthodologie

EN: methodology

iz. Edozein diziplinatan jarduteko printzipioen nahiz metodoen multzoa.

metoidioplastia:

ES: metoidioplastia

FR: metoidioplastie

EN: metoidioplasty

iz. Transexual ar bihurtzeko egiten den ebakuntza; zakila, besoko ehunetatik sortu beharrean, klitorisa handituz egiten diete, nahiz eta zakil txiki samarra geratzen den.

metrosexual:

ES: metrosexual

FR: métrosexuel

EN: metrosexual

izond. Bere buruaren estetikari garrantzi handia ematen dion gizon heterosexuala.

miaketa:

ES: exploración

FR: examen

EN: examination

Ikus: azterketa.

miatu:

ES: explorar

FR: explorer

EN: examine

Ikus: aztertu.

miazkatu:

ES: lamer

FR: lécher

EN: lick

ad. Mingainaz igurtzi.

mihi:

ES: lengua

FR: langue

EN: tongue

Ikus: mingain.

mihi-:

ES: lingual
FR: lingual
EN: lingual
(Hitz elkartuetan)

Ikus: mihiko.

mihiko:

ES: lingual
FR: lingual
EN: lingual
izlag. Mihiari dagokiona, edo mihian dagoena.

mihipeko:

ES: sublingual
FR: sublingual
EN: sublingual
izond. Mihiaren azpian dagoena, edo mihiaren azpian ezartzen dena.

mikosi:

ES: micosis
FR: mycose
EN: mycosis
iz. Onddoek eragindako edozein gaixotasun. Hiru mikosi mota bereiz daitezke: onddoek eragindako mikosiak, legamiek eragindakoak eta legamien antzeko onddoek eragindakoak.

mikrobio-flora:

ES: flora microbiana
FR: flore microbienne
EN: microflora
iz. Organismoko zenbait ehun nahiz barrunbetan bizi den mikrobio multzoa.

Milurtekorako Garapen Helburuak:

ES: Objetivos de Desarrollo para del Milenio
FR: Objectifs du Millénaire pour le Développement
EN: Millennium Development Goals
sint. er. Pobrezia arintzeko eta bizimodua hobetzeko egindako hitzarmena; mundu osoko agintariek sinatu zuten, 2000ko irailean, Milurteko Goi Bileran. 2015 jomugatzat harturik eta ekimena 1990ean abiataturik, sexu-bizitzari dagozkion honako helburu hauek finkatu ziren, besteak beste:
-Genero-berdintasuna sustatzea eta emakumeari ahalmena ematea.
-Ama-osasuna hobetzea.
-GIBaren eta hiesaren, malariaren eta bestelako gaitzen aurka ekitea.

min:

ES:	dolor
FR:	douleur
EN:	pain

iz. Sentsazio desatsegina; nerbio-bukaera sentiberen kitzikapen kaltegarriak eragiten du. Hanturaren oinarritzko sintoma da, eta oso baliagarria da hainbat asaldu eta eritasun diagnostikatzeko.

minbera:

ES:	dolorido, doloroso
FR:	froissé, douloureux
EN:	painful

izond. Mina sentitzen duena.

Ikus: gaitzikor.

minbizi:

ES:	cáncer
FR:	cancer
EN:	cancer

iz. Tumore txarra; batik bat, epitelio-zelulaz osatutakoa. Inguruko ehunetara hedatzeko joera du. Zelulen anormaltasuna du ezaugarri nagusia. Ondorengo zelulei transmititzen zaie anormaltasun hori, eta murriztu egiten dira zelulen hazkuntza eta funtzioak. Ondorioz, gaixoaren immunitate-mekanismoari erasaten dio.

mingain:

ES:	lengua
FR:	langue
EN:	tongue

iz. Aho-barrunbeko organo haragitsua, dastamen- eta listu-guruinak dituen. Organo sexu-kitzikatzaile nagusietako bat da.

Ikus: mihi.

mingarri:

ES:	doloroso
FR:	douloureux
EN:	painful

izond. Min fisiko nahiz morala eragiten duena.

minik gabeko:

ES:	indoloro
FR:	indolore
EN:	painless

izlag. (Gaixotasunei edo ekintza terapeutikoei buruz) Minik ematen ez duena.

minik gabeko erditze

ES:	parto sin dolor
FR:	accouchement sans douleur
EN:	painless childbirth

sint. er. Lasaiarazteko eta erdiminak baretzeko erabiltzen den teknika multzoa.

minipilula:

ES:	minipildora
FR:	minipilule
EN:	minipill

iz. Progesterona sintetikoazko dosi espezifikoak dituen pilula. Ez da ohiko pilula bezain eraginkorra, eta, hartze bat ahaztuz gero, haurdun geratzeko arriskua handiagoa da. Egutero hartu behar da, hutsik egin gabe.

mintz:

ES:	membrana
FR:	membrane
EN:	membrane

iz. Azalera bat nahiz barrunbe bat estaltzen duen ehunezko geruza mehea.

mintzo gabeko komunikazio:

ES:	comunicación no verbal
FR:	communication non verbale
EN:	nonverbal communication

sint. er. Hitzekoa ez den komunikazioa, gorputzaren mugimenduen, keinuen, jarrerren, kokapenen, janzkeren, apaingarrien eta abarren bidez gauzatzen dena.

misiolariaren jarrera:

ES:	postura del misionero
FR:	position du missionnaire
EN:	missionary position

iz. Gorputz-jarrera erotikoa. Gizonezkoa emakumezkoaren gainean eta aurrez aurre kokatzen da. Jarrera klasikotzat jotzen da gaur egun.

misoginia:

ES:	misoginia
FR:	misogynie
EN:	misogyny

iz. Emakumeen aurkako sineskizun, iritzi, jarrera nahiz jokabide oldarkor, gorroto, herra, bereizkeria eta irrigarrikeria multzoa. Ez dakar, nahitaez, emakumeekin plazer erotikorik ez izatea.

mito:

ES: mito

FR: mythe

EN: myth

1. iz. Sinesmen okerra. 2. iz. Herrien kontakizun tradizionala, non narrazio baten bidez adierazten baitira kultura baten fundazioa, haren mundu-ikuspegia eta sentitzeko modua.

mito erotiko:

ES: mito erótico

FR: mythe érotique

EN: erotic myth

sint. er. Garai bateko erotismo ideala ordezkatzeko duen edo haren ikurra den pertsonaia.

Ikus: sex-symbol.

mito sexual:

ES: mito sexual

FR: mythe sexuel

EN: sexual myth

sint. er. Sexuari buruzko sineste edo uste faltsua.

mitosi:

ES: mitosis

FR: mitose

EN: mitosis

iz. Zelula somatikoetan gertatzen den zatiketa; zelularen gunea bi zelula berritan zatitzen da. Mitosiaren bidez, zelula berriak sortzen ditu organismoak, bai hazkuntzarako, bai kaltetutako ehunak konpontzeko. Laualdi bereizten dira: profasea, metafasea, anafasea eta telofasea.

mittelschmerz:

ES: mittelschmerz

FR: mittelschmerz

EN: mittelschmerz

iz. Obulazio-aldian agertzen den mina. Alemanez, 'tarteko mina' esan nahi du, hilekoaren aldien tartean agertzen baita.

moko-azal:

ES: prepucio

FR: prépuce

EN: prepuce, foreskin

Ikus: prepuzio.

moldagarritasun:

ES: adaptabilidad

FR: adaptabilité

EN: adaptability

iz. Era askotako gertaerataraz egokitzeko ahalmena, hala gorputzez, nola buruz.

mongolismo:

ES: mongolismo

FR: trisomie

EN: mongolism

Ikus: down syndrome.

monogamia:

ES: monogamia

FR: monogamie

EN: monogamy

iz. Bikotekide bakarraz izatea ezaugarri duen ezkontza-eredua. Monogamiak bata bestearen ondoren gerta daitezke. Mendebaldeko kulturaz, monogamia da araua; debekatuta dago pertsona batekin baino gehiagorekin ezkontzea.

monozigotiko:

ES: monocigótico

FR: monozygote

EN: monozygotic

izond. Obulu ernaldutako edo zigoto bakarretik garatua.

morbido:

ES: mórbido

FR: morbide

EN: morbid

1. *izond.* Egoera patologikoa nahiz anormal bati dagokiona. 2. *izond.* Gaixotasun bat duena, edo gaixotasuna eragiten duena.

morbilitate:

ES: morbilidad

FR: morbidité

EN: morbidity

1. *iz.* Lurralde batean gaixotasun baten agertze-tasa. 2. *iz.* Gaixotasun, prozesu edo ezaugarri anormala.

morbo:

ES: morbo

FR: être morbide

EN: morbid fascination

iz. Pertsona edo gauzenganako interes gaixobera. Gertaera desatseginek erakartzea.

morboso:

ES: morboso

FR: morbide

EN: morbid

izond. Morboari dagokiona, morbo-joera duena.

morfologia:

ES: morfología

FR: morphologie

EN: morphology

iz. Lagin, landare edo animalia baten forma fisikoaren eta neurriaren azterketa.

morula:

ES: mórula

FR: morula

EN: morula

iz. Masa solido esferikoa; blastomeroz eratua. Ernaldutako obuluaren zatitzetik sortzen da, enbrioaren garapenaren hasierako aldian.

motibazio:

ES: motivación

FR: motivation

EN: motivation

iz. Portaeraren barne-eragilea; organismoaren jardura abiarazten du, eta haren norabidea zuzentzen.

motxin:

ES: coño

FR: chatte

EN: pussy, cunt, fanny

Ikus: alu

mozkor:

ES: ebrio

FR: ivre

EN: drunk, inebriate

izond. Edari alkoholikoak hartzeagatik burua nahasturik duena.

mozkorkeria:

ES: embriaguez

FR: ivresse

EN: ebriety, inebriation

iz. Edari alkoholodun gehiegi hartzeak dakarren egoera maiz errepikatzeko ohitura.

mozkorraldi:

ES:	borrachera
FR:	ivresse
EN:	get drunk

iz. Mozkorturik iragaten den denbora.

mozkortasun:

ES:	ebriedad
FR:	ivresse
EN:	drunkenness

iz. Intoxikazio alkoholikoa; bereziki, maiz horditzeko grina edo joera.

mozkortu:

ES:	emborrachar, embriagar
FR:	soûler
EN:	get drunk

ad. Alkoholdun edariren bat hartu, zentzumenak eta ahalmenak asaldatu arte.

mugikortasun:

ES:	movilidad
FR:	mobilité
EN:	mobility

iz. Mugitzeko gaitasuna.

muin:

ES:	beso, ósculo (no dado en la cara)
FR:	baiser
EN:	osculation

iz. Aurpegitik at ematen den musua.

muin egin:

ES:	besar
FR:	baiser
EN:	kiss

ad. Norbait ezpainez ukitu.

Ikus: musu eman.

muki:

ES:	moco
FR:	mucus
EN:	mucus

iz. Muki-mintzek eta -guruinek jariatzen duten gai likatsu irristakorra. Ura, muzina, gatz inorganikoak eta leukozitoak ditu osagai. Muki-mintza babestea du eginkizun nagusia; bakterioak, partikula pozoitsuak eta kanpoko beste gai arriskutsu batzuk harrapatzen ditu, gorputz barnera sar ez daitezen.

muki zerbikala:

ES:	moco cervical
FR:	glaire cervicale
EN:	cervical mucus

sint. er. Umetokiko mukosek jariatzen duten likidoa. Baginako lepoan eta paretetan topa daiteke. Muki zerbikala nabarmenago irteten den egunetan bagina-sarketa eginez gero, espermatozoideek obulua ernaltzeko aukera gehiago dute.

muki-mintz:

ES:	mocosa
FR:	muqueuse
EN:	mucous membrane

Ikus: mukosa.

mukitsu:

ES:	mucoso
FR:	muqueux
EN:	mucous

izond. Mukia dariona.

mukosa:

ES:	mucosa
FR:	muqueuse
EN:	mucosa

iz. Gorputzeko hainbat atal estaltzen dituen ehun-geruza mehea. Epitelio-ehuneko azaleko geruza bat dauka muki-mintzak, ehun konektiboazko beste geruza sakonago baten gainean. Mukosak azpiko egitura babesten du, eta orobat mukia jariatuz, eta ura, gatzak eta beste zenbait solutu xurgatu.

Ikus: muki-mintz.

mukoso:

ES:	mucoso
FR:	muqueux
EN:	mucous

izond. Mukiaren antzekoa.

muskular:

ES:	muscular
FR:	musculaire
EN:	muscular

izond. Muskuluari dagokiona, edo muskuluan dagoena.

muskulatura:

ES: musculatura

FR: musculature

EN: musculature

iz. Gorputz osoko edo zati bateko muskuluen multzoa eta antolaketa.

muskulazio:

ES: musculación

FR: musculation

EN: body-building

iz. Giharren garapena, hainbat ariketa metodikoren bidezkoa.

muskulu:

ES: músculo

FR: muscle

EN: muscle

iz. Organo uzkurkorra, zuntzez osatua eta mugimendua eragiteko balio duena.

muskulu-:

ES: muscular

FR: musculaire

EN: muscular
(Hitz elkartuetan)

Ikus: muskular.

muskulu barneko:

ES: intramuscular

FR: intramusculaire

EN: intramuscular

izlag. Muskulu-ehunaren barnealdeari dagokiona.

muskulu barneko injekzio:

ES: inyección intramuscular

FR: injection intramusculaire

EN: intramuscular injection

sint. er. Muskulu batean jartzen den injekzioa, sendagai bat emateko helburuz.

muskulu pubokokzigeo:

ES: músculo pubococcígeo

FR: muscle pubo-coccygien

EN: PC muscle

sint. er. Organo genitalean eta uzkiean eragiten duen organo uzkurkorra, zenbait gihar elkarturik eratua, pubis hezurretik kokzixerainokoa; zuntzez osatua da eta mugimendua eragiteko balio du. Eiakulazioaren kontrolean, baginaren sentikortasunean, pixaren kontrolean, erditzean eta abarretan eragina duenez, zailtasunak eragin baititzake gihar pubokokzigeoaren ahuleziak, bizitza sexualean zeregin garrantzitsua du. Kegel-en ariketak eginez landu eta indartu daiteke.

muskuluko:

ES:	muscular
FR:	musculaire
EN:	muscular

izlag. Muskuluan dagoena; muskuluari dagokiona.

Ikus: muskular.

musu:

ES:	beso
FR:	baiser
EN:	kiss

iz. Ezpainez, ahoaz eta mihiaz lagundurik arinki xurgatuz edo sakonki laztanduz egin daitekeen kontaktua; pertsona baten ezpainek beste pertsona baten ezpainekin edo gorputzeko atalen batekin egiten dute kontaktu hori.

musu aho-genital:

ES:	beso bucogenital
FR:	baiser buccogénital
EN:	oral sex kiss

Ikus: aho-genital.

musu eman:

ES:	besar
FR:	baiser
EN:	kiss

ad. Norbait ezpainekin ukitu, ezpainetan nahiz beste edozein ataletan. Maitasuna, adiskidetasuna, begirunea nahiz sexu-desira adieraz dezake musuak. Intimitatezko ekingintza da musu ematea, eta sexu-bizitzaren atal garrantzitsua.

musu frantses:

ES:	beso francés
FR:	baiser français
EN:	French kiss

sint. er. Mihia besteren ahoan sartuz ematen den musua.

musukatu:

ES:	besuquear
FR:	se bécoter
EN:	neck

ad. Behin eta berriz musu eman.

mutante:

ES: mutante

FR: mutant

EN: mutant

izond. (Gene, kromosoma edo genoma berri bati buruz) Lehendik zegoen baten mutazioz sortua.

mutazio:

ES: mutación

FR: mutation

EN: mutation

iz. Material genetikoaren ezohiko aldaketa. Geneak unitate egonkorak dira; baina, mutazio bat gertatzen denean, ondorengo belaunaldiei transmititzen zaie aldaketa hori.

mutur:

ES: punta

FR: bout

EN: tip



nagusitasun:

ES:	adultez
FR:	âge adulte
EN:	adulthood

Ikus: heldutasun.

nahi gabeko:

ES:	involuntario
FR:	involontaire
EN:	involuntary

izlag. Norabide edo kontrol kontzienterik gabe edo borondaterik gabe gertatzen dena. Erreflexu-mugimenduei eta zuntz leunezko giharrei dagokie bereziki.

nahi gabeko eiakulazio:

ES:	eyaculación involuntaria
FR:	éjaculation involontaire
EN:	involuntary ejaculation

sint. er. Nahi gabe gertatzen den isurketa, hala nola, lotan gertatutakoa.

napoliar:

ES:	napolitano
FR:	napolitain
EN:	Neapolitan

iz. Sexu-jarduera homosexuala.

narritadura:

ES:	irritación
FR:	irritation
EN:	irritation

iz. Neurritz kanpoko sentikortasuna gune batean.

narritagarri:

ES:	irritante
FR:	irritant
EN:	irritating

izond. (Gai bati buruz) Hantura edo narritadura eragiten duena.

narritakor:

ES: irritable

FR: irritable

EN: irritable

izond. Estimuluen aurrean neurritz kanpoko sentikortasuna duena.

narritakortasun:

ES: irritabilidad

FR: irritabilité

EN: irritability

iz. Ezohiko sentikortasuna eta kitzikagarritasuna ezaugarri dituen egoera.

narritatu:

ES: irritar

FR: irriter

EN: irritate

ad. Gaixotasunezko kitzikadura eragin organo batean edo gorputz atal batean; gunea arinki handitu, eta mina edo erreakzioren bat gertarazi.

narritatze:

ES: irritación

FR: irritation

EN: irritation

Ikus: narritadura.

nartzisismo:

ES: narcisismo

FR: narcissisme

EN: narcissism

iz. Norberaren irudia neurritz gain ederrestea.

necking:

ES: necking

FR: necking

EN: necking

iz. Gerritik bururainoko laztan erotikoak.

Ikus: petting.

negar egin:

ES: llorar

FR: pleurer

EN: cry

ad. Begietatik malkoak isuri; atsekabearen, minaren edo besteren ondorioz.

negargarri:

ES:	deplorable
FR:	déplorable
EN:	deplorable

izond. Negarra eragiten duena.

negarti:

ES:	llorón
FR:	pleurnichard
EN:	cry baby

iz. Askotan edo erraz negar egiten duena.

negartsu:

ES:	lloroso
FR:	larmoyant
EN:	tearful

izond. Negarra dariona.

Ikus: negarti.

negel:

ES:	erupción
FR:	éruption
EN:	rash

Ikus: herpes, erupzio.

nekatu:

ES:	cansar(se), fatigar(se)
FR:	(se) fatiguer
EN:	tire

1. *ad.* Indarra gutxitu, lanaren edo ahaleginaren ondorioz. 2. *ad.* Gogaitu edo gogaitarazi, gauzak gehiegi errepikatzearen ondorioz.

neke:

ES:	fatiga
FR:	fatigue
EN:	fatigue

iz. Gehiegizko jardueraren ondorioz sortutako egoera eta sentazio fisikoa. Ehunen gaitasunaren galera dakar; egoera normalean giharren uzurdura edo beste jardueraren bat eragiten duten estimuluek ez dute halako eraginik, nekearen ondorioz. Neke jarraituak abaildura-egoerara eramaten du. Abailduraren ezaugarri dira: eguneroko jardueretarako gaitasunik eza, kexa fisikoak gehitzea, kontzentratzeko gaitasunaren narriadura eta sexu-desira gutxitzea.

nekrofilia:

ES:	necrofilia
FR:	nécrophilie
EN:	necrophilia

iz. Sexu-aberrazioa; nekrofilikoek plazera lortzen dute hilotz bat ikusita edo ukituta.

neonatal:

ES:	neonatal
FR:	néonatal
EN:	neonatal

izond. (Aro bati buruz) Jaiotza ondorengo lehenengo 28 egunak betetzen dituen.

nerabe:

ES:	adolescente
FR:	adolescent
EN:	adolescent

izond. Nerabezaroan dagoena; aro horretan, gorputzak ez du lortu oraindik heldutasun fisikoa.

nerabezaro:

ES:	adolescencia
FR:	adolescence
EN:	adolescence

iz. Pubertaroaren hasieratik heldutasunera doan adin-tartea; aldaketa fisiko, psikologiko, sozial eta emozionalak gertatzen dira aro horretan. Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, 10 urterekin hasten da, bigarren mailako sexu-ezaugarriak agertzen direnean, eta 20 urte arte irauten du. Dena den, gizartearen, kulturaren, eta garapen psikoafektiboaren baitan dago aldi hori. Hau da, haurra izatetik heldua izatera ez dago tarterik zenbait lurralde ez-garatutan. Garatuen dauden lurraldeetan, berriz, aldi hori luzeagoa izateko joera dago. Identitatea garatzen da aro horretan, eta aldaketak gertatzen dira bizitzako arlo guztietan; nagusi dira ezegonkortasuna eta muturreko jarrerak hartzea.

nerbio:

ES:	nervio
FR:	nerf
EN:	nerve

iz. Lokarri-itxurako organoa; sentipenen eta bulkaden eroale eta igorlea da. Bulkada aferenteak igortzen ditu organoetatik entzefalora eta bizkarrezur-muinera, eta bulkada eferenteak, aldiz, kanpoaldera. Faszikulutan bilduriko nerbio-zuntzez eraturik daude nerbioak.

nerbio-

ES:	nervioso
FR:	nerveux
EN:	nervous

(Hitz elkartuetan) Nerbioei dagokiena.

nerbio-sistema autonomo (nsa):

ES:	sistema nervioso autónomo
FR:	système nerveux autonome
EN:	autonomic nervous system

sint. er. Nerbio-sistemaren ataletako bat; gorputzeko prozesuak automatikoki erregulatzen ditu, hala nola bihotz-taupadak, begi-ninia dilatatzea, arnasketa eta digestioa.

nerbio-sistema sinpatiko:

ES:	sistema nervioso simpático
FR:	système nerveux sympathique
EN:	sympathetic nervous system

sint. er. Nerbio-sistema autonomoa osatzen duten bi zatietako bat. Betetzen dituen funtzioak dira: erraiak eta odol-hodiak inerbatzea, digestioa moteltzea, bihotz-taupadak bizkortzea, odol-hodiak uzurtzea, eta abar; hala, gorputza estres-egoerei aurre egiteko prestatzen du. Oro har, nerbio-sistema parasinpatikoaren aurkako eragina du.

nesken eguna:

ES:	
FR:	
EN:	

sint. er. Larunbata, batez ere Zuberoako eta Erronkariko euskaraz.

neurobegetatibo:

ES:	neurovegetativo
FR:	néurovégétatif
EN:	neurovegetative

1. *izond.* (Nerbio multzo bati buruz) Borondatearen eta kontzientziaren mende ez dauden organoen funtzioak bateratzen eta erregulatzen dituen. 2. *izond.* Nerbio-sistema begetatiboari dagokiona.

neuroendokrinologia:

ES:	neuroendocrinología
FR:	neuroendocrinologie
EN:	neuroendocrinology

iz. Nerbio-sistemaren eta sistema endokrinoaren arteko harremanaz arduratzen den zientzia.

neurofisiologia:

ES:	neurofisiología
FR:	neurophysiologie
EN:	neurophysiology

iz. Nerbio-sistemaren fisiologiaren arduratzen den zientzia.

neurologia:

ES: neurología

FR: neurologie

EN: neurology

iz. Medikuntzaren adarra; nerbio-sistemaz eta hari erasaten dioten asalduez arduratzen da.

neurologo:

ES: neurólogo

FR: neurologue

EN: neurologist

iz. Neurologian aditua den pertsona.

neuromuskular:

ES: neuromuscular

FR: neuromusculaire

EN: neuromuscular

izond. Aldi berean nerbioei eta giharrei dagokiena.

neurona:

ES: neurona

FR: neurone

EN: neuron

iz. Nerbio-sistemako oinarritzko nerbio-zelula. Gorputz zelular batek eta gorputz horretatik irteten diren luzakinek osatzen dute. Nerbio-bulkadak eroateko ahalmena du.

neurona-:

ES: neuronal

FR: neuronal

EN: neuronal

(Hitz elkartuetan)

Ikus: neuronako.

neuronako:

ES: neuronal

FR: neuronal

EN: neuronal

izlag. Neuronari dagokiona, edo neuronetan dagoena.

neuropsikiatria:

ES: neuropsiquiatría

FR: neuropsychiatrie

EN: neuropsychiatry

iz. Medikuntzaren adarra; aldi berean psikiatrikoak eta neurologikoak diren kasuak aztertzen ditu.

neuropsikologia:

ES:	neuropsicología
FR:	neuropsychologie
EN:	neuropsychology

iz. Goi-mailako nerbio-funtzioen eta garuneko egituren arteko erlazioez arduratzen den zientzia.

neurosi:

ES:	neurosis
FR:	névrose
EN:	neurosis

iz. Gaitz psikogenoa; haurtzarotik datorren gatazka psikiko baten espresio sinbolikoa da haren sintoma nagusia. Antsietatearen nahiz barne-gatazkaren aurrean jokatzeko era desegoki edo ez-eraginkorra da.

neurosi-:

ES:	neurótico
FR:	névrotique
EN:	neurotic

(Hitz elkartuetan)

Ikus: neurotiko.

neurotiko:

ES:	neurótico
FR:	névrotique
EN:	neurotic

1. *izond.* Neurosiari dagokiona. 2. *izond.* Neurosia duena.

neurriak hartu:

ES:	prevenir
FR:	éviter
EN:	prevent

Ikus: prebenitu.

neurritz gaineko urduritasun:

ES:	sobreexcitación, sobreexcitación
FR:	surexcitation
EN:	superexcitation

sint. er. Gehiegizko kitzikapena.

nidazio:

ES: anidación

FR: nidation

EN: nesting

iz. Ernaldutako obulua umetokiko mukosetan kokatzea.

Ikus: habia egite.

nikotina:

ES: nicotina

FR: nicotine

EN: nicotine

iz. Tabako-landaretik ateratzen den alkaloide kolore, disolbagarri, lurrunkor eta toxikoa. Oso erraz disolbatzen da uretan, eta niazina lortzeko eta intsektizidak egiteko erabiltzen da. Nikotina asko hartzeak listu-jarioa, okadak, goitikak, beherakoa, zefalea, zorabioa, erritmo kardiakoa moteltzea eta, kasu larrietan, arnas giharren paralisia eragin ditzake. Tabakoak erektzio-arazoak ekar ditzake, nikotinak odol-fluxuan eragina baitu.

ninfomania:

ES: ninfomanía

FR: nymphomanie

EN: nymphomania

iz. Emakumezkoaren sexu-grina neurrigabea.

ninfomano:

ES: ninfómana

FR: nymphomane

EN: nymphomaniac

izond. Ninfomania duen emakumea.

nozitu:

ES: sufrir

FR: souffrir

EN: suffer

Ikus: sufritu.

nudismo:

ES: nudismo

FR: nudisme

EN: nudism

iz. Biluzik giza ekintzetan parte hartzea, batik bat hondartza-giroan edo antzeko egoeretan. Naturismoaren sinonimotzat jotzen da, baina naturismo kontzeptua zabalagoa da, naturaren errespetua baitu abiapuntu. Nudistek biluzik agertzeko eskubidea aldarrikatzen dute.

nudista, hondartza:

ES: nudista, playa

FR: plage de nudistes

EN: nudist beach

izond. Jendea biluzik egon daitekeen hondartza edo hondartza zatia.

nuliparo:

ES: nulípara

FR: nullipare

EN: nulliparous

Ikus: erdigabe.



obariko:

ES:	ovárico
FR:	ovarien
EN:	ovarian

izond. Obulutegikoa, edo hari dagokiona.

obario:

ES:	ovario
FR:	ovaire
EN:	ovary

Ikus: obulutegi.

obario-adenoma:

ES:	adenoma ovárico
FR:	adénome de l'ovaire
EN:	ovarian adenoma

Ikus: adenoma obariko.

obesitate:

ES:	obesidad
FR:	obésité
EN:	obesity

iz. Gehiegizko gantz-metaketa gorputzean. Batez ere errailetan eta larruazalpeko ehunetan gertatzen da.

obeso:

ES:	obeso
FR:	obèse
EN:	obese

izond. Normala baino pisu handiagoa duena.

objektu erotiko:

ES:	objeto erótico
FR:	objet érotique
EN:	erotic object

Ikus: jostailu erotiko.

obozelula:

ES:	ovocélula
FR:	ovule
EN:	egg cell

Ikus: obulu.

obozito:

ES:	ovocito, oocito
FR:	ovocyte
EN:	oocyte

iz. Obuluaren jatorrizko zelula.

obsesibo:

ES:	obsesivo, obsesionante
FR:	obsessif
EN:	obsessive

1. *izond.* Obsesioari dagokiona. 2. *izond.* Obsesioak jotakoa.

obsesio:

ES:	obsesión
FR:	obsession
EN:	obsession

iz. Behin eta berriz agertzen da ideia, afektu, irudi edo irrika; ezin da burutik kendu; oso desatsegina izan daiteke.

obseso sexual:

ES:	obseso sexual
FR:	freak sexuel
EN:	sex freak

sint. er. Sexuaz obsesionaturik bizi dena.

obstetra:

ES:	obstetra
FR:	obstétricien
EN:	obstetrician

iz. Obstetrizian aditua den medikua.

obstetriko:

ES:	obstétrico
FR:	obstétrical
EN:	obstetrical

izond. Obstetrizari dagokiona.

obstetrizia:

ES:	obstetricia
FR:	obstétrique
EN:	obstetrics

iz. Medikuntzaren adarra, haurdunaldiaz, erditzeaz eta erditu ondorenaz arduratzen dena.

obulatu:

ES:	ovular
FR:	ovuler
EN:	ovulate

ad. Obulua heldu eta obulutegitik kanporatu.

obulazio:

ES:	ovulación
FR:	ovulation
EN:	ovulation

iz. Obulu heldua obulutegitik kanporatzen den hileko zikloaren fasea. Obulua eratzeko eta hartatik askatzeko prozesua, De Graaf-en folikuluan; folikulu helduaren bat-bateko hausturaren ondorioz gertatzen da askatze hori. Askatu ondoren, obulua umetokiraino iristen da Falopioren tronpetan zehar. Obulutegiaren eta hipofisiaren funtzio zikliko endokrinoek eragiten dute obulazioa.

obulazio parazikliko:

ES:	ovulación paracíclica
FR:	ovulation paracyclique
EN:	para-ovulation

sint. er. Hilabete bateko denbora-tartean bi hileko izatea, hilabete horretan bi obulutegiek obulua askatu dutelako.

obulazioaren edo Billings-en metodo:

ES:	método Billings o de la ovulación
FR:	méthode Billings, méthode de l'ovulation
EN:	Billings ovulation method

sint. er. Kontrazepzio-metodo naturala; muki zerbikalaren aldaketez ohartaraztea da metodoaren gakoa, hilekoaren ugal-egunen adierazle baita muki zerbikala. Obulazioaren aurretiko lehen edo bigarren egunean, baginako jarioa areagotu egiten da, eta kolore argiko muki harizpikararen itxura hartzen du, arrautza-zuringoaren antzekoa. Ernaltze-aldian, zurikara edo kolore arrekoa eta likatsua izaten da mukia. Muki ilunxeagoa eta urriagoa jariatzen hasten denetik lauzpabost egunera, koitoak haurdunaldirik ez dakarrela uste da. Billings-en metodoa erabiltzen duenak muki zerbikalaren lagin bat hartu behar izaten du nahitaez. Gainerako metodo naturalak bezala, ez da oso metodo fidagarria; besteak beste, hilekoa irregularra baita berez.

obulu:

ES:	óvulo
FR:	ovule
EN:	ovum, ovule

iz. Emakumeen ugal-zelula. Gametoa, obulazio-garaian, obulutegitik irteten dena.

obulutegi:

ES:	ovario
FR:	ovaire
EN:	ovary

iz. Emearen ugal-guruin nagusia, umetokiaren alde banatan kokatua. Almendra baten itxura du, eta zurixka eta leuna da. Obulazioan, obulu bat askatzen da obulutegiaren azalean dagoen folikulu batetik, hormona gonadotropikoen eraginez. Hileko zikloa erregulatzen duten estrogenoak eta progesterona jariatzen ditu obulutegiko folikulu helduak.

obulutegi-:

ES:	ovárico
FR:	ovarien
EN:	ovarian

(Hitz elkartuetan) Obulutegiari dagokiona.

Ikus: obariko.

obulutegiko adenoma:

ES:	adenoma ovárico
FR:	adénome de l'ovaire
EN:	ovarian adenoma

sint. er. Obulutegiko tumore onbera.

odol:

ES:	sangre
FR:	sang
EN:	blood

iz. Animalien zain-sisteman zirkulatzen duen likidoa, elikagaiak, oxigenoa eta abar banatzen dituen eta hondakinak jasotzen dituen. Biriketan aireztatua izan ondoren, gorputzeko zati guztietara oxigenoa eta elikagaiak banatzen ditu. Hilekoaren garaian, ernaldutako obuluak sortu dituen mukosa, odola eta beste zenbait osagaien arteko nahasketa, oro har odol esaten zaiona.

odol-:

ES:	sanguíneo
FR:	sanguin
EN:	sanguineous

(Hitz elkartuetan) Odolari dagokiona, edo odola duena.

odola darion:

ES:	sangrante, sanguinolento
FR:	sanglant
EN:	bloody, bleeding

sint. er. Odola dariona, edo haren jariora eragiten duena.

odol-ahaidetasun:

ES:	consanguinidad
FR:	consanguinité
EN:	consanguinity

iz. Pertsona batzuen ahaidetza gertukoa edo urrunekoa, asaba bera dutelako.

odoldu:

ES:	ensangrentar
FR:	ensanglanter
EN:	stain with blood, cover in blood

ad. Odolez estali, orbandu, zikindu.

odol-emaile:

ES:	donante de sangre
FR:	donneur de sang
EN:	blood donor

izond. Bere odola ematen duena, odol-banku bati edo beste pertsona bati zuzenean.

odoleztatu:

ES:	ensangrentar
FR:	ensanglanter
EN:	stain with blood, cover in blood

Ikus: odoldu.

odol-fluxu:

ES:	flujo sanguíneo
FR:	flux sanguin
EN:	blood flow

iz. Organo edo ehunetara doan odol kantitate normala.

odoljario:

ES:	hemorragia
FR:	hémorragie
EN:	haemorrhage

iz. Gorputzeko odol-hodiren bat apurtzean gertatzen den odol-galtzea; gorputzaren kanpoaldean zein barnealdean gerta daiteke. Arterietakoa, zainetakoa edo kapilarretakoa izan daiteke.

odolkide:

ES: consanguíneo

FR: consanguin

EN: consanguineous

iz. Beste pertsona batekin ahaidetutako pertsona; arbaso beraren bitartez, material genetikoaren zati bat berdina dute.

Oharrak: Bikote odolkideen ondorengoek arrisku handiagoa dute gaixotasun genetikoak pairatzeko.

odolkidetasun:

ES: consanguinidad

FR: consanguinité

EN: consanguinity

iz. Enbor beretik datozen gizabanakoen ahaidetasun naturala.

odol-talde:

ES: grupo sanguíneo

FR: groupe sanguin

EN: blood group, blood type

iz. Hemoaglutinazio-taldeak bereizten dituen ezaugarri multzoa; halakoak kontuan izan behar dira transfusioak egin aurretik eta haurdunaldian.

odoluzki:

ES: hemorroide, almorana

FR: hémorroïde

EN: haemorrhoid

Ikus: hemorroide

odol-zirkulazio:

ES: circulación sanguínea

FR: circulation sanguine

EN: bloodstream

iz. Odolaren ibilbidea; odola bihotzetik abiatu eta arterietara, arterioletara, kapilarretara, benuletara eta zainetara iristen da, berriz bihotzera itzultzeko. Bi zirkulazio mota daude: zirkulazio nagusia (bihotzetik gorputz osora hedatzen da biriketan oxigenatu den odola) eta zirkulazio txikia (odola bihotzetik biriketara joaten da, oxigenatzeko).

Ogino-Knauss-en metodo:

ES: método de Ogino-Knauss

FR: méthode Ogino-Knauss

EN: Ogino-Knauss method

sint. er. Hilekoaren zikloa irizpidetzat hartzen duen kontrazepzio-neurri naturala.

ohaide:

ES: concubina, amasia, barragana

FR: concubine

EN: lover

iz. Ezkondu gabe, gizon batekin bizi den emakumea. Bigarren emaztetzat har daiteke, eta gizonak baino estatus legal eta sozial baxuagoa izaten du eskuarki. Gaur egun, gizonezkoaz ere esaten da, eta orobat sexu bereko amoranteaz.

ohelagun:

ES: concubina

FR: concubine

EN: lover

Ikus: ohaide.

oheratu:

ES: acostarse

FR: se coucher

EN: go to bed

ad. Harreman erotikoak izan (zuzenean ez aipatzearren esaten den eufemismoa).

ohitura:

ES: hábito

FR: habitude

EN: habit

iz. Joera organikoa; ekintza jarraitu baten eraginaren emaitza da.

Ikus: aztura sexual.

oinarri zientifikoa duen informaziorako eskubidea:

ES: derecho a información basada en el conocimiento científico

FR: droit à l'information basée sur des connaissances scientifiques

EN: right to information based on scientific fact

sint. er. Sexu-eskubidea; ikerkuntza zientifiko aske eta etikotik sortua izan behar du sexu-informazioak, eta gizarte-maila guztietara zabaldu behar da era egokian.

Ikus: sexu-eskubideak.

oinaze:

ES: dolor

FR: douleur

EN: pain

Ikus: sufrimendu, min.

okerragotu:

ES:	empeorar
FR:	s'aggraver
EN:	worsen

ad. Lehendik gaizki zegoena okerrago jarri.

okerragotze:

ES:	empeoramiento
FR:	aggravation
EN:	worsening

iz. Okerrera jotzean datzan prozesua.

okerrera egin:

ES:	empeorar
FR:	s'aggraver
EN:	worsen

Ikus: okerragotu.

okerrera egite:

ES:	empeoramiento
FR:	aggravation
EN:	worsening

Ikus: okerragotze.

oldarkor:

ES:	agresivo
FR:	agressif
EN:	aggressive

Ikus: agresibo.

OME (Osasunerako Mundu Erakundea):

ES:	OMS (Organización Mundial de la Salud)
FR:	OMS (Organisation Mondiale de la Santé)
EN:	WHO (World Health Organization)

iz. Nazio Batuen erakunde espezializatua. Munduko edo zenbait eskualdetako osasun-arazoez arduratzen da nagusiki. Betetzen dituen funtzioen artean daude: laguntza teknikoa ematea; gaixotasunen ikerkuntza epidemiologikoa bultzatzea eta laguntzea; osasun-neurriak gomendatzea; zientzialarien eta osasun-profesionalen taldeen artean elkarlana bultzatzea; eta osasunaren inguruko informazioa eta aholkuak ematea.

on-line adulterio:

ES:	adulterio on-line
FR:	adultère on-line
EN:	on-line adultery

iz. Internet bidezko adulterio-harremana.

onanismo:

ES:	onanismo
FR:	onanisme
EN:	onanism

iz. Masturbazioa nahiz *coitus reservatus* barne hartzen dituen jokabidea.

Ikus: masturbazio, coitus reservatus.

onddo:

ES:	hongo
FR:	champignon
EN:	fungus

iz. Mikroorganismo eukariotikoa, zelula bakarrekota edo zelula anitzekota. Haren zelulek horma zurruna dute, eta ez dute klorofilarik. Landare-erreinuan sailkatzen dira. Zenbait onddok infekzioak eragiten dituzte gizaki eta animalietan.

onddoen kontrako:

ES:	antimicótico
FR:	antifonguique
EN:	antimycotic

izlag. (Gai bati buruz) Onddoak suntsitzen dituen, edo haien hazkundera eta ugalketa eragozten duena.

ondorengo:

ES:	descendencia
FR:	descendance
EN:	progeny

izond. Beheranzko lerroan, seme-alaben, biloben eta gainerako belaunaldien multzoari dagokiona.

ondoretasun:

ES:	herencia
FR:	hérédité
EN:	heredity

Ikus: herentzia.

ondoretasunezko:

ES:	hereditario
FR:	héréditaire
EN:	hereditary

Ikus: herentziazko.

ondorio-arrasto:

ES:	secuela
FR:	séquelle
EN:	sequela

iz. Gaixotasun, tratamendu, bizipen edo lesio baten ondoriozko edozein anomalia.

Ikus: aztarna.

oniriko:

ES:	onírico
FR:	onirique
EN:	oneiric, dreamlike

izond. Ametsei dagokiena.

ontogenesi:

ES:	ontogénesis
FR:	ontogénèse, ontogénie
EN:	ontogenesis, ontogeny

iz. Organismo baten bizitzaren historia, obulua zelula bat besterik ez den unetik jaiotza-unera artekoa; bitarte horretako desberdintze- eta hazkuntza-fase guztiak hartzen dira kontuan.

ontogenetiko:

ES:	ontogenético
FR:	ontogénétique
EN:	ontogenetic

izond. Ontogenesiari dagokiona.

oozito:

ES:	oocito
FR:	ovocyte
EN:	oocyte

Ikus: obozito.

opiazeo endogenoak:

ES:	opiáceos endógenos
FR:	opiacés endogènes
EN:	endogenous opiates

sint. er. Nerbio-sistema zentraleko peptidoak; morfinaren eta opiotik eratorritako beste gai batzuen ondorio farmakologiko berak dituzte.

ordezko hormonon terapia (oht):

ES:	terapia hormonal sustitutiva (THS)
FR:	THS
EN:	HRT

sint. er. Estrogenoa edo progesterona baliokide sintetikoak ordezkatzeko ezaugarri duen tratamendua; menopausiaren ondoren hartzen da.

ordezko sexukide:

ES:	sustituto/a sexual
FR:	substitut sexuel
EN:	sexual surrogate

sint. er. Sexu-terapian, terapeuten agindura sexukide gisa jokatzeko duen gizon edo emakumea. Sexu-ordezkoaren eginbeharra da bikotekideak ez duten bezeroekin gorputzaren sentikortasuna lantzeko ariketak egitea eta beharrezko laguntza guztia ematea.

organo:

ES:	órgano
FR:	organe
EN:	organ

iz. Hainbat ehunek osatzen duten egitura, funtzio jakin bat betetzeko; esate baterako, entzumen-organoa, ikusmen-organoa, gibelak, giltzurrunak, eta abar.

organo genital:

ES:	órgano genital
FR:	organe génital
EN:	genital organ

sint. er. Ugalketaren arduradun den organoa.

orgasmo:

ES:	orgasmo
FR:	orgasme
EN:	orgasm

iz. Giza erantzun sexualaren aldia, non plazer psikofisiologikoa altuena gertatzen baita. Gizonak, orgasmoarekin batera, ia beti eiakulatu egiten dute.

orgasmo anizkunak:

- ES:** orgasmos múltiples
FR: orgasmes multiples
EN: multiple orgasms
sint. er. Lehen orgasmoaren ondorengo orgasmoak. Denbora-tarte laburrean gertatzen dira, oro har, gorputza goialdi-fasearen aurreko kitzikapen-egoerara itzuli aurretik.

orgasmo-fase:

- ES:** fase de orgasmo
FR: phase orgasmique
EN: orgasmic phase
sint. er. Giza erantzun sexualaren aldietako bat. Kitzikapenaren intentsitatea handituz doanean senti daitekeen asebetetasun- eta deskarga-sentipen plazertsua.

orgasmoaren asaldur:

- ES:** trastorno del orgasmo
FR: désordre orgasmique
EN: orgasmic disorder
sint. er. Behin eta berriz, orgasmoaren aldian gertatzen den zailtasuna.

orgasmo-plataforma:

- ES:** plataforma orgásmica
FR: plateforme orgasmique
EN: orgasmic platform
iz. Baginaren kanpoaldeko hirugarren zatiko paretak hodi-kongestioaren ondorioz loditzean sortzen den egoera; sexu-erantzunaren goialdi-fasean gertatzen da.

orgia:

- ES:** orgia
FR: orgie
EN: orgy
iz. Pertsona multzo batek parte hartzen duen festa erotikoa. Mota guztietako plazerrez jositako festa (bereziki, plazer sexualak).

Ikus: akelarre.

oritz:

- ES:** calostro
FR: colostrum
EN: colostrum
iz. Emeak umea izan ondoren ematen duen lehen esnea. Oso nutritiboa izaten da, eta defentsa-gai askokoa umearentzat.

OS:

ES:	os
FR:	os
EN:	os

iz. Umetoki-lepoaren erdi-erdiko irekigunea. Belar izpi baten zabalera izaten du eskuarki; erditze-unean, baina, askatu egiten da, haurra umetokitik baginara igaro dadin.

osasun:

ES:	salud
FR:	santé
EN:	health

iz. Ongizate fisiko eta emozionalaren maila gorena. Ez da ezaugarri unibertsaltzat jo behar, kontuan hartu behar baitira baldintza sozioekonomikoak eta norberarenak. Egoeren aurrean erantzun egokia emateko ahalmena eta gaitasuna izatea ere bada. Organismoak bere funtzioak modu normalean betetzen dituen egoera, gaixotasunik gabekoa.

osasun-parekotasun:

ES:	equidad en salud
FR:	équité en santé
EN:	health equality

iz. Testuinguru edo une jakin batean pertsona guztiek lor dezaketen ongizatezko egoerarik gorena.

osasuntsu:

ES:	sano
FR:	sain
EN:	healthy

izond. Osasun oneko.

ospitale:

ES:	hospital
FR:	hôpital
EN:	hospital

iz. Osasun-laguntza eskaintzen duen erakundea; oheak, etengabeko erizaintza-zerbitzuak eta sendagile taldea eskaintzen ditu modu antolatuan. Ospitalean egiten dira, besteak beste, gaixotasunen diagnostikoa eta tratamendua.

ospitale psikiatriko:

ES:	hospital psiquiátrico
FR:	hôpital psychiatrique
EN:	psychiatric hospital

sint. er. Osasun-erakundea; buru-asalduak dituzten gaixoez arduratzen da.

ospitaleratu:

ES: hospitalizar

FR: hospitaliser

EN: hospitalise

ad. Gaixo bat ospitale batera joan edo eraman, tratamendu fisikoa nahiz psikologikoa jaso dezan. Gaixoa bera edo gizartea babesteko egiten da.

ospitalizazio:

ES: hospitalización

FR: hospitalisation

EN: hospitalisation

iz. Gaixoak ospitalean egiten duen egonaldia, tratamendu egokia jaso dezan.

otsailaren 14a:

ES: 14 de febrero

FR: 14 février

EN: 14th February

sint. er. Sexu- eta ugal-osasunaren eguna.

otsailaren 6a:

ES: 6 de febrero

FR: 6 février

EN: 6th February

sint. er. Emakumeen genitalen mutilazioaren kontra tolerantzia zero eguna.



paidofilia:

ES:	paidofilia
FR:	pédophilie
EN:	paedophilia <i>iz.</i> Hurrekiko irrits sexuala.

Ikus: pedofilia, pederastia.

paidofilo:

ES:	paidofilo
FR:	pédophile
EN:	paedophile <i>izond.</i> Hurrekiko sexu-irritsa duena.

Ikus: pedofilo, pederasta.

pairamen:

ES:	sufrimiento
FR:	souffrance
EN:	suffering

Ikus: sufrimendu.

pairatu:

ES:	sufrir
FR:	souffrir
EN:	suffer

Ikus: sufritu.

palpitazio:

ES:	palpitación
FR:	palpitation
EN:	palpitation

iz. Pertsonak zuzenean atzematen duen bihotz-taupada azkarra; emozio-erreakzioei nahiz zenbait bihotz-asalduri egozten zaie.

pandemia:

ES: pandemia

FR: pandémie

EN: pandemic

iz. Intentsitate handiko epidemia larria, lurralde askotara zabaldua edo eskualde bateko ia biztanle guztiei erasaten diena.

pandemiko:

ES: pandémico

FR: pandémique

EN: pandemic

izond. Pandemiari dagokiona; lurralde bateko, herri bateko nahiz munduko biztanle guztiei edo ia guztiei erasaten dien gaixotasuna.

pansexualitate:

ES: pansexualidad

FR: pansexualité

EN: pansexuality

iz. Giza orientazio sexuala; beste edozein pertsonaz erakarpen estetiko, erromantiko edo sexuala sentitzea, generoa gorabehera; gizon-emakume dikotomia ez dute onartzen pansexualek; beste pertsona bat, generoa kontuan izan gabe, maitatzeko jarrera da.

Pap-en test:

ES: test de Pap

FR: frottis cervico-vaginal

EN: Pap test

sint. er. Umetoki-lepoko minbizia eta bestelako irregularitasun batzuk hautemateko proba medikoa; umetoki-lepoko zelula-lagin bat aztertzean datza. Papanicolaou doktoreak erabili zuen lehen aldiz, eta hortik datorkio izena.

papilomavirus:

ES: papilomavirus

FR: papillomavirus

EN: papillomavirus

iz. Pertsonen arteko kontaktu estuaren bidez kutsatzen den birusa; sexu-kontaktuaren bidez, esate baterako. Larrazaleko garatxoak eta beste lesio errepikakor batzuk eragin ditzakete papilomabirusek; kondilomak dira horietan ohikoenak. Umetoki-lepoko, uzukiko, bulbako, baginako eta zakileko minbizia eragin dezakete.

parafilia:

ES: parafilia

FR: paraphilie

EN: paraphilia

iz. Psikiatriako Elkarte Amerikarrak erabilitako diagnostikoa, sexu-kitzikapen edo -jokabideen eredu ezohikoak izendatzeko. Ezohikotzat hartzen diren edo gizarteak arazotzat jotzen dituen jokabideak deskribatzen ditu.

parasinpatiko:

ES: parasimpático

FR: parasympathique

EN: parasympathetic

izond. Nerbio-sistema begetatiboaren zati bati dagokiona. Erraiak eta odol-hodiak inerbatzen ditu. Nerbio-sistema sinpatikoaren alderantzizko eragina du organismoan: digestioa bizkortzen du, bihotz-taupadak moteltzen ditu, odol-hodiak zabaltzen, eta abar. Ereizioa gertatzea ahalbidetzen du.

parekoen arteko hezkuntza:

ES: educación igualitaria, coeducación

FR: éducation égalitaire

EN: equal education, coeducation

sint. er. Komunikazio-eredu horizontala; inguruko erkidegoak hezkuntza-prozesu osoan parte hartu behar duela aldarrikatzen du, eta betiko eredu hierarkiko bertikalaz bestelakoa da. Hezkuntza hezkidearen helburua da sexu, adin, egoera sozio-ekonomiko eta kultural bereko pertsonen talde jakin bati informazioa igortzea.

pareta:

ES: pared

FR: paroi

EN: wall

iz. Barrunbe edo organo bat ixten edo mugatzen duen atala.

partenogenesi:

ES: partenogénesis

FR: parthénogénèse

EN: parthenogenesis

iz. Sexu gabeko ugalketa mota; ernaldutako gabeko obulu batetik garatzen da organismo berria.

partzialismo:

ES: parcialismo

FR: partialisme

EN: partialism

iz. Fetitxismoari loturiko parafilia mota; hartan, sexu-kitzikapenak lotura nagusi bat du.

patologia:

ES: patología

FR: pathologie

EN: pathology

iz. Medikuntzaren adarra, organismoan gertatzen diren gaixotasunak eta asalduek aztertzen dituenak.

patologiko:

ES:	patológico
FR:	pathologique
EN:	pathologic

izond. Gaixotasun batek eragindako asaldu bati dagokiona.

patriarkatu:

ES:	patriarcado
FR:	patriarcat
EN:	patriarchy

iz. Gizonezkoek botere-nagusitasuna duten gizartearen ezaugarria.

patrilineal:

ES:	patrilineal
FR:	patrilinéaire
EN:	patrilineal

Ikus: aita-lerroko.

patrilinealitate:

ES:	patrilinealidad
FR:	patrilinéarité
EN:	patrilineality

iz. Aita-lerroko izatearen tasuna.

Ikus: aita-lerroko.

paziente:

ES:	paciente
FR:	patient
EN:	patient

iz. Gaixotasunen bat duen pertsona edo osasun-laguntzako zerbitzu baten hartzailea.

Pearl indizea:

ES:	Indice de Pearl
FR:	taux de Pearl
EN:	Pearl index

iz. Urtebetez antisorgailu bera erabiltzen duten emakumeetatik haurdun gera daitekeen ehunekoa.

pedagogia:

ES:	pedagogía
FR:	pédagogie
EN:	pedagogy

iz. Heziketaren zientzia. Pertsona du helburu, osotasunean: gorputza, sentimenduak, jakintza, portaera, sormena, eta abar.

pedagogo:

ES:	pedagogo
FR:	pédagogue
EN:	educator

iz. Pedagogian aditua. Hezitzailea.

pederasta:

ES:	pederasta
FR:	pédéraste
EN:	pederast

izond. Haurrenganako sexu-grina duena.

pederastia:

ES:	pederastia
FR:	pédérastie
EN:	pederasty

iz. Haurrenganako sexu-grina.

pediatra:

ES:	pediatra
FR:	pédiatre
EN:	paediatrician

iz. Pediatrian aditua den medikua.

pediatria:

ES:	pediatría
FR:	pédiatrie
EN:	paediatrics

iz. Medikuntzaren adarra; haurren garapenaz eta zaintzaz arduratzen da. Haurrari erasaten dioten gaixotasunetan eta gaixotasun horien tratamenduan eta prebentzioan espezializaturik dago.

pediatria-:

ES:	pediátrico
FR:	pédiatrique
EN:	paediatric

(Hitz elkartuetan)

pediatriko:

ES:	pediátrico
FR:	pédiatrique
EN:	paediatric

izond. Pediatriari dagokiona; hurrei erasaten dieten gaixotasunen azterketari eta tratamenduari, osasun-laguntza prebentiboari eta lehen mailako osasun-laguntzari dagokiona.

pedofilia:

ES: paidofilia, pedofilia

FR: pédophilie

EN: paedophilia

iz. Pertsona heldu batek (pedofiloak) eta haur batek parte hartzen duten sexu-jardueren multzoa.

Ikus: pederastia, paidofilia.

peep-show:

ES: peep-show

FR: peep-show

EN: peep-show

iz. Diruaren truke, kabina batetik, strip-tease bat edo harreman erotikoak dituen bikote bat ikustea, besteak beste.

pelbiano:

ES: pelviano

FR: pelvien

EN: pelvic

izond. Pelbisekoa, edo pelbisari dagokiona.

pelbis:

ES: pelvis

FR: bassin

EN: pelvis

iz. Gorputz-enberrari eusten dion hezur multzoa; beheko gorputz-adarren goiko aldean dago. Lau hezurrek osatzen dute: uzornoak, errain-hezurak eta bi hezur koxalek.

pelbiseko hantura-gaixotasuna:

ES: enfermedad inflamatoria pélvica

FR: maladie inflammatoire pelvienne

EN: pelvic inflammatory disease

sint. er. Pelbiseko organoen hantura; batik bat umetokian eta Falopioaren tronpetan gertatzen da. Hantura hori izateko arrisku handiagoa dute klamidia-infekzioak eta gonokozia dituzten emakumeek. Epe luzera, morbidotasun-arazoak ekar ditzake; esate baterako, sabeleko min kronikoa, hilekoaren arazoak, haurdunaldi tubarikoa, hots, Falopioaren tronpetan gertatzen dena, eta antzutasuna.

perbertitu:

ES: pervertir, pervertido

FR: pervertir, perversi

EN: pervert, pervert

1. *ad.* Perbertsio bat jasan edo besteri kutsatu. 2. *izond.* Perbertsioren bat duena.

perbertsio:

ES: perversión

FR: perversion

EN: perversion

iz. Normaltzat edo naturalizat jotzen denetik desbideratzen den portaera edo desira oro.

Ikus: parafilia.

peridural (anestesia):

ES: epidural (anestesia)

FR: péridural (anesthésie)

EN: epidural (anaesthesia)

Ikus: anestesia epidural.

perimenopausia:

ES: perimenopausia

FR: périménopause

EN: perimenopause

iz. Menopausiaren hasierako aldia; 3-11 hilabetez amenorrea edo hileko irregularrak izatea du ezaugarri.

perinatal:

ES: perinatal

FR: périnatal

EN: perinatal

izond. Haurdunaldiaren 28. astetik haurra jaio ondorengo 7. egunera arteko aldiari dagokiona; erditze-uneari nahiz -prozesuari eta oro har jaiotzari dagokiona.

perineo:

ES: perineo

FR: périnée

EN: perineum

iz. Baginaren eta uzkiaren (edo eskrotoaren eta uzkiaren) arteko zati anatomikoa, errombo-formakoa.

periodiko:

ES: periódico

FR: périodique

EN: periodic

izond. Denbora-tarte berdinetan eta erregularitasunez gertatzen dena.

pertsona:

ES:	persona
FR:	personne
EN:	person

iz. Giza espezieko banakoa; gizon-emakumeak biltzen ditu. Eskubideak eta betebeharrak izateko gaitasun juridikoa du.

petting:

ES:	petting
FR:	petting, attouchements
EN:	petting

iz. Penetratorik gabe, gune erogenoetan mota guztietako ukitze edo laztanak erabiltzen dituen jarduera erotikoa. Gazteen arteko jokaera erotiko tipikotzat jo da. Arropa jantzita gerta daiteke. Orgasmoa izateko aukera ematen du, kasu batzuetan; besteetan, berriz, ez da lortzen orgasmoa izateko adinako estimulazio-mailarik. Haurdunaldia saihesteko muga izan daiteke. Honako jarduera hauek ditu, besteak beste: aho-sexua eta elkar masturbatzea.

Peyronieren gaixotasuna:

ES:	enfermedad de Peyronie
FR:	maladie de Peyronie
EN:	Peyronie's disease

sint. er. Zakilaren gehiegizko kurbadura; haren ondorioz, erektzioak mingarri gerta daitezke.

pilula:

ES:	pastilla
FR:	pilule
EN:	pill

iz. Masa txikiko sendagaia. Ahotik hartzeko prestatua dago.

pilula antisorgailu:

ES:	píldora anticonceptiva
FR:	pilule contraceptive
EN:	contraceptive pill

Ikus: kontrazepzio-pilula, eguneroko pilula.

pixa egin:

ES:	mear, orinar
FR:	pisser, uriner
EN:	piss

ad. Gernua kanporatu. Helburu erotikoa izan dezake.

play boy:

ES:	play boy
FR:	play boy
EN:	play boy

Ikus: metrosexual.

plazebo:

ES:	placebo
FR:	placebo
EN:	placebo

iz. Gai eraginkorrik gabeko prestakina; beharrezko sendagai baten dosi egokia balitz bezala ematen da; sugestio psikologikoagatik, eragin terapeutikoa izan dezake.

plazenta:

ES:	placenta
FR:	placenta
EN:	placenta

iz. Emeen umetokian eratzen den organo baskularra; ernalketa gertatu eta gutxi gorabehera zortzigarren egunean hasten da eratzen, blastozistoak umetokiaren hormari itsasten zaizkionean. Umekiak plazentaren bidez jasotzen ditu beharrezko oxigenoa eta elikagaiak, eta karbono dioxidoa eta beste zenbait hondakin kanporatu. Erditzean kanporatzen da, haurra jaio ondoren.

Ikus: karen.

plazentazio:

ES:	placentación
FR:	placentation
EN:	placentation

iz. Karena eratzen eta txertatzen den modua.

plazer:

ES:	placer
FR:	plaisir
EN:	pleasure

iz. Nerbio-tentsioaren deskarga gozamen-eragilea. Plazer moten artean garrantzitsuenetakoa da sexu-plazera.

plazeraren printzipio:

ES:	principio de placer
FR:	principe du plaisir
EN:	pleasure principle

sint. er. Psikoanalisiak deskribaturiko printzipio ekonomikoa; plazera nerbio-tentsioaren jaitsierarekin lotua dago (kitzikapen gehiegi dagoenean), eta pultsioen deskarga ekonomikoa bideratzen du.

pletoriko:

ES:	pletórico
FR:	pléthorique
EN:	plethoric

1. *izond.* Pletorari dagokiona; humoreren bat neurritz gain duena. 2. *izond.* Gorputz-egitura mota bati dagokiona; haren ezaugarri dira: itxura fisiko ona, aurpegi gorria, neurritz gaineko pisua eta tentsio arterial altua.

poliandria:

ES:	poliandria
FR:	polyandrie
EN:	polyandry

iz. Aldi berean bi senar edo gehiago izatea ezaugarri duen ezkontza-eredua.

poligamia:

ES:	poligamia
FR:	polygamie
EN:	polygamy

iz. Aldi berean bi bikotekide edo gehiago izatea ezaugarri duen ezkontza-eredua.

Oharrak: Arabiar herrialde batzuetan, poligamia aberatsaren estatus sozialaren adierazle da.

poliginia:

ES:	poliginia
FR:	polygynie
EN:	polygyny

iz. Aldi berean bi emazte edo gehiago izatea ezaugarri duen ezkontza-eredua.

Populazioaren Munduko Eguna:

ES:	Día Mundial de la Población
FR:	Journée Mondiale de la Population
EN:	World Population Day

sint. er. Ekainaren 11n ospatu ohi da.

pornofilo:

ES:	pornofilo
FR:	pornophile
EN:	pornophile

izond. Pornografiaren aldeko ideologia edo jarrera duena.

pornofobo:

ES:	pornofobo
FR:	pornophobe
EN:	pornophobe

izond. Pornografiaren kontrako ideologia edo jarrera duena.

pornografia:

ES: pornografía
FR: pornographie
EN: pornography

iz. Legearen eta gizartearen arabera, sexuaren ikuspegi laidogarri, krudel, doilor eta esplotatzailea erakusten duten baliabide eta jokabideen multzoa, balio artistikorik gabea. Kitzikapen sexuala lortzeko erabiltzen da. Maiz, lausoa da erotismoaren eta pornografiaren arteko muga.

Ikus: erotismo-denda.

pornografo:

ES: pornografo
FR: pornographe
EN: pornographer

izond. Pornografia kontsumitzen duena.

portaera:

ES: comportamiento
FR: comportement
EN: behaviour

iz. Pertsona baten jokabidea, bizitzako epe labur edo luzeagoetan nahiz gertaera jakinen aurrean.

posologia:

ES: posología
FR: dosage
EN: dosage

iz. Adina, sexua, pisua eta abar kontuan harturik, botika batetik zenbat eta nola eman behar den aztertzen duen farmakologiaren adarra.

pot:

ES: beso
FR: baiser
EN: kiss

iz. Aurpegian ematen den musua.

Ikus: musu.

potro:

ES: cojón
FR: couille
EN: ball

Ikus: barrabil.

potrozorri:

ES:	ladilla
FR:	morpion
EN:	crab louse

iz. Pubisean eta uzkie azkura eragiten duten parasitoak.

Ikus: pubis-zorri.

praktika:

ES:	práctica
FR:	pratique
EN:	practice

iz. Begirale baten zuzendaritzapean arte bat ikasten pasatzen den denbora jakina.

prebenitu:

ES:	prevenir
FR:	prévenir
EN:	prevent

ad. Prebentzio-neurriak hartu, gaitz bat saihesteko edo osasun-helburu bat lortzeko.

prebentibo:

ES:	preventivo
FR:	préventif
EN:	preventive

1. *izond.* Aurrez zaintzen, saihesten edo prestatzen dena; prebentzioari dagokiona.
2. *izond.* Gaixotasun baten bilakaera moteltzen, gelditzen edo eteten duen zeharkako neurriari dagokiona, edo gaixotasunen eragina gutxitzeko hartzen den neurria.

prebentzio:

ES:	prevención
FR:	prévention
EN:	prevention

1. *iz.* Arrisku-egoerak eragiten dituzten edo eragin ditzaketen kausak saihesteko edo kausa horiei aurre egiteko neurrien multzoa. 2. *iz.* Gaixotasunari aurre egiteko eta osasunari mesede egiteko edozein ekintza. Beharrezkoa da lehen mailako, bigarren mailako eta hirugarren mailako osasun-laguntzaren beharra saihesteko.

prepuzio:

ES:	prepucio
FR:	prépuce
EN:	prepuce

iz. Zakileko larruazalaren tolesdura, glandea estaltzen duena. Gizonezkoetan zakil-mokoa estaltzen duen larruazala; emakumezkoetan, klitoria estaltzen duena.

preserbatibo:

ES:	preservativo
FR:	préservatif
EN:	condom

iz. Zakilean edo baginan ipintzen den zorro fin eta elastikoa, esperma umetokira, uzkira edo ahora hustea galarazten duena. Kontrazepzio-metodo gisa erabiltzen da, baina baita sexu bidez transmititzen diren infekzioetatik babesteko neurri gisa ere. Gizonezkoen preserbatiboari deitu ohi zaio hala eskuarki. Zakilean ipintzen da, hura tente dagoenean. Preserbatiboak, oro har, hazia jasotzeko poltsatxo bat izaten du beheko muturrean; hura jartzean, estutu egin behar da, barneko airea husteko eta kondoia koitoan honda ez dadin. Oso metodo eraginkorra da, eta, behar bezala erabiliz gero, GIBaren, hiesaren eta beste infekzio batzuen aurkako babesa ematen du. Behin bakarrik erabil daiteke preserbatibo bakoitza.

Ikus: kondoi.

priapismo:

ES:	priapismo
FR:	priapisme
EN:	priapism

iz. Zakilaren nahi gabeko tentetze mingarria eta kitzikadurarik eragin gabe gertatzen dena. Zakilaren erektzio iraunkor eta mingarria. Hainbat lesioren eta gaitzen ondorioz gertatu ohi da, eta ez du zerikusirik sexu-irrikarekin. Gernu-kalkuluen, nerbio-sistema zentralako lesioen, edo uretraren nahiz maskuriaren hanturaren ondorio izaten da.

primario:

ES:	primario
FR:	primaire
EN:	primary

1. *izond.* Beste iturri batetik eratorria ez dena. 2. *izond.* Denborari, espazioari, garapenari eta garrantziari dagokienez, lehenengoa dena.

probatu:

ES:	probar
FR:	tester, essayer
EN:	test, try

ad. Zerbaiten edo norbaiten ezaugarriak aztertu; praktikan nolakoa den ikusi.

prodromo:

ES:	pródromo
FR:	prodrome
EN:	prodrome

iz. Gaixotasun baten hasiera edo hurbiltasuna adierazten duen seinale, sintoma edo egoera. Gaixotasun infekziosoen hasiera izendatzeko erabiltzen da, batez ere.

profil:

ES:	perfil
FR:	profil
EN:	profile

iz. Pertsona edo gauza bati buruzko laburpen, diagrama edo zirriborro laburra.

profilaktiko:

ES:	profiláctico
FR:	prophylactique
EN:	prophylactic

izond. Gaixotasun baten hedapena galarazten duena.

profilaxi:

ES:	profilaxis
FR:	prophylaxie
EN:	prophylaxis

iz. Gizabanakoa eritasunetatik babesteko, gaixotasunen hedapena mugatzeko eta eritasunen indarra gutxitzeko baliagarriak diren neurrien multzoa.

progesterona:

ES:	progesterona
FR:	progestérone
EN:	progesterone

iz. Sexu-hormona, batik bat emakumezkoetan ageri da. Obulutegiko gorputz horiak eta karnak jariatzen dute. Haren funtzioak dira: umetokiaren endometrioa zigotoa hartzeko gaitzea eta haurdunaldiari eustea. Zenbait asalduren tratamenduan erabiltzen da: hilekoaren asaldu batzuk, aldi luteinikoaren disfuntzioari loturiko antzutasuna, eta behin eta berriz gertatzen diren bat-bateko haur-galtzeak. Obulazioa eragozten du; hori dela eta, antisorgailu gisa erabiltzen da.

prolaktina:

ES:	prolactina
FR:	prolactine
EN:	prolactin

iz. Esnea jariatzea eragiten duen hormona; hipofisiak jariatzen du. Eskuarki, obulazioa galarazten du. Eragina du metabolismoan. Prolaktina gehiegi jariatzeak hilekoaren asalduek eta amenorrea eragin ditzake emakumeetan; gizonetan, berriz, ginekomastia.

promiskuitate:

ES:	promiscuidad
FR:	promiscuité
EN:	promiscuity

iz. Pertsona batekin baino gehiagorekin sexu-harreman ez-iraunkorrak izateko ohitura.

pronostiko:

ES: pronóstico

FR: pronostic

EN: prognosis

iz. Gaixotasun batek izan dezakeen garapenaren iragarpena; gaixotasun horrek pertsona baten egoeran eta antzeko egoeretan izaten duen garapenean oinarrituta egiten da.

propietate:

ES: propiedad

FR: propriété

EN: property

iz. Zerbaiten ezaugarria edo bereizgarritasuna.

prospektu:

ES: prospecto

FR: prospectus

EN: package insert

iz. Sendagai-kaxaren barnean etortzen diren argibideak. Sendagaiaren egileak hainbat datu adierazi behar ditu prospektuan: sendagaiaren izen generikoa, erabilerak, kontraindikazioak, ohartarazpenak, arreta, aurkako eragina, dosia, eta abar.

prostata:

ES: próstata

FR: prostate

EN: prostate

iz. Gizonezkoen maskuriaren lepoa eta uretra inguratzen dituen guruina. Egitura sendoa du, gaztaina baten neurrikoa, eta gihar- eta guruin-ehunez eratua dago. Prostataren jariakinaren osagaiak dira: fosfatasa alkalinoa, azido zitrikoa eta zenbait entzima proteolitiko. Hazi gatzatua likido bihurtzen du prostatak jariaturiko isurkariak.

Prostataren Osasunaren Europar Eguna:

ES: Día Europeo de la Salud Prostática

FR: Journée Européenne de la Santé de la Prostate

EN: European Day of Prostate Health

sint. er. Irailaren 15an ospatu ohi da.

prostitutu/a:

ES: prostituto/a

FR: prostitué, prostituée

EN: prostitute

iz. Prostituzioa praktikatzen duen pertsona.

Ikus: puta.

prostituzio:

ES:	prostitución
FR:	prostitution
EN:	prostitution

iz. Sexu-zerbitzuak eskaintzearen truke dirua nahiz bestelako sariren bat jasotzean datzan bizibidea.

prostituzio-etxe:

ES:	prostíbulo, burdel
FR:	bordel, maison de tolérance
EN:	brothel

iz. Prostituzioa praktikatzen den etxea edo lokala.

Ikus: burdel.

protesi:

ES:	prótesis
FR:	prothèse
EN:	prosthesis

iz. Gorputzeko atal bat ordeztzeko erabiltzen den tresna edo pieza; plastikoz, metalez nahiz ehun sintetikoaren egina izan daiteke.

proxeneta:

ES:	proxeneta
FR:	proxénète
EN:	procurer, pimp

iz. Prostituten agentea, haien diru-sarieratik bizi ohi dena.

prozedura:

ES:	procedimiento
FR:	procédure
EN:	procedure

iz. Ekintza bat aurrera eraman ahal izateko eman beharreko urratsen multzoa.

prozesu:

ES:	proceso
FR:	procès
EN:	process

iz. Elkarren artean harremana duten gertakarien multzoa; bata bestearen segidan gertatzen dira, egoera jakin batetik bukaera arte.

prurito:

ES:	prurito
FR:	prurit
EN:	pruritus, itching

iz. Larruazalean eta mukosetan nabaritzen den sentsazioa; hazka egiteko gogoia eragiten du. Bigarren mailako infekzioak ekartzen ditu sarritan. Pruritoaren eragile izan daitezke: alergia, infekzioak, ikerizia, linfomak eta larruazaleko gaixotasunak.

pseudohermafroditismo:

ES:	pseudohermafroditismo
FR:	pseudohermaphrodisme
EN:	pseudohermaphrodism <i>iz.</i> Hormona-anomalia; gizabanakoaren kanpoko sexu-ezaugarriak sexu bati dagozkio, eta ugal-organoak besteari.

psike:

ES:	psique
FR:	psyché
EN:	psyche <i>iz.</i> Pertsona baten gogo-ahalmena; prozesu kontzienteak eta inkontzienteak biltzen ditu.

psikiatra:

ES:	psiquiatra
FR:	psychiatre
EN:	psychiatrist <i>iz.</i> Psikiatrian aditua den medikua; buru-asalduen diagnostikoan, prebentzioan eta tratamenduan dihardu.

psikiatria:

ES:	psiquiatría
FR:	psychiatrie
EN:	psychiatry <i>iz.</i> Medikuntzaren adarra; gogamen-, emozio- nahiz portaera-asalduen tratamenduaz eta prebentzioaz arduratzen da.

psikiatria-:

ES:	psiquiátrico
FR:	psychiatrique
EN:	psychiatric (Hitz elkartuetan)

Ikus: psikiatriko.

psikiatriko:

ES:	psiquiátrico
FR:	psychiatrique
EN:	psychiatric 1. <i>izond.</i> Psikiatriari dagokiona. 2. <i>iz.</i> Psikiatria-erietxea.

psikiko:

ES:	psíquico
FR:	psychique
EN:	psychic <i>izond.</i> Psikeari edo buru-jarduerari dagokiona.

psikoanalisi:

ES: psicoanálisis
FR: psychanalyse
EN: psychoanalysis

iz. Nortasunari buruzko Sigmund Freuden teoria, giza jokabidea barne-indarren arteko gatazkaren ondorioztat jotzen duena. Garapen psikologikoaz eta giza jarreraz arduratzen da. Asaldu psikikoen tratamendurako erabiltzen den metodo psikoterapeutikoa da, bestalde; metodo gisa erabiltzen ditu: asoziazio askea, ametsen interpretazioa eta babes-mekanismoen eta transferentziaren analisia, besteak beste. Mekanismo horien bidez, kontziente bihurtzen dira inkontzientean gorderiko estimuluen ondoriozko emozioak eta jarrerak.

psikoanalista:

ES: psicoanalista
FR: psychanalyste
EN: psychoanalyst

iz. Psikoanalisian heziketa berezia duen psikoterapeuta; teoria psikoanalitikoaren teknikak erabiltzen ditu.

psikoanalitiko:

ES: psicoanalítico
FR: psychanalytique
EN: psychoanalytic

izond. Psikoanalisiari dagokiona.

psikoanalizatu:

ES: psicoanalizar
FR: psychanalyser
EN: psychoanalyse

ad. Tratamendu psikoanalitikoa egin edo jaso.

psikobiologia:

ES: psicobiología
FR: psychobiologie
EN: psychobiology

iz. Psikologiaren adarra; jokabideak eta bestelako adierazpen psikologikoak biologiaren ikuspuntutik azaltzen ditu.

psikoendokrinologia:

ES: psicoendocrinología
FR: psychoendocrinologie
EN: psychoendocrinology

iz. Hormonen eta jokabidearen eragin-trukeak ulertzea eta azaltzea helburu duen jakintza-adarra.

psikofisiologia:

ES:	psicofisiología
FR:	psychophysiologie
EN:	psychophysiology

iz. Psikologia esperimentalaren adarra; jarduera mentalaren ikerketa egiten du, azterketa fisikoaren eta behaketaren bidez.

psikologia:

ES:	psicología
FR:	psychologie
EN:	psychology

iz. Zientziaren adarra; gizabanako baten edo giza talde baten portaera, gogamena eta horien prozesuak aztertzen ditu.

psikologia-:

ES:	psicológico
FR:	psychologique
EN:	psychological (Hitz elkartuetan)

psikologia eboluzionista:

ES:	psicología evolucionista
FR:	psychologie évolutionniste
EN:	evolutionary psychology

sint. er. Soziobiologiaren adarra; batez ere gizakien prozesu psikologikoen egokitze-funtzioak aztertzen ditu.

psikologiko:

ES:	psicológico
FR:	psychologique
EN:	psychological

izond. Psikologiari dagokiona.

psikologo:

ES:	psicólogo
FR:	psychologue
EN:	psychologist

iz. Psikologian aditua den pertsona.

psikomotor:

ES:	psicomotor
FR:	psychomoteur
EN:	psychomotor

- izond.* Aldi berean mugimenduari eta jarduera psikikoari dagokiena.
- izond.* Jarduera psikikoaren higidurazko ondorio multzoari dagokiona.

psikomotrizitate:

- ES:** psicomotricidad
FR: psychomotricité
EN: psychomotility
iz. Mugimendu-jarduera, jarduera psikikoarekin harreman estua duena. Gizabanakoaren gizarteratze psikobiologikoa zehaztea ahalbidetzen du.

psikopatologia:

- ES:** psicopatología
FR: psychopathologie
EN: psychopathology
iz. Asaldu mentalen adierazpenen, prozesuen eta zergatien azterketa.

psikopatologiko:

- ES:** psicopatológico
FR: psychopathologique
EN: psychopathological
izond. Psikopatologiari dagokiona.

psikosi:

- ES:** psicosis
FR: psychose
EN: psychosis
iz. Gogamenaren egoera; errealitatearen zentzua galtzen da, eta haluzinazioak eta eldarnioak jasan daitezke, eta orobat nortasun-aldaketak, pentsamendu desantolatua eta portaera-asalduak.

psikosomatiko:

- ES:** psicossomático
FR: psychosomatique
EN: psychosomatic
izond. Psikean eragina duen gorputz-asalduari (edo alderantziz) dagokiona,

psikoterapeuta:

- ES:** psicoterapeuta
FR: psychothérapeute
EN: psychotherapist
iz. Psikoterapian diharduen profesionala; esate baterako: psikiatrak, psikologoak, erizain psikiatrikoak, gizarte-langile psikiatrikoak, eta abar.

psikoterapeutiko:

- ES:** psicoterapéutico
FR: psychothérapeutique
EN: psychotherapeutic
izond. Psikoterapiari dagokiona.

psikoterapia:

ES: psicoterapia

FR: psychothérapie

EN: psychotherapy

iz. Metodo terapeutikoa; eritasun edo gatazka psikikoen tratamendurako erabiltzen den metodo psikologikoa. Hitzezko tratamendua da batik bat, terapeutaren eta kontsultagilearen arteko harremanean oinarritzen dena. Banakakoa edo taldekakoa izan daiteke.

psikoterapia sexual:

ES: psicoterapia sexual

FR: psychothérapie sexuelle

EN: sexual psychotherapy

sint. er. Sexualitate-asaldu psikikoak tratatzeko metodo terapeutikoa.

psikotiko:

ES: psicótico

FR: psychotique

EN: psychotic

1. *izond.* Psikosiari dagokiona. 2. *izond.* Psikosia duena.

pubarkia:

ES: pubarquía

FR: pubarche

EN: pubarche

iz. Pubertaroko lehen aldaketetako bat; pubiseko bizarra jaiotzen da.

pubertaro:

ES: pubertad

FR: puberté

EN: puberty

iz. Bigarren mailako karaktere sexualak azaltzen diren bizitzako aroa, 12-14 urte bitartekoa; pubertaroan hasten da ugal-organoen funtzioa. Hainbat aldaketa fisiologiko eta morfologiko gertatzen dira pubertaroan: ilea irteten da sexu-organoen inguruan, gizonezkoei ahotsa aldatzen hasten zaie, emakumeei bularrak garatzen zaizkie, gizonezkoen lehen hazi-isurketak eta emakumezkoen hilekoa agertzen dira, eta abar.

pubis:

ES: pubis

FR: pubis

EN: pubis

iz. Sabelaren azpialdean dagoen irtengunea. Hezur pubikoa ehun adiposoz estaltzen du. Venusen mendi ere baderitzo.

pubis-:

ES:	púbico
FR:	pubien
EN:	pubic (Hitz elkartuetan)

Ikus: pubiseko.

pubiseko:

ES:	púbico
FR:	pubien
EN:	pubic <i>izond.</i> Pubisaren guneari dagokiona.

pubiseko ile:

ES:	vello púbico
FR:	poils pubiens
EN:	pubic hair <i>sint. er.</i> Pubisa estaltzen duen bizarra.

pubis-zorri:

ES:	ladilla
FR:	morpion
EN:	crab louse <i>iz.</i> <i>Phthirus pubis</i> parasittoa; azkura eragiten du pubisean eta uzkialdean. Gertuko harreman fisikoen bidez igarotzen dira pertsona batetik bestera. Ilearn sustraitik gertu jartzen dituzte arrautzak, eta egun gutxiko inkubazio-aldia izaten dute.

puerperal:

ES:	puerperal
FR:	puerpéral
EN:	puerperal <i>izond.</i> Erditze-ondoko berehalako aldiari dagokiona.

puerperio:

ES:	puerperio, sobreparto
FR:	couches
EN:	puerperium, postnatal confinement <i>iz.</i> Erditze ondoa; 6 asteko iraupena du, gutxi gorabehera. Haurdunaldiak eragindako aldaketa fisiologiko eta anatomikoak bere onera etortzen dira, eta emakumea egoera berrira moldatzen da.

puerperioko:

ES:	puerperal
FR:	puerpéral
EN:	puerperal

izlag. Puerperio-aldikoa. Puerperioari dagokiona.

Ikus: puerperal.

pultsio:

ES:	pulsión
FR:	pulsion
EN:	drive

iz. Prozesu dinamikoa; organismoa helburu baterantz eramaten duen bulkada bat da. Freuden arabera, gorputz-kitzikapenetan –tentsio-egoeretan– du jatorria pultsio batek. Tentsio hori desagerraraztea du helburu.

purgazio:

ES:	purgación
FR:	lavement
EN:	purgation

iz. Katarsia; libragarri batek eragindako garbiketa.

puritanismo:

ES:	puritanismo
FR:	puritanisme
EN:	puritanism

iz. Pentsamolde zaharkitu bati jarraituz, sexu-jokabide errepresibo eta zapaltzailea erakusten duen jokaera nahiz ikuspegia.

puta:

ES:	puta
FR:	putain
EN:	whore, slut

iz. Sexu-harremanak diru-truke izaten dituen pertsona.

Ikus: prostitutu/a, emagaldü.

putazain:

ES:	chulo
FR:	souteneur
EN:	pimp

Ikus: proxeneta.

putetxe:

ES:	casa de putas
FR:	bordel
EN:	whorehouse, brothel

Ikus: burdel, maitetxe.

puzker baginala:

ES:	pedo vaginal
FR:	pet vaginal
EN:	vaginal fart

sint. er. Baginatik irteten den airea. Bagina barruan zakila, jostailu bat edo atzamarra sartzen denean, horrekin batera airea sartzen da. Horrek ez du arazo handirik sortzen bakarka, baina beste norbaiten aurrean lotsa eragiten du maiz. Koitoan gertatzea ohikoa da, batez ere zenbait jarreratan.



r hautespen:

ES: selección r

FR: r sélection

EN: r selection

iz. Seme-alaba ugari eta guraso-zaintza gutxi ezaugarri dituen hautespena.

rol:

ES: rol

FR: rôle

EN: role

iz. Talde batek taldeko kide bakoitzarengandik espero duen jarrera eta jokabidea; taldeko kideak duen parte-hartzearen araberkoa da. Parte-hartze sozialerako bitartekoak dira rolak.

rol sexual:

ES: rol sexual

FR: rôle sexuel

EN: sex role

sint. er. Kultura jakin batean, gizon nahiz emakumeentzat egokitzen jotzen diren jarreraren eta portaeren multzoa.

Ikus: sexu-rol.

486 RU:

ES: 486 RU

FR: RU 486

EN: 486 RU

iz. Abortua eragiteko pilula.



sabel:

ES: barriga

FR: ventre

EN: belly

iz. Gorputz-barrunbearen zatia; digestio-organoak, iraitz-organoak eta sexu-organoak ditu bere barruan.

Ikus: abdomen.

sabel-:

ES: ventral

FR: ventral

EN: ventral

(Hitz elkartuetan) Sabelari dagokiona. Gorputz-jarrera bati buruz ere esaten da, ahuspez jartzeaz, alegia.

sabelaldi:

ES: camada

FR: portée

EN: litter

Ikus: haurdunaldi.

sabelean hazi:

ES: gestar

FR: être enceinte

EN: gestate

ad. Garatzen ari den umeki bat umetokian eraman.

sabelordeko:

ES: utero de alquiler, madre de alquiler, madre portadora

FR: ventre à louer, mère porteuse

EN: womb for rent, surrogate mother

izlag. (Zenbait emakumeri buruz) Akordio baten ondorioz haurdun gelditu eta, haurra jaiotzean, beste norbaiti ematen diona. Bikote batek hala eskatuta egitea da ohikoena. Kasu askotan, bikotearen gametoen intseminazio artifizialaren bidez sortzen da enbrioia. Halako kasuetan, alokairuko amak ez du lotura biologikorik haurrarekin.

sadismo:

ES: sadismo
FR: sadisme
EN: sadism

iz. Beste pertsona bati min fisikoa egitea eta mendean hartzea oinarritzat duen jokabide erotikoa. Kitzikatzea eta plazera sentitzea da helburua.

sadomasokismo:

ES: sadomasoquismo
FR: sadomasochisme
EN: sadomasochism

iz. Beste pertsona bati edo beste batek norberari min fisikoa eragitea eta mendean hartzea oinarritzat duen jokabide erotikoa. Helburua kitzikatzea eta plazera lortzea da. *Sadismo* eta *masokismo* hitzen uztardura da.

Ikus: masokismo, sadismo.

safismo:

ES: safismo
FR: saphisme
EN: sapphism

iz. Emakumeen arteko jokaera erotikoa.

Ikus: lesbianismo.

sagua klikatu:

ES: clicar el mouse, clicar el ratón
FR: cliquer avec la souris
EN: click the mouse
ad. Emakumezkoetan, masturbatu.

Ikus: masturbazio.

saio:

ES: sesión
FR: séance
EN: session

iz. Eginbehar batean saiatzen den aldi edo ahalegina.

sakon:

ES: profundo
FR: profonde
EN: deep

izond. Barnerantz dagoena; azalekoa ez dena.

sanitario:

ES:	sanitario
FR:	sanitaire
EN:	sanitary

izond. Osasunari dagokiona, edo osasuna mantentzen nahiz sustatzen duena.

sarbide:

ES:	acceso
FR:	accès
EN:	access

1. *iz.* Kirurgiagunera iristeko modua. 2. *iz.* Hemodialisian, odol-zirkulaziora iristea.

sartu:

ES:	penetrar
FR:	pénétrer
EN:	penetrate

Ikus: barneratu.

sasiko:

ES:	bastardo
FR:	bâtard
EN:	bastard

izond. (seme-alabei buruz) Ezkondurik ez dauden gurasoen seme edo alaba. Gehienetan, ezkontzaz kanpo izandako ondorengoei deitu izan zaie horrela. Gaur egun, ezkongabeen familiak ugaritu ahala, kontzeptu hori zaharkitua geratu da.

satiriasi:

ES:	satiriasis
FR:	satyriasis
EN:	satyriasis

iz. Gizonezkoen sexu-grina neurrigabea.

saxoi:

ES:	sajón
FR:	saxon
EN:	Saxon

iz. Eiakulazioa atzeratzearen emakumeak zakilaren oinarria estutzeko teknika.

sedukzio:

ES:	seducción
FR:	séduction
EN:	seduction

iz. Beste bati gustatzea, hura limurtzea edo harengan sexu-irritsa piztea.

Ikus: limurtze.

seguru (atxikimendu):

ES:	seguro (apego)
FR:	sûr (attachement)
EN:	secure (attachment)

izond. Atxikimendu-eredu mota; heldu segurua ongi sentitzen da intimitate- eta autonomia-egoeretan, eta irudi positiboa du bere buruaz zein besteenaz. Ez da pertsona jeloskorra izaten. Maitasun-harreman zoriontsu, lagunkoi, konfiantzazko eta bermezkoak izaten ditu, eta bikotekidearen izaera egoki onartzen du, onerako zein txarrerako. Ondorioz, harreman egonkorrak izaten ditu eskuarki. Oroitzapen ona du haurtzaroan izandako gurasoekiko harremanez, eta gurasoak maitekor, hurbileko eta sentikor oroitzen ditu.

sekundario:

ES:	secundario
FR:	secondaire
EN:	secondary

izond. Bigarren mailakoa; ordenan, denboran eta lekuan bigarrena, edo beste baten mendekoa.

selektibo:

ES:	selectivo
FR:	sélective
EN:	selective

izond. Bere baitan hautespen-joera duena.

seme-alabak:

ES:	hijos
FR:	enfants
EN:	children

iz. Sexu-harremanen ondoren, ernaldu eta haurdunaldia burutuz gero, izaten diren umeak, legez onartuak edo ez. Adoptatuak ere izan daitezke.

semen:

ES:	semen
FR:	sperme
EN:	semen

Ikus: hazi, esperma.

semen-:

ES:	seminal
FR:	seminal
EN:	seminal (Hitz elkartuetan)

Ikus: seminifero, seminal, espermatiko.

semen-banku:

ES:	banco de semen
FR:	banque de sperme
EN:	sperm bank

Ikus: esperma-banku.

semen-xixku:

ES:	vesícula seminal
FR:	vésicule séminale
EN:	seminal vesicle

Ikus: hazi-xixku.

seminal:

ES:	seminal
FR:	seminal
EN:	seminal

izond. Espermari edo haziari dagokiona.

seminifero:

ES:	seminífero
FR:	séminifères
EN:	seminiferous

izond. Semena garraiatzen edo sortzen duena; esate baterako, barrabil-hodiak seminiferoak dira.

senda-:

ES:	curativo, -a
FR:	curatif
EN:	curative (Hitz elkartuetan)

Ikus: sendagarri.

sendabide:

ES:	curación
FR:	guérison
EN:	healing

iz. Gaixotasun edo asalduren bat duen pertsona batek osasuna berreskuratzeko prozesua.

sendaezin:

ES:	incurable
FR:	incurable
EN:	incurable

izond. Tratamendua jaso arren onera egiten ez duena.

sendagai:

ES:	medicamento, fármaco
FR:	médicament
EN:	drug

iz. Helburu terapeutikoetarako ematen den gaia. Gaixotasunak edo asalduak sendatzea, kontrolatzea, diagnostikatzea edo haiei aurrea hartzea du helburu nagusi.

sendagai-:

ES:	medicamentoso
FR:	médicamenteux
EN:	medicamentous

(Hitz elkartuetan) Sendagai bati dagokiona, hark eragindako aurkako erreakzioei bereziki.

sendagarri:

ES:	curativo
FR:	curatif
EN:	curative

1. *izond.* Sendatzen duena, sendagaia. 2. *izond.* (Gaixotasunei buruz) Senda daitekeena.

sendagogor:

ES:	refractario
FR:	réfractaire
EN:	refractory

izond. Tratamenduen aurrean lehengoan jarraitzen duena.

sendatu:

ES:	curar(se)
FR:	guérir
EN:	cure, get better

1. *ad.* Gaixo bati bere gaixotasunari dagozkion sendabideak jarri. 2. *ad.* Galdutako osasuna berreskuratu.

sendatze:

ES:	cura
FR:	guérison, rétablissement
EN:	cure

1. *iz.* Osasun-arazo baten tratamendurako sendagai, tratamendu edo neurri terapeutiko bat erabiltzea. 2. *iz.* Gorputz eria bere onera etortzea.

sendi:

ES:	familia
FR:	famille
EN:	family

Ikus: familia.

senil:

ES:	senil
FR:	sénile
EN:	senile

izond. Zahartzarokoa, zahartzaroarekin zerikusia duena, edo haren ezaugarriak dituena; bereziki, zahartzaroarekin batera agertzen diren endekapen fisiko nahiz mentalei dagokiena.

sentibera:

ES:	sensible
FR:	sensible
EN:	sensitive

izond. Sentipenak aise jasotzen dituena; erraz hunkitzen dena.

sentiberatasun:

ES:	sensibilidad
FR:	sensibilité
EN:	sensibility, sensitivity

iz. Erraz hunkitzen denaren nolakotasuna.

Ikus: sentsibilibitate.

sentikor:

ES:	sensible
FR:	sensible
EN:	sensitive

1. *izond.* Sentsazioak esperimentatzeko gai dena. Animaliak izaki sentikorrak dira. 2. *izond.* Oso erraz hunkitzen dena, edo erraz mintzen dena; afektu handia agertzen duena. 3. *izond.* BIOL. Estimulu gisa funtzionatzen duten kanpo-agenteeek kitzikatu dezaketena (zelula sentikorra, ile sentikorra). 4. *izond.* FIS. Fenomeno natural batzuen eragin txikiena erregistratzen duten tresna edo aparatuen ezaugarria; adibidez, termometro sentikorra.

sentikortasun:

ES:	sensibilidad
FR:	sensibilité
EN:	sensibility, sensitivity

iz. Sentitzeko gaitasun-maila.

sentikortu:

ES:	sensibilizar
FR:	sensibiliser
EN:	sensitise

Ikus: sentsibilizatu.

sentimen:

ES:	sensibilidad
FR:	sensibilité
EN:	sensitivity

iz. Sentsazioak –fisikoak zein psikologikoak– hautemateko ahalmena.

Oharrak: Zentzumenak, berriz, ikusmena, ukimena, dastamena, entzumenak, usaimena eta oreka dira.

Ikus: sentikortasun, zentzumen.

sentimen-:

ES:	sensitivo, sensorial
FR:	sensitif, sensoriel
EN:	sensitive, sensory (Hitz elkartuetan)

Ikus: sentimenezko.

sentimenezko:

ES:	sensitivo, sensorial
FR:	sensitif, sensoriel
EN:	sensitive, sensory

izlag. Organismoko zentzumen-nerbioen sare osoari edo haren zati bati dagokiona.

sentimen-guneak lantze:

ES:	focalización sensorial
FR:	focalisation sensorielle
EN:	sensate focus

sint. er. Sexu-ariketen multzoa. Ariketa horietan, gorputz guztia laztantzen da, baina lehen egunetan gizonaren genitalak eta emakumearen genitalak eta bularrak ukitu gabe. Horrela, esperientzia horretan bizitako sentipenetan jartzen da arreta. Debekatuta daude koitoa eta eiakulazioa.

sentimen-organo:

ES:	órgano sensorial
FR:	organe sensoriel
EN:	sensory organ

Ikus: zentzumen-organo.

sentipen:

ES: sensación

FR: sensation

EN: sensation

iz. Egoera mental edo emozional baten pertzepzioa; ez du zertan kanpo-estimulu batek eragina izan.

sentipenak fokalizatze ariketak:

ES: ejercicios de focalización sensorial

FR: exercices de focalisation sensorielle

EN: sensate focus exercises

sint. er. Sexu-bikoteek txandaka egiten duten ariketa saila, genitalak ez diren gorputz ataletan kitzikapen atsegina eman eta jasotzearen.

sentipenezko:

ES: sensitivo, sensorial

FR: sensitif, sensoriel

EN: sensitive, sensory

izlag. Sentipenei dagokiena.

sentsibiltate:

ES: sensibilidad

FR: sensibilité

EN: sensibility, sensitivity

Ikus: sentimen, sentikortasun, sentiberatasun.

sentsibilizatu:

ES: sensibilizar

FR: sensibiliser

EN: sensitise

1. *ad.* Sentikor bihurtu. 2. *ad.* Gai antigenoekiko kontaktuan sentikor bihurtu. 3. *izond.* Sentikor bihurtu dena. 4. *izond.* Gai antigenoekiko kontaktuan sentikor bihurtu dena.

Ikus: sentikortu.

sentsibilizazio:

ES: sensibilización

FR: sensibilisation

EN: sensitisation

1. *iz.* Sentikor bihurtze. 2. *iz.* Hartutako erreakzioa; erreakzio horren bidez, antigeno baten aurrean erreakzionatzeko antigorputzak garatzen dira. Txertaketan, aurrez pentsatuta egiten da, organismo patogeno bat injeztatuz. Organismo patogenoa eraldatua egoten da, infekzioa sortzeko gaitasunik izan ez dezan, baina, hala ere, gaixotasunari kontra egiteko antigorputzak sorrarazteko ahalmena du.

Ikus: sentikortze.

sentsual:

ES:	sensual
FR:	sensuel
EN:	sensual

izond. Zentzumenei eta haiek eragin dezaketen plazerari dagokiona.

serieko monogamia:

ES:	monogamia en serie
FR:	monogamie en série
EN:	serial monogamy

sint. er. Bata bestearen ondorengo harreman monogamoak kateatzen dituen egoera; hots, aldi berean ez da harreman bat baino gehiago izaten.

seronegatibo:

ES:	seronegativo
FR:	séronégatif
EN:	seronegative, HIV negative

izond. Proba serologikoan emaitza negatiboa izan duena.

seropositibo:

ES:	seropositivo
FR:	séropositif
EN:	seropositive, HIV positive

izond. Proba serologikoan emaitza positiboa izan duena. Gaur egun, hiesaren birusaren (GIB) antigorputzak dituen pertsonari deitzen zaio horrela.

sex-appeal:

ES:	sex-appeal
FR:	sex-appeal
EN:	sex-appeal

iz. Sexu-erakarpina sorraraz dezakeen pertsona baten ezaugarria.

sexatu:

ES:	sexar
FR:	sexage
EN:	sexing

ad. Sexuka sailkatu; pertsona bati sexu-etiketa bat esleitu.

sexazio:

ES:	sexación
FR:	sexage
EN:	sexing

iz. Pertsona bati dagokion sexua –gizona edo emakumea– esleitzea.

sexismo:

ES:	sexismo
FR:	sexisme
EN:	sexism

iz. Gizarte-generoa eta -sexua kontuan hartuta, pribilegioa emateko mekanismoa eta diskriminazio-adierazpenen multzoa, gizezkoen eta emakumezkoen giza ahalmen guztia garatzea eragozten diena.

Oharrak: Esate baterako, uste izatea emakumeak ezinbestez lan mota batzuetarako eta gizonak beste batzuetarako direla egokiak, edo sexuaren arabera banatzea gizarte-ardurak edo aginte-maila.

Ikus: feminismo, genero-rol, genero.

sexismo mutiri:

ES:	sexismo hostil
FR:	sexisme hostile
EN:	hostile sexism

sint. er. Hitzek garbi adierazitako sexismoa; jarrera menderatzailea hartzen duenak uste du berezko eskubidea duela jarrera hori agertzeko, eta ez duela zertan jaso gizarte-gaitzespenik.

sexofilia:

ES:	sexofilia
FR:	sexophilie
EN:	sexphilia

iz. Sexu eta erotismoarekiko jarrera positiboa.

sexofobia:

ES:	sexofobia
FR:	sexophobie
EN:	sex phobia, antisexuality

iz. Sexu eta erotismoarekiko jarrera ezkorra.

sexologia:

ES:	sexología
FR:	sexologie
EN:	sexology

iz. Gizakion izate eta bizipen sexuala aztertzen duen jakintza-arloa. Alde genitalak, fisiologikoak, sozialak eta psikologikoak hartzen ditu kontuan, eta jakintza-arlo asko biltzen ditu, hala medikoak nola humanistikoak.

sexologo:

ES:	sexólogo
FR:	sexologue
EN:	sexologist

iz. Sexologian aditua den pertsona.

sex-shop:

ES:	sex-shop
FR:	sex-shop
EN:	sex-shop <i>iz.</i> Objektu erotikoak saltzen diren denda.

Ikus: objektu erotiko.

sex-symbol:

ES:	sex symbol
FR:	sex symbol
EN:	sex symbol

Ikus: mito erotiko.

sexu:

ES:	sexo
FR:	sexe
EN:	sex <i>iz.</i> Pertsonak ar edo eme gisa garatuko dituen ezaugarri psikofisiko eta organoen multzoa. Gizakiengan, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun biologikoek (anatomiko eta fisiologikoek) espeziea birsortzea ahalbidetzen dute. Gizakiak bere burua sexudun gisa eraikitzeko sexuazio-prozesuaren emaitza da.

Ikus: sexualitate, genero.

sexu-:

ES:	sexual
FR:	sexual
EN:	sexual (Hitz elkartuetan)

Ikus: sexual.

sexu-aberrazio:

ES:	aberración sexual
FR:	aberration sexuelle
EN:	sexual aberration <i>iz.</i> Normaltzat jotzen denetik urruntzen den sexu-jarduera eta -joera.

sexu-abertsio:

ES:	aversión sexual
FR:	aversion sexuelle
EN:	sexual aversion <i>iz.</i> Sexualitatearekiko nahiz sexu-jarduera jakin batekiko nazka edo baztertzea.

sexu-abstinentzia:

ES:	abstinencia sexual
FR:	abstinence sexuelle
EN:	sex abstinence

iz. Sexu-kontinentziazko aldia; sexu-jarduerarik nahiz masturbaziorik ez da egiten aldi horretan. Borondatezkoa ala nahi gabekoa izan daiteke.

sexu-abusu:

ES:	abuso sexual
FR:	abus sexuel
EN:	sexual abuse

iz. Sexu-askatasunaren aurkako delitua; besteak nahi gabe, sexu-jardunen bat egitea, hala engainuz, nola izua eraginez, nola indarra edo beste bitartekoren bat erabiliz.

sexu-adierazpen emozionalerako eskubidea:

ES:	derecho a la expresión emocional de la sexualidad
FR:	droit à l'expression émotionnelle de la sexualité
EN:	right to the emotional expression of sexuality

sint. er. Sexu-eskubidea; sexu-adierazpena sexu-ekintzetako plazer erotikoa baino gehiago da. Gizabanako orok du eskubidea bere sexualitatea komunikazioaren, kontaktuaren, emoziozko adierazpenen eta maitasunaren bidez adierazteko, besteren mugak errespetatuz betiere.

Ikus: sexu-eskubideak.

sexu-aholkulari:

ES:	consejero/a sexual
FR:	conseiller de sexualité
EN:	sex counsellor

iz. Bizitza sexualaren inguruan aholkuak eta informazioa ematen dituen profesionala.

sexu-aholkularitza:

ES:	asesoramiento sexual
FR:	consultation de sexologie
EN:	sex counselling

iz. Harreman mintzatu edo idatzizkoa, aldi berekoa edo asinkronikoa, sexu-osasunaren profesional baten (edo batzuen) eta sexu-aholkularitzako zerbitzu baten hartzaile baten (edo batzuen) artekoa. Profesionalek galdera eta informazio aukeratua eta egokia eskaintzen dute, hartzaileek eskainitako informazio mintzatu edo idatziaren arabera, haien zalantzei eta ezintasunei erantzunez, haien jakin-mina asez, erabaki egokiak har ditzaten eta bizimodu hobea izan dezaten.

sexual:

ES:	sexual
FR:	sexuel
EN:	sexual

izond. Sexuari edo sexualitateari dagokiona.

Ikus: sexu-.

sexualitate:

ES:	sexualidad
FR:	sexualité
EN:	sexuality

iz. Gizakiaren alderdi nagusietako bat, ezaugarri fisiko, funtzional eta psikologikoen multzo batez osatua, sexuaren beraren identitateak eta sexu-jokabideak azaltzen dituen. Ez dago beti sexu-organoekin lotua; honako arlo hauek biltzen ditu: sexua, genero-identitate eta -rolak, sexu-joera, erotismoa, plazera, intimitatea eta ugalkortasuna. Modu askotan bizi eta adieraz daiteke sexualitatea: pentsamenduak, fantasiak, desirak, usteak, jarrerak, balioak, jokabideak, jarduerak, rolak eta harremanak. Horiek guztiak sar daitezke sexualitatean, baina horrek ez du esan nahi gizaki ororen sexualitatean guzti-guztiekin azaldu behar dutenik. Faktore mota askok eragiten dute sexualitatean: biologikoek, psikologikoek, sozialek, ekonomikoek, politikoek, kulturek, etikoek, legeari lotutakoek, historikoek, erlijiosoek eta espiritualek.

sexu-anestesia:

ES:	anestesia sexual
FR:	anesthésie sexuelle
EN:	sexual anaesthesia

iz. Sentikortasun erotikoaren erabateko nahiz neurri bateko gabezia.

sexu-anomalia:

ES:	anomalía sexual
FR:	anomalie sexuelle
EN:	sexual anomaly

iz. Ohiko garapen sexualetik kanpo geratzen dena; hiru barrabilekin jaiotzea, esate baterako.

sexu-arazo:

ES:	problema sexual
FR:	problème sexuel
EN:	sexual problem

iz. Izaera erotikoa duen asmo bat erdiestea eragozten nahiz erotismoaren edo sexualitatearen bizipenaren garapena oztopatzen duten gertaeren eta egoeren multzoa. Konpondu gabeko sexu-gatazka jakin bat. Hezkuntza desegokiak eragindakoak izan ohi dira sexu-arazo asko.

Sexu Askapenaren Nazioarteko Eguna:

ES:	Día Internacional de la Liberación Sexual
FR:	Journée Internationale de la Libération Sexuelle
EN:	International Sexual Freedom Day <i>sint. er.</i> Ekainaren 28an ospatu ohi da.

sexuarekiko jarrera:

ES:	actitud sexual
FR:	attitude sexuelle
EN:	sexual attitude iz. Sexuari buruz diren kontzeptu, aurreiritzi, jokabide eta sentipen multzoa.

sexuari loturiko ezaugarri:

ES:	rasgo ligado al sexo
FR:	caractère lié au sexe
EN:	sex-linked trait <i>sint. er.</i> X kromosomako generen batek eragindako edozein ezaugarri.

sexuartekotasun:

ES:	intersexualidad
FR:	intersexualité
EN:	intersexuality iz. Fenomeno genetikoa; bi sexuen sexu-ezaugarriak agertzen dira gizabanako berean. Sexuartekotasunaren barruan sailka daitezke pseudohermafroditismoa, eunukoidismoa, eta abar.

sexu-asaldu:

ES:	trastorno sexual
FR:	dysfonction sexuelle
EN:	sexual dysfunction iz. Sexualitateari lotua dagoen gatazka. Arrazoi biopsikosozialen ondorio izan daiteke, eta egunerokotasunean eragin negatiboa du. Harremanetan ere izan dezake eragin negatiborik.

sexu-asegabetasun:

ES:	insatisfacción sexual
FR:	insatisfaction sexuelle
EN:	sexual dissatisfaction iz. Frustrazio-sentimendua; plazeraz edo orgasmoaz nahi beste ez gozatzearen ondorio izan daiteke.

sexu-askatasunerako eskubidea:

ES:	derecho a la libertad sexual
FR:	droit à la liberté sexuelle
EN:	right to sexual freedom

sint. er. Sexu-eskubidea; gizabanakoak eskubidea du bere sexualitatea osoki adierazteko eta besteen aurrean agertzeko. Bizitzako edozein garai eta egoeratan gerta daitekeen larderia, esplotazio eta sexu-abusu oro baztertzen du sexu-askatasunerako eskubideak.

Ikus: sexu-eskubideak.

sexu-atsegin:

ES:	goce sexual
FR:	plaisir sexuel
EN:	sexual enjoyment

iz. Sexu-kontaktuan (nor bere buruarekin edo besterekin) nahiz irudimenaren bidez lortzen de plazera.

Ikus: sexu-plazer.

sexuatze:

ES:	sexuación
FR:	sexuation
EN:	sexuation

iz. Sexu-bereizkuntzako prozesu konplexu, banakako eta biografikoa.

Honako elementu sexu-bereizgarri hauek parte hartzen dute prozesu horretan, besteak beste: sexu-kromosomak (XX emakumeetan, XY gizonetan), gonadak (obulutegiak, barrabilak), hormonak (estrogenoak, androgenoak, eta abar), barneko zein kanpoko genitalak, jaiotzatiko sexua, legezko sexua, bereizkuntza-heziketa, sexu-rola edo genero-rola, pubertaroa, emakumeen eta gizonen klimateriaoa (menopausia, andropausia), eta abar.

Ikus: sexuazio.

sexu-aurreiritzi:

ES:	prejuicio sexual
FR:	préjugé sexuel
EN:	sexual bias

iz. Sexu-jarduerei buruz aurrez sortutako iritzia; ezagutza zientifikoaren gabezia oinarritua izan ohi da gehienetan.

sexu-autonomia, -osotasun eta -segurtasunerako eskubidea:

ES:	derecho a la autonomía, integridad y seguridad sexual
FR:	droit à l'autonomie, l'intégrité et à la sécurité sexuelle
EN:	right to sexual autonomy, integrity and security

sint. er. Sexu-eskubidea; nor bere bizitza sexualari buruz erabaki autonomoak hartzeko eskubidea du, giza eta gizarte-etikaren ikuspegitik betiere. Gorputza kontrolatzeko eta hartaz gozatzeko gaitasuna ere aintzat hartzen da, eta ez da onartzen inolako tortura, mutilazio edo indarkeriarik.

Ikus: sexu-eskubideak.

sexuazio:

ES:	sexuación
FR:	sexuation
EN:	sexuation

Ikus: sexuatzte.

sexu-bereizkuntzarik ez:

ES:	indiferenciación sexual
FR:	indifférenciation sexuelle
EN:	sexual homogeneity

sint. er. Izaki baten sexua bereizi gabe egotea ezaugarri duen fenomeno. Gizakiarena baino maila baxuagoetako espezieetan eta giza garapeneko hainbat alditan ageri da.

sexu-biografia:

ES:	biografía sexual
FR:	biographie sexuelle
EN:	sexual biography

iz. Norbaiten sexu-bizitzaren kontakizuna.

sexu-bortxaketa:

ES:	violación sexual
FR:	violation sexuelle, viol
EN:	sexual violation, rape

iz. Sexu-eraso mota; koito motaren bat jasatera behartzea.

sexu-bulkada:

ES:	impulso sexual
FR:	pulsion sexuelle
EN:	sex drive

iz. Sexu-desiraren osagaietako bat; senezko sexu-jokabide bat da, ezaugarri biofisiologikoen eragina. Sexu-organoen kitzikapena edo, oro har, sexu-kitzikapena dakar sexu-bulkadak, modu endogeno eta bereizgarrian. Sexu-bulkadaren ezaugarri ohikoenak honako hauek dira: sexu-organoen kitzikapena, hantura eta lubrikatzea, gorputz atalen kitzikapen erotikoa, fantasia, amets erotikoak eta sexu-jarduera bilatzea –beste norbaitekin edo bakarka–. Azken batean, sexu-kitzikapena handitu egiten da sexu-bulkadaren ondorioz, eta berez sortzen den jokabide endogenotzat har daiteke.

sexu-desberdintze:

ES:	diferenciación sexual
FR:	différenciation sexuelle
EN:	sexual differentiation

Ikus: sexuatzte, sexu-bereizte.

sexu-desbideratze:

ES:	desviación sexual
FR:	déviación sexuelle
EN:	sexual deviation

iz. Ohiz kanpokotzat jotzen den sexu-portaera, jarrera edo joera. Tradizioz ohikotzat jotzen ziren harremanen ezaugarriak hauek izan dira: heterosexuala, pareko adina, bagina-sarketa eta ernaltze-helburua. XXI. mendearen hasieran, ordea, klinikoki DSM eta ICD eskuliburuetakako irizpideak hartu ziren aintzakotzat sexu-desbideratzeak identifikatzeko.

Ikus: DSM, ICD.

sexu-desira:

ES:	deseo sexual
FR:	désir sexuel
EN:	sexual desire

iz. Kanpoko eraginen nahiz barruko beharren ondorioz agertzen den sexu-gogoa, beste batenganakoa ala norberarenganakoa, nabaria ala ezkutukoa, zuzenekoa ala zeharkakoa. Tabu, konplexu, trauma nahiz beste zenbait faktorerengatik erreprimitu, eta, maiz, modu kontraesanezkoan adieraz daiteke. Kitzikapena eragin dezake, eta sexu-ekintzara bultzatu. Hiru osagai nagusi ditu sexu-desirak: sexu-bulkada, sexu-irritsa eta sexu-motibazioa.

Ikus: sexu-irrits.

sexu-desira hiperaktibo:

ES:	deseo sexual hiperactivo
FR:	désir sexuel hyperactif
EN:	hyperactive sexual desire

sint. er. Sexu-disfuntzioa; sexu-jarduera ohi baino askoz ere sarriago nahi izatea du ezaugarri, nahiz eta oso erlatiboa den ohikotasuna. Harremanetan eragin negatiboa izaten du, eta pertsonaren eguneroko jarduera oztopatzen.

sexu-desira hipoaktibo:

ES:	deseo sexual hipoactivo
FR:	désir sexuel hypoactif
EN:	hypoactive sexual desire

sint. er. Sexu-disfuntzioa; sexu-jarduera ohi baino askoz gutxiagotan nahi izatea du ezaugarri. Harremanetan eragin negatiboa izaten du, eta pertsonaren eguneroko jarduera oztopa dezake.

sexu-desira inhibitua:

ES:	deseo sexual inhibido
FR:	désir sexuel inhibée
EN:	inhibited sexual desire (ISD)

sint. er. Sexu-disfuntzioa; sexu-irrikaren gutxiegitasuna nahiz gabezia ditu ezaugarri, bai eta sexuak eta sexu-jarduerak ez erakartzea ere. Sexu-desira inhibitua duen pertsonak sexu-harremanak saihesten ditu.

sexu-desiraren orientazio:

ES: orientación del deseo sexual

FR: orientation du désir sexuel

EN: orientation of sexual desire

sint. er. Gehien erakartzen duen eta desiratzen duen sexuaren edo sexuen aukera. Erakartzen duen sexuaren araberakoa da, eta ez halaberharrez jokabideen araberakoa. Ez da borondatez egiten den aukera. Fantasia erotikoak eta amets erotikoak ere esanguratsuak izan daitezke desiraren orientazioa definitzerakoan.

Oharrak: Pertsona baten orientazio sexualak ez du haren sexua (gizon ala emakume izatea) baldintzatzen. Hots, sexu bereko kideek erakartzen duten gizonak gizon izaten jarraitzen du, emakumeek erakartzen dutena bezala. Berdin, emakumeei dagokienez.

sexu-dimorfismo:

ES: dimorfismo sexual

FR: dimorphisme sexuel

EN: sexual dimorphism

1. *iz.* Espezie bereko ar eta emeen arteko edozein desberdintasun fenotipiko. 2. *iz.* Bi sexuen ezaugarriak izatea; enbrioian gertatzen da, eta, garatu ondoren, hermafroditengan.

sexu-disfuntzio:

ES: disfunción sexual

FR: dysfonctionnement sexuel

EN: sexual dysfunction

iz. Sexu-jardueraz gozatzea edo sexu-erantzunaren ziklo osoa betetzea zailtzen edo eragozten duen oztopo fisiko edo psikologikoa.

sexu-diskriminazio:

ES: discriminación sexual

FR: discrimination sexuelle

EN: sexual discrimination

iz. Sexua irizpidetzat harturik egiten den bazterketa mota.

Ikus: sexu-disfuntzio.

sexudun:

ES: sexuado

FR: sexué

EN: sexed

izond. Sexua duena; hau da, ar eta emetan banatzen den espezie bateko kidea.

sexu-elkartze askerako eskubidea:

ES:	derecho a la libre asociación sexual
FR:	droit de libre partenariat sexuel
EN:	right to free sexual association <i>sint. er.</i> Sexu-eskubidea; gizabanako orok du eskubidea ezkontzeko edo ezkongabe geratzeko, dibortziazteko, eta bestelako sexu-elkartze arduratsuetan parte hartzeko.

Ikus: sexu-eskubideak.

sexuen arteko lehia:

ES:	guerra de sexos
FR:	guerre des sexes
EN:	battle of the sexes <i>sint. er.</i> Gizon-emakumeen arteko norgehiagoka, nagusitasuna adierazteko edo eskaeraren bat egiteko.

sexu-erakarpen:

ES:	atracción sexual
FR:	attirance sexuelle
EN:	sexual attraction <i>iz.</i> Desira pizten duen norbaitenganako edo zerbaiteko joera.

sexu-eraso:

ES:	agresión sexual
FR:	agression sexuelle
EN:	sexual assault <i>iz.</i> Norbait sexu-jarduerara indarrez behartzeko eraso.

sexu-errepresio:

ES:	represión sexual
FR:	répression sexuelle
EN:	sexual repression <i>iz.</i> Psikoanalisiak deskribatutako babes-mekanismoa; kontzientzia-herstura eragiten duten ideia erotikoak automatikoki ezabatzen ditu.

sexu-eskubideak:

ES:	derechos sexuales
FR:	droits sexuels
EN:	sexual rights

iz. Oinarrizko giza eskubideak. Emakumeari buruzko Laugarren Mundu Biltzarrean adostutako definizioa onartu du International Planned Parenthood Federation-ek sexu-eskubideei dagokienez: «Emakumeen giza eskubideak dira, batetik, nork bere sexualitatearen gorabeheren ardura eta kontrola izatea, sexu- eta ugal-osasunarena barne, eta, bestetik, gorabehera horien gaineko erabakiak aske hartu ahal izatea, bortxarik, diskriminaziorik eta indarkeriarik jasan gabe. Ugaltzeari, sexu-harremanei eta pertsonaren osotasunari dagokienez emakumeek eta gizonek berdintasunezko harremanak izateko, behar-beharrezkoa da emakumeen eta gizonen artean begirunea eta elkarren onespina izatea, eta baita sexu-portaeraren ondorioen erantzukizuna elkarrekin hartzeko borondatea ere» (*Emakumeari buruzko Laugarren Mundu Biltzarra: Ekintza-programa*, Pekin, 1995, 96. paragrafoa).

Ikus: sexu-askatasunerako eskubidea; sexu-autonomia; -osotasun eta -segurtasunerako eskubidea; sexu-pribatutasunerako eskubidea; sexu-parekotasunerako eskubidea; sexu-gozamenerako eskubidea; sexu-adierazpen emozionalerako eskubidea; sexu-elkartze askerako eskubidea; ugal-erabaki aske eta arduratsuak hartzeko eskubidea; oinarri zientifikoa duen informazioarako eskubidea; sexu-hezkuntza osorako eskubidea; sexu-osasunaren arretarako eskubidea.

sexu-esleitze:

ES:	asignación de sexo, asignación sexual
FR:	assignation sexuelle
EN:	sex assignment

iz. Haur jaioberriari mutikoaren edo neskatoaren etiketa ipintzea. Generoa esleitzea ere baderitzo.

sexu-esperientzia:

ES:	experiencia sexual
FR:	expérience sexuelle
EN:	sexual experience

iz. Sexu-portaeren inguruko bizipenen multzoa; adinaren, garapenaren eta praktikaren arabera hartzen da, oro har.

sexu-estereotipo:

ES:	estereotipo sexual
FR:	stéréotype sexuel
EN:	sexual stereotype

1. *iz.* Emakume eta gizonengandik sexuaren arabera espero den portaera. Moral eta ikusmolde zaharretatik edo norberarengandik sortutako uste eta sineskeriak izan ohi dira eskuarki; dena dela, garaian garaiko gizarteak ere egokitzen edo sortzen ditu estereotipoak. 2. *iz.* Eredu primitiboen arabera egituratutako sexu-rola.

sexu-estimulazio:

ES:	estimulación sexual
FR:	stimulation sexuelle
EN:	sexual stimulation

iz. Desira eta plazer erotikoa eragiteko ekintzen multzoa.

Ikus: sexu-kitzikapen.

sexu-estimulu:

ES:	estímulo sexual
FR:	stimulus sexuel
EN:	sexual stimulus

iz. Sexu-kitzikapena eragiten duen estimulua; gorputz atalak, objektuak, portaera kitzikagarriak, eta abar, izan daitezke.

sexu-ezaugarri(ak):

ES:	caracteres sexuales
FR:	caractères sexuels
EN:	sexual characteristics

iz. Gizaki emeak eta arrak bereizten dituzten egitura eta funtzioen araberako desberdintasunak. Gaur egun, batik bat bi maila bereizten dira: lehen eta bigarren mailako ezaugarriak.

Ikus: lehen mailako sexu-ezaugarriak, bigarren mailako sexu-ezaugarriak.

sexu-ezaugarriak:

ES:	caracteres sexuales
FR:	caractères sexuels
EN:	sexual characteristics

1. *iz.* Herentzia-bereizgarrien multzoa; garapenean agertzen diren ezaugarri eta aldaketa fisiko eta psikologikoen osatzen dute. Gizonezkoen eta emakumezkoen organismoak bereizten ditu. Bigarren mailako sexu-ezaugarriak dira giharren, ilearen, ahotsaren, eta abarren garapenari dagozkion ezaugarriak. 2. *iz.* Ondoretasun-bereizgarria; norbanako arrak eta emeak bereizten dituen anatomia-eta funtzio-ezaugarriak hartzen ditu bere baitan.

sexu-fantasia:

ES:	fantasía sexual
FR:	fantaisie sexuelle
EN:	sexual fantasy

iz. Desira erotikoak irudimenaren bidez gauzatzea.

sexufobia:

ES:	sexofobia
FR:	sexophobie
EN:	sexophobia

iz. Sexu eta erotismoarekiko jarrera ezkorra.

sexu-funtzio:

ES: función sexual

FR: fonction sexuelle

EN: sexual function

iz. Gizakiaren sexu-sistemaren jarduera fisiologikoa. Organo genitalek bi funtzio garrantzitsu betetzen dituzte: ugalketa eta plazera.

sexugabe:

ES: asexual

FR: asexué

EN: asexual

izond. Ageriko sexurik nahiz sexu-organorik ez duena.

sexu-garapen:

ES: desarrollo sexual

FR: développement sexuel

EN: sexual development

iz. Jaiotzatik heriotzara bitartean, gizakiak sexuduna den heinean jasaten dituen aldaketa biopsikosozialen multzoa. Garai edo adin bakoitzak bere ezaugarriak izan ohi ditu, eta haurtzaroan, pubertaroan, nerabezaroan, gaztaroan, helduaroan eta zahartzaroan gizonen zein emakumeen artean pareko prozesuak gertatzen dira.

sexu-gogaitasun:

ES: hastío sexual

FR: ennui sexuel

EN: sexual boredom

iz. Sexurako gogo ezak dakarren egoera psikofisikoa. Sexukidearekiko harreman emozional ona izanda ere, irritsa gutxitu daiteke. Gabezia organikoek edo sendagai jakin batzuek eragina izan daiteke sexu-gogaitasuna. Halakorik ez denean, berriz, sexu-jarduna behin eta berriz toki eta garai berean eta teknika bertsuak erabiliz errepikatzearen ondorio ere izan daiteke; halakoetan, sexu-kitzikapenak behera egiten du, errutinagatik.

sexu-gogobetetze:

ES: satisfacción sexual

FR: satisfaction sexuelle

EN: sexual satisfaction

iz. Jarduera erotikoa eragindako oreka eta poz-egoera asebetea.

sexu-gozamenerako eskubidea:

ES: derecho al placer sexual

FR: droit au plaisir sexuel

EN: right to sexual pleasure

iz. Sexu-eskubidea; ongizate fisiko, psikologiko, intelektual eta espiritualtzat jotzen da sexuaz gozatzea, autoerotismoa barne.

Ikus: sexu-eskubideak.

sexu-grina:

ES:	concupiscencia
FR:	concupiscence
EN:	concupiscence

iz. Ezinbesteko sexu-desira.

Ikus: konkupiszentzia.

sexu-gura:

ES:	apetito sexual
FR:	appétit sexuel
EN:	sexual appetite

iz. Sexu-irrika; gizabanakoa ekintzara bultzatzen du.

sexu-guruin:

ES:	glándula sexual
FR:	glande sexuelle
EN:	sex gland

Ikus: gonada.

sexu-harreman:

ES:	relación sexual, contacto sexual
FR:	rapports sexuels
EN:	sexual intercourse

iz. Jokabide erotikoen multzoa. Bagina-sarketaren sinonimotzat jo izan da tradizioz, baina gaur egun era askotako harreman erotikoak biltzen ditu.

Ikus: jokabide erotiko.

sexu-hautespen:

ES:	seleccion sexual
FR:	sélection sexuelle
EN:	sexual selection

iz. Charles Darwinek adierazitako mekanismoa, espezieen eboluzioa azaltzeko. Emeei zenbait ar hobesten dituzte, ernaltze-arrakasta bermatzeko, eta espezie poligamikoetan arren arteko borrokak izaten dira harema bereganatzeko; ugal-bikote sexuala lortzeko edo erakartzeko kideekiko lehian, espezie bateko banakoen artean gaitasun- eta trebetasun-aldeak daudelako gertatzen da.

sexu-heldutasuna:

ES:	madurez sexual
FR:	maturité sexuelle
EN:	sexual maturity

1. *iz.* Ugaltze-gaitasuna. 2. *iz.* Legearen arabera, besteekiko jokabide erotikoak izateko adinez heldua izatea.

Ikus: sexu-heltze.

sexu-heltze:

ES:	maduración sexual
FR:	maturation sexuelle
EN:	sexual maturation

iz. Ugaltze-gaitasuna izatea. Legez, sexu-harremanetarako heldutasuna izatea.

sexu-hezkuntza:

ES:	educación sexual
FR:	éducation sexuelle
EN:	sex education

iz. Gizabanakoa sexualitatearen arloan hezteko prozesu planifikatua; sexualitatea modu libre, arduratsu, osasuntsu eta atsegingarrian bizitzen ikastea du helburu. Sexu-hezkuntzaren xedea da pertsonari laguntza ematea gorputz- eta afektibitate-intimitatea lantzeko eta sexu-jardueran libre eta arduratsu jokatzeko. Era horretan, pertsonak baliabide egokiak garatzen ikasten du, bizitzan zehar izango dituen giza harremanetan eta besteeikiko loturetan behar bezala jokatzeko. Sexu-hezkuntzak badu arlo teoriko bat (liburuetan, hitzaldietan, elkarrizketetan eta abarretan eskaintzen dena) eta badu alde praktiko bat (sexu-harremanen mailak lantzea).

sexu-hezkuntza osorako eskubidea:

ES:	derecho a la educación sexual integral
FR:	droit à l'éducation sexuelle complète
EN:	right to comprehensive sex education

iz. Sexu-eskubidea; gizaki orok du, jaiotzatik eta bizitza osoan zehar, sexu-hezkuntza osoa jasotzeko eskubidea. Gizarte-erakunde guztiek bultzatu behar lukete hori.

Ikus: sexu-eskubideak.

sexu-historia:

ES:	historia sexual
FR:	histoire sexuelle
EN:	sexual history

iz. Pertsona baten sexu-bizitzari buruzko informazioa (sexu-funtzioena eta -disfuntzioena) biltzen duen txostena, sexu-terapeuta batek egina. Lehen sexu jokabideak, sexu-jardueraren maiztasuna, sexu-jarduera mota eta jarduera horrekin lortutako asetasun-maila biltzen dira, besteak beste.

sexu-hormona:

ES:	hormona sexual
FR:	hormone sexuelle
EN:	sex hormone

iz. Gai biologiko naturala; sexualitatean parte hartzen duten organoen garapena eragiten du, besteak beste. Hiru sexu-hormona mota nagusi daude: androgenoak (barrarilek ekoitziak), eta estrogenoak eta progesterona (obulutegiek ekoitziak).

sexu-identitate:

ES:	identidad sexual
FR:	identité sexuelle
EN:	sexual identity

sint. er. Gizon edo emakume izatearen bizipena eta esperientzia.

sexu-indarkeria:

ES:	violencia sexual
FR:	violence sexuelle
EN:	sexual violence

iz. Indarkeriazko sexu-jardueren multzoa; horien artean daude: indarraren erabilera, menderatzea, manipulazioa, baimenik gabe ukitzea, indarkeria psikologikoa, mehatxuak, kolpeak, zauriak, eta abar. Gehienetan, beste pertsona bat edozein eratako sexu-jarduerak izatera behartzeko egiten da.

sexu-inhibizio:

ES:	inhibición sexual
FR:	inhibition sexuelle
EN:	sexual inhibition

iz. Jokabide, bizipen edo pentsamendu erotikoen mugatzea edo sexu-desira etetea; blokeoa. Jatorri psikologikoa izaten du kasu gehienetan, eta inguruko indar sozialek zein kulturek eragina izaten da sarritan. Hala ere, beste hainbat egoeraren edo gertaeraren ondorio ere izan daiteke: bikotekideen arteko desadostasunak, neurritz gairik lanak, asaldur fisikorik bat...; halako egoerak denboran gehiegi luzatuz gero, inhibizioa disfuntzio bihurtu daiteke.

sexu-inpronta:

ES:	impronta sexual
FR:	empreinte sexuelle
EN:	sexual imprint

iz. Ikasbide biologikoa; sexu-harremanak izateko norbera hazi den espezieko banakoak nahiago izatea, nahiz espezie biologiko berekoak ez izan.

sexu-interakzio:

ES:	interacción sexual
FR:	interaction sexuelle
EN:	sexual interaction

iz. Sexu-harremanetan elkarri eskaintzen zaiona, oro har: kitzikapena, maitasuna, laztanak, eta abar.

sexu-iraultza:

ES:	revolución sexual
FR:	révolution sexuelle
EN:	sexual revolution

iz. Sexu-praktika, -jarrera eta -balioak erotik aldatzen direneko garaia. Zehazki, Mendebaldeko gizarteko sexu-ohituren eta -sinesteen eraldatze bizkorra, 1960ko eta 70eko hamarkadetan gertatua. Sexu-iraultzari esker, ezkondu gabeko pertsonen arteko sexu-jarduerak ugartu egin ziren, eta ezkontzaren inguruko moral tradizionala aldatzen hasi zen, besteak beste.

sexu-irrits:

ES:	anhelo sexual
FR:	désir sexuel
EN:	sexual wish

iz. Sexu-desiraren osagaietako bat; sexu-harremanak izateko gogoia edo sexu-desira eta egoera erotikoak gauzatzeko nahia adierazten du. Sexu-bulkadarik gabe ere senti daiteke sexu-irritsa.

sexu-jarduera:

ES:	actividad sexual
FR:	activité sexuelle
EN:	sexual activity

iz. Era askotako sexu-jarduera, gizabanakoaren beharren eta zaletasunen arabera. Gizabanakoaren sexuak, psikologiak eta biologiak, eta orobat bizi izandako egoerek baldintzatzen dituzte behar eta zaletasun horiek.

sexu-jarrera:

ES:	postura sexual, actitud sexual
FR:	position sexuelle, attitude sexuelle
EN:	sexual position, sexual attitude

1. *iz.* Sexuari buruzko jarrera orokorra. 2. *iz.* Sexu-harremanak izateko hartzen den gorputz-jarrera.

Ikus: sexu-jokaera.

sexu-jazarpen:

ES:	acoso sexual
FR:	harcèlement sexuel
EN:	sexual harassment

iz. Sexu-abusuak –lan-mundukoak, batik bat– izendatzeko erabiltzen den hitza. Pertsonaren duintasunari, haren lan-baldintzei eta abarri erasaten dieten hitzak, aipamenak, keinuak, proposamenak... hartzen dira jazarpentzat. Oro har hierarkiaren arabera gertatzen den arren, gerta daiteke halaber lankideen artean, ikaskideen artean...

sexu-joera:

ES:	orientación sexual
FR:	orientation sexuelle
EN:	sexual orientation

Ikus: sexu-orientazio.

sexu-jokaera:

ES:	comportamiento sexual
FR:	comportement sexuel
EN:	sexual behaviour

iz. Gizabanakoak alor erotikoa duen jokamoldea. Ezberdintasunak orokorrak izan ohi dira gizonen eta emakumeen sexu-jokabideetan.

sexu-kitzikapen:

ES:	excitación sexual
FR:	excitation sexuelle
EN:	sexual arousal

Ikus: kitzikatze.

sexu-komunikazio:

ES:	comunicación sexual
FR:	communication sexuelle
EN:	sexual communication

iz. Harreman erotikoetan, adierazpen- eta ulermen-maila, erotismoari, maitasunari edo afektibitateari dagokionez.

sexu-kontinentzia:

ES:	continencia sexual
FR:	continence sexuelle
EN:	sexual continence

iz. Grina erotikoari eustea. Kristautasunaren arabera, bertute bat da, grinei eutsi behar baitzaie, batik bat sexu-irritsari. Muturreraino eramanik, kastitatea praktikatzea da; dena dela, haurdunaldia saihesteko edo osasun-arazo nahiz higienikoak saihesteko ere erabili da.

sexu-kromosoma:

ES:	cromosoma sexual
FR:	chromosome sexuel
EN:	sex chromosome

iz. Sexu-ezaugarriak erabakitzen dituzten bi kromosometako bakoitza (XX, emakumezkoan; XY, gizonezkoan).

sexu-masokismo:

ES:	masoquismo sexual
FR:	masochisme sexuel
EN:	sexual masochism

iz. Sexu-kitzikapena lortzeko, norberaganako bortxa, zigorra, tortura nahiz gutxiespena erabiltzen dituen sexu-jardueren multzoa.

Ikus: masokismo.

sexu-merkataritza:

ES:	comercio sexual
FR:	commerce sexuel
EN:	sex trade

iz. Prostituzioaren inguruan, pertsonak salgai gisa erabiliz, sortu den merkataritza.

sexu-motibazio:

ES:	motivación sexual
FR:	motivation sexuelle
EN:	sexual motivation

iz. Sexu-desiraren osagaietako bat, denetan konplexuena; pertsona bat sexu-jarduerarako prest dagoenetz adierazten du. Sexu-jarduerarako motibazioaren aurretik, kontuan hartu beharrekoak dira: sexu-bulkada, sexu-harremanak izateko erabakia hartzea, pertsona-harremanak, besteak behatzea, erakarmena, eta abar.

Azken batean, bizipen erotiko batean parte hartzeko borondatea da, eta sexu-bulkadaren eta sexu-irritsaren ondoren gertatzen da.

sexu-neurribide:

ES:	continencia sexual
FR:	continence sexuelle
EN:	sexual continence

iz. Sexua praktikatzeari uko egitea, arrazoi moralengatik, ernaltze-arriskua saihesteko, arazo psikologikoengatik, gaixotasunak saihesteko, eta abar.

Ikus: sexu-kontinentzia.

sexu-objektu:

ES:	objeto sexual
FR:	objet sexuel
EN:	sex object

iz. Desira erotikoa pizten duen pertsona edo objektua.

sexu-obsesio:

ES:	obsesión sexual
FR:	obsession sexuelle
EN:	sexual obsession

iz. Sexuaren inguruko zerbaitek eragindako ardura gehiegizkoa eta etengabea.

sexu-organo:

ES:	órgano sexual
FR:	organe sexuel
EN:	sex organ

iz. Ugalketan parte hartzen duten organoetako bakoitza. Emakumearena osatzen dutenak dira: bulba (Venus mendia, ezpain handiak, ezpain txikiak, klitoria), bagina, umetokia, Falopioen tronpak eta obulutegiak. Gizonarena osatzen dutenak, berriz: barrabilak, epididimoa, hodi deferenteak, guriin prostatikoa, semen-xixkuak, Cowper-en guriinak eta zakila.

sexu-orientazio:

ES:	orientación sexual
FR:	orientation sexuelle
EN:	sexual orientation

iz. Sexu jardueran, pertsona batek duen joera heterosexuala, homosexuala edo bisexuala.

sexu-osagarriak:

ES: accesorios sexuales

FR: jouets sexuels

EN: sex toys

iz. Sexu-harremanetan erabil daitezkeen hainbat tresna; sentipenak areagotzeko nahiz esperientzia erotiko berriak probatzeko erabiltzen dira. Sex-shopetan eros daitezke.

sexu-osasun:

ES: salud sexual

FR: santé sexuelle

EN: sexual health

iz. Pertsonaren emozioen, adimenaren, gizartearen eta gorputzaren integrazioa; izaera, komunikazioa eta maitasuna hobetzen eta aberasten ditu. Sexualitatearen ezaugarri somatiko, emozional, intelektual eta sozial osasuntsuen multzoa da, betiere ikuspegi oso batetik harturik, giza nortasuna, komunikazioa eta maitasuna indartzeko. Pertsonen bizitza eta pertsonen arteko harremanak nola garatzen diren zaintzea da sexu-osasunaren ardura nagusia; horrenbestez, arlo honetan ez zaie hainbesteko garrantzirik ematen ugalketa-arazoei eta sexu bidez kutsatzen diren gaixotasunei buruzko aholkularitzari zein arretari.

sexu-osasunaren arretarako eskubidea:

ES: derecho a la atención de la salud sexual

FR: droit aux soins de santé sexuelle

EN: right to sexual health care

sint. er. Sexu-eskubidea; ezinbestekoa da sexu-osasuneko arazo, kezka eta asaldur guztiei aurre egiteko eta horiek tratatzeko zerbitzua izatea.

Ikus: sexu-eskubideak.

sexu-parekotasunerako eskubidea:

ES: derecho a la equidad sexual

FR: droit à l'équité sexuelle

EN: right to sexual equality

sint. er. Sexu-eskubidea; diskriminazio ororen aurkakoa. Bereizkeria oro gaitzesten da sexuari dagokionez, hala nola generoari, sexu-joerari, adinari, arrazari, klase sozialari, erlijioari, edo ezein muga fisiko eta emozional dagokienez.

Ikus: sexu-eskubideak.

sexu-patologia:

ES: patología sexual

FR: pathologie sexuelle

EN: sexual pathology

iz. Asaldur organiko nahiz psikikoen multzoa; sexu-bizitza zailtzen edo eragozten dute halakoek.

sexu-perbertsio:

- ES:** perversión sexual
FR: perversion sexuelle
EN: sexual perversion

iz. Pertsona helduaren portaera ustez normaletik urruntzen den sexu-jokabidea, konnotazio negatibokoa.

sexu-plazer:

- ES:** placer sexual
FR: plaisir sexuel
EN: sexual pleasure

iz. Besterekiko nahiz norberarekiko erotismoaren bidez lortzen den plazer askotarikoa; kitzikadura, klimaxa eta orgasmoa ditu adierazpen nagusi. Sexu-harremanetan, gozamen fisikoa bezain garrantzitsua da gozamen psikikoa.

sexu-portaera:

- ES:** comportamiento sexual
FR: comportement sexuel
EN: sexual behaviour

iz. Jarduera eta erreakzio multzoa; gizabanakoaren bizitza sexualari lotua dago.

Ikus: sexu-jokaera.

sexu-pribatutasunerako eskubidea:

- ES:** derecho a la privacidad sexual
FR: droit à l'intimité sexuelle
EN: right to sexual privacy

sint. er. Sexu-eskubidea; gizaki orok du intimitatean erabakiak hartzeko eta nahi duen jokaera izateko eskubidea, besteen sexu-eskubideak errespetatuz betiere.

Ikus: sexu-eskubideak.

sexurako jarrera:

- ES:** postura sexual
FR: position sexuelle
EN: sexual position

sint. er. Sexu-harremanak izateko hartzen den gorputz-jarrera.

Ikus: sexu-jarrera.

sexu-rol:

ES:	rol sexual
FR:	rôle sexuel
EN:	sex role

iz. Kultura jakin batean, gizonentzat nahiz emakumeentzat egokitzen jotzen diren sexu-jarreraren eta -portaeraren multzoa. Sexu bakoitzeko kideei gizarteak esleitu dien jokabide, jarrera eta sentimenduen eredua.

Oharrak: Sexu-rolak etengabe aldatuz doaz.

Ikus: sexismo, diskriminazio sexual, genero, hezkidetza.

sexu-sadismo:

ES:	sadismo sexual
FR:	sadisme sexuel
EN:	sexual sadism

iz. Oinaze psikologikoa edo fisikoa eragiten duten sexu-jardueren multzoa; beste bati min emanez lortzen da kitzikapena.

sexu-terapeuta:

ES:	terapeuta sexual
FR:	thérapeute sexuel
EN:	sex therapist

iz. Sexualitatea eta bikote-harremanak hobetzen diharduen profesionala; sexu-zailtasunak edo bikote-gatazkak jasaten dituztenei laguntzeko ezagutzak, trebetasunak eta estrategiak erabiltzen ditu.

sexu-terapia:

ES:	terapia sexual, sexoterapia
FR:	sexothérapie
EN:	sex therapy

iz. Sexu-disfuntzioen tratamendurako tekniken multzoa; terapia hasi aurretik, beharrezkoa da disfuntzio horien jatorri psikologikoa aurkitzea.

sexu-transmisiozko infekzio (STI):

ES:	infección de transmisión sexual (ITS)
FR:	infections sexuellement transmissibles (IST)
EN:	sexually transmitted infection (STI)

sint. er. Sexu bidez kutsaturiko infekzioa (SKI). Infekzio-patologia multzoa; infekzio horrek jotako norbaitekin sexu-harremanak izanez gero har daiteke. Koito bidez zein bestelako kontakturen baten bidez kutsa daiteke. Hain zuzen, infektaturiko muki-mintz batek eta infektatu gabeko beste muki-mintz batek elkar ukitzean kutsatzen da infekzioa, eta baita larruazaleko zauri batek infektaturiko muki-mintza ukituz gero ere. Kutsatzeko bide nagusiak dira ahoko muki-mintzak, sexu-organoak eta uzkia.

sexu-ugalketa:

ES:	reproducción sexual
FR:	reproduction sexuée
EN:	sexual reproduction

Ikus: sexu-ugaltze, ugaltze.

sexu-ugaltze:

ES:	reproducción sexual
FR:	reproduction sexuée
EN:	sexual reproduction

iz. Ugalketa mota; gametoak elkartuz eratzen da zigotoa. Ugalketa mota hori gertatzeko, gameto arra eta gameto emea elkartzea beharrezkoa izaten da.

Ikus: ugaltze.

sexu-uzte:

ES:	abstinencia sexual
FR:	abstinence
EN:	abstinence

iz. Sexu-kontinentziazko aldia. Jokaera erotiko orori edo batzuei uko egitea, hala jokabide erotiko partekatuari nola autoerotismoari edo fantasia erotikoari. Borondatezkoa edo nahi gabekoa izan daiteke. Sexu-uztearen motiboak asko izan daitezke: erlijio-sinesmena, osasuna, bakardadea, haurdunaldi-garaia, haurdunaldia saihestu nahia, sexukide aproposa aurkitu ezina, bizitza espirituala indartu nahia, irritsaren falta, sexu-bizipenei beldur izatea, edo sexu-terapiak hala agintzea, besteak beste.

Ikus: kastitate, sexu-abstinentzia.

sexu-uzte partzial:

ES:	abstinencia parcial
FR:	abstinence partielle
EN:	partial abstinence

iz. Sexu-jokabide batzuk uztea. Batik bat, bagina-sarketa ez praktikatzeari deitu izan zaio horrela; beste praktika batzuk, hala ere, izaten dira.

sexu bidezko:

ES:	sexual
FR:	sexuel
EN:	sexual

Ikus: sexual.

sexu bidezko gaixotasun:

ES:	enfermedad de transmisión sexual
FR:	maladie transmissible
EN:	sexually transmitted disease <i>sint. er.</i> Jokaera erotiko partekatuetan kutsa daitekeen infekzio edo gaixotasunari deitzeko erabiltzen den esamoldea.

sexu bidezko infekzio:

ES:	infección de transmisión sexual
FR:	infections sexuellement transmissibles
EN:	(STI) sexually transmitted infection <i>sint. er.</i> Kutsagarriak diren infekzioak, sexu-harremanen bidez kutsa daitezkeenak. Garrantzitsuenen artean daude: sifilia, gonorrea, Nicolas Favre-ren gaixotasuna, herpes genitala, garatxo genitalak, mikosi genitalak, B hepatitis, eta hiesa. «Sexu bidezko gaixotasun» izena ematen zaie, oro har.

sexu bidezko ugaltze:

ES:	reproducción sexual
FR:	reproduction sexuée
EN:	sexual reproduction <i>sint. er.</i> Ugaltze mota, gameto arra –espermatozoidea– eta emea –obulua– elkartuz gertatzen dena.

Sexu eta Ugal Osasunaren Eguna:

ES:	Día de la Salud Sexual y Reproductiva
FR:	Journée de la Santé sexuelle et Génésique
EN:	Sexual and Reproductive Health Day <i>sint. er.</i> Otsailaren 14an ospatzen da.

sexu- eta ugal-osasunerako zerbitzu:

ES:	servicios de salud sexual y reproductiva
FR:	services de santé sexuelle et génésique
EN:	sexual health and reproductive services <i>sint. er.</i> Ugal-ongizate eta -osasuna nahiz sexu-osasuna zaintzeko metodo, teknika eta zerbitzuen multzoa. Prebentzioaren bidez eta ugal-osasuneko arazoei irtenbidea emanez gauzatzen da.

sexu gabeko:

ES:	asexual
FR:	asexuel
EN:	asexual

Ikus: asexual.

sexu genital:

ES:	sexo genital
FR:	sexe génital
EN:	genital sex

sint. er. Umetoki barruan egonik, gizonezkoen zakilaren eta eskrotoaren eraketa, eta emakumeen baginaren eta umetokiarena.

sexu kromosomiko:

ES:	sexo cromosómico
FR:	sexe chromosomique
EN:	chromosomal sex

Ikus: kromosoma-sexu.

Sexu Osasunaren Europar Eguna:

ES:	Día Europeo de la Salud Sexual
FR:	Journée Européenne de la Santé Sexuelle
EN:	European Day of Sexual Health

sint. er. Otsailaren 14an ospatu ohi da.

sexu seguru:

ES:	sexo seguro
FR:	rapports sexuels protégés
EN:	safe sex

sint. er. Jarduera erotiko mota; arrisku txikia du sexu bidez transmititzen diren infekzioak besteri kutsatu eta hartzeko. Preserbatiboa erabiltzea, higiena zaintzea, arriskuzko sexua saihestea eta abar ditu ezaugarri.

sexu seguruago:

ES:	sexo más seguro
FR:	sexualité à moindre risque
EN:	safer sex

sint. er. Nahi gabeko haurdunaldia eta GIBa nahiz sexu bidez kutsatzen diren beste gaitz batzuk saihesteko sexu-jarduera mota. Sarketarik gabeko sexu-jarduerak izatea eta bagina-sarketa kondoiarekin egitea dira arriskurik gabeko sexuaren ezaugarrietako batzuk. Sexu arriskutsuaren bidez (esperma, bagina-jarioa nahiz odola tartean direla) gerta daiteke GIBa edo sexu bidezko beste infekzio batzuk kutsatzea sexukideari.

sexy:

ES:	sexy
FR:	sexy
EN:	sexy

izond. (Pertsonen buruz) Erakargarritasun fisiko eta sexual handia duena, edo erakargarritasun hori nabarmentzen duena (arropa bat, adibidez).

shock toxiko:

ES: shock tóxico

FR: choc toxique

EN: toxic shock

sint. er. Bakterio estafilokokoei sorturiko infekzio larria; barruko organoak erasotzen ditu. Emakumeetan, tanpoien erabilerak eragin dezake.

shock toxikoaren sindrome:

ES: síndrome de shock tóxico

FR: syndrome de choc toxique

EN: toxic shock syndrome (TSS)

sint. er. Gaixotasun toxiko larria, *Staphylococcus aureus* eta *Streptococcus pyogenes* bakterioek sortutako toxinek eragina. Erasaten dieten emakumeen bitik bati hilekoaren ondorioz gertatzen zaio, tanpoiak erabiltzeagatik ziur asko. STSaren sintomak dira: sukar altua, oka egitea, beherakoa, buruko mina, eztarriko mina, zorabioak, konortea galtzea, giharretako mina eta negela.

sifili:

ES: sífilis

FR: syphilis

EN: syphilis

iz. Jokaera erotikoa partekatuen bidez transmiti daitekeen infekzioa; txankro edo pustula ere baderitzo. *Treponema pallidum* bakterioak eragiten du, eta sexu-kontaktu bakar batean kutsa daiteke. Hiru aldi nagusi bereizten dira: lehen aldian, babaren edo zauri irekiaren itxurako ultzera-lesio bat (sifili-txankroa) agertzen da sexu-organoen inguruan; zakilean, baginan edo bulban eskuarki, baina baita hatzetan, ahoan, bularretan edo uzkiean ere. Zenbait kasutan, ez da ageriko sintomarik izaten. Batzuetan, hantura ez-mingarri eta ez-zornetsua ere izaten da izarteko gongoiletan. Aise hedatzen da. Bigarren aldian, larruazaleko erupzioak ager daitezke toraxean, bizkarrean edo gorputz-adarretan, eta baita gongoil linfatikoen hantura ere, batik bat lepoan, besapeetan eta izarteeetan. Beste sintoma batzuk dira: sukarra, eztarriko mina, ondorez orokorra, ilea erortzea (alopecia), eta sexu-organoen nahiz uzkiaren inguruko hantura. Bakterioa dagoen edozein gorputz ataletako sifili-zauri irekietatik kutsa daiteke gaixotasuna, sexu-jarduerarik izan gabe ere; musu bat aski izan daiteke sifilia kutsatzeko. Hirugarren aldian, honako sintoma hauek izaten dira: larruazaleko eta barne-organoetako ultzerak, giltzaduretako hantura (artritis), beso eta zangoetako sentikortasuna galtzea, oinazeak, eta bestelako ezintasunak (bihotzeko lesioak, bizkarmuinekoak, eta abar). Bihotzeko zein odol-hodietako lesioek, kasu larrietan, bihotzeko edo zirkulazioko arazoak eragin ditzakete, eta orobat paralisia ekar dezaketen garuneko eta muineko lesioak, dementsia ekar dezaketen nahasmendu psikikoak, eta abar. Haurdunaldian, bakterioak fetua kutsa dezake, eta, ondorioz, abortua edo lesio larriak eragin haur jaioberriari.

sifilitiko:

ES: sífilítico

FR: syphilitique

EN: syphilitic

izond. Sifiliari dagokiona, sifiliaren antza duena, nahiz sifiliz kutsatuta dagoena.

silikona:

ES: silicona

FR: silicone

EN: silicone

iz. Silizioaren konposatu polimeriko organiko bat. Medikuntzan ere erabiltzen da, protesi-tresnak egiteko.

sinbiosi:

ES: simbiosis

FR: symbiose

EN: symbiosis

iz. Bi organismoren edo gehiagoren arteko bizikidetza; elkarri kalterik ez egitea edo bata bestea bere onurarako erabiltzea du ezaugarri.

sinbiosi-:

ES: simbiótico

FR: symbiotique

EN: symbiotic
(Hitz elkartuetan)

Ikus: sinbiotiko.

sinbiotiko:

ES: simbiótico

FR: symbiotique

EN: symbiotic
izond. Sinbiosiari dagokiona.

sinbolo faliko:

ES: símbolo fálico

FR: symbole phallique

EN: phallic symbol

sint. er. Zakilaren irudikapena. Antzina (Historiaurrean, Egipton, Grezian, Erroman...), erlijio-ospakizunetan edo apaingarri gisa erabiltzen zituzten sinbolo falikoak.

sindrome:

ES: síndrome

FR: syndrome

EN: syndrome

iz. Zantzu eta sintoma multzoa; gaixotasun-egoera jakin bat klinikoki zehazten du.

sindrome adrenogenital:

ES:	síndrome adrenogenital
FR:	syndrome adrénogénital
EN:	adrenogenital syndrome

sint. er. Giltzurrun gaineko androgenoen gehiegizko jarioa ezaugarri duen asaldua; maskulinizazio somatikoa eragiten du. Zantzu klinikoak aldatu egiten dira sexuaren eta agerpen-adinaren arabera. Esate baterako, sindrome horrekin jaiotako neskatoek pseudohermofroditismoa izan dezakete, baita klitoriaren hipertrofia ere, eta aurrerago ager daitezke: hirtsutismoa, ahots lodia, amenorrea, gizonezkoen antzeko gihar-egitura, eta abar. Sortzetiko adrenogenitalismoa duten mutikoek, berriz, zakilaren eta prostataren garaiz aurreko garapena izaten dute, baita pubiseko eta besapeetako ilearena ere, baina barrabil txikiak eta heldugabeak izaten dituzte.

sinergia:

ES:	sinergia
FR:	synergie
EN:	synergy

iz. Bi pertsona edo gehiago elkarturik, bakoitzaren ahalmenak gehien baliatzea eta indartzea lortzen dituen jokabidea eta jarrera.

sinkronia:

ES:	sincronía
FR:	synchronie
EN:	synchrony

iz. Gertakariak edo fenomenoak aldi berean gertatzearen ezaugarria.

sinkroniko:

ES:	sincrónico
FR:	synchrone
EN:	synchronic

izond. Aldi berean gertatzen dena.

Ikus: hilekoaren sinkronizazio.

sinkronizatu:

ES:	sincronizar
FR:	synchroniser
EN:	synchronise

ad. Bi gertaera nahiz gehiago aldi berean gertarazi.

sinpatiko:

ES:	simpático
FR:	sympathique
EN:	pleasant, friendly

izond. Nerbio-sistema autonomoa osatzen duten bi zatietako bati dagokiona. Haren funtzioak dira: erraiak eta odol-hodiak inerbatzea, digestioa moteltzea, bihotz-taupadak bizkortzea, odol-hodiak uzkartzea, eta abar; era horretan, gorputza estres-egoerei aurre egiteko prestatzen du. Oro har, nerbio-sistema parasinpatikoaren aurkako eragina du.

sintoma:

ES: síntoma

FR: symptôme

EN: symptom

iz. Asaldu organiko nahiz funtzional baten adierazpena; gaixoak bakarrik nabaritzen du sarri; mina, esate baterako, sintoma bat da.

sintomatiko:

ES: sintomático

FR: symptomatique

EN: symptomatic

izond. Gaixotasun, infekzio, sindrome edo nahaste baten sintomak agertzen dituen.

sintomatologia:

ES: sintomatología

FR: symptomatologie

EN: symptomatology

iz. Sintoma multzoa.

sistema:

ES: sistema

FR: système

EN: system

iz. Hainbat atalen multzoa, elkartzean osotasun bat eratzen duena.

sistema genital:

ES: sistema genital

FR: appareil génital

EN: genital system

sint. er. Ugalketan parte hartzen duten organoen multzoa.

sodomia:

ES: sodomía

FR: sodomie

EN: sodomy

iz. Bi gizonen arteko edo emakume eta gizon baten arteko uzki-koitoa; batik bat ikuspegi kristautik, naturaltzat hartzen ez diren sexu-ekintzak dira, aberraziotzat jotzen direnak. Praktikatzen dutenei «sodomitak» deritze.

Oharrak: Hitzak iturri erlijiosoa du, Itun Zaharreko Sodoma hiria, hain zuzen; han, gizonetzkoen artean, ohikoa zen uzki-koitoa; baina batik bat arrotzak modu horretan bortxatzen zituztelako suntsitu omen zuen Jainkoak hiria.

sodomita:

ES:	sodomita
FR:	sodomite
EN:	sodomite, bugger <i>izond.</i> Sodomia praktikatzen duena.

soma:

ES:	soma
FR:	soma
EN:	soma <i>iz.</i> Ugal-organoei ez dagokien gorputz atala. Banakoaren masa nagusia izaten da atal somatikoa espezie gehienetan.

somatiko:

ES:	somático
FR:	somatique
EN:	somatic <i>izond.</i> Gorputzari dagokiona; alde psikikoari eta funtzionalari kontrajarria dena bereziki.

somatizatu:

ES:	somatizar
FR:	somatiser
EN:	somatise <i>ad.</i> Gatazka psikiko bat asaldu organikoen bidez adierazi.

somatizazio:

ES:	somatización
FR:	somatisation
EN:	somatisation <i>iz.</i> Gertaera psikiko bat gorputzeko asaldu edo sintoma fisiko gisa adierazten duen prozesua.

sor:

ES:	latente
FR:	latent
EN:	latent <i>iz.</i> Ikusten ez den arren, izan badena.

sorgarri:

ES:	conceptivo
FR:	pour la conception
EN:	conceptive <i>izond.</i> Sortzea ahalbidetzen duena.

sorgin:

ES: bruja

FR: sorcière

EN: witch

iz. Naturaz gaindiko indarrak erabiliz magiazko errituak egiten dituen emakumea; kristautasunaren ikuspegitik, deabruaren laguntza edo eragin gaiztoa duen pertsona.

Ikus: akelarre.

sorgor:

ES: insensible

FR: insensible

EN: insensible, insensitive

1. *izond.* Sentikortasunik gabea; berezkoa nahiz gaixotasun edo istripu baten ondorio izan daiteke. 2. *izond.* Mina edo samina eragiten duten fenomenoak sentitzen ez dituen.

sorgortu:

ES: insensibilizar

FR: insensibiliser

EN: desensitise

ad. Sentikortasuna galdu; organismoaren zati batean gerta daiteke nahiz gertaera sozial edo pertsonalen arloan.

sorgortze:

ES: insensibilización

FR: insensibilisation

EN: desensitisation

iz. Sentikortasuna galtzea; organismoaren zati batean gerta daiteke nahiz gertaera sozial edo pertsonalen arloan.

Ikus: sorgor.

sorostetxe:

ES: casa de socorro

FR: poste de secours

EN: first-aid station

iz. Larrialdietan jendeari laguntzeko prestaturiko egoitza; etengabeko sorospenez bitzua eskaintzen du.

sortasun:

ES: latencia

FR: latence

EN: latency

1. *iz.* Gaixotasun baten inkubazio-aldia. 2. *iz.* Estimulu baten eta harekiko erreakzioaren artean dagoen denbora, jarduerarik gabea.

sortu:

- ES:** concebir, engendrar
FR: concevoir, engendrer
EN: conceive, engender
1. *ad.* Haurra izateko prozesua abiatu. 2. *iz.* Adimenez edo artistikoki zerbait berria egin, asmatu.

Ikus: jaio.

sortze:

- ES:** concepción
FR: conception
EN: conception
iz. Haurdunaldiaren hasiera; espermatozoidea obuluan sartu eta zigotoa eratzen den unea hartzen da hasieratzat.

Ikus: jaiotza.

sortzekide

- ES:** connato
FR: né ensemble
EN: connate
izond. Sortzetik gutxi-asko elkarri lotuak dauden organoei edo egitura anatomikoei dagokiena.

sortzetiko:

- ES:** congénito
FR: congénital
EN: congenital
izond. Jaio eta gero garatutakoa ez dena; jaiotzerako badena.

sortzetiko gaixotasun:

- ES:** enfermedad congénita
FR: maladie congénitale
EN: congenital disease
sint. er. Haurrak, jaio aurretik, dakarren gaixotasuna.

sortzetiko hiperplasia adrenal:

- ES:** hiperplasia adrenal congénita
FR: hyperplasie congénitale des surrénales
EN: congenital adrenal hyperplasia
sint. er. Entzima-akatsa duten asalduen multzoa; kortisol-kontzentrazioaren murrizketa eta ACTHren gorakada izaten dira akats horren ondorioz. Sortzetiko hiperplasia adrenalak pseudohermafroditismoa eragiten du neskatoetan; mutikoetan, berriz, makrogenitosomia.

sozializatze:

ES:	socialización
FR:	socialisation
EN:	socialisation

Ikus: sozializazio.

sozializazio:

ES:	socialización
FR:	socialisation
EN:	socialisation

iz. Informazio, sari eta zigorren bidez, pertsonak jokabide-eredu zuzen eta onargarrietara bideratzeko prozesua. Sexualitatearen alderdi garrantzitsua da sozializazioa.

soziobiologia:

ES:	sociobiología
FR:	sociobiologie
EN:	sociobiology

iz. Hautespen naturalaren eta jokabide sozialaren arteko harremanak aztertzen eta ikertzen dituen jakintza-adarra. Gaitasun inklusiboa da soziobiologiaren oinarria, hark azaltzen baititu ugalkortasun-altruismoa eta -norberekoikeria.

spanking:

ES:	spanking
FR:	spanking, fessée
EN:	spanking

iz. Ipurmasailak astintzea, kitzikatzeko asmoz.

stop-start teknika:

ES:	técnica stop-start
FR:	technique stop-start
EN:	stop-start technique

iz. Bizkorregi eiakulatzea kontrolatzen ikasteko sexu-terapian erabiltzen den metodoa.

strip-tease:

ES:	strip-tease
FR:	strip-tease
EN:	strip-tease

iz. Era kitzikagarrian biluztea, ikuskizun pribatu edo publiko bat eskaintzeko.

subkontzientzia:

ES:	subconsciencia
FR:	subconscience
EN:	subconsciousness

iz. Kontzientziaren eta inkontzientziaren arteko maila; subkontzientziaren edukia inkontzientea da, baina kontzientziara igaro daiteke estimulu baten ondorioz.

sublimatu:

ES:	sublimar
FR:	sublimier
EN:	sublimate

ad. Sen-bulkadak eta haien berehalako helburuaren energia desbideratu, pertsonak berak eta gizarteak onartuko dituen eran azal daitezten.

sublimazio:

ES:	sublimación
FR:	sublimation
EN:	sublimation

iz. Babes-mekanismoa; gizartean onartezina den sen-bulkada bat inkontzienteki desbideratzen da, eta gizarteak onartzen duen beste eraren batean adierazten da.

suediar:

ES:	sueco
FR:	suédois
EN:	Swedish

iz. Taldeko jokaera erotikoen multzoa.

sufrimendu:

ES:	sufrimiento
FR:	souffrance
EN:	suffering

iz. Egoera emozional edo fisikoa; mina, tristura nahiz ondoeza sentitzea du ezaugarri.

sufritu:

ES:	sufrir
FR:	souffrir
EN:	suffer

ad. Min fisiko edo emozionala izan.

sukarraldi:

ES:	proceso febril
FR:	processus fébrile
EN:	feverish process

iz. Sukar jauzialdia; pertsonak sukarra izaten duen aldia.

sumin:

ES:	quemazón
FR:	brûlure
EN:	burning

iz. Erresumina. Erredura batek edo gai erregarri batek eragindako oinaze-sentsazioa.

suspergarri:

- ES:** reconstituyente, estimulante
FR: reconstituant, stimulant
EN: restorative, stimulating
izond. (Gai bati buruz) Pertsona bati osasun- edo kontzientzia-egoera normalera itzultzen laguntzen diona.

Ikus: bizigarri.

suszeptibilitate:

- ES:** susceptibilidad
FR: susceptibilité
EN: susceptibility
iz. Minberatasuna, gaitzikortasuna; edozein txikikeriagatik asalatzeko joera.



tabu:

ES:	tabú
FR:	tabou
EN:	taboo

iz. Isilarazten edo saihesten den gaia edo jokabidea.

tailandiar:

ES:	tailandés
FR:	thaïlandaise
EN:	Thai

iz. Masaje mota, titiez gorputz osoan ematen dena.

talamo:

ES:	tálamo
FR:	thalamus
EN:	thalamus

1. *iz.* Ezkon-ohea. 2. *iz.* Garuneko hirugarren bentrikuluaren albo banatan dauden bi nukleo handietariko bakoitza. Zentzumenetako estimuluak transmititzen ditu garun-azalera. Nagusiki, gai grisez osatua dago, eta hartzailleek igorritako estimuluak eraldatzen ditu, min-, ukimen- nahiz tenperatura-sentsazio bihurtzeko.

talasoterapia:

ES:	talasoterapia
FR:	thalassothérapie
EN:	thalassotherapy

iz. Tratamendu-sistema; itsasoko ura eta haizea ditu oinarri.

taldekako sexu:

ES:	sexo en grupo
FR:	sexe en groupe
EN:	group sex

sint. er. Aldi berean lau lagunek edo gehiagok parte hartzen duten jarduera erotikoa.

Ikus: suediar.

talde-terapia:

ES:	terapia de grupo
FR:	thérapie de groupe
EN:	group therapy

iz. Zailtasun psikologiko nahiz sexualak artatzeko tratamendua; pertsona talde bat terapeuta aditu batekin elkartzen da horretarako.

tanatos:

ES:	tánatos, thánatos
FR:	thanatos, pulsion de mort
EN:	Thanatos

iz. Heriotza-sena adierazteko terminoa, Erosen (bizi-indarra) kontrakoa.

tanpoi:

ES:	tampón
FR:	tampon
EN:	tampon

iz. Kotoiz edo beste material xurgatzaile batez egindako tapoia; odoljarioak xurgatzeko erabiltzen da, hilekoan.

tarratatu:

ES:	rasgar
FR:	déchirer
EN:	tear

ad. Latza edo zorrotza den zerbaitek beste zerbaiten gainazala urratu, eta arrastoa utzi.

taupada:

ES:	latido
FR:	battement
EN:	beat

iz. Bihotza uzkuertzeko eta zabaltzeko indarra, pultsuan neur daitekeena.

taupadak jo:

ES:	latir
FR:	battre
EN:	beat

ad. Bihotzak, arteriek, eta zenbaitetan kapilarrek eta zain batzuek taupadak eman.

taupakari:

ES:	palpitante
FR:	palpitant
EN:	palpitating, throbbing

izond. Taupadak ematen dituen.

telefono-sexu:

ES:	sexo telefónico
FR:	sexe au téléphone
EN:	telephone sex

iz. Telefono bidezko sexu-harremana. Gai erotikoez mintzatzea, besteak beste, sexu-kitzikapena eta orgasmoa lortzeko.

telofase:

ES:	telofase
FR:	telophase
EN:	telophase

iz. Mitosiaren azken aldia; kromosomek nukleo-bilkaria berriz eratzen dute.

tenperatura basalaren metodo:

ES:	método de la temperatura basal
FR:	méthode de la température basale
EN:	basal body temperature method

sint. er. Kontrazepzio-metodo naturala; goizero, jaiki aurretik, ondesteko tenperatura neurtzean datza. Koitoa saihestu egiten da denbora-tarte jakin batean, hots, hilekoaren azken egunetik hasi eta tenperatura-igoera gertatu ondoren bi-lau egun pasatu arte.

tente:

ES:	tieso
FR:	raide, rigide
EN:	stiff, rigid

izond. Tinkoa eta mardula, tolesten ez dena.

tentekor:

ES:	eréctil
FR:	érectile
EN:	erectile

izond. Erektzioa lortzeko gaitasuna duena, tentetzeko gai dena.

Ikus: zutikor.

tentekortasun:

ES:	erectilidad
FR:	érectilité
EN:	erectility

iz. Tentetzen denaren ezaugarria.

tentetu:

ES:	ponerse tieso
FR:	raidisser
EN:	stiffen

ad. Zut jarri. Tente jarri.

Ikus: zutitu.

tentetze:

ES:	ponerse tieso
FR:	raidissement
EN:	stiffening

iz. Zut jartzea. Zakilari dagokionez, sexu-kitzikapenaren eraginez, luzatu eta loditu egiten da, eta zut jarri. Klitoriari ere gauza bera gertatzen zaio, neurri txikiagoan.

tentetzearen disfuntzio:

ES:	disfunción eréctil
FR:	dysfonction érectile
EN:	erectile dysfunction

sint. er. Zakila tentetzeko edo tente mantentzeko ezintasuna. Hainbat kausa fisiko izan ditzake, eta orobat psikologikoak.

Ikus: tentetze.

tentsio:

ES:	tensión
FR:	tension
EN:	tension

iz. Estres-egoera baten aurrean izandako erreakzioak dakarren asaldur fisiologiko eta psikologikoa. Egoera horren ezaugarri dira: gihar-tonua, bihotz-maiztasuna, arnasa-maiztasuna eta arreta areagotzea. Psikologiari dagokionez, artegatasun-, narritadura- eta antsietate-sentsazioak agertzen dira.

terapeuta:

ES:	terapeuta
FR:	thérapeute
EN:	therapist

iz. Sendatzeko trebetasun berezia duen pertsona, osasun-arretan jasotako heziketaren eta esperientziaren ondorioz. Terapeutikan aditua da.

terapeuta sexual:

ES:	terapeuta sexual
FR:	thérapeute sexuel
EN:	sex therapist

sint. er. Sexu-arazoak dituzten pertsonak tratatzen dituen profesionala.

Ikus: sexu-terapeuta.

terapeutiko:

ES:	terapéutico
FR:	thérapeutique
EN:	therapeutic

izond. Terapiari dagokiona.

terapia:

ES:	terapia
FR:	thérapie
EN:	therapy

iz. Edozein gaixotasun edo asalduren tratamendua.

tergo koito:

ES:	tergo coito
FR:	coït à tergo
EN:	coitus a tergo, doggy style

iz. Baginan zakila sartzea, emakumea bizkar emanda dagoela.

test:

ES:	test
FR:	test
EN:	test

iz. Funtzio jakin bat era objektiboan aztertzeko proba.

test psikologiko:

ES:	test psicológico
FR:	test psychologique
EN:	psychological test

sint. er. Gaitasunak, ezagutzak, nortasuna edo beste edozein ezaugarri psikiko neurtzeko proba. Emaizak erreferentzia-talde batekin konparatzen dira. Bi test mota daude: pertsonaren eraginkortasuna neurtzen dutenak eta nortasuna ezagutzekoak.

testikulu:

ES:	testiculo
FR:	testicule
EN:	testicle

Ikus: barrabil.

testosterona:

ES:	testosterona
FR:	testostérone
EN:	testosterone

iz. Bereziki barrabilek ekoizten duten sexu-hormona; bigarren mailako ezaugarriak eragiten eta mantentzen ditu. Espermaren ekoizpena eta organo genitalen garapena kontrolatzen ditu. Emakumeek gizonezkoek baino askoz gutxiago ekoizten dute, baina haiengan ere badu eraginik, umorean, sexu-desiran, eta abarretan.

tik:

ES: tic
FR: tic
EN: tic, mimic spasm

iz. Bat-bateko eta nahi gabeko mugimendu errepikatuak gihar talde batean, bereziki aurpegian. Psikogenoak izan ohi dira, eta, tentsioaren eta antsietatearen ondorioz, larriagotu egin daitezke. Bestelako gaitz batzuekin batera (koprolalia, ekolalia, eta abar) agertuz gero, tiken gaitza edo Gilles de la Tourette-ren eritasuna osatzen dute keinu horiek.

tipo:

ES: tipo
FR: type
EN: type

1. *iz.* Elkarren artean kohesioaren bat duten berezitasun somatiko nahiz psikikoen multzoa. 2. *iz.* Gaixotasun baten forma klinikoak. 3. *iz.* Taxonomia unitate bat (espezie, mota, genero, eta abar) deskribatzeko erabiltzen den ezaugarri multzoa. Eredu gisa hartzen da, taldeko ezaugarri bereizgarri ugari dituelako.

titi:

ES: teta, pecho, seno
FR: sein
EN: breast

Ikus: bular.

titia hartu:

ES: mamar
FR: têter
EN: suck

Ikus: edoski.

titi-areola:

ES: areola mamaria
FR: aréole
EN: areola

iz. Bularreko titiburuaren inguruan dagoen azal pigmentarioa. Titiburuarekin batera, gorputzeko gun erogeno garrantzitsua izan daiteke, bai emakumeengan, bai gizonengan.

titiarte:

ES: canalillo
FR: clivage
EN: cleavage

iz. Emakumeen titien artean dagoen gunea. Hura erakustea adierazpen erotikotzat jotzen da.

titiburu:

ES: pezón

FR: mamelon

EN: nipple

iz. Bularraren erdigunean dagoen irtengune koniko edo zilindrikoa, tentekorra, mamitsua eta gorri antzekoa. Titiburura iristen dira hodi galaktoforoak. Gune erotiko garrantzitsua da.

titiko haur:

ES: niño de pecho

FR: nourrisson

EN: nursling, nursing infant

Ikus: bularreko haur.

titi-mutur:

ES: pezón

FR: mamelon

EN: nipple

Ikus: titiburu.

tokologia:

ES: tocología

FR: obstétrique

EN: obstetrics

iz. Obstetrizia, medikuntzaren atala; haurdunaldiaz, haurgintzaz eta puerperioaz arduratzen da, eta orobat pertsonaren sexu-osasuna aztertzeaz eta mantentzeaz.

Ikus: obstetrizia.

tokologo:

ES: tocólogo

FR: obstétricien

EN: obstetrician

iz. Tokologian aditua den pertsona.

Ikus: obstetra.

toother:

ES: toother

FR: toother

EN: toother

iz. Toothing-a praktikatzeko, bluetooth-a erabiltzen duena.

Ikus: tothing.

toothng:

ES:	toothng
FR:	toothng
EN:	toothng

iz. Pertsona ezezagunekin toki publikoetan flirteatzeko eta hartarako hitzorduak adosteko modua, eskuko telefonoak eta PDAREN bluetooth teknologia baliatuz. Diametro jakin baten barnean dauden gailuak identifikatzeko, bluetooth gailua (device) erabiltzen da; ondoren, agurra bidaltzen da (greeting). Agurrean, testua, irudia zein soinua erabil daitezke.

topless:

ES:	topless
FR:	topless
EN:	topless

iz. Emakumezkoetan, bularrak begi-bistan dituztela jartzea.

toxikomania:

ES:	toxicomanía
FR:	toxicomanie
EN:	toxicomania, drug addiction

iz. Gai toxikoak drogak, bizigarriak, lasaigarriak, narkotikoak edo haluzinogenoak hartzeko joera menpekotasunezkoa.

toxikomano:

ES:	toxicómano
FR:	toxicomane
EN:	drug addict

izond. Gai toxikoen mende dagoena.

trabesti:

ES:	travesti
FR:	travesti
EN:	transvestite, cross dresser

izond. Berezko joeraz edo ikuskizun batean parte hartzearen beste sexuko arropak eta apaingarriak janzten dituen.

trabesti fetitxista:

ES:	travesti fetichista
FR:	travesti fétichiste
EN:	fetishistic transvestite

sint. er. Kitzikatzeko helburuarekin klasikoki beste sexukotzat jotzen diren janzkerak edo itxura erabiltzen dituen gizon edo emakumea.

trabestismo:

ES:	travestismo
FR:	travestisme
EN:	transvestism, cross dressing

iz. Trabastien portaera, jokaera eta ezaugarrien multzoa

transsexual:

ES:	transsexual
FR:	transsexuel
EN:	transsexual

izond. Sexu-anatomiarekin bat ez datorren sexu-identitatea. Ez da anatomia pertsona horren sexua erabakitzen duena, baizik eta pertsona horren borondatea.

transexualismo:

ES:	transexualismo
FR:	transexualisme
EN:	transsexualism

iz. Genero-distrofia mota; hartan, sexu biologikoa eta psikologikoa ez datoz bat.

transsexuazio:

ES:	trans sexuación
FR:	transsexuation
EN:	transsexuation

iz. Sexu-joera baten aldaketa, gertaera transexual baten eraginez. Sexuazio mota berezi bat da; bi sexuazio-aldi izaten dira, baina biak elkarren aurkakoak.

transferentzia:

ES:	transferencia
FR:	transfert
EN:	transfer

iz. Babes-mekanismo inkontzientea; haren bidez, norberarentzat iraganean garrantzitsua izan zen pertsona batenganako sentimenduak eta jarrerak beste norbaitengan eguneratzen dira.

transfobia:

ES:	transfobia
FR:	transphobie
EN:	transphobia

iz. Transexualen aurkako sineskizun, iritzi, jarrera nahiz jokabide oldarkor, gorroto, herra, bereizkeria eta irrigarrikeria multzoa. Sexu-identitateari dagokion bereizkeria da, eta gizarteko estereotipo ahaltzuak eta giza aniztasuna ez onartzea daude haren oinarrian.

Transfobiaren eta Homofobiaren Kontrako Eguna:

ES:	Día Contra la Transfobia y Homofobia
FR:	Journée Contre l'Homophobie et la Transphobie
EN:	Day Against Homophobia and Transphobia <i>sint. er.</i> Maiatzaren 17an ospatzen da.

transfusio:

ES:	transfusión
FR:	transfusion
EN:	transfusion

iz. Odol-zirkulazioan, odola nahiz haren osagaiak –plasma, plaketa-kontzentratuak zein hematiak– zainetan zehar sartzeara. Emailearen eta hartzailearen odol-taldea eta Rh-a hartu behar dira kontuan transfusioak egiterakoan.

transfusioa egin:

ES:	transfundir
FR:	transfuser
EN:	transfuse

ad. Odola nahiz haren osagaiak pertsona batetik beste batera igaro.

transmisio:

ES:	transmisión
FR:	transmission
EN:	transmission

1. *iz.* Nerbio-bulkaden eroankortasuna. 2. *iz.* Infekzio baten nahiz asalduraren transferentzia edo komunikazioa; esate baterako, pertsona edo leku batetik beste batera igarotzen den gaixotasuna, ezaugarri genetiko bat, eta abar.

transpiratu:

ES:	transpirar
FR:	transpirer
EN:	perspire, transpire

ad. Gorputz batek bere poroetatik hezetasuna, gatz mineralak eta beste zenbait hondakin (izerdia) kanporatu, tanta txiki nahiz lurrun modura.

Ikus: izerditu.

transpirazio:

ES:	transpiración
FR:	transpiration
EN:	transpiration

iz. Larruazalek izerdia edo lurruna kanporatzea.

Ikus: izerdi.

trantsizio:

ES:	transición
FR:	transition
EN:	transition

iz. Erditze-unearen lehen estadioko azken aldia; zenbaitetan, umetoki-lepoa 8-10 cm-raino zabaltzeak adierazten du.

tratamendu:

ES:	tratamiento
FR:	traitement
EN:	treatment

iz. Gaixotasun, zailtasun, asaldu edo lesio bat sendatzeko, arintzeko nahiz hari aurre egiteko eskainitako arreta eta zainketak. Hainbat tratamendu mota daude: tratamendu aktiboa, sendatzeko; tratamendu aringarria, mina eta herstura baretzeko; tratamendu profilaktikoa, gaixotasun edo asalduraren bati aurrea hartzeko; tratamendu kausala, gaixotasunaren kausa edo zergatia argitzeko. Era berean, sendagai bidezkoa, kirurgikoa edo laguntzazkoa izan daiteke tratamendua.

tratatu:

ES:	tratar
FR:	traiter
EN:	treat

ad. Gaixo bat nahiz eritasun bat sendatzeko, hainbat bide edo metodo erabili.

trauma:

ES:	trauma
FR:	trauma
EN:	trauma

iz. Bizitako esperientzia gogor baten —emozio-shock handi baten— ondoriozko lesio psikikoa; aldaketa psikopatologiko iraunkorra dakar.

traumatiko:

ES:	traumático
FR:	traumatique
EN:	traumatic

izond. Traumatismoari edo traumari dagokiona.

Trichomona vaginalis:

ES:	Trichomona vaginalis
FR:	Trichomona svaginalis
EN:	Trichomona vaginalis

iz. Mukosa genitaletako eta gernubideetako parasittoa. Sexu bidez transmititu daitezkeen zenbait infekzioren arduraduna da; adibidez, trikomoniasiarena.

trikomoniasi:

ES:	tricomoniasis
FR:	trichomoniase
EN:	trichomoniasis

iz. Baginako infekzioa; trikomonek eragiten dute, eta sexu-kontaktu bidez kutsa daiteke. Emakumeei erasaten die eskuarki, eta haren sintoma nagusiak dira baginako azkura eta narritadura, eta baita baginako jariakin horixka eta usain txarrekoa ere. Gizonek sintoma gutxi izaten dituzte, edo batere ez.

tronpen lotura:

ES:	ligadura de trompas
FR:	ligature des trompes
EN:	tubal ligation

sint. er. Emakumezkoen antzutasuna lortzeko ebakuntza. Falopioeren tronpak lotzen dira, obulua umetokira irits ez dadin.

tuberkulosi:

ES:	tuberculosis
FR:	tuberculose
EN:	tuberculosis

iz. Gaixotasun kutsagarria, Koch-en baziloak eragina. Gizakiari eta hainbat animalari erasaten die. Jokaera erotiko partekatuen bidez transmiti daiteke.

tuberkulosiaren kontrako:

ES:	antituberculoso
FR:	agent antituberculeux
EN:	antitubercular agent

izlag. (Sendagaiei buruz) Tuberkulosiaren aurka erabiltzen dena.

tuberkuloso:

ES:	tuberculoso
FR:	tuberculeuse
EN:	tuberculous

1. *izond.* Tuberkulosiari dagokiona. 2. *izond.* Tuberkulosia duena.

tumeszentzia:

ES:	tumescencia
FR:	tumescence
EN:	tumescence

1. *iz.* Organo baten hantura. 2. *iz.* Organo zutikorren, bereziki zakilaren, bolumena handitzea; kitzikadura sexuala adierazten du.

turismo sexual:

ES:	turismo sexual
FR:	tourisme sexuel
EN:	sex tourism

sint. er. Turismoa egitea lurralde jakin batean, bertako zerbitzu erotikoak erabiltzeko helburuz.

turkiar:

ES:	turco
FR:	turque
EN:	Turkish

izond. Emakumea eskuak loturik egoten den sexu-harreman mota.

Turner-en sindrome:

ES:	síndrome de Turner
FR:	syndrome de Turner
EN:	Turner's syndrome

iz. X kromosoma sexualaren ezohiko gabeziaren ondorioz sortutako sintoma multzoa. Emeengan gertatzen da batik bat; X kromosoma bat (edo haren zati bat) falta dute. Ezaugarri nagusiak dira: gutxi garatutako obulutegiak eta klitoria, lepo zabala, pubertaro gabezia, altuera txikia eta adimen apur bat urria. Tratamendu hormonalak eman ohi da sexu-garapena eragiteko, baina ez du antzutasuna konpontzeko balio.

txankro:

ES:	chancro
FR:	chancre
EN:	chancre

iz. Larruazaleko lesioa; zenbait infekzioren –sexu bidezko gaixotasunak, batik bat– hasieran agertzen da.

txapero:

ES:	chapero
FR:	débrouillard
EN:	hustler

iz. Giro homosexualetan prostituzioan diharduen gizona, eskuarki gaztea.

txat:

ES:	chat
FR:	bavardage
EN:	chat

iz. Elkarrizketa birtuala; Interneteko bi erabiltzailek edo gehiagok testu-mezuak trukatzeko erabiltzen dituzten denbora errealean. Badira txat pribatua egiteko guneak, bakarrik egon nahi dutenek soilik erabiltzekoak.

txateatu:

ES:	chatear
FR:	bavarder
EN:	chat

ad. Eremu birtual batean beste erabiltzaile batzuekin hizketan jardun, testu-mezuak trukatzeko.

txera:

ES:	arrumaco, caricia
FR:	caresse
EN:	caress

Ikus: laztan.

txertaketa:

ES: vacunación
FR: vaccination
EN: vaccination

iz. Txertoa jartzea; pertsonaren immunitatea lortzeko egiten da.

txertatu:

ES: injertar, vacunar
FR: greffer, vacciner
EN: graft, vaccinate

1. *ad.* Txertoa jarri. Norbaiti immunitatea eman gaixotasun baten aurrean, indargabetutako mikroorganismoak organismoan sartuz. 2. *ad.* Ehun bizi bat nahiz haren zati bat ezarri, lesionatuta edo gaixo dagoen gorputz atal batean; helburu terapeutikoa du.

txertatze:

ES: injerto
FR: greffe
EN: graft

iz. Ebakuntza kirurgikoa; ehun edo organo zati bat gorputzeko beste ehun batean ipintzea. Egitura-akats bat konpontzeko egiten da. Aldi baterako (erredura handietan) zein betiko izan daiteke txertatzea. Norberaren gorputzetik (autotxertatzea), egitura genetiko bereko beste banako batengandik (homotxertatzea), edo beste espezie bateko banako batengandik (heterotxertatzea) erauzia izan daiteke ehun edo organo hori.

txerto:

ES: vacuna
FR: vaccin
EN: vaccine

iz. Indargabeturiko mikroorganismoak erabiliz egindako prestakina; immunitatea ematen du hainbat gaixotasunen aurrean. Dermis barnekoa, larruazalpekoa, aho bidezkoa edo gihar barnekoa izan daiteke.

txertoa jarri:

ES: vacunar
FR: vacciner
EN: vaccinate

Ikus: txertatu.

txerto-ehun:

ES: injerto
FR: greffe
EN: graft

iz. Txertatzen den ehun edo organo zatia; larruazala, hezurra, kartilagoa, odol-hodiak, nerbioa, giharra, kornea eta organo osoak (bihotza, giltzurruna, eta abar) ipin daitezke txerto-ehun gisa.

txinatar bolak:

ES: bolas chinas

FR: boules chinoises

EN: Chinese balls

iz. Sexu plazera lortzeko objektua. Oro har, bi bolatxo izaten dira, baginan sartzekoak, eta barruan are bola txikiagoak edukitzen dituzte, mugitzean bibrazioa eragiteko.

txiza egin:

ES: mear

FR: pisser, uriner

EN: piss

Ikus: pixa egin.

txortan egin:

ES: joder, follar

FR: baiser, tirer un coup

EN: fuck

Ikus: larrua jo.



ubeldu:

ES:	moradura, moratón
FR:	ecchymose, bleu
EN:	bruise

iz. Kolore iluneko gunea, larruazalean agertzen dena. Larruazalpeko zelula-ehunera odola igarotzearen ondorioz edo larruazalpeko kapilarrak haustearen ondorioz gertatzen da. Hainbat eragile izan ditzake: kolpeak, hotza, eta abar. Emakume baten begien inguruan agertutako ubelduen irudiak emakumeen aurkako bortxakeria adierazteko erabiltzen dira indarkeriaren aurkako kanpainetan.

UBG:

ES:	DIU
FR:	DIU
EN:	IUD

Ikus: umetoki barneko gailu (UBG).

udare-formako:

ES:	piriforme
FR:	piriforme
EN:	piriform

izlag. Udarearen forma duena.

ugalaldi:

ES:	período fértil
FR:	période fertile
EN:	fertile period

iz. Emakumea haurdun gera daitekeen aldia.

ugal-aparatu:

ES:	aparato reproductor
FR:	appareil reproductif
EN:	reproductive apparatus

iz. Izaki bizidun sexuatuaren ugalketarako organo multzoa. Gizonek eta emakumeek ugal-aparatu desberdinak dituzte.

ugal-arrakasta:

ES:	éxito reproductivo
FR:	succès reproductif
EN:	reproductive success

iz. Bizirik dauden seme-alaben kopurua.

ugaldu:

ES:	procrear
FR:	procréer
EN:	procreate

iz. Ernaldu eta sortu; espezie batekoen kopurua handitu.

ugal-erabaki aske eta arduratsuak hartzeko eskubidea:

ES:	derecho a la toma de decisiones reproductivas, libres y responsables
FR:	droit de faire des choix reproductives libres et responsables
EN:	right to make reproductive choices free and responsible

sint. er. Sexu-eskubidea; bikote nahiz gizabanako guztiak aske dira erantzukizunez erabakitzeke zenbat seme-alaba izango dituzten eta zenbateko tartea utziko duten seme-alaba baten eta besteren artean, eta eskubidea dute orobat kontrazepzio-metodoak ezagutzeko eta erabiltzeko.

Ikus: sexu-eskubideak.

ugalketa:

ES:	reproducción
FR:	reproduction
EN:	reproduction

iz. Bizidun antolatuek beren antzeko beste zenbait izaki sortzeko prozesua. Espeziearen iraupena ziurtatzea du helburu.

ugalketa asexual:

ES:	reproducción asexual
FR:	reproduction asexuée
EN:	asexual reproduction

sint. er. Landareetan eta behe-mailako animalietan gertatzen den ugaritze mota; organismo berriak sortzen dira, gametoak elkartu gabe.

ugalkortasun:

ES:	fecundidad
FR:	fertilité, fécondité
EN:	fertility, fecundity

iz. Ugaltzeko gaitasuna. Desberdina da sexuaren arabera: gizonezkoaren espermak pubertaroaren amaieratik aurrera (16-18 urte) izaten ditu espermatozoide eraginkorrak. Ordutik aurrera, etengabea da gizonezkoen emankortasuna; eskuarki, heriotza arte mantentzen du espermak bere ahalmen guztia. Emakumezkoen bizi-zikloan, berriz, denbora baterakoa da haien emankortasuna, eta aldizkakoa hilekoaren zikloan. Jarduera genitala nahiz hilekoa hasten denetik menopausiara bitartean gera daiteke haurdun emakumea. Era berean, hilekoaren zikloan, 10-20 egunekoa da aldi emankorra.

Ugalkortasunari buruzko Munduko Inkesta:

ES:	Encuesta Mundial de la Fertilidad
FR:	Enquête Mondiale sur la Fertilité
EN:	World Fertility Survey

sint. er. Giza ugalkortasunari buruzko nazioarteko ikerketa, 1974tik 1982ra bitartean egin. Urte haietan, inoizko gizarte-ikerketarik handiena egin zen: Ugalkortasunari buruzko Munduko Inkesta. Nazio bakoitzaren adierazgarri eta nazioartean alderagarri izango ziren inkestak erabiliz, garatzeko bidean ziren 42 herrialdetan eta 20 herrialde garatutan egin zen inkesta.

ugal-osasun:

ES:	salud reproductiva
FR:	santé reproductive
EN:	reproductive health

iz. Ugalketaren ongizatea eta osasuna bermatzen duten metodo, teknika eta zerbitzuen multzoa. Gizaki orok du sexuaz goatzeko eskubidea, arriskurik gabe eta ugalketa kontrolatuz (hots, eskubidea du ugaltzeko edo ez ugaltzeko, eta, ugalduz gero, nahi duenean eta nahi beste aldiz ugaltzeko). Ugal-osasuna ez da soilik sexu-gaixotasunik edo bestelako minik ez izatea, ezinbestekoa baita ongizate fisiko, mental eta soziala ere izatea. Hala, gizon-emakume ororen eskubidea da arriskurik gabeko eta baliozko metodo eskuragarrii buruzko informazioa jasotzea eta metodo horiek eskuratzeko modua izatea, ugalketa kontrolatzeko legezko metodoak ezagutzea, eta osasun-zerbitzu egokia jasotzea, arriskurik gabeko haurdunaldiak eta erditzeak gerta daitezen eta bikoteek ahalik eta seme-alabarik osasuntsuenak izan ditzaten. Ugal-osasunak aholkularitza eta arreta ditu oinarri.

ugal-sistema:

ES:	sistema reproductor
FR:	système reproducteur
EN:	reproductive system

iz. Ugalketan parte hartzen duten organoen multzoa. Emakumezkoen eta gizonetzkoen gonadek, konduktuek eta guruinek eta kanpoko genitalek osatzen dute.

ugal-traktuko infekzioa:

ES:	infección del tracto reproductivo
FR:	infection du tractus génital
EN:	reproductive tract infection

sint. er. Ugal-organoetako infekzio multzoa. Hiru infekzio mota bereiz daitezke: sexu bidez kutsatutako infekzioak, ugal-traktuan ohi baino organismo gehiago egoteak sortutako infekzioak –bakterio-baginosia eta bulba-baginetako kandidiasia, esate baterako–, eta tratamendu medikoren baten ondoriozko infekzioak.

ugaltze:

ES:	procreación
FR:	procréation
EN:	procreation

iz. Ondorengoak sortzea helburu duen sexu-harremanen prozesua, sexu-ugaltzea erabiltzen duten espezieetan betiere.

ugaltze-eskubideak:

ES:	derechos reproductivos
FR:	droits reproductifs
EN:	reproductive rights

iz. Oinarrizko giza eskubideak; nazio-legeetan, giza eskubideei buruzko nazioarteko agirietan eta NBEk adostutako beste agiri batzuetan aitortutako zenbait eskubide biltzen ditu. Ugaltze-eskubideen arabera, bikote nahiz gizabanako guztiak aske dira erantzukizunez erabakitzeko zenbat seme-alaba izango dituzten eta zenbateko tartea utziko duten seme-alaba baten eta besteren artean; eta eskubidea dute, halaber, gai horren inguruko informazioa eta bitartekoak eskura izateko, osasun-nahiz ugaltze-eskubideak berma daitezen. Horrez gainera, eskubidea dute diskriminaziorik, mehatxurik eta indarkeriarik jasan gabe hartzeko ugaltzearen inguruko erabaki guztiak, giza eskubideak aitortzen dituzten dokumentuen arabera.

ugatz:

ES:	mama
FR:	sein
EN:	breast

Ikus: bular.

ugatz-:

ES:	mamario
FR:	mammaire
EN:	mammary

Ikus: bular-, mamario.

ugatza kendu:

ES:	destetar
FR:	sevrer
EN:	wean

Ikus: bularra kendu.

ugatz-adenoma:

ES:	adenoma mamario
FR:	adénome du sein
EN:	breast adenoma

iz. Ugatzean agertzen den tumore onbera.

Ikus: adenoma mamario.

ugatz-areola:

ES:	areola mamaria
FR:	aréole
EN:	areola

Ikus: titi-areola.

ugatz-guruin:

ES:	glándula mamaria
FR:	glande mammaire
EN:	mammary gland

iz. Esnea jaria dezakeen guruina. Bi izaten dira, gorputz-enborraren goi-aurrealdean kokatuak. Larruazala eta larruazalpeko gantz-ehunak osatzen dituzte; titiburua eta areola nabarmentzen dira larruazalean. Gizonezkoetan, erabat garatu gabeak dira; emakumezkoetan, berriz, garatuak dira, baina edoskitzaroan lortzen dute garapen osoa. Azino ugariz osatuak daude ugatz-guruinak, eta lobuluxkatan biltzen dira azino horiek; lobuluxka horiek, aldi berean, lobulutan biltzen dira, eta lobuluetatik irtetzen dira titibururaino iristen diren hodi galaktoforoak.

ugaztun:

ES:	mamífero
FR:	mammifère
EN:	mammal

izond. Animalia ornodun klasea; ugatzak izatea du ezaugarri. Umeak esnea edoskiz elikatzen dira. Larruazala ilez estalia dute, homeotermoak dira, eta amaren umetokian garatu ondoren jaiotzen dira umeak.

ukendu espermizida:

ES:	crema espermicida
FR:	crème spermicide
EN:	spermicide cream

sint. er. Gai kimikoa. Baginan ematen da, koitoa gertatu baino minutu batzuk lehenago, espermatozoideen mugikortasuna oztopatzeko edo haiek hiltzeko.

ukimen:

ES:	tacto
FR:	le toucher
EN:	touch

iz. Objektuen ezaugarri ukigarriak hautematea ahalbidetzen duen zentzumena. Larruazala da ukimenaren organoa; eskua, bereziki. Sexu-harremanetan zeregin handia du ukimenak.

ukimen-:

ES:	táctil
FR:	tactile
EN:	tactile, tactual

(Hitz elkartuetan) Ukimen zentzumenari dagokiona.

umea izan:

ES:	parir
FR:	accoucher
EN:	give birth

Ikus: erditu.

umealdi selektibo:

ES:	cría selectiva
FR:	élevage sélectif, procréation sélective
EN:	selective breeding

sint. er. Hautespen artifiziala; ezaugarri fenotipiko jakin batzuk –emankortasuna, portaera, itxura fisikoa, eta abar– biltzen dituen gizabanakoa aukeratzen da ugalketarako, fenotipo horiek ondorengoetan ager daitezen.

ume-inpronta:

ES:	impronta filial
FR:	trait filial
EN:	filial imprint

iz. Ikasbide biologikoa; espezie bateko umeek nahiago dute aldi kritikoan harremana izandako banako edo objektu mugikorren atzetik ibiltzea.

umeki:

ES:	feto
FR:	foetus
EN:	foetus

Ikus: fetu.

umeondoko:

ES:	placenta
FR:	placenta
EN:	placenta, afterbirth

Ikus: plazenta, karen.

umetoki:

ES:	utero, matriz
FR:	utérus
EN:	uterus, womb

iz. Emakumearen ugai-organoa. Umekia gordetzen du, obulua ernaltu denetik jaio arte. Horma gihartsuak ditu. Hainbat irtengune ditu umetoki-barrunbeak: beheko aldean, lepoan, bagina; eta goiko aldean, alde banatara kokatuak, Falopioeren tronpak. Hiru geruzaz osatua dago: endometrioa, miometrioa eta parametrioa.

Endometrioa umetokiaren hormaren barneko geruza da, eta loditu eta baskularizatu egiten da haurdunaldian eta hileko zikloaren bigarren erdian, progesteronaren eraginez. Miometrioa umetokiaren giharrezko geruza da. Parametrioa, berriz, umetokiaren kanpoko geruza. Umetokia handitu egiten da haurdunaldian; emakumea haurdun egon ezean, berriz, umetokiaren gorputzeko hormek elkar ukitzen dute.

umetoki barneko:

ES:	intrauterino
FR:	intrautérin
EN:	intrauterine

izlag. Umetoki barnean dagoena, edo umetoki barnean garatzen dena.

umetoki barneko gailu (UBG):

ES:	dispositivo intrauterino (DIU)
FR:	dispositif intra-utérin (DIU)
EN:	intrauterine device (IUD)

sint. er. Kontrazepzio-metodoa; baginatik edo umetoki-lepotik sartu eta umetokian ezartzen den gailu txikia. Bi mota daude: kobrezkoa eta hormona bidezkoa.

Kobrezkoari dagokionez, espermatozoideak umetokian sartzea eragozten du gailuak; modu horretan, ernalkuntza saihesten da, eta, gertatuko balitz ere, obulua umetokian ezartzea galarazten du. Hormona bidezko gailuaren kasuan, berriz, kobrezkoaz esandako guztiari progestagenoen eragina gehitu behar zaio. 3-5 urte bitartean erabil daiteke UBG bera, aldatu gabe. Oso metodo eraginkorra da, baina ez du GIBaren, hiesaren eta beste sexu-infekzio batzuen kontrako babesik ematen.

umetoki barneko sexu-bereizte:

ES:	diferenciación sexual intrauterina
FR:	différenciation sexuelle dans l'utérus
EN:	sexual differentiation in the uterus

sint. er. Enbrioia ar edo eme bihurtzen deneko prozesua. Haurdunaldian gertatzen da; dena dela, espermatozoidearen 23 kromosomak obuluaren 23 kromosomekin elkartzean gertatzen da lehen sexu-bereiztea.

umetokiko:

ES:	uterino
FR:	utérin
EN:	uterine

izlag. Umetokiari dagokiona.

umetoki-lepo:

ES:	cuello del útero, cérvix
FR:	cou du col
EN:	cervix

iz. Umetokiaren eta baginaren arteko irekigunea.

umetoki-lepoko estalki:

ES:	capuchón cervical
FR:	cape cervicale
EN:	cervical cap

sint. er. Plastikozko gailua, titare baten itxurakoa; uteroaren lepoan jartzen da, espermatozoideei igarotzen ez uzteko. Diafragma baten antzera funtzionatzen du, baina zailagoa da jartzen; horregatik, ez da hainbeste erabiltzen.

umetoki-lepoko fluxu:

ES: flujo cervical

FR: glaire cervicale

EN: cervical fluid

sint. er. Umetoki-lepoaren jariakina, muki erakoa, baginatik kanpora irten ohi dena. Ernal-egunetan aldaketak jasaten ditu, eta haurdunaldia saihesteko beha daiteke.

umetoki-lepoko jario:

ES: flujo cervical

FR: glaire cervicale

EN: cervical fluid

Ikus: umetoki-lepoko fluxu.

umetoki-lepoko muki:

ES: moco cervical

FR: glaire cervicale

EN: cervical mucus

Ikus: umetoki-lepoko fluxu.

umetoki-lepoko mukiaren metodo:

ES: método de la mucosa cervical

FR: méthode de la glaire cervicale

EN: cervical mucus method

sint. er. Umetoki-lepoko mukia behatuz, emakumea haurdun geratzeko egunak saihesteko erabiltzen den metodoa. Muki hori gardenagoa da obulazioaldian, zuringoaren antzekoa; egun horietan ez da bagina-sarketarik egiten. Metodo honen eraginkortasuna oso zalantzazkoa da, ikerketen arabera.

umetoki-lepoko mukosaren metodo:

ES: método de la mucosa cervical

FR: méthode de la glaire cervicale

EN: cervical mucus method

Ikus: umetoki-lepoko mukiaren metodo.

umetokiz kanpoko haurdunaldi

ES: embarazo ectópico

FR: grossesse extra-utérine

EN: ectopic pregnancy

sint. er. Umetokitik kanpo gauzatzen den haurdunaldia. Ernaldutako obulu bat kokatzen da Falopioaren tronpetan, umetoki-lepoan, obulutegietan edo sabelaren barrunbean. Umetokiz kanpoko haurdunaldien % 95 Falopioaren tronpetan izaten dira.

Ikus: haurdunaldi ektopiko.

unibitelino:

ES: univitelino
FR: univittellin
EN: univittelline

izond. Obulu bakarriari dagokiona, edo obulu bakarretik eratorria dena.

uniparo:

ES: unipara
FR: unipare
EN: uniparous

izond. Behin bakarrik erditu dena.

unisex:

ES: unisex
FR: unisex
EN: unisex

izond. (jantziei edo estiloari buzuz) Bi sexuatarako aproposak dena.

urdanga:

ES: puta
FR: putain
EN: whore, slut

Ikus: puta, emagaldur.

urduuritasun:

ES: nerviosismo, excitación
FR: nervosité, excitation
EN: nervousness, excitement

iz. Lasaitasunik eza eta ezinegona sentitzen dituenaren egoera.

uretra:

ES: uretra
FR: urètre
EN: urethra

iz. Gernua maskuritik kanpora isurtzen duen hodia. Gizonezkoaren uretra maskuriaren lepotik zakilerainokoa da –16 cm inguru–. Emakumezkoarena, berriz, maskuriaren lepotik gernu-meaturainokoa –4 cm inguru–. Gizonezkoetan, uretratik esperma isurtzen da eiakulazioan, eta, maskuria hustean, gernua.

urinario:

ES: urinario
FR: urinaire
EN: urinary

izond. Gernuari edo gernuaren sorrerari dagokiona.

urofilia:

ES: urofilia

FR: urophilie

EN: urophilia

iz. Gernuarekin kontaktuan sexu-kitzikapena lortzen duen sexu-joera.

urogenital:

ES: urogenital

FR: urogénital

EN: urogenital

izond. Gernubideei eta sexu-organoei dagokiena.

urologia:

ES: urología

FR: urologie

EN: urology

iz. Medikuntzaren adarra; gizon-emakumeen gernubidearen eta gizonezkoen ugaltzaren anatomiaz, fisiologiaz, gaixotasunez eta tratamenduaz arduratzen da.

urologo:

ES: urólogo

FR: urologue

EN: urologist

iz. Urologian aditua den eta giza gernu-sistema eta organo genitalak aztertzen dituen medikua.

Ikus: urologia.

urradura:

ES: desgarramiento, rozadura

FR: déchirure

EN: tear

iz. Gihar-zuntz ugari bortizki haustearen ondorioa. Larruazaleko edo mukosetako lesioa.

urratu:

ES: desgarrar, vulnerar, rozadura

FR: transgresser, déchirer, déchirure

EN: tear, infringe

1. *ad.* Eten edo hautsi. Lehen bagina-sarketak urratu egiten du emamintza. 2. *iz.* Larruazala igurzteagatik narritatzearen ondorioa. Trinkotasun gutxiko zerbait haustearen ondorioa. 3. *ad.* Lege edo eskubide bat hautsi; sexu-eskubide bat, esate baterako.

urre-koloreko euri:

ES:	lluvia dorada
FR:	douche dorée, onanisme
EN:	golden shower
	<i>sint. er.</i> Sexu-harremanetan, txiza eginez kitzikatzea.

urriaren 18a:

ES:	18 de octubre
FR:	16 octobre
EN:	16th October
	<i>sint. er.</i> Menopausiaren Munduko Eguna.

urriaren 1a:

ES:	1 de octubre
FR:	1 octobre
EN:	1st October
	<i>sint. er.</i> Adinekoen Nazioarteko Eguna.

urriaren 7a:

ES:	7 de octubre
FR:	7 octobre
EN:	7th October
	<i>sint. er.</i> Espainian Antisorgailuak Despenalizatu ziren Eguna (1978).

urrindu:

ES:	aromatizar
FR:	aromatiser
EN:	aromatise
	<i>ad.</i> Zerbaiti lurrina edo usain gozoa eman.

urrintsu:

ES:	aromático
FR:	aromatique
EN:	aromatic
	<i>Ikus:</i> aromatiko.

urrintze:

ES:	aromatización
FR:	aromatisation
EN:	aromatisation
	<i>Ikus:</i> aromatizazio.

urritasun:

ES: deficiencia

FR: déficience

EN: impairment

iz. Akatsa edo gabezia; gizabanakoari jarduera arrunta eragozten dioten anormaltasun anatomiko, fisiologiko edo psikologikoen ondorio da.

usaimen:

ES: olfato

FR: olfaction, odorat

EN: smell, olfaction

iz. Usainak hautematen dituen zentzumena; usaimen-nerbioen kitzikapenari esker betetzen du bere egitekoa. Sexu-harremanetan usainak zeregin handia du, batik bat feromonak hautemateko.

usaimen-:

ES: olfativo

FR: olfactif

EN: olfactory

(Hitz elkartuetan) Usaimenari dagokiona.

usaimen-nerbio:

ES: nervio olfativo, nervio olfatorio

FR: nerf olfactif

EN: olfactory nerve

iz. Usaimenarekin loturiko nerbio pareak; harizpi fin askok osatzen dute, usaimen-guneko mukosan adarkaturik.

usain:

ES: olor

FR: odeur

EN: odour

iz. Usaimena kitzikatzen duen lurruna edo emanazioa.

usain egin:

ES: oler

FR: sentir

EN: smell

Ikus: usaindu.

usaindu:

ES: oler

FR: sentir

EN: smell

ad. Usaina hauteman.

usaintsu:

ES:	oloroso
FR:	odorant
EN:	odorous

izond. (Edozein gairi buruz) Usaina duena.

ustekabeko abortu:

ES:	aborto espontáneo
FR:	fausse couche spontanée
EN:	spontaneous abortion, miscarriage

sint. er. Haurdunaldiko 20. astea baino lehen gertatzen den abortua. Eskuarki, oharkabezkoa izan ohi da, emakumeak haurdun dagoela jakin aurretik gertatzen baita, gehienetan.

utero:

ES:	útero
FR:	utérus
EN:	uterus, womb

iz. Obulu ernaldia jasotzen duen eta kanporatu bitartean fetua gordetzen duen ugaltza-organoko organo femeninoa, pareta gihartsuak dituen.

Ikus: umetoki.

uteroa retro jarreran:

ES:	útero en retro
FR:	utérus rétroversé
EN:	retro uterus

sint. er. Distopia genital mota; uteroa ez dago bere tokian edo bere ohiko jarreran. Distopia hori finkoa edo mugikorra izan daiteke. Batzuetan, manipulazio bidez bere lekura eraman daiteke. Berez ez da larria, baina mina eman dezake, eta beste organo batzuei eragin.

utzi:

ES:	abandonarse
FR:	s'abandonner; se délaisser
EN:	abandon oneself

1. *ad.* Eramaten utzi, eta topaketa erotikoa edo autoerotismoan libreki espresatu.
2. *ad.* Elikaduran, gorputz-itxuran, norberaren garbiketan eta abarretan zabartu.

uzki:

ES:	ano
FR:	anus
EN:	anus

iz. Digestio-hodia amaitzen den irekigunea, ipurtaldearen erdian dagoena; inguratzen duten barneko eta kanpoko esfinterrak dira itxiazten dutenak. Perineoaren behealdean dago, kanpoko sexu-organoen atzean. Sexu-organotako nerbioen sare bereko nerbio-bukaerak daude uzkian, eta horrek sentikortasun handia ematen dio. Inguratzen duten ehunak alutik eta eskrototik datoza, eta sentiberak dira oso. Gizonetan prostatatik gertu dago uzki-kanala, eta emakumeetan baginaren atzealdean; ondorioz, sentipen erotikoa indartsuak dakartza kanalaren kitzikapenak.

uzki-:

ES:	anal
FR:	anal
EN:	anal

(Hitz elkartuetan) Uzukiari dagokiona.

Ikus: uzkiko.

uzki-aro:

ES:	fase anal
FR:	stade anal
EN:	anal stage

iz. Teoria psikoanalitikoaren arabera, libidoaren garapenaren bigarren fasea, sabela hustearekin eta horren inguruko plazerarekin lotua. Bi-hiru urteren tartean gertatzen da; kaka balio handikoa bihurtzen da haurrarentzat aldi horretan.

uzki-esfinter:

ES:	esfinter anal
FR:	sphincter anal
EN:	anal sphincter

iz. Eratzun-formako giharra; uzkia itxiazten du. Digestio-hodia amaitzen den irekigunea da, ipurdiaren erdian dagoena; uzkitik kanporatzen da digeritu gabeko janaria. Uzkia inguratzen duten barneko eta kanpoko esfinterrek itxiazten dute.

uzkiko:

ES:	anal
FR:	anal
EN:	anal

izlag. Uzukiari dagokiona.

uzki-koito:

ES:	coito anal
FR:	coït anal
EN:	anal coition, anal intercourse

iz. Zakila sexukidearen uzkian sarturik dagoela, zakila eta uzkia igurztean datzan jokabide erotikoa.

uzki-sarketa:

ES:	penetración anal
FR:	pénétration anale
EN:	anal penetration

iz. Zakila uzkian sartzea.

Ikus: greko.

uzki-sexu:

ES:	sexo anal
FR:	sexe anal
EN:	anal sex

iz. Uzkiarekin zerikusia duten jarduera erotikoen multzoa.

uzkurdura:

ES:	contracción
FR:	contraction
EN:	contraction

iz. Neurri-murritzeta; bereziki, gihar-zuntzen neurriarena.

Ikus: kontraktura.

uzkurkor:

ES:	contráctil
FR:	contractile
EN:	contractile

izond. Uzkurtzen dena. Luzeraz zein neurritz laburtzeko edo zenbait estimuluren aurrean biltzeko gai dena.

uzkurkortasun:

ES:	contractilidad
FR:	contractilité
EN:	contractility

iz. Uzkurtzeko ahalmena. Atal anatomiko bat noranzko batean laburtu eta bestean luzatu egiten da.

uzkurraldi:

ES:	período refractario
FR:	période réfractaire
EN:	refractory period

iz. Gizonak eiakulatu eta berriro erektzioa izateko behar duen denbora-tartea. Tarte horretan, behera egiten du sexu-gogoak. Gutxiago edo gehiago iraun dezake fase horrek, gizonaren adinaren eta beste zenbait faktoreren arabera. Emakumeen sexu-gogoa, aldiz, ez da hain azkar apaltzen; horrenbestez, ez dute uzkurraldirik izaten, eta lehengoratzefasea motelagoa izaten da.

Ikus: zapuzte.

uzkurtu:

ES:	contraer
FR:	contracter
EN:	contract, tense

ad. Gihar-ehunetan bat-bateko uzkurdura izan. Zerbaiten bolumena edo luzera murriztu.

uztailaren 11a:

ES: 11 de julio
FR: 11 juillet
EN: 11th July
sint. er. Populazioaren Munduko Eguna.

uztailaren 5a:

ES: 5 de Julio
FR: 5 juillet
EN: 5th July
sint. er. Espainian Abortua Despenalizatu zen Eguna (1985)



Venusen mendi:

ES: monte de Venus

FR: pubis

EN: mons pubis

iz. Emakumearen alde pubikoan nerabezaroan eratzen den triangelu ilez (eskuarki) estalia.

Ikus: pubis.

viagra:

ES: viagra

FR: viagra

EN: Viagra

iz. Odol-fluxua zakilera iristen laguntzen duen sendagai baten izen komertziala. Zakila tentetzen laguntzen du. Sildenafil zitratua du oinarritzat.

vigorexia:

ES: vigorexia

FR: vigorexie

EN: vigorexia

iz. Gorputzaren ardura handiegia ezaugarri duen asaldua; gorputz-ariketa gehiegi eta indartzeko elikadura obsesiboa ditu ezaugarri.

voyeur:

ES: voyeur

FR: voyeur

EN: voyeur

izond. Biluzirik dagoen pertsona bat edo jardura erotikotik ari diren bikoteak ikusteak kitzikatzen duena, haiek hura ikusten ez dutela.

voyeurismo:

ES: voyeurismo

FR: voyeurisme

EN: voyeurism

iz. Pertsona ezezagunak harreman erotikotik nahiz biluzten ari direla ikusiz plazera lortzen duenaren portaera.



web-orria:

ES: web (pagina)

FR: web (page)

EN: web (site)

iz. Nabigatzailearen bidez ikus daitekeen orria; orri hori HTML artxibo bakar batez definiturik dago, eta URL helbide bakar bat du.

webcam:

ES: webcam

FR: webcam

EN: webcam

iz. Ordenagailu bati konektatutako bideokamera digitala; Internet bidezko irudiak jasotzeko eta bidaltzeko erabiltzen da. Irudiek harremanen gertutasun-pertzepzioa, desira eta jokaera erotikoa erraztu ditzakete.

webgune erotikoak:

ES: páginas web eróticas

FR: pages web érotiques

EN: erotic websites

iz. Kitzikadura lortzeko erabiltzen den elkarri loturiko eta helbide elektroniko berera bildutako web orri multzoa.

wireless dating:

ES: wireless dating

FR: wireless dating

EN: wireless dating

iz. Bluetooth teknologia erabiliz hitzordua egiteko edo topatzeko modua.

Ikus: tothing, bluechat.



X hirukoitzaren sindrome:

ES:	síndrome de la triple X
FR:	syndrome de Klinefeiter
EN:	triple X syndrome

iz. Kromosoma sexualen ezohiko konbinazio baten ondorioz sortutako zantzu multzoa. XXX kromosomak dituen izakia. Emea da eta haren ezaugarri nagusiak dira: ugalkortasun-arazoak eta adimen-atzerapena izateko arriskua.

X kromosoma:

ES:	cromosoma X
FR:	chromosome X
EN:	X chromosome

iz. Gizakiaren eta beste ugaztunen sexu-kromosoma bat. Gizakietan, 23. kromosoma-bikotean dago. Bikote hori XX denean, emakumea sortzen du; XY denean, gizona.

xixku:

ES:	vesícula
FR:	vésicule
EN:	vesicle

iz. Maskuri-tankerako eta pareta meheko hainbat gorputz edo zakuri ematen zaien izena.

xurgagailu:

ES:	aspirador
FR:	aspirateur
EN:	aspirator

iz. Umekiak umetokitik xurgapen bidez ateratzen dituen tresna. Haurdunaldia geldiarazteko erabiltzen da.

xurgaldi:

ES:	mamada
FR:	sucer
EN:	suck

iz. Aho-sexu mota; zakila zurruputzen eta miazkatzen da, hala mihiarekin nola ezpaineekin.

xurgatu:

ES: absorber

FR: absorber

EN: absorb

ad. Gaiak barneratu (ahoaz, esate baterako).

xurgatzaile:

ES: absorbente

FR: absorbant

EN: absorbent

izond. (Batez ere odol-hodiei eta linfa-hodiei buruz) Xurgatzeko gaitasuna duena.



Y kromosoma:

ES: cromosoma Y

FR: chromosome Y

EN: Y chromosome

iz. Animalia heterogamikoen kromosoma, arrek baino ez dutena. Eboluzioan zehar, X kromosomaren mutazioa da, eta hura baino txikiagoa izaten da.

Yuzpe prozedura:

ES: método Yuzpe

FR: méthode de Yuzpe

EN: Yuzpe method

iz. Eguneroko pilula antisorgailua dosi eta denbora-tarte berezietan hartzea, koito osteko pilularen funtzioak eginez.



zabaldu:

ES:	dilatar
FR:	dilater
EN:	dilate

Ikus: dilatatu.

zabaltze:

ES:	dilatación
FR:	dilatation
EN:	dilation

Ikus: dilatazio.

zaharkitu:

ES:	envejecer
FR:	vieillir
EN:	age

Ikus: zahartu.

zahartu:

ES:	envejecer
FR:	vieillir
EN:	age

ad. Zahar bihurtu; zahar-itxura hartu edo eman.

zahartzaro:

ES:	senectud
FR:	vieillesse
EN:	old age

iz. Giza bizitzaren azken zatia, heldutasunaren ondokoa; gutxi gorabehera 60 urte bete ondoren hasten da. Zahartzaroaren ezaugarri nagusiak dira: funtzio fisiologikoak eta psikologikoak ahultzea, ehunetako eta organoetako aldaketa atropikoak, eta, oro har, gizakiarengan eragina duten kanpoko faktoreetara egokitze gaitasuna gutxitzea. Gizakiari zahartzaroak eragiten dizkion ondorioen artean daude: azala zimurtzea, hezurak hauskor bihurtzea, giltzaduren malgutasuna galtzea, ikusmenaren eta entzumenaren galera, zainak gogortzea, oroimena galtzea eta, horrenbestez, adimen-bizkortasuna zurruntzea.

zahartze:

ES:	envejecimiento
FR:	vieillesse
EN:	aging

iz. Denborak bizidunengan eragiten duen aldaketa multzoa. Zelulek normal funtzionatzeko duten ezintasunagatik nahiz hiltzen diren edo desegoki funtzionatzen duten zelulak ordezkatzeko dituzten zelula berriak eratzeko ezintasunagatik gertatzen da.

zain:

ES:	vena
FR:	veine
EN:	vein

iz. Odola kapilarretatik bihotzera bideratzen duen odol-hodia. Hiru geruzaz osatuta daude zainak: barnekoa edo endoteliala, erdikoa eta kanpokoak. Odola itzultzea oztokatzen duten balbulak daude zainen barruan. Zainek arteriek baino geruza finagoak dituzte, eta arteriak baino elastikoagoak dira.

zakil:

ES:	pene
FR:	pénis
EN:	penis

iz. Gizonezkoen ugal-organo zutikorra, pubiseko aurreko eta kanpoko aldean dagoena. Gernua kanporatzea eta esperma baginara edo umetoki-lepora eramatea da zakilaren funtzio biologikoa. Plazer bizia eragin ohi du zakilak jarduera erotikotetan.

zakil-aro:

ES:	fase fálica
FR:	stade phallique
EN:	phallic phase

iz. Libidoaren sorreraren fasea, aho- eta uzki-fasearen ondorengoa, psikoanalisiaren ikuspegitik. Pultsio genitalak antolatzen dira fase horretan. Sexu-organo bakar bat da fase horren gunea: zakila; eta zakila duenaren eta ez duenaren kontrakotasuna agertzen da. Mutilaren kasuan, zakila da fase horretako gunea; neskaren kasuan, klitoria. 3 eta 6 urte artean garatzen da fase hori.

zakila estutzearen teknika:

ES:	técnica del apretón
FR:	technique de compression
EN:	squeeze technique

sint. er. Eiakulazio goiztiarra tratatzeko metodoa; eiakulazioa eragozteko, zakil-mokoa estutu egiten da tarte labur batez.

zakilaren estalki:

ES:	capuchón del pene
FR:	capuchon du gland
EN:	penis cap

Ikus: moko-azal.

zakil-eraztun:

ES: anillo para el pene

FR: anneau pénien

EN: penis ring

iz. Sexu-potentzia areagotzeko tresna; erabateko erekzioa lortu aurretik zakil-oinean jartzen den eraztuna da. Une horretan, torniketearen antzeko funtzioa betetzen du, odolari ez baitio zakiletik ateratzen uzten. Ondorioz, erekzioak gehiago irauten du.

zakil-estalki:

ES: capuchón del pene

FR: capuchon du gland

EN: penis cap

Ikus: moko-azal.

zakil-hari:

ES: frenillo

FR: frein

EN: frenulum

iz. Zakil-mokoa eta moko-azala lotzen dituen azal-haritxoa; zakil-mokoaren azpian dago. Zakil-haria motzegia bada, moko-azala aurrerantz irristatzen da zakila zutik dagoenean, (ez dio uzten moko-azalari atzeratzen) eta horrek mina, lesioak eta ondoeza ekar ditzake. Dispareunia eragin dezake, eta komeni da medikuak tratatzea.

zakil-luzagarri:

ES: alargador de pene

FR: extenseur du pénis

EN: penis extension

iz. Plastikozko gailua, zakila sartzeko hodi bat duena; airea xurgatzen du, eta zakila tente jartzen edo luzarazten; masturbaziorako ere erabiltzen da.

zakil-moko:

ES: glande, balano

FR: gland

EN: glans

Ikus: glande.

zakil-xurgatze:

ES: succión del pene

FR: sucer le pénis

EN: sucking penis

Ikus: felazio.

zaku:

ES:	saco
FR:	sac
EN:	sac

Poltsa-itxura duen organo nahiz barrunbea; horma bigunez inguratua egon ohi da. Likidoz betea egoten da sarritan, eta irekiguneduna zein irekigunerik gabea izan daiteke.

Ikus: xixku.

zaku amniotiko:

ES:	saco amniótico
FR:	sac amniotique
EN:	amniotic sac

sint. er. Bi ehunez osaturiko estalkia; enbrioia babesten du, eta ernaldutik ondorengo zortzigarren edo bederatzigarren egunean osatzen da. Barruko ehunari amnios deritza, eta barruan likido amniotikoa eta fetua biltzen ditu. Kanpoko ehunari korion deritza. Karenaren osagai dira ehun horiek.

Ikus: karen, plazenta.

zaldikatu:

ES:	cabalgar
FR:	monter à cheval
EN:	ride

ad. Zangalatrau jarri.

zantzu:

ES:	signo
FR:	signe
EN:	sign

iz. (Osasun arloan) Gaixotasun edo egoera baten ezaugarri objektiboa; medikuak atzematen du. Zantzu asko sintomekin batera agertzen dira.

Ikus: ondorio-arrasto.

zapore:

ES:	sabor
FR:	saveur
EN:	taste

iz. Gorputz batek dastamen-organoan eragiten duen sententzioa.

zapuzte:

ES:	retramiento
FR:	retraite
EN:	retreat, withdrawal

iz. Arrisku fisiko baten edo estres handiaren aurrean izaten den erreakzio arrunta. Haren ezaugarri dira: apatia, letargia, depresioa, norberarenganako atzerapena eta, kasu larrietan, katatonia eta laborria.

zauri:

ES:	herida
FR:	plaie
EN:	wound

iz. Larruazala haustea eragiten duen edozein lesio fisiko. Istripuz gertatzen da, gehienetan.

zelibatu:

ES:	celibato
FR:	célibat
EN:	celibacy

iz. Apaiz katolikoek eta erlijio-ordena jakin batzuetako gizon-emakumeek hartutako konpromisoa, ezkongabe eta kastitatean bizitzeko. Besterik gabe, ezkongabe-egoerari ere hala deritzo.

Ikus: kastitate.

zelotipia:

ES:	celotipia
FR:	idée de jalousie
EN:	extreme jealousy

iz. Jelosia eragindako eldarniozko ideia. Bikotekideari funtsik gabe ala arrazoituta desleialtasuna egoztean datza.

zelula:

ES:	célula
FR:	cellule
EN:	cell

iz. Ehun bizien oinarritzko osagaia. Zelula eukariotoak nukleo batez, zitoplasmaz eta mintz zitoplasmikoak inguratzen dituzten organuluek osatuak daude.

zentsura:

ES:	censura
FR:	censure
EN:	censure

1. *iz.* Freudek eta psikoanalisiak erabilitako kontzeptua, errepresioaren gisako kontrol-mekanismo bat adierazten duena eta zenbait desira kontziente bihurtzea galarazten duena. 2. *iz.* Gobernuak arte, argitalpen eta ikuskizunen gainean ezarritako kontrola. Esate baterako, liburuak, prentsa, telebista, margolanak, filmak eta abar debekatzea.

zentzumen:

ES:	sentido
FR:	sens
EN:	sense

iz. Gorputzen ezaugarriak hautemateko gaitasuna. Ikusmena, usaimena, entzumena, dastamena, ukimena eta grabitatearekiko sentikortasuna (oreka) dira zentzumen nagusiak. Sexu-harremanetan, oinarritzko zeregina dute.

zentzumen-organo:

ES: organo sensorial
FR: organe des sens
EN: sensory organ

iz. Ingurunearen zenbait ezaugarri (usaina, itxura eta kolorea, hotsa, hotz-beroa, zaporea, egitura) hautematen dituen organoa.

zerbikal:

ES: cervical
FR: cervical
EN: cervical

1. *izond.* Lepokoa, edo hari dagokiona; garondokoa, edo hari dagokiona. 2. *izond.* Lepoaren antzeko egitura duen gune estuari dagokiona; esate baterako, hortz baten lepoari edo umetokiko lepoari.

zerbitzu:

ES: servicio
FR: service
EN: service

iz. Erakunde edo taldea; jendearen beharrak asetzea du helburu.

zerebral:

ES: cerebral
FR: cérébral
EN: cerebral

izond. Garunari dagokiona, edo garunean dagoena.

zesarea:

ES: cesárea
FR: césarienne
EN: caesarean section

iz. Ebakuntza mota; sabelaldeko paretan eta umetoki-paretan ebaki bana eginez fetua, plazenta eta obulu-mintzak amaren sabeletik ateratzean datza. Amaren edo fetuaren aldetik anomaliaren bat dagoenean egiten da, erditze baginala arriskutsua izan daitekeen kasuetan.

zesareaz jaiotako:

ES: nonato
FR: née par césarienne
EN: infant born by caesarean section

izlag. Modu naturalean jaio ez dena; amaren sabelean ebaki bat eginez atera den haurra.

zibersexu:

ES:	cibersexo
FR:	cyber-sexe
EN:	cybersex

iz. Interneteko zenbait ataritan trukutzen diren informazio, objektu erotiko, txiste, iragarki pertsonal, eduki grafiko eta ikusentzunezko edukiak, edo izaera erromantiko edo erotikoa duen Internet bidezko komunikazioa. Harreman berriak sortzeko edo bizipen erotikoak izateko aukera anitz eskaintzen ditu. Zibersexuaren ezaugarrietako bat da nork bere nortasuna ezkutuan gordetzeko aukera.

zigoto:

ES:	cigoto, zigoto
FR:	zygote
EN:	zygote

iz. Bi gametoren arteko elkarketatik sortutako izaki berria. Espermatzoide batek obulu bat ernaltzean sortzen den zelula.

zikiratu:

ES:	capar, eunuco
FR:	castrer, eunuque
EN:	geld, eunuch

1. *ad* Ugal-organoak erauzi, edo ugaltzeko ahalmenik gabe utzi. 2. *iz.* Gizon irendua. 3. *iz.* Gizon emakara. 4. *iz.* Haremeko emakumeak zaintzeko lana zuen gizon irendua. 5. *iz.* Ekialdeko antzinako historian, errege baten ministroa edo zerbitzari gogokoa.

Ikus: irendu.

zikiratze:

ES:	castración
FR:	castration
EN:	castration

iz. Gonadak (barrabilak nahiz obulutegiak) erauztea. Mutiko bati barrabilak erauziz gero, haren hezurak mehe haztea lortzen da, eta orobat haren giharrek eta organo genitalek garapen urria izatea; gainera, ahots fina izaten du halakoak. Aldiz, neskato bat zikiratuz gero, ez dira bigarren mailako sexu-ezaugarriak agertzen, eta haurtzaroan zeuden bezala geratzen dira sexu-organoak. Bularreko nahiz prostatakako tumoreen tratamenduan, zikiratu izan dira helduak, zenbaitetan.

Ikus: antzutze kirurgiko, irentze.

zikliko:

ES:	cíclico
FR:	cyclique
EN:	cyclic

izond. (Gai osatu organikoei buruz) Zikloka gertatzen dena; kate itxia duena.

ziklo:

ES:	ciclo
FR:	cycle
EN:	cycle

iz. Denbora-tarte zehatzen ondoren, beti ordena berean errepikatzen den gertakari multzoa.

zilbor:

ES:	ombligo
FR:	ombilic
EN:	umbilicus, belly button

iz. Sabelaldeko gunea; hor elkartzen da zilbor-hestea fetuaren sabelaldearekin. Pertsona gehienetan, gune hondoratua izaten da, baina irtengune gisa ageri da zenbait kasutan.

zilbor-:

ES:	umbilical
FR:	ombilical
EN:	umbilical

(Hitz elkartuetan) Zilbor-hesteari dagokiona. Zilborrari dagokiona.

zilbor-heste:

ES:	cordón umbilical
FR:	cordon ombilical
EN:	umbilical cord

iz. Organo luze eta malgua; karena eta fetua lotzen ditu, eta fetuaren elikadurarako ezinbestekoak diren bi arteria eta zain bat ditu.

zirkunzizio:

ES:	circuncisión
FR:	circoncision
EN:	circumcision

Ikus: erdaintuntza.

zistitis:

ES:	cistitis
FR:	cystite
EN:	cystitis

iz. Gernu-maskuriari eta ureterrei erasaten dien hanturazko asaldua. Mina, pixa egiteko larritasuna, maiz pixa egin beharra eta hematuria ditu ezaugarri. Zistitisaren eragile izan daitezke: bakterio-infekzioak, kalkulak eta tumoreak.

Bada beste zistitis mota bat, zakila baginan sartzearen ondoriozkoa: uzkurdurak izaten dira gernu-maskurian eta uretra-paretan, eta zistitisa eragin dezake horrek. Koitoa hastean edo sexu-uzte garai luze bat amaitzean gerta daiteke zistitis mota hori.

zitologia:

ES: citología

FR: cytologie

EN: cytology

iz. Zelulen azterketa; zelulen sorrera, jatorria, egitura, funtzioak, jarduera biokimikoa eta asaldak aztertzen dira.

zoofilia:

ES: zoofilia

FR: zoophilie

EN: zoophilia

iz. Kitzikatzeko eta sexu-plazererako animaliak erabiltzea.

zorri:

ES: piojo

FR: pou du corps

EN: body louse

iz. Anopluruen eta malofagoen ordenetako intsektuen izen arrunta. Ugaztun eta hegaztien parasito dira; zenbait espezie, buru-zorria (*Pediculus humanus capiti*), gorputz-zorria (*P. humanus corporis*) eta pubis-zorria (*Phthirus pubis*) gizakiaren parasito dira.

zulatu:

ES: perforar

FR: perforer

EN: perforate

ad. Zerbait zeharkatuz zulo bat egin. Himena urratzeari deitu izan zaio horrela hizkera arruntean.

zulo:

ES: orificio

FR: orifice

EN: orifice

1. *iz.* Gainazal bateko irekigune edo barrunbea. 2. *iz.* Zerbaiten alde batetik besterainoko irekidura. 3. *iz.* Erliebearen hedadura gutxiko sakongunea. 4. *iz.* Giza gorputzaren sarrera; oro har, bereziki sentikorrak dira gorputzeko sarrera-zuloak, eta haietan kontzentratzen eta gauzatzen dira jokaera erotikoetako asko.

zupa-zupa:

ES: mamada

FR: sucer (le pénis)

EN: blow job

Ikus: zurrupada.

zurrun:

ES:	rígido
FR:	rigide
EN:	rigid

izond. Malgutasunik ez duena; indarra egin arren okertzen edo deformatzen ez dena. Kitzikapen-fasean, gorputz ataletako batzuek ezaugarri hori hartzen dute, hala nola, titiburuek, zakilak eta klitoriak.

Ikus: tente.

zurrundu:

ES:	ponerse ríido
FR:	raidir
EN:	stiffen

Ikus: gogortu.

zurruntze:

ES:	ponerse ríido
FR:	raidissement
EN:	stiffening

Ikus: gogortze.

zurrupada:

ES:	mamada
FR:	sucer
EN:	blow job

iz. Behingoan ahoratzen edo irensten den likido kantitatea.

Ikus: hurrupada.

zurrupatu:

ES:	mamar
FR:	sucer
EN:	suck

ad. Ezpainez ukituz eta aldi berean arnasa hartuz, gai, objektu edo gorputz atalen bat erakarri, eta ahoan barneratu.

Ikus: hurrupatu.

zut:

ES:	tieso, erecto
FR:	raide, tendu
EN:	tight, erect

izond. Zuzen, irmo, tente.

Ikus: tente.

zutikor:

ES:	eréctil
FR:	érectile
EN:	erectile

Ikus: tentekor.

zutitu:

ES:	levantarse
FR:	se lever, bander
EN:	rise

Ikus: tentetu.

zutitzaile:

ES:	erector
FR:	érecteur
EN:	erector

izond. (Giharrei, nerbio-zentroei eta nerbio-zuntzei buruz) erekzioa eragiten edo atal bat zurrun mantentzen duena.

zutitze:

ES:	erección
FR:	érection
EN:	erection

Ikus: tentetze.